

# TXOSTENA IXOSTENA

## 26

**GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO**

**EAE-KO LAUGARREN BERDINTASUN**

**PLANA BETETZEKO BOTERE PUBLIKOEN**

**JARDUERA. VIII. LEGEALDIRAKO**

**JARRAIBIDEAK (2006-2009)**



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



**GIZONEN ETA EMAKUMEEN  
ARTEKO EAE-KO LAUGARREN  
BERDINTASUN PLANA  
BETETZEKO BOTERE  
PUBLIKOEN JARDUERA.  
VIII. LEGEALDIRAKO  
JARRAIBIDEAK (2006-2009)**

EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Gasteiz 2011

<b>IZENBURUA (lan osoa):</b>	“Berdintasunerako politiken ebaluazioa eta emakumeei eta gizonei buruzko zifrak EAEn”
<b>IZENBURUA (2. tomoa):</b>	“Gizonen eta emakumeen arteko EAeko laugarren berdintasun Plana betetzeko botere publikoen jarduera. VIII. Legealdirako jarraibideak (2006-2009)”
<b>EDITOREA ETA EGILEA:</b>	EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
<b>LAN TALDE TEKNIKOA:</b>	Koordinatzailea: Maribel Pizarro Pacheco Ikertzaile nagusia: Ainara Arnosó Martínez Teknikariak: Idoia Larrañaga Hernández, Laura Gómez Hernández Psikologia Sozial eta Portaera Zientzien Metodologia Saila. Psikologia Fakultatea. UPV/EHU
<b>MAKETAZIOA ETA JARRAIPENA:</b>	ARRIN. Komunikazioa eta Diseinua
<b>DISEINU GRAFIKOA:</b>	Ana Badiola, Isabel Madinabeitia eta Ana Rincón
<b>DATA:</b>	2011eko azaroa
<b>DESKRIBATZAILEAK (lan osoa):</b>	Berdintasunerako politikak, herri administrazioa, autonomia erkidegoetako araudia, ekintza planen ebaluazioa, aukera berdintasuna, emakumearen gizarte-egoera, datu estatistikoak, jarduera txostenak
<b>DESKRIBATZAILEAK (2. tomoa):</b>	Autonomi administrazioa, toki administrazioa, berdintasunerako politikak, jarduera txostenak, ekintza planen ebaluazioa
<b>ALE KOPURUA:</b>	500
<b>INPRIMAKETA:</b>	SACAL
<b>ISBN (lan osoa):</b>	84-89630-33-X 978-84-89630-33-8
<b>ISBN (2. tomoa):</b>	84-89630-36-4 978-84-89630-36-9
<b>L.G.:</b>	VI 735-2011

## AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b> .....	7
<b>SARRERA</b> .....	11
<b>1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN DESKRIBAPEN LABURRA</b> .....	15
<b>1.1.</b> Helburu orokorrak .....	17
<b>1.2.</b> Planaren metodologia.....	17
<b>1.3.</b> Planaren egitura .....	19
<b>1.4.</b> IV. Plana gauzatu duten erakundeak.....	20
<b>2. EBALUAZIOAREN METODOLOGIA</b> .....	23
<b>2.1.</b> Ebaluazioaren helburuak.....	25
<b>2.2.</b> Ebaluazio mota eta ebaluazioaren diseinua.....	25
<b>2.3.</b> Datuak biltzeko teknikak eta datuen azterketa.....	26
<b>2.4.</b> Erakunde publikoen parte-hartzea ebaluazioan .....	28
<b>3. EBALUAZIOAREN EMAITZAK</b> .....	31
<b>3.1.</b> Ekintzen joera orokorrak.....	35
<b>3.1.1.</b> Ekintzen ezaugarri orokorrak.....	35
<b>3.1.2.</b> Laugarren planak lortu duen exekuzio maila .....	41
<b>3.2.</b> IV. Plana ezartzeko ekintzak .....	44
<b>3.2.1.</b> Laugarren plana bultzatzeko eta koordinatzeko neurriak .....	44
<b>3.2.2.</b> Laugarren planaren programazioa eta ebaluazioa .....	45
<b>3.3.</b> Mainstreaming ardatzean egindako jarduerak .....	49
<b>3.3.1.</b> Azterketa orokorra: 2006-2009 bilakaera .....	49
<b>3.3.2.</b> Mainstreaming ardatzean barne hartutako programa bakoitzaren ebaluazioa .....	53
<b>3.4.</b> Emakumeen ahalduntzea eta partaidetza soziopolitiko ardatzean egindako jarduerak .....	77
<b>3.4.1.</b> Azterketa orokorra: 2006-2009 bilakaera .....	77
<b>3.4.2.</b> Ahalduntzea eta partaidetza soziopolitiko ardatzean barne hartutako programa bakoitzaren ebaluazioa .....	83
<b>3.5.</b> Bateragarritasun eta erantzukidetasun ardatzean garatutako jarduerak: Gizarte eredu berriaren bila .....	130
<b>3.5.1.</b> Azterketa orokorra: 2006-2009 aldiko bilakera .....	130
<b>3.5.2.</b> Bateragarritasun eta erantzukidetasun ardatzeko programa bakoitzaren ebaluazioa.....	135
<b>3.6.</b> Emakumeen aurkako indarkeria ardatzean landutako jarduerak .....	160
<b>3.6.1.</b> Azterketa orokorra: 2006-2009 aldiko bilakera .....	160

3.6.2.	Emakumeen aurkako indarkeria ardatzaren barneko programa bakoitzaren ebaluazioa .....	165
<b>4.</b>	<b>ONDORIOAK ETA BALORAZIOA</b> .....	193
4.1.	EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana gauatzeko erabilitako (eta sortutako) baliabideak .....	195
4.2.	Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planaren gauatzeko maila: alderdi kuantitatiboa eta kualitatiboa .....	198
4.3.	Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planean jasotako esku-hartze ardatzetako helburuen ebaluazioa .....	201
4.3.1.	Kultura arloa .....	202
4.3.2.	Osasun arloa .....	203
4.3.3.	Hezkuntza arloa .....	207
4.3.4.	Lana arloa .....	210
4.3.5.	Gizarteratzea arloa .....	213
4.3.6.	Ingurumena, hirigintza eta garraio publiko arloa .....	218
4.3.7.	Zeharkako helburuak.....	220
4.4.	Balorazio orokorra.....	221
<b>ERANSKINA:</b>	<b>EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana: VIII. legealdirako jarraibideak ebaluazioan erabilitako galdesortak eta materiala.....</b>	<b>225</b>



**AURKEZPENA**







Argitalpen honek lau liburuki ditu: berdintasunerako politika publikoen hiru ebaluazio-txosten eta Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko txosten bat. Gure ustez, politika publikoak ebaluatzea funtsezkoa da, aurrera egingo badugu haiek garatzen eta, batez ere, haiek gizar-tean duten eragina hobetzen, eta kasu zehatz honetan, gizarte berdinzaleago bat sortzeko eragina areagotzen.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen lehen xedapen gehigarrian ezartzen denaren arabera, Emakunderi atxikiriko Erakundearteko Batzordeak Legearen betetze, garapen eta aplikazioari buruzko jarraipena egin behar du, bost urtean behin.

Argitalpen honetan, 2010. urtean egindako ebaluazioa aurkezten da, eta horrekin ematen zaio amaiera 2005ean hasitako ziklo bati (urte horretan hasierako ebaluazioa egin zen, eta 2008an, tartekoa). Ebaluazio horren helburua da, hain zuzen ere, Legean ezarritako neurriak ezartzeko prozesuan zehar nahikoa elementu izatea, erkaketak egin ahal izateko.

Legearen ebaluazioarekin batera, botere publikoek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana gauzatzeari buruzko memoria aurkezten dugu. IV. Plana -legea aldarrikatu ondorengo lehena- dokumentu bat da, non lehentasunak ezartzen diren eta helburuak eta estrategiak zehazten, araua ezartzen aurrera egin ahal izateko. Planaren ebaluazioa, beraz, Legearen beraren ebaluazioaren osagarria da.

Aurretik egindako neurketak osatzeko, azterketa kualitatibo bat ere egin da, eta horren bitartez baloratu da zein faktorek sustatzen eta/edo oztopatzen duen toki administrazioetan berdintasun-politiken garapena, eta nolako balioa ematen zaien tresna jakin batzuei -Legeari, berdintasun-planei eta prestakuntzari, besteak beste-, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken kapital soziala (esan nahi baita jakintza, jarrera proaktiboa, harremanak, sareak, etab.) sortzerakoan.

Azkenik, emakume eta gizonen egoerari buruz Emakundek urtero egiten duten txostenean, garrantziaren arabera hautaturiko datu batzuk jasotzen dira, gure gizar-tean emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen eta desberdintasunak zuzentzean egindako aurrerabideen eta aurkitutako oztopoen erakusgarri.

Argitalpen honetan elkarrekin aurkezten ditugun lau azterlanei esker, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken inguruan Euskal Administrazio Publikoak izan dituen azken joeren argazki global bat egin dezakegu.

Emakunderen nahia da argitalpen hauek hausnarketarako tresna izatea, eta bide-erakusle, bihar-etziko berdintasun-politikak planifikatzerakoan.

Eskerrik asko.

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'María -', with a large, stylized flourish above it.

María Silvestre Cabrera

EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

S

**SARRERA**



Txosten honetan, Gobernu Batzordeak 2006ko irailaren 26ko bilkuran onartu zuen Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako IV. Planaren (IV. Plana edo Berdintasunerako Plana, aurrerantzean) exekuzio maila zein den jakiteko egindako ebaluazioan bildutako emaitzak jasotzen dira. Plan horren neurrien xedea, emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra sustatzea da, hainbat esku-hartze arlotan: partaidetza soziopolitikoak; kultura eta komunikabideak; hezkuntza; lana; oinarrizko beste gizarte eskubide batzuk; bizitza pertsonala, familiara eta profesionala uztartzea eta emakumeen aurkako indarkeria.

Laugarren Planaren ebaluazioari dagokionez, Gobernu Batzordeak, Berdintasunerako Plana onetsi zuen bilkura berean, aipatutako Plan hori bultzatzea eta haren koordinazio orokorraz arduratzea eskatu zion Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari. Horrez gain, euskal administrazio publikoek garatutako berdintasunerako neurrien eta ekintzen jarraipena ere haren esku utzi zuen. Bestalde, Berdintasunerako 4/2005 Legearen lehen xedapen gehigarriaren arabera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak (Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikita dagoena) lege hori nola ari den betetzen, garatzen eta aplikatzen aztertuko du.

Agindu horiei jarraiki, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak ebaluazio hori Psikologia Fakultateko Psikologia Sozial eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak egitea hitzartu zuen Euskal Herriko Unibertsitatearekin, lankidetzaz hitzarmen baten bidez.

Ebaluazio horren emaitzak lau zatitan banatu dira:

1. zatian, IV. Planaren deskribapena egiten da: helburuak, metodologia, egitura eta parte hartu duten erakundeak.
2. zatian, egindako ebaluazioaren metodologiarekin zerikusia duten zenbait alderdi biltzen dira: helburuak, ebaluazio motak, erabilitako datuak biltzeko tresnak eta ebaluazioan parte hartu duten erakundeak.
3. zatia, lortutako emaitzei buruzkoa da, eta sei zatitan dago antolatuta: lehenengoan, herri agintariak Berdintasunerako IV. Planaren lau urteko indarraldian burututako ekintzetan antzemandako joera orokorrak jasotzen dira, besteak beste, hauei dagokienez: ardatz estrategikoak, esku-hartze arloak, programak, erabilitako esku-hartze tresnak eta ekintzen hartzaileak izan diren taldeak; bigarrean, lau urte horietan IV. Plana gauzatzeko helburuz egindako jardueren ikuspegia ematen da eta gainerako lau zatitan, IV. Planean ezarritako ardatz estrategiko bakoitzean (Mainstreaming; Ahalduntzea eta partaidetza soziopolitikoak; Bateragarritasun eta erantzukidetasuna eta Emakumeen aurkako indarkeria) egindakoen joerak azaltzen dira.
4. zatian, IV. Planaren lau urteko indarraldiari, egindako aurrerapenei eta izandako eragozpenei buruzko zenbait ondorio eta balorazio egiten dira. Halaber, gure ikuspegitik, etapa berrian aurre egin beharko diegun erronka berri eta zaharrak azaltzen dira.



# 1

## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN DESKRIBAPEN LABURRA**





## HELBURU OROKORRAK

# 1.1

Laugarren plana aurreko hiru planetan izandako bilakaeraren eta aurrerapenen emaitzat hartzen da. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea onartzearen ondorioz sortutako aukerei erantzutea du helburu.

Laugarren planak, VIII. Legealdian, berdintasunaren arloan, euskal herri aginteen jarduna bideratu behar duten ildo nagusiak jasotzen ditu, eta oinarrizko helburu hauek betetzen lagunduko duen tresna moduan definitzen da:

- Legearen artikulua bete, gara eta ezar daitezten sustatzea.
- Jauzi kualitatiboa egitea, politiken orientazioa gehiago zehazteko. Hala, lehentasuna emango zaie berdintasuna iraunkor egin eta biderkatuko duten zenbait helbururi, eta helburu horietara mugatu beharko dira, hain zuzen, erakundeak.
- Ezartzeaz arduratu diren pertsonen jarduera esparruak argitasun eta koherentzia handiagoaz definitzea, hainbat urtetan lan bikaina egin dutelako eta haien esperientzia eta ezagutzei esker, erronka berriei aurre egiteko aukera ematen dutelako.
- Orain arte, eginkizun nagusia izan duten eta gaur egun, erronka garrantzitsuei aurre egiten dieten egituren eta kudeaketa eta koordinazio sistemen garapena eta eraginkortasuna handitzea.
- Berdintasunerako politika publikoak izaten ari diren eragina agerian uztea, abiapuntuko gizarte egoerak neurtuz eta IV. Planaren indarraldian izan duten bilakaera aztertuz.

## PLANAREN METODOLOGIA

# 1.2

Aurreko berdintasunerako planetan bezala, IV. Plana egiteko erabili dugun metodologiak berdintasunean adituak diren eta zenbait diziplinatan lan egiten duten pertsonen partaidetaz gain, hainbat gizarte esparrutatik eta erakundetatik etorritako pertsonen partaidetza ere sustatu dute.

Jarraitutako prozesua bi etapatan antolatu genuen: lehenengoan, planak Berdintasunerako Legea egokitzeko planak aurkeztu behar zuen egitura berria definitu genuen; bigarreanean, haren eduki zehatzak azaldu genituen.

LEHEN ETAPA (egitura definitzea)

- Diziplina anitzeko talde bat osatzea berdintasunean ezagutzak dituzten pertsonekin, arlo hauetatik: zuzenbidea, antolaketa eta kudeaketa, antropologia, soziologia eta psikologia.
- Aholku Batzordea sortzea. Batzorde horrek, aurreko berdintasun planen indargune eta ahultasunei buruzko lehen diagnostikoa egin zuen, eta Legeak eta IV. Planak ekarritako mehatxuak eta aukerak azaldu zituen.

- Dokumentazio esanguratsua berrikustea eta aztertzea (berdintasunari buruz dagoen legedia; Estatuko eta EAEko berdintasun politikei buruzko materialak; EAEko Berdintasunerako Planak; administrazio orokorraren urteko programazioa eta Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiboen III. Planaren ebaluazioak).
- Adituei elkarrizketa sakonak egitea, Plan berriak ase behar lituzkeen beharrei buruz duten iritzia jakiteko, eta, horren arabera, Planak bete beharko lukeen egituraren ezau-garriak zein diren zehazteko.
- Bi eztabaida talde dinamizatzea: bata, Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiboen Planaren eta Legearen arteko integrazioari buruz aritzeko, eta bestea, IV. Planaren kudeaketa eta ebaluazioa aztertzeke.

Lan horretan oinarrituta, proposamen bat egin genuen eta Aholku Batzordeari bidali genion, beharrezkoak ekarpenak eta hobekuntzak egin zitzaten. Horiek guztiak aintzat hartu eta dokumentu berria aurkeztu genion Aholku Batzordeari, onar zezan.

#### BIGARREN ETAPA (edukiak zehaztea)

- Berdintasun politiketan ezagutzak dituzten pertsonen osatutako talde bat sortzea.
- Oinarrizko hiru material aztertzea, eta horiek oinarritat hartuta, IV. Planaren lehen zirri-borroa egin genuen: Berdintasunerako legea, aurreko Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiboen Planak eta beste Berdintasunerako Plan batzuk.
- Elkarrizketa sakonak egitea ordezkariei esanguratsuei (gizarte ordezkariek eta erakunde-etakoak), Planaren jasotzen den arlo bakoitzean ekarpenak egin zitzaten. Bildutako infor-mazioa kontuan hartuta, zirriborroa egin genuen, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako arlo arteko Batzordearekin elkarlanean aztertu genuen.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaritza Batzordeari zenbait fitxa bidali genizkion partaideen balorazioa egin zezaten, helburuen lehentasun eta eginga-rritasun mailari buruz eta IV. Planaren arlo bakoitzean jasotako ekintzei buruz. Jarduera horren helburuak hauek ziren: aurretik lortutako alderatzea osatzea, helburuen eta ekintzen ikuspegi zabalagoa eta kuantifikagarriagoa lortzea eta erantzukizunak zehaz-tea.
- Fitxen bidez jasotako informazioa aintzat hartuta, beste zirriborro bat egin genuen, eta parte hartu zuten erakundeek eta gizarte eragileek osatutako lan talde batekin aztertu genuen.
- Jendaurrean aurkeztu eta haien ekarpenak dokumentura gaineratu genituen.

Azkenik, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana 2006ko uztailan onartu zuen Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak, eta urte bereko irailean Jaurlaritzaren Kontseiluak.

Berdintasunerako IV. Planak bi elementu nagusi ditu:

- Lau ardatz, berdintasunaren arloko esku-hartzearen euskarri nagusiak biltzen dituztenak (Mainstreaming; Ahalduntzea eta partaidetza soziopolitikoak; Bateragarritasun eta erantzukidetasuna eta Emakumeen aurkako indarkeria).
- Sei Arlo, esku-hartze horiek diseinatzeko, ezartzeko eta gauzatzeko erakundeen arlo nagusiak biltzen dituztenak (kultura, hezkuntza, lana, gizarteratzea, osasuna eta hiri-gintza, garraio publikoa eta ingurumena), eta baita Zerbitzu Orokorraren Arlo bat ere, zerbitzuak finkatzea helburu duena, erakundeek berdintasun politikak garatzeko dituzten oinarriko baldintzak osatzeko (administrazioaren barruan baldintzak sortzea eta gizarte egiturarentzat zuzeneko ekintzak egitea, besteak beste, interes, ezagutza, inplikazio eta parte-hartze maila handitzeko, berdintasun politikak ezartzean, ebaluatzean eta haiei buruzko gogoeta egitean).

Horrez gain, arloak Programa eta Helburutan egituratuta daude. Helburuak jardura esparruei dagozkie, eta arlo bakoitzean ardatz estrategikoak nola finkatzen diren definitzen da. Berdintasunerako legeak berak eta arlo bakoitzaren beharren diagnostikoak sortutakoak dira. Bestalde, Programek, aldatu nahi den gizarte errealitatea definitzen duten helburuak biltzen dituzte, eta egin behar denari lehentasuna emateaz gain, zer lortu nahi den zehazten dute.

Laugarren planak beste bi elementu ere proposatzen ditu, Estrategiak eta Ekintzak hain zuzen, esku-hartze eredu edo proposamen moduan, plangintzak egitean lan teknikoak errazte aldera. Estrategiek, helburua lortzeko gara daitezkeen lan prozesu eta ikuspegia deskribatzen dituzte. Ekintzak, proposamen jakinak dira estrategiak garatzeko, eta administrazioak esku hartzeko dituen tresna desberdinen arabera sailkatzen dira: ezagutza sortzea; sentsibilizazioa, informazioa eta zabaltzea; prestakuntza; baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea; arauak sortzea eta egokitzea eta jarraipen mekanismoak sortzea eta egokitzea.

Azkenik, Planak zenbait neurri jasotzen ditu ezartzeko, sustatzearekin, koordinazioarekin eta kudeaketa sistemekin zerikusia dutenak.

Sustapen eta koordinazio egiturei dagokienez, zenbait kasutan, Berdintasunerako Legeak berak sortzen ditu, eta IV. Planaren indarraldian, haiek zehaztea, garatzea edota sendotzea ere dute helburu. Ezartzeko diren erakunde barruko, erakunde arteko eta gizarte egiturak dira.

Kudeaketa sistemei dagokienez, planteatuko mekanismo nagusiak Programazioa (4/2005 Berdintasunerako Legearen 15. artikuluan jasotakoa) eta Ebaluazioa dira. Zehazki, Planak inaktuaren ebaluazioa egitea (arloen adierazleen bilakaera aztertzearen bidez) eta betetzearen edo emaitzen ebaluazioa egitea (erakundeek helburuak betetzeko egindako jarduerak eta sortu diren koordinazio egitura eta dinamikak aztertzea) jasotzen du.

Txosten honek, IV. Planaren betetzeari buruzko ebaluazioa egiten du, eta ahal den neurrian, zenbait inaktu adierazleri buruzko datuak ematen ditu, emakumeek eta gizonek IV. Planean jasotzen diren arazo batzuen aurrean gaur egun duten egoeraren berri izateko.

## IV. PLANA GAUZATU DUTEN ERAKUNDEAK

# 1.4

Berdintasunerako Plan osoan zehar jasotzen den moduan, aginte publiko ororen erantzukizuna da hura gauzatzea, eta jarduera esparruak eta erakunde publiko bakoitzak dituen eskumenek baldintzatuta dago. Ondorengo koadroan, IV. Planean parte hartu duten erakunde publikoen zerrenda jasotzen da. Guztira 289 erakunde dira (35, administrazio orokorrekoak; 3, foru administraziokoak eta 251, tokiko administraziokoak) (1).

---

(1) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak eta Arartekoak Plana gauzatzeko erantzukizun zuzenik ez badute ere, bi erakundeek, urtero, Eusko Legebiltzarrean aurkezten duten jarduera memoriaren laburpena bidali dute.

## IV. PLANA GAUZATU DUTEN EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO ERAKUNDEAK

---

### ADMINISTRAZIO OROKORRA

EUSKO JAURLARITZAKO SAILAK	Lehendakaritza; Lehendakariordetza; Ogasun eta Herri Administrazioa; Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza; Herrizaingoa ; Industria, Merkataritza eta Turismoa; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa; Osasuna; Kultura; Ingurumen eta Lurralde Antolamendua; Etxebizitza eta Gizarte Gaiak; Garraio eta Herri Lanak eta Nekazaritza eta Arrantza (2).
ERAKUNDE AUTONOMOAK	Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (HAEE); Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT); Lanerako Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (Osalan); Euskal Herriko Polizia Ikastegia; Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE); eta Soin Hezkuntzarako Euskal Erakundea (SHEE/IVEF).
ERAKUNDE ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK	Osakidetza; Sociedad de Promoción y Reconversión Industrial S.A. (SPRI); Energiaren Euskal Erakundea; EITB; Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte (EJIE, S.A.); Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea (NEIKER, S.A.); Nekazaritza Garapenerako Institutua (Mendikoi, S.A.); Ingeniería para el Metro de Bilbao S.A. (IMEBISA); Euskadiko Orkestra; Ingurugiroaren Gestiorako Elkarte Publikoa (IHOB); Vivienda y Suelo Euskadi, S.A. (VISESA); Euskotren; Eusko Trenbide Sarea; Uraren Euskal Agentzia eta Egailan.
BESTE ERAKUNDEAK	Lan Harremanen Kontseilua; Euskal Herriko Unibertsitatea

---

### FORU ADMINISTRAZIOA

FORU ALDUNDIAK	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
----------------	-----------------------------

---

### TOKI ADMINISTRAZIOA

UDALAK	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
KOADRILAK ETA MANKOMUNITATEAK	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
BESTE UDAL ERAKUNDE BATZUK	Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL)

---

(2) Gaur egungo legealdian hau da Eusko Jaurlaritzaren sailen izena: Lehendakaritza; Barne Saila; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila; Ekonomia eta Ogasun Saila; Justizia eta Herri Administrazio Saila; Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila; Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila; Lan eta Gizarte Gaietarako Saila; Osasuna eta Kontsumo Saila; Ingurumen Saila; Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Kultura Saila.



# 2

## **EBALUAZIOAREN METODOLOGIA**





Txostenaren bigarren zati honetan ebaluazioaren metodologia azalduko da: helburuak; egindako ebaluazio motak; datuak biltzeko erabilitako teknikak eta egindako landa lana.

## **EBALUAZIOAREN HELBURUAK**

# 2.1

Helburu orokorra da Euskadiko Herri Administrazioak Berdintasunerako IV. Planaren lau urteko indarraldian zehar (2006-2009) genero berdintasuneko politikei dagokienez egindakoak azaltzea.

Hona hemen helburu espezifikoak:

- Laugarren Planaren lau urteko indarraldian zehar gauzatutako ekintzen azterketa orokorra egitea.
- Laugarren Planaren lau ardatz estrategikoetan barne hartutako programetan lortutako betetze maila eta betetze horren indar maila aztertzea.
- Euskadiko Herri Administrazioako erakundeek lau ardatz estrategikoetan barne hartutako programak gauzatzeko izan duten parte-hartze maila aztertzea.
- Lau ardatz estrategikoetan barne hartutako programak gauzatzeko erabilitako baliabide ekonomikoak aztertzea.
- Lau ardatz estrategikoetan barne hartutako programen estaldura maila aztertzea (kolektibo hartzaileak).
- Lau ardatz estrategikoetan barne hartutako programek dagozkien helburuetan izandako eragina aztertzea.

## **EBALUAZIO MOTA ETA EBALUAZIOAREN DISENUA**

# 2.2

Egindako laugarren Planaren ebaluazioak ezaugarri hauek ditu:

- Haren eginkizunak kontuan hartuta: ebaluazio sumatiboa da nagusiki; izan ere, planaren emaitzei edota ondorioei buruz jasotako informazioa Eusko Legebiltzarrari kontu emateko erabiliko da, plana indarrean dagoen lehendabiziko urtearen laburpena egiteko eta hurrengo planaren inguruko erabakiak hartzeko. Nolanahi ere, ebaluazio hau hezitzailea ere bada nolabait, urtero egindako ebaluazioek gidatuko baitituzte erakunde publikoen hurrengo urteetako jardunak, eta, era berean, ebaluazioak EAEko administrazio publikoaren konpromiso maila handitzen lagunduko baitu.
- Noiz egin den kontuan hartuta: Post-facto egindako ebaluazioa da, laugarren plana indarrean eman ostean planteatzen baita.

- Ebaluazioaz arduratu den pertsona-taldearen jatorria edo osaera kontuan hartuz: Kanpo balioespen bati erantzuten dio ebaluazioak, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultateko Psikologia Sozial eta Portaera Zientzien Metodologia Saileko lantalde batek eginga da.
- Ebaluatzen den politikaren edukia edo fasea kontuan hartuta:
  - Ezarpenari buruzko ebaluazioa egin da, laugarren planaren exekuzioaren jaraipearen bitartez. Horretarako, botere publikoek planean adierazitako ardatz estrategikoen, arloen, programen eta adierazitako helburuen inguruan burututako ekintzekin lotutako informazioa bildu da, baita planteatutako ekintzena ere (gomendatutakoak barne).
  - Helburuen ebaluazioari dagokionez, IV. Planean aipatutako helburuen eta eraginaren adierazleei dagozkien datuak 2010. urtean (3) bildu dira azkenean; beraz, ez dago informaziorik hasierako egoera (2006) eta azken egoera (2009) alderatzeko. Horrela, mota honetako datuek, IV. Planaren indarraldia bukatutakoan, emakumeek gizonen aldean duten egoera jakiteko bakarrik balio dute. Plan honetako programak kokatzeko erreferentzia moduan erabil daitezkeen datuak dira, eta, horrez gain, Berdintasunerako V. Planaren helburuak ebaluatzeko ere balio dezakete.

Lau neurketa egin dira: Laugarren Planaren indarraldiari dagozkionak: 2006-2007-2008-2009. Erakundeei abendu hasieran eskatu zaie informazioa, eta otsailaren amaierara arteko epea izan dute galdeketak beteta bidaltzeko.

## DATUAK BILTZEKO TEKNIKAK ETA DATUEN AZTERKETA

# 2.3

Adierazitako bi ebaluazio motetan datuak biltzeko erabilitako tresnak hauek izan dira:

- **Planaren ezarpenaren ebaluazioa**

Datuak biltzeko galdeketak erabili dira. Hala, 6 galdeketa (ikusita eranskina) diseinatu dira, bana IV. Planean proposatutako esku-hartze tresna bakoitzeko.

- Jakintza sortzea.
- Sentsibilizazioa, informazioa eta hedapena.
- Prestakuntza.
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea.
- Arauak sortzea eta egokitzea.
- Jarraipena egiteko mekanismoak sortzea eta egokitzea.

---

(3) Ebaluazio-adierazle hauei buruzko informazioa Helena Ortiz de Lejarazuk (Red Kuorum) bildu du, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun Unitateetako arduradunen laguntzaz.

Zehazki, Planean proposatutako ekintza bakoitzaren sailkapena egin zen, haiei zegozkien ebaluazio adierazleak ezarri ziren eta gero, sei galdeketa diseinatu ziren, bana ezarritako kategoria bakoitzeko. Sei galdeketa horiek bi zatitan banatu ziren: bat, guztientzat (lehen bederatzi galderak); bestea, kategoria bakoitzari zegokiona (berariazko adierazleen arabera diseinatutakoa). Ebaluazio Sistema eta Metodologia hau, funtsean, II. eta III. Planean (4) diseinatu eta erabilitako bera da, Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiboan Planen ezaugarrietarako eta proposatzen diren ebaluazio helburuetarako egokiena dela uste dugulako.

- **Planaren helburuen ebaluazioa**

Helburuen zenbait adierazle egin dira, lan metodologia hauek jarraituta:

- a. Lehendabiziko urratsa bigarren mailako iturrien bidez aurretik zeuden datuen bilaketa zorrotza egitea izan zen. Eustat-en har daitekeen informazioa, "*Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak*" txostenean bildutako datuak, Berdintasunerako Legearen Ebaluaziotik hartutako datuak, Emakundek egindako berariazko azterketak eta abar.
- b. Dokumentazio horretan oinarrituta, lehen proposamena egin genuen, bi motatako adierazlerekin:
  - Zeuden adierazleak, EAEko edo Estatuko eragiketa estatistiko egonkorretatik lortutakoak, edo Emakundek egindako azterketa jakin batzuetatik lortutakoak.
  - Adierazle berriak, *ad hoc* sortutakoak, IV. Planean ondorioztatutako ezagutza premiak asetzeko, gaur egun hori lortzerik ez baitago.
- c. Proposamena, sei adituz osatutako Emakunderen talde tekniko bati aurkeztu genion, bi astetan, ekarpenak, aldatzeko proposamenak eta informazio bilaketa osagarriak egin zitzaizten.
- d. Lan egiteko aldia bukatutakoan taldeak lau orduko tailer batean parte hartu zuen, eta, horren ondorioz, adierazleen bigarren zirriborroa egin zuen.
- e. Azken urratsa, dokumentu hori zenbait aditurekin alderatzea izan zen (5), ekarpenak egin zitzaizten, azken proposamenaren irisgarritasuna eta pragmatismoa hobetzeko.

Laugarren Planaren lau urteko indarraldian bildutako datuak zenbait datu basetara irauli ziren, eta gero, azterketa estatistikoak egiteko SPSS softwarea erabiliz (17.0 bertsioa), datuen azterketa kuantitatiboa egin zen. Ebaluazio honen helburuak kontuan hartuta, egindako azterketak deskriptiboak izan dira.

---

(4) Informazio zehatzagoa eskura daiteke aurreko bi berdintasunerako planen ebaluazioetan.


(5) Eustateko ordezkari bat eta "Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak" txostena egin zuen EHUko taldeko ordezkari bat.

Atal honen helburua da IV. Plan hau gauzatu duten erakunde publikoek haren indarraldian (2006-2009) egindako ebaluazioetan izan duten parte-hartze maila erakustea.

2.1. grafikoan jasotzen diren datuen arabera, egindako lau ebaluaziotan EAEko Administrazio Publikoaren hiru mailetako erakundeek (Administrazio Orokorrak, Foru Administrazioak eta Toki Administrazioak) parte hartu dute.

Eusko Jaurlaritzaren 12 sailei dagokienez (11, 2009. urtean), Erakunde horien parte-hartzearen batez besteko ehunekoa % 91,27 izan da.

## 2.1. GRAFIKOA Erakunde publikoek ebaluazioan izan duten parte-hartzea (2006-2009)



Lau urtetan, Administrazio Orokorreko 33 erakundek (% 94,28) parte hartu dute Planean, eta erakunde horiek egindako ebaluazioetan izandako parte-hartzearen batez besteko ehunekoa % 72,85 izan da.


Hiru foru aldundiek parte hartu dute egindako lau ebaluaziotan.

Toki Administrazioaren parte-hartze mailari dagokionez, grafikoaren arabera, lau urtetan partaidetza antzekoa izan da, hau da, EAEko udalek % 19,01eko batez besteko partaidetza izan dute.

Grafikoan ikus daitezkeen moduan, Gipuzkoan gertatu da partaidetza aldaketarik handienak, % 18,2 eta % 12,5 artekoak hain zuzen.

EAEko udalek ebaluazio honetan izandako partaidetza baxua izan bada ere, % 19,01ekoa hain zuzen, Berdintasunerako Plana duten ebaluazio hauetan parte hartutako udalen ehunekoa da datu garrantzitsua, horiek baitira udal berdintasun politikak bultzatzen ari direnak. Kasu horretan, IV. Planaren indarraldia aurrera joan ahala partaidetza gutxituz joan da: % 73,2 2006an eta % 52,9 2009an. Berdintasunerako Plana duten udalen batez besteko partaidetza % 65,4 izan da ebaluazioan.

## 2.2. GRAFIKOA Hiru lurraldeetako udalen partaidetza (2006-2009)



Ebaluazioetan parte hartu duten udalek ordezkaturako EAEko biztanleen batez besteko ehunekoa % 68koa izan da gutxi gorabehera.

Erakunde publikoek ebaluazioan duten parte-hartzeari buruzko atal honetan emandako datuen arabera:

- Administrazioako hiru mailetako erakundeek parte hartu dute, eta horri esker, berdintasun politiketan zein joera dituzten jakin dugu.
- Partaidetzarik egonkorrena Eusko Jaurlaritzaren sailetan eta foru aldundietan eman da.
- Nabarmendu behar da erakunde autonomoen, erakunde publikoen, sozietate publikoen eta beste erakundeen partaidetza handitu dela.
- Datu negatibo moduan, toki administrazioaren parte-hartzeak pixkanaka behera egin duela azpimarratu behar da. Hala ere, horrek emaitza kuantitatibo orokorretan eta Administrazioaren maila horri dagozkionetan alborapenak ekarri baditu ere, ez dirudi tokiko berdintasun politiken joeren emaitzetan eraginik izan duenik, egindako lau ebaluazioetan egonkorrak izan direlako, parte hartu duen udal kopurua edozein dela ere.



# 3

## **EBALUAZIOAREN EMAITZAK**





Txostenaren hirugarren zati honetan Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planaren ebaluazio orokorrean aurkitutako emaitzak ematen dira, eta sei zatitan banatuta dago.

Lehen zatian, aginte publikoek Berdintasunerako IV. Planaren lau urteko indarraldian egindako jardueretan aurkitutako joera orokorrak azaltzen dira, besteak beste, ardatz estrategikoei, esku-hartze eremuei, programei, erabilitako esku-hartze tresnei eta egindako jardueren hartzaileak izan diren taldeei dagokienez.

Bigarren zatian, IV. Plana gauzatzeko helburuz lau urte hauetan egindako jardueri buruzko ikuspegia ematen da. Beharrezko jarduerak dira, nahitaez bete beharrekoak (Berdintasunerako Legearen zenbait artikulutan ezartzen baitira), eta Planak berak funtsezkotzat jotzen ditu, jarduera horiek gabe ezin baita ezarri: gizon-emakumeen berdintasunerako Administrazio Unitateak sortzea eta abian jartzea; gizon-emakumeen berdintasunerako erakunde barruko koordinazio egiturak; gizon-emakumeen berdintasunerako erakunde arteko ezarpen egiturak eta ezarpen sozialeko egiturak emakumeen eta elkarte mugimenduen parte-hartzerako politika publikoetan.

Halaber, erakunde publikoek IV. Planaren, Berdintasunerako Planen eta Ebaluazioaren kudeaketa mekanismo nagusiak zenbateraino erabili dituzten jakin dezakegu. Kudeaketa tresnak izateaz gain, planaren jarduera ildoak, programak eta helburuak zehazteko eta erakunde eta lurralde bakoitzaren errealitatera hurbiltzeko aukera ere ematen dute.

Beste lau zatietan, IV. Planean definitutako ardatz estrategiko bakoitzean egindako jardueren joerak erakusten dira: Mainstreaming; Ahalduntzea eta partaidetza soziopolitikoak; Bateragarritasun eta erantzukidetasuna eta Emakumeen aurkako indarkeria.

Lau ardatz horien ebaluazioan lau adierazle erabili dira:

- Programak gauzatzearen intentsitate maila: aztertu den programan egindako jarduera kopurua eta ebaluatu diren ardatz programetan egindako jardueren batez bestekoa alderatu dira.
- Programak gauzatzen parte hartu duten erakunde publikoak: programa hau gauzatzen parte hartu duen erakunde kopurua (administrazioaren hiru mailak ere bereiziz) eta ebaluatu den ardatzaren programetan parte hartutako erakundeen batez bestekoa alderatu dira.
- Programa hauek izan duten estaldura-maila: programa bakoitzean egindako jardueretan parte hartu duten taldeak erakusten dira.
- Programak gauzatzeko erabilitako baliabide ekonomikoak: programan egindako batez besteko gastua eta ebaluatu den ardatzaren programetan egindako batez besteko gastua alderatu dira.

Lau adierazle horiek, oro har, hau egiteko aukera ematen dute:

1. Emakumeen ahalduntzeari, Bateragarritasun eta erantzukidetasunari eta Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko berdintasunerako politiken gauzatze maila sakonago aztertzea, programa batzuen eta beste batzuen gauzatzean desorekak agerian uzten dituelako; baita IV. Planak proposatutako esku-hartze ildoan eta erakunde publikoek egindakoen arteko desorekak ere.
2. Politika eraldatzaileak edo kontserbadoreak egiten ari diren ondorioztatzea (esaterako, emakumeen bateragarritasuna bilatzen duten edo emakumeentzako eta gizonentzako erantzukidetasuna bilatzen duten politikak egiten al dira?).

3. Bultzatzen diren programen ikuspegia ezagutzea: emakumeek dituzten arazoan jatorri-  
ra heltzen saiatzen al dira, edo sintomaren gainean jarduten al dute (esaterako, lan pro-  
gramek, enpleguan emakumeen eta gizonen artean dagoen berdintasun eta zuzenta-  
sun falta ekartzen duten kultura eta gizarte eragozpenen gainean jarduten duten ekin-  
tzak barne hartzen al dituzte?).
4. Lehenesten ari diren prebentzio mailak ezagutzea: Indarkeriaren esparruan, lehentasu-  
na ematen al zaio lehen mailako prebentzioari (hezkuntza programak), hirugarren mai-  
lakoari (laguntza programak) ala biei?
5. Erakunde publikoen eskumen mailak kontuan hartuta, baieztatu daiteke inplikazio maila  
nahikoa dela emakumeen eta gizonen egoeran aldaketak sortzeko?
6. Baztertzeko eta bazterkeria anitza izateko arriskua duten emakume ahulenenen talde-  
entzat egindako berariazko politikek zer leku duten jakitea, garatzen ari diren berdinta-  
sunerako politika guztien barruan.
7. Berdintasunean eta gizarte berdintasunaren balioetan, tradizioz, sexistak izan diren  
gizartearen pentsamoldeak eta balioak aldatzeko garatutako programen aukerei buruz-  
ko balorazioa egitea.

Halaber, lau adierazle horiek, programen gauzatze maila eta emaitzen eta eraginaren adie-  
razleak lotzeko aukera ere ematen zuten hein batean, eta agian epe luzeagoarekin.  
Ebaluazioaren helburu horren abiapuntua hipotesi hau zen:

*Zuzentzea edota eraldatzea helburu duen gizon-emakumeen egoerari buruzko pro-  
grama baten eragina handiagoa izango da harekin zerikusia duten jarduera gehiago  
egiten badira; jarduera esparruan eskumenak dituzten erakunde gehiagok gauzatzen  
badituzte; parte hartutako pertsona, talde edo kolektibo kopurua handitzen bada eta  
baliabide ekonomiko ugari baditu eskura.*

Hala ere, IV. Planaren indarraldia bukatutakoan, planean bertan finkatutako adierazleei  
buruzko datu falta zela-eta, ezin izan zen azterketarik egin aipatutako lau adierazleak eta  
emaitzen eta eraginaren adierazleak erlazionatzeko.

Horrez gain, mota honetako datuen bilketan erakunde publikoek izan zuten sistematizazio  
kultura faltak, abiatuko egoera (IV. Plana onartu aurretik) eta azken egoera (Planaren inda-  
rraldia betetakoan) alderatzeko daturik biltzeko aukera ere ez zuen eman.

Horrez ordez, Ahalduntzea eta partaidetza soziopolitikoaren, Bateragarritasun eta erantz-  
kidetasunaren eta Emakumeen aurkako indarkeriaren ardatzen kasuan, lau adierazle horie-  
tan lortutako emaitzekin batera emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostiko  
laburra egin da, ahal izan denean, programak esku hartu nahi duen esparruan.

Bukatzeko, azpimarratu nahi dugu programen estaldurari buruzko datuak aztertzean (pro-  
grametan parte hartu duen talde desberdinetako pertsona kopurua) eta programen kostu  
ekonomikoari begiratzean, kontuan hartu behar dela ekartzen diren datuak "dauden guz-  
tiak direla, baina diren guztiak ez daudela". Horregatik, adierazle hauek, ondorio baterako  
erabili dira: erakunde publikoek zein talde eta programei ematen dieten lehentasuna jaki-  
teko. Horrek, berdintasunerako politiken joerei buruz aritzeko aukera ematen digu.

## EKINTZEN JOERA OROKORRAK

# 3.1

### EKINTZEN EZAUGARRI OROKORRAK


## 3.1.1

Atal honetan, aginte publikoek Berdintasunerako IV. Planaren lau urteko indarraldian egindako jardueren joera orokorrak ezagutzeko aukera ematen digun informazioa ematen da. Zehazki, ardatz estrategikoekin (Mainstreaming, Ahalduntzea, Bateragarritasun eta erantzukidetasuna eta Emakumeen aurkako indarkeria), arloekin, programekin eta erabilitako esku-hartze tresnekin nahiz jardueren hartzaileak izan diren taldeekin zerikusia duen informazio kuantitatiboa ematen da.

### ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Erakunde publikoek emandako informazioaren arabera, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Planaren lau urteko indarraldian, 4.175 jarduera egin dituzte, eta IV. Planean jasotako lau ardatz estrategikoetan banaketa hau izan dute:

#### 3.1. GRAFIKOA Ardatz bakoitzean egindako jarduerak (2006-2009)



Grafikoan aurkeztutako datuen arabera, IV. Planaren indarraldian, erakunde publikoek EAEko Herri Administrazioetan genero-Mainstreaming ezartzeko jarduerari eta emakumeen Ahalduntzeari eta partaidetza soziopolitikoari lehentasuna eman diete. Bi ardatz horiek egindako jardueren % 73,1 biltzen dute (k=3.050).

## ESKU HARTZE ESPARRUAK

Esku-hartze esparruei dagokienez, IV. Planak sei arlo ezartzen ditu; hala ere, haien ebaluazioaren diseinuaren arrazoi praktikoak direla eta, bederatzi bakarrik kontuan hartu dira:

- Laugarren plana ezartzeko neurriak
- Kudeaketa sistemak
- Berdintasunerako zerbitzu orokorrak
- Kultura
- Hezkuntza
- Lana
- Gizarteratzea
- Osasuna
- Hirigintza eta ingurumena


Lehendabiziko biek derrigor bete beharreko ekintzak biltzen dituzte, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legeak hala dioelako. Horrenbestez, esan liteke ekintza horiek betearaztea nahitaezko baldintza dela laugarren planean zehaztutako helburuak beteko badira. Aurretik adierazi den moduan, erakunde barruko eta erakunde arteko egiturak nahiz gizarte ezarpenerakoak ezartzea jasotzeaz gain, berdintasunerako planak edo programak abian jartzea eta haiek ebaluatzea ere aipatzen da.

Hirugarren arloan (berdintasunerako zerbitzu orokorrak), bi motatako jarduerak jasotzen dira: batetik, Administrazioan baldintzak sortzeko aukera ematen dutenak, berdintasunerako politikak garatzeko; bestetik, gizartearentzat direnak, interes, ezagutza, inplikazio eta partaidetza maila handitzeko helburuz, berdintasunerako politikak ezartzean, ebaluatzean eta haiei buruzko gogoeta egitean.

Beste sei arloak administrazioaren esku-hartze esparru funtzionalak dira. Berdintasuna lortzeko haiek landuko dira. Egitura jakinetan erraz ezagut daitezkeen administrazioetako arloak dira. Horrez gain, sei arlo horiek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen III. idazpuruan jasotzen dira.

Adierazitako bederatzi arlotan egindako jarduerak grafiko honetan jasotzen dira.

### 3.2. GRAFIKOA Arlo bakoitzean egindako jarduerak (2006-2009)



Grafikoan jasotako datuen arabera, lau urte hauetan egindako 10 jardueretatik lau (k=1665; % 39,8) EAEko herri administrazioei egiturak, tresnak eta antolaketa, prestakuntza eta arau baliabideak emateko izan dira, haien jardueretan genero ikuspegia sartzea erraztu zutenak.


Esku-hartze arloei dagokienez, jardueren ehunekorik handienak biltzen dituzten hiru arloak hauek dira: gizarteratzea (k=758; % 18,2), kultura (k=660; % 15,8) eta lana (k=487; % 11,7).

### LAUGARREN PLANAREN PROGRAMAK

Erakunde publikoek jardueren gehien egin dituzten programei dagokienez, IV. Planak, aipatutako sei esku-hartze arlotan bakarrik definitzen ditu programak (Berdintasunerako Legean adierazitakoak); hortaz, atal honetan, 6 arlo horietan egindako jarduerak bakarrik kontuan hartu dira (k= 2.510).

Planaren lau urteko indarraldian emandako datuei buruzko azterketaren arabera, zortzi programek, egindako jarduera osoen ia hiru herenak biltzen dituzte. Hurrengo grafikoan informazio hori jasotzen da.

**3.3. GRAFIKOA** IV. Planaren barruan egindako programa nagusiak (2006-2009): programa guztien % 63,59



Kopurua nabarmen txikiagoa den arren, gainerako 19 programetan ere jarduerak egin dira. Programa horietan, zazpi programa hauetan egindako jarduera kopuru eskasa nabarmendu behar da ( $\leq 20$ ):

- Denbora eta eskola azpiegiturak egokitzea eta berrantolatzea (k=14).
- Ardura banatzearen eta zaintzaren etikaren kultura sustatzea ikasleen artean (k=12).
- Hirigintza eta garraio azpiegiturak bizitza pertsonala, familiakoan eta profesionala kontziliatzeko eta norberaren autonomia garatzeko egokitzea (k=9).
- Gizarte antolamendu eredu berri bat sustatzea (k=8).
- Etxeko esparruan lan eskerga murriztea, osasun arazoak dituzten pertsonak zaintzeko (k=6).
- Emakumeek espazio publikoari egindako gizarte, kultura eta historia ekarpena aintzat hartzea (k=1).

## LAUGARREN PLANAREN HELBURUAK

Erakunde publikoek esku hartu duten IV. Planaren helburuei dagokienez, planean jasotzen diren 76 helburuetatik 10ek Planaren lau urteko indarraldi honetan egindako jarduera guztien % 56,76 (k=2.370) biltzen dute:

- Erakundeari genero ikuspegia txertatzeko ahalmena ematea (k=638)
- Emakumearen kultura eta arte sorkuntza bultzatzea, bai eta gizartearen ikuspuntu ez-sexista bultzatzen duena ere (k=307)
- Berdintasuna bultzatzeaz arduratzen den erakunde sarea areagotzea eta bultzatzea (k=302)
- Berdintasun eta koordinazio egiturak bultzatzea (k=246)
- Indarkeria zikloak garaiz detektatzeari bultzada ematea (k=192)
- Gizartean berdintasun politikekiko interesa eta inplikazioa zabaltzea (k=176)
- Pertsonak beren sexuaren arabera giza duintasun gehiago edota gutxiago dutela adierazten duten irudiak eta edukiak baztertzea, bai eta pertsonak sexu objektu huts gisa aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arinkeriaz hartzen edota nolabait bultzatzen dutenak ere (k=148)
- Enplegu zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzea (k=102)
- Droga mendekotasun arazoak dituzten eta baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetze aldera (k=162).
- Tratu txarrak edo sexu erasoak jasan dituzten biktimek arreta, laguntza edota babesa jasotzeko egindako eskaerei koordinazioz, kalitatez eta eraginkortasunez erantzuteko, EAEko udalerrietan tokiko protokoloak ezartzea (k=97)

## ERABILITAKO ESKU-HARTZE TRESNAK


IV. Planean proposatutako ekintza zehatzak, bai derrigor bete beharrekoak bai gomendatzen direnak, administrazioak dituen esku-hartze tresna guztien arabera sailkatuta daude. Hauek dira:

- Jakintza sortzea.
- Sentsibilizazioa, informazioa eta hedapena.
- Prestakuntza.
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea.
- Arauak sortzea eta egokitzea.
- Jarraipena egiteko mekanismoak sortzea eta egokitzea.

Tresna horiek ezinbestekoak dira Planean proposatutako zenbait programa txertatu ahal izateko, hala ere, oso desberdinak dira eskatzen dituzten baliabideak eta haiek dituzten eraginak. Hori dela eta, erreminta bat edota bestea erabiltzeak erakusten du, zeharka bada ere, botere publikoak zenbateraino dauden inplikaturik gizonen eta emakumeen arteko ber-

dintasuna lortzeko ekintzak abiarazteko. Grafiko honetan, esku-hartze tresna bakoitzari dagozkion jardueren ehunekoa ikus daiteke.

### 3.4. GRAFIKOA Erabilitako esku-hartze tresnak (2006-2009)




Erakunde publikoek beren berdintasunerako politikak aplikatzeko gehien erabilitako esku-hartze tresnak, baliaabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea eta sentsibilizazioa, informazioa eta hedatzea izan dira (% 31,3 eta % 27,9 hurrenez hurren).

### TALDE HARTZAILEAK

Botere publikoek burututako ekintzen 140 talde hartzaile guztietatik, bost taldek jaso dituzte, batez ere, ekintzarik gehienak, grafiko honetan adierazten den moduan:

### 3.5. GRAFIKOA Jardueren ehunekorik handiena jaso duten taldeak (2006-2009)






Laugarren planean zehaztutako programak eta helburuak zenbateraino betearazi diren jakin daiteke; hau da, berdintasunerako zerbitzu nagusiak eta sei esku-hartze eremuak.

Planean 32 programa eta 76 helburu txertatzea jasotzen da, aurreko paragrafoan aipatutako arlotan banatuta, taula honetan ikus daitezkeen moduan.

ARLOAK	MAINSTREAMINGA		AHALDUNTZEA		BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUKIDETASUNA		INDARKERIA		GUZTIRA	
	PRO.	HEL.	PRO.	HEL.	PRO.	HEL.	PRO.	HEL.	PRO.	HEL.
Berdintasunerako zerbitzu orokorrak	-	2	-	2	-	2	-	2	0	8
Kultura	1	1	3	6	1	1	1	2	6	10
Hezkuntza	1	2	2	5	2	3	1	2	6	12
Lana	1	1	2	6	2	3	1	1	6	11
Gizarteratzea	1	1	1	7	1	1	1	3	4	12
Osasuna	2	5	1	4	1	2	1	1	5	12
Hirigintza, garraio publikoa eta ingurumena	1	3	2	4	1	2	1	2	5	11
<b>GUZTIRA</b>	<b>7</b>	<b>15</b>	<b>11</b>	<b>34</b>	<b>8</b>	<b>14</b>	<b>6</b>	<b>13</b>	<b>32</b>	<b>76</b>

Adierazitako arlo bakoitzean proposatutako programa eta helburu kopurua behin erakutsita, grafiko honetan, ardatz estrategiko bakoitzean egindako programen eta helburuen ehu-nekoa, eta helburu bakoitzean egindako batez besteko jarduera kopurua ikus daitezke.

**3.6. GRAFIKOA** Egindako programa eta helburuen ehunekoa eta helburu bakoitzean egindako batez besteko jarduera kopurua, ardatzaren arabera (2006-2009)




Grafikoaren datuen arabera, programen eta helburuen gauzatze mailarik handiena Mainstreaming eta Emakumeen aurkako indarkeria ardatzei dagokie, Planena proposatutako programa eta helburu guztietan jarduerak egin direlako. Horrez gain, helburuko, jardueren batez bestekorik handiena duten ardatzak dira (25,5 eta 20,9 hurrenez hurren).

Bateragarritasun eta erantzukidetasun ardatzaren kasuan, programa eta helburu guztietan jarduerak egin badira ere, helburuko lortutako jardueren batez bestekoa (6,1) baxuena da lau ardatzetan. Hortaz, gauzatze maila baxua izango litzateke, eta jarduerak, zenbait kasutan, ez daude oso finkatuta eta ezegonkorak dira (helburu bakoitzeko 2 jarduera baino gutxiago urtean).

Laugarren planean jasotako 6 esku-hartze arloak, Administrazioak berdintasuna lortzeko landuko dituen esku-hartze esparru funtzionalak direnez, interesgarria deritzogu 6 esku-hartze arlo bakoitzean programen eta helburuen gauzatze maila osoa zein izan den adieraztea, Berdintasunerako Plan honen lau urteko indarraldian.

**3.7. GRAFIKOA** Egindako programen eta helburuen ehunekoa eta helburu bakoitzean egindako batez besteko jarduera kopurua, esku-hartze arloaren arabera (2006-2009)



Sei arloen gauzatze mailari buruzko datu hauen arabera:

- Sei arloetan jarduerak egin dira programa guztietan.
- Kultura arloan izan ezik, beste bostetan jarduerak egin dira helburu guztietan.
- Kultura, gizarteratze eta lan arloen helburuek izan dute jardueren batez bestekorik handiena (18, 15,6 eta 10,9 hurrenez hurren).

Bi grafikoetan aurkeztutako emaitzen arabera, lau urte hauetan IV. Planaren programa eta helburu guztiak gauzatu dira, indar gehiagoz edo gutxiagoz, bat izan ezik: "Komunikabideetan gizonen eta emakumeen berdintasuna".

EAEko Herri Administrazioak burututako IV. Planaren jarduerari buruzko ikuspegi orokorra emanda, emaitzen hurrengo blokeek, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren lau urteko indarraldian administrazioak bultzatutako berdintasun politiken joera sakontasun handiagoz ezagutzeko aukera emango digun informazioa ekarriko dute.


Laugarren planak, erakundeen maila desberdinetan ezartzeko, funtsezkotzat jotzen du zenbait egitura sortzea eta abian jartzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko, programatzeko, aholkatzeko eta ebaluatzeke; baita erakunde barruan eta erakunde artean koordinatzeko ere. Hauek izango lirateke:

- **Gizon-emakumeen berdintasunerako administrazio unitateak:** gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko politikak ezarraraztea dagokie, baita plana garatzeko ekintza plana sustatzea eta prestatzea ere. Era berean, erakunde publikoaren mendeko organoei eta bestelakoei laguntza teknikoa eta aholkularitza ematea ere beren egitekoa da.
- **Gizon-emakumeen berdintasunerako erakunde barruko koordinazio egiturak:** Administrazio orokorraren kasuan, arlo desberdinetan, berdintasunerako politiken ezarpen eta kudeaketa mailaren inguruan ezagutzeko sortzeko, esperientziak trukatzeko, arlo arteko jarduerak koordinatzeko eta bultzatzeko, gaitasunak garatzeko eta esparru horretan tresnak sortzeko dira; Foru eta Toki Administrazioan, berdintasunerako politiken programazioa, jarraipena eta ebaluazioa kudeatzeaz eta arlo arteko ekintza koordinatu bat bultzatzeaz arduratzea aurreikusita dago.
- **Gizon-emakumeen berdintasunerako erakunde arteko ezarpen egiturak:** EAEko administrazioaren hiru mailetan garatzen diren berdintasun politikak eta programak koordinatzeko ardura duten organoak dira.
- **Ezarpen sozialeko egiturak emakumeen partaidetzarako eta politika publikoetako elkartzeko mugimenduetarako:** oro har, haien zenbait eginkizun izan litezke, besteak beste, EAEko herri administrazioei berdintasunaren arloan aholkatzea; berdintasunerako planei buruzko txostenak eta arlo horretan egindako diren proiektu arauemaileak egitea; lankidetzak bultzatzea emakumeen elkarleen artean eta emakumeen ahalduntzea sustatzea.

Laugarren planaren lau urteko indarraldian, IV. Plana bultzatzearekin eta koordinatzearekin zerkusua duten 132 jarduera egin dituztela jakinarazi dute erakunde publikoek.

Hurrengo grafikoan, jarduera gehienek helburua erakunde barruko egiturak sortzea izan dela ikus daitezke, erakundeen barruan berdintasunerako politikak bultzatzeko (k=44; % 33,3), edo dauden koordinazio egituren bidez berdintasunerako politikak bultzatzea eta haien jarraipena egitea (k=46; % 34,9). Berdintasunerako planak eta politikak bultzatzeko, berdintasunerako administrazio unitateak ere sortu dira (k=23; % 17,4). Informazio zehatzagoa lortu nahi izanez gero, urteko txostenak kontsulta daitezke.

### 3.8. GRAFIKOA IV. Plana ezartzeko neurriak (2006-2009)



- ADMINISTRAZIO UNITATEAK (k=23)
- ERAKUNDE BARRUKO EGITURAK (k=44)
- ERAKUNDE ARTEKO EGITURAK (k=12)
- EGITUREN BIDEZ JARRAITZEA ETA BULTZATZEA (k=46)
- EZARPEN SOZIALEKO EGITURAK (k=7)

## LAUGARREN PLANAREN PROGRAMAZIOA ETA EBALUAZIOA

### 3.2.2

Laugarren Planak, programazioa eta ebaluazioa IV. Plana kudeatzeko mekanismo nagusi moduan proposatzen ditu. Horregatik, funtsezkotzat hartu da erakunde publikoak mekanismo horiek zenbateraino erabiltzen ari diren jakiteko aukera ematen duen informazioa biltzea. Horrela, 2006. eta 2009. urteen artean, programazioarekin (Berdintasunerako planak edota programak) zerikusia duten 45 jarduera egin dira, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikek ebaluazioarekin zerikusia duten 44 jarduera.


### PROGRAMAZIOA

Berdintasunerako IV. Plana bukatutakoan, bildutako datuen arabera, administrazio orokorrean, Eusko Jaurlaritzaren Sail guztiek dokumentu programatikoak egin dituzte urtero.

Foru Administrazioaren kasuan, hirurek Berdintasunerako Plana dute: Arabak Berdintasunerako III. Plana onartu du 2010. urtean; Bizkaiak 2009ko urrian onartu zuen III. Plana, eta Gipuzkoak 2008ko abenduan II. Plana onartu zuen.

Toki Administrazioari dagokionez, IV. Plana bukatzean, 68 udalek (6) eta sei mankomunitatek (29 udalek) (7) Berdintasunerako Plana dute; Planaren indarraldiaren lehen urtean (2006) baino 57 udal gehiago. Igoera hori hiru lurraldeetan gertatu da, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan. Hor, udalen ehunekoa eta lurralde bakoitzaren plana alderatzen dira, 2006. eta 2009. urteetan: Araba 9,8 puntu handitu da, Bizkaia 23,4 eta Gipuzkoa 25,3.

### 3.9. GRAFIKOA Berdintasunerako Plana duten udalen ehunekoa, lurraldeka: 2006-2009




EAEko hiru lurraldeetan plana duten udalei dagokienez, grafikoan agertzen diren datuen arabera, Bizkaia da udal gehien dituen lurraldea; plana duten udalen erdia baino gehiago lurralde horretan kokatuta daude.

(6) **Araba** (Alegria-Dulantzi; Amurrio; Artziniega; Ayala-Aiara; Elburgo-Burgelu; Laudio; Okondo; Vitoria-Gasteiz); **Bizkaia** (Abadiño; Abanto-Zierbena; Amorebieta-Etxano; Areatza; Arrigorriaga; Arteaga; Balmaseda; Barakaldo; Basauri; Bedia; Bermeo; Berriz; Bilbo; Dima; Durango; Elorrio; Erandio; Ermua; Galdakao Gernika-Lumo; Getxo; Gordexola; Güeñes; Leioa; Lekeitio; Mungia; Muskiz; Sestao; Trapaga; Ugao-Miraballes Urduña/Orduña; Zaldibar; Zalla; Zierbena); **Gipuzkoa** (Andoain; Anoeta; Aretxabaleta; Arrasate; Astigarraga; Azkoitia; Azpeitia; Bergara; Donostia-San Sebastián; Eibar; Erreiteri; Hernani; Hondarribia; Irun; Itsasondo; Ordizia; Soraluze; Tolosa; Zarautz; Zegama; Zumaia; Zumarraga).


(7) **Enkarterriko mankomunitatea** (Artzentales; Karrantza; Galdames; Lanestosa; Sopuerta eta Turtzioz); **Busturialdeko mankomunitatea** (Arratzu; Kortezubi; Mendata; y Muxika); **Uribe-Kostako mankomunitatea** (Barrika; Berango; Gorliz; Lemoiz; Plentzia; Sopela eta Urduliz); **Bideberri Eskualdea** (Antzuola, Elgeta eta Leintz-Gatzaga); **Debarreneko mankomunitatea** (Mallabia, Elgoibar, Mendaro, Deba, Mutriku); **Uggasako mankomunitatea** (Ezkio-Itsaso; Legazpi; Urretxu; Zumarraga).

**3.10. GRAFIKOA** Berdintasunerako Plana duten udalerrien banaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan (2009)



Halaber, Berdintasunerako plan bat duen herritar kopururik handiena duena ere bada Bizkaia (% 93,06), grafiko honetan ikus daitekeen moduan. Bestalde, datuen arabera, 2006. urtearen aldean (IV. Planaren indarraldiaren lehen urtean), bere udalerriari Berdintasunerako plana duen biztanleen ehunekoa handitu da hiru lurraldeetan.

**3.11. GRAFIKOA** Berdintasunerako Plana duten udalek biltzen duten biztanleriaren ehunekoa, lurraldeka: 2006-2009




## EBALUAZIOA

Erakunde publikoek jakinarazi dute 2006tik 2009ra emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken ebaluazioarekin zerikusia duten 37 jarduera egin dituztela. Horrez gain, aipatu behar da Eusko Jaurlaritzaren sail guztiek, urtero, dokumentu programatikoen gauzatzeari buruzko jarraipen txostena egin dutela.

Hurrengo grafikoan, planak edo programak ebaluatzeko jardueren banaketa ikus daiteke, EAEko Herri Administrazioaren hiru mailetan banatuta.

### 3.12. GRAFIKOA Berdintasunerako plan eta programak ebaluatzeko jardueren banaketa hiru euskal administrazioetan (2006-2009)



Datu hauek, Eusko Jaurlaritzaren 12 Sailek, Plana duten 55 udalek eta 3 Foru Aldundiek parte hartu duten Berdintasunerako Legearen ebaluazioan lortutakoekin osatzen dira. Erakunde Publiko horiek emandako informazioaren arabera, erakunde horien % 41,4k (k=29) dagozkien planak ebaluatu dituzte 2006-2009 aldian (26 udalek eta 3 Foru Aldundiek). Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Sailek, berdintasunaren arloan garatutako jarduerari buruzko jarraipen-txostena egin dute urtero.



**AZTERKETA OROKORRA:  
2006-2009 BILAKAERA**

## 3.3.1

Mainstreaming ardatzak 7 programa proposatzen ditu sei esku-hartze arlotan, eta 2 helburu, Zerbitzu Orokorrak delako esparruan.

Ikus daitekeenez, atal honetan aztertzen den Ardatzean barne hartutako programa bakoitza aipatzean kode bat agertzen da. Kode horren helburua grafikoak irakurtzen erraztea da; horrela, haietan agertzen den datu bakoitza zein programari dagokion jakin baitaiteke.

Kodea definitzeko erabilitako logika hau da: lehen letra ardatz estrategikoari egiten dio erreferentzia (Mainstreaming kasu honetan), hurrengo letrek esku-hartze arloari eta zenbakiak, programa zenbakia adierazten du, arlo gehienek programa bat gehiago proposatzen dutelako. Programen izen osoa ohar batean edo orri oinean agertzen da.

Zerbitzu orokorrak delako esparruan, IV. Planak ez du programarik proposatzen, bi helburu baizik, hala ere, interesgarritzat jo dugu ardatz estrategiko honen azterketan aipatzea, bi helburu programa bat izango balitz bezala. Beraz, MZO1 eta MZO2 kodeak esleitu zaizkie.

Hori argituta, zenbait datu agertzen dira jarraian, Euskal Administrazio Publikoek Mainstreaming arloan abian jarri dituzten berdintasunerako politiken joera orokorrak eza-gutzeko.

Ardatz honen programa guztietan, IV. Planaren lau urteko indarraldian, egindako jarduera kopuruari buruzko datuak eta horiek gauzatzeko erabilitako esku-hartze tresnak jasotzen dira (sentsibilizazioa; prestakuntza; azterketak egitea; baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea; arauak sortzea eta egokitzea eta jarraipena egitea).

Tresna horiek ezinbestekoak dira IV. Planean proposatutako zenbait programa txertatu ahal izateko, hala ere, oso desberdinak dira eskatzen dituzten baliabideak eta haiek dituzten eraginak. Hori dela eta, erreminta bat edota bestea erabiltzeak erakusten du, zeharka bada ere, botere publikoak zenbateraino dauden inplikaturak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko ekintzak abiarazteko.

Horrez gain, erakunde publikoek Mainstreaming jardueretan jakinarazitako gastu osoarekin zerikusia duten datuak, eta gastu horrek IV. Planean jasotako programen artean duen banaketa ere ematen dira.


Erakunde publikoek mainstreaming estrategiarekin zerikusia duten eta Zerbitzu Orokorraren nahiz sei esku-hartze arloen programak eta helburuak lantzen dituzten 1.268 jarduera (8) egin dituzte 2006. eta 2009. urteen artean. Hurrengo grafikoan, administrazioak ardatz

---

(8) Mainstreaming ardatzak dituen 1.534 jarduerak osatzeko gainerako 266ak, aurreko atalean aztertu diren Plana ezartzeko neurrien esparruan kokatzen dira.

estrategikoan proposatutako 7 programen eta 2 helburuen barruan egindako jarduerak kopurua ezagutzeko aukera ematen duten datuak jasotzen dira (9).

### 3.13. GRAFIKOA Euskal Administrazioak IV. Planaren Mainstreaming programa bakoitzean 2006 eta 2009 artean egindako jarduerak



Grafikoan argi ikusten da Euskal Administrazioako Erakundeek egindako programa nagusia Erakundeari genero ikuspegia txertatzeko ahalmena emateko (MZO1) (% 51,4) izan dela.


Urteka aztertzen badugu, erakunde publikoek programa berdinei lehentasuna emateko joera ikus daiteke.

Programa bakoitzean erabilitako esku-hartze tresnei dagokienez (10), IV. Planaren lau urteko indarraldian, espazio arrazoiak direla-eta, datuak bi grafikotan aurkezten dira. Lehenengoan, bost programari dagozkienak jasotzen dira; bigarreanean, gainerako lauei dagozkienak.


(9) Erakundeari genero ikuspegia txertatzeko ahalmena ematea (MZO1); Gizartean berdintasun politikekiko interesa eta inplikazioa zabaltzea (MZO2); Kulturari genero ikuspegia txertatzea (MK1); Ikastetxeetan hezkidetzak sustatzea (MH1); Enplegu zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzea (ME1); Gizarte zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzea (MG1); Osasun sisteman genero ikuspegia txertatzea (MO1); Emakumei bereziki eragiten dieten gaitzei hobeto heltzea (MO2); Genero ikuspegia hirigintza, garraio eta ingurumen politikan eta proiektuetan kontuan hartzea (MHGI1).

(10) Erakundeari genero ikuspegia txertatzeko ahalmena ematea eta gizartean berdintasun politikekiko interesa eta inplikazioa zabaltzea (MZO1); Gizartean berdintasun politikekiko interesa eta inplikazioa zabaltzea (MZO2); Kulturari genero ikuspegia txertatzea (MK1); Ikastetxeetan hezkidetzak sustatzea (MH1); Enplegu zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzea (ME1); Gizarte zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzea (MG1); Osasun sisteman genero ikuspegia txertatzea (MO1); Emakumei bereziki eragiten dieten gaitzei hobeto heltzea (MO2); Genero ikuspegia hirigintza, garraio eta ingurumen politikan eta proiektuetan kontuan hartzea (MHGI1).

**3.14. GRAFIKOA** IV. Planaren programak gauzatzeko erabilitako esku-hartze tresnak (2006-2009 aldia) (%): Lehen zatia



**3.15. GRAFIKOA** IV. Planaren programak gauzatzeko erabilitako esku-hartze tresnak (2006-2009 aldia) (%): Bigarren zatia



Grafikoen arabera, programa guztiek ez diete joera bereberri jarraitzen erabiltzen dituzten esku-hartze tresnei dagokienez. Horrek, planak berak egiten duen jarduera-proposamen motarekin zerikusia du hein handi batean, taula honetan ikus daitekeen moduan:


PROGRAMAK	SENTSIBILIZAZIOA PRESTAKUNTZA		EZAGUTZA		BALIABIDEAK		ARAUAK		JARRAIPENA			
	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa		
MZO1	0	13,5	0	18,1	50	13,1	50	34,6	0	6,9	0	9,3
MZO2	66,7	55,5	0	6,6	33,3	16,9	0	0	0	16,4	0	4,6
MK1	12,5	6,7	25	18,3	25	18,3	12,5	20	0	20	25	16,7
MH1	16,7	21,7	16,7	35	11,1	13,3	22,2	16,7	16,7	11,7	16,7	1,7
ME1	7,1	13,8	7,1	12,8	12,4	24,8	14,3	15,6	28,6	21,1	21,4	11,9
MG1	22,2	9,8	11,1	22,9	33,3	24,6	11,1	19,7	0	16,4	22,2	6,6
MO1	8,3	22,9	16,7	14,3	50	37,1	16,7	11,4	8,3	8,9	0	5,7
MO2	11,8	38,6	23,5	6,8	29,4	25	29,4	25	5,9	2,3	0	2,3
MHGI1	19	21,6	9,5	3,1	19	46,1	23,8	12,3	4,8	6,2	23,8	10,8

- IV. Planean proposatutakoaren 5 puntu gainetik edo azpitik
- IV. Planean proposatutakoaren 10 puntu edo gehiago azpitik
- IV. Planean proposatutakoaren 10 puntu edo gehiago gainetik

Taulan ikus daiteke programa guztietan desorekak daudela erakunde publikoek egindako jardueren joeren eta Berdintasunerako Planak berak ezartzen dituen joeren artean, Planak ezarritako helburuak betetzeko erabili behar den esku-hartze tresna motari dagokionez.

Lau urte hauetan Mainstreaming ardatzerako bideratutako gastuari dagokionez, erakunde publikoek jakinarazi dute 13.940.236,48 euro izan direla, eta IV. Planean jasotako programen artean banaketa hau izan da:

### 3.16. GRAFIKOA Programen barruan Mainstreaming jardueretarako bideratutako gastuaren banaketa (2006-2009)



Mainstreamingerako bideratutako baliabide ekonomikoen ehunekoari buruzko datuen arabera, Euskal Administrazioaren erakundeek gauzatutako programa nagusiak hauek dira: Administrazioari genero ikuspegia txertatzeko ahalmena ematea (MZO1) eta Enplegu zerbitzuetan genero ikuspuntua integratzea (ME1). Bi programa horiek, ardatz estrategikiko honetarako bideratutako diruaren % 77,5 biltzen dute.

**MAINSTREAMING ARDATZEAN  
BARNE HARTUTAKO  
PROGRAMA BAKOITZAREN  
EBALUAZIOA**

## **3.3.2**

Atal honetan, Mainstreaming Programa bakoitzean aurkitutako emaitzak erakusten dira, honi dagokionez:

- Programak gauzatzearen intentsitate maila.
- Programak gauzatzen parte hartu duten erakunde publikoak.
- Programa hauek izan duten estaldura maila.
- Programak gauzatzeko erabilitako baliabide ekonomikoak.

**ZERBITZU OROKORREN ARLOA:**

**ERAKUNDEARI GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO AHALMENA EMATEA ETA  
GIZARTEAN BERDINTASUN POLITIKEKIKO INTERESA ETA INPLIKAZIOA  
ZABALTZEA**


Zerbitzu orokorren esparrua, lehen aipatu den moduan, ez dago programetan egituratuta. Bi helburu proposatzen ditu:

- Erakundeari genero ikuspegia integrazteko ahalmena ematea.
- Gizartean berdintasun politikekiko interesa eta inplikazioa zabaltzea.


**PROGRAMAK GAUZATZEAREN  
INTENTSITATE MAILA (HELBURUAK,  
KASU HONETAN BAKARRIK)**

Guztira, bi helburu horiekin lotutako 833 jarduera egin dira. Lehen helburuaren barruan 652 jarduera egin dira eta bigarrenaren barruan, 181. Hortaz, ardatz honetan barne hartutako programa guztietan egindako jardueren batez bestekoa ( $k=140,8$ ) nabarmen gainditu dute (lehen kasuan are gehiago).

**3.17. GRAFIKOA** Erakundeari genero ikuspegia txertatzeko ahalmena ematea (2006-2009)




**3.18. GRAFIKOA** Gizartean berdintasun politikekiko interesa eta inplikazioa zabaltzea (2006-2009)



## PROGRAMAK GAUZATZEN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDE PUBLIKOAK (HELBURUAK, KASU HONETAN BAKARRIK)

Grafikoaren datuen arabera, Zerbitzu Orokorren esparruaren bi helburu horiek gauzatzen parte hartu duen erakunde publikoen batez bestekoa ardatzean parte hartutako batez bestekoa baino handiagoa da, oro har. Joera hori, parte hartutako hiru administrazio bakoitzaren erakunde kopurua aztertzen denean ere ikusten da, Foru Administrazioaren kasuan izan ezik.


### 3.19. GRAFIKOA Erakundeari genero ikuspegia txertatzeko ahalmena ematea eta gizartean berdintasun politikeiko interesa eta inplikazioa zabaltzea (2006-2009)




### PROGRAMEN ESTALDURA MAILA (HELBURUAK BAKARRIK KASU HONETAN)

Aztertutako helburuen izaera dela eta, jarraian -Administrazioaren langileak- eta -profesionalak- taldeen pertsona kopuruari buruzko datuak agertzen dira, eta baita IV. Planaren bi helburu horiek lortzeko bultzatutako jardueretan parte hartu duten gizarteko taldeenak ere.

**3.20. GRAFIKOA** Programan parte hartutako politikariak eta teknikariak: Sexuaren arabera datuak (2006-2009)



**3.21. GRAFIKOA** Programan parte hartu duten taldeak: Sexuaren arabera datuak (2006-2009)






## PROGRAMA HAU GAUZATZEKO ERABILITAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK (HELBURUAK BAKARRIK, KASU HONETAN)

Zerbitzu Orokorren esparruan jasotako Mainstreaming ardatzaren bi helburuak gauzatzeko, erakunde publikoek 4.586.707,23 euro gastua egin dutela jakinarazi dute. Kopuru horretatik, % 91,84 (4.212.680,83 euro), erakundeari genero ikuspegia txertatzeko ahalmena emateko helburuari dagokio; gainerakoa, 374.026,40 (% 8,16), gizartean berdintasun politikekiko interesa eta inplikazioa zabaltzea helburu duten jardueretarako bideratu da.

Hurrengo grafikoan, bi helburu horien jarduera bakoitzean egindako batez besteko kostua jasotzen da, eta ardatzaren jarduerarako batez besteko kostuarekin alderatzen da.

### 3.22. GRAFIKOA Programa honen jardueretarako bideratutako baliabide ekonomikoak: gastatutako batez besteko kopurua (2006-2009)



Grafikoaren arabera, bi helburuen jardueretarako bideratutako batez besteko kostua ardatzaren jardueren batez besteko kostuaren nabarmen azpitik dago.

## KULTURA ARLOA:

### KULTURA ARLOAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA


Programa honek helburu bakarra du:

- Kultura arloan genero ikuspegia kontuan duten jarduerak planifikatzen eta gauzatzen dituzten administrazioen kopurua handitzea.

#### PROGRAMAK GAUZATZEKO INTENTSITATE MAILA

Helburu honekin zerikusia duten 60 jarduera egin dira guztira, ardatz honetan barne hartutako programetan egindako jardueren batez bestekoa baino askoz ere gutxiago ( $k=140,8$ ).


#### 3.23. GRAFIKOA Kultura arloan genero ikuspegia integratzea



#### PROGRAMAK GAUZATZEN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDE PUBLIKOAK


Programa hau gauzatzen parte hartu duen Administrazio Orokorreko, edo Foru eta Toki Administrazioetako erakunde kopurua Mainstreaming ardatzean parte hartutako erakundere-na baino txikiagoa da.

### 3.24. GRAFIKOA Kultura arloan genero ikuspegia integratzea (2006-2009)



### PROGRAMEN ESTALDURA MAILA


### 3.25. GRAFIKOA Programan parte hartu duten kulturako profesionalak eta komunikabideak (2006-2009)



### PROGRAMA HAU GAUZATZEKO ERABILITAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Kultura arloan, Mainstreaming ardatzaren barruan jasotako hiru programak gauzatzeko, 499.532,40 euroko gastua egin dela jakinarazi dute erakunde publikoek.

### 3.26. GRAFIKOA Genero ikuspegia kultura arloetan txertatzeko bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



#### HEZKUNTZA ARLOA:


#### IKASTETXEETAN HEZKIDETZA SUSTATZEA

Programa honen helburua da hezkidetzaren txertatzea Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Helduentzako Hezkuntzako ikastetxeetako urteko programa guztietan.

#### PROGRAMAK GAUZATZEKO INTENTSITATE MAILA

Laugarren planaren lau urteko indarraldian, helburu honekin zerikusia duten 60 jardueraren egin dituztela jakinarazi dute erakunde publikoek. Kopuru hori, Mainstreaming ardatzaren programetarako jakinarazitako jardueren batez bestekoaren nabarmen azpitik kokatu da.


### 3.27. GRAFIKOA Ikastetxeetan hezkidetza sustatzea (2006-2009)



### PROGRAMAK GAUZATZEN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDE PUBLIKOAK


Programa hau gauzatzen parte hartu duen Administrazio Orokorreko, edo Foru eta Toki Administrazioiko erakunde kopurua Mainstreaming ardatzean parte hartutako erakundere-na baino zertxobait txikiagoa da.

### 3.28. GRAFIKOA Ikastetxeetan hezkidetza sustatzea (2006-2009)



## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA


### 3.29. GRAFIKOA Programan parte hartu duten hezkuntza arloko profesionalak



## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Hezkuntza arloan, Mainstreaming ardatzaren barruan jasotako programa hau gauzatzeko, 128.485,31 euroko gastua egin dela jakinarazi dute erakunde publikoek.

### 3.30. GRAFIKOA Ikastetxeetan hezkidetzak sustatzeko bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



## LAN ARLOA:


### ENPLEGU ZERBITZUETAN GENERO IKUSPUNTUA TXERTATZEA

Programa honek helburu bakarra du genero ikuspegia enplegu-zerbitzuetan txertatzea.

#### PROGRAMAK GAUZATZEKO INTENTSITATE MAILA

Erakunde publikoek jakinarazi dute Lan arloaren programa honekin zerikusia duten 109 jarduera egin dituztela, beraz, Mainstreaming ardatzaren programetan jasotako jardueren batez bestekoaren azpitik.


#### 3.31. GRAFIKOA Enplegu zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea (2006-2009)



#### PROGRAMAK GAUZATZEN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDE PUBLIKOAK


Programa hau gauzatu duten erakundeei dagokienez, Mainstreaming ardatzaren aldean, kopurua zertxobait handiagoa da Administrazio Orokorraren eta Foru Administrazioaren kasuan, grafiko honetan ikusten den moduan.

**3.32. GRAFIKOA** Enplegu zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea (2006-2009)



**PROGRAMEN ESTALDURA MAILA**

**3.33. GRAFIKOA** Programan parte hartu duten lan arloko profesionalak




**PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK**

Lan arloan, Mainstreaming ardatzaren barruan jasotako programa hau gauzatzeko, 6.589.683,47 euroko gastua egin dela jakinarazi dute erakunde publikoek.



**3.34. GRAFIKOA** Enplegu zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasunerako egokitzeko bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



**GIZARTERATZE ARLOA:**


**GIZARTE ZERBITZUETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA**

Programa honen helburua da administrazio publikoetako gizarte ekintza sailtako diagnostikoetan, plangintzetan eta ebaluazioetan genero ikuspuntua txertatzea.

**PROGRAMAK GAUZATZEKO INTENTSITATE MAILA**

Erakunde publikoek jakinarazi dute programa honekin eta hari dagokion helburuarekin zerkusia duten 61 jarduera egin dituztela; Mainstreaming ardatzari dagokion batez bestekoaren nabarmen azpitik.


### 3.35. GRAFIKOA Gizarte zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzea (2006-2009)



### PROGRAMAK GAUZATZEN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDE PUBLIKOAK


Programa hau gauzatzen parte hartu duen erakunde kopurua, ardatz osoan parte hartutako erakundeen batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa da, edozein dela zein administrazioetan dauden.

### 3.36. GRAFIKOA Gizarte zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzea (2006-2009)



## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA


### 3.37. GRAFIKOA Programan parte hartu duten gizarte zerbitzuetako profesionalak



### PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Gizarteratze arloan, Mainstreaming ardatzaren barruan jasotako programa hau gauzatzeko, 233.020,57 euroko gastua egin dela jakinarazi dute erakunde publikoek.

### 3.38. GRAFIKOA Gizarte zerbitzuetan genero ikuspegia txertatzeko bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



## OSASUN ARLOA:


### OSASUN SISTEMAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA

Programa hau gauzatzearen eta garatzearen helburua hau da, praktika klinikorako dauden gidak aldatzea eta berriak egitea genero ikuspegia txertatuta, ikerketa fasetik hasita osasun sistema publikoan aplikatu arte.

#### PROGRAMAK GAUZATZEKO INTENTSITATE MAILA

Erakunde publikoek jakinarazi dute helburu honekin zerikusia duten 53 jarduera egin dituztela; Mainstreaming ardatzari dagokion batez bestekoaren nabarmen azpitik.


#### 3.39. GRAFIKOA Osasun sisteman genero ikuspegia txertatzea (2006-2009)



#### PROGRAMAK GAUZATZEN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDE PUBLIKOAK


Osasun programa honekin zerikusia duten jardueren berri eman duen erakunde publiko kopurua batez bestekoaren nabarmen azpitik kokatzen da, grafiko honetan ikus daitekeen moduan:

**3.40. GRAFIKOA** Osasun sisteman genero ikuspegia txertatzea (2006-2009)



**PROGRAMEN ESTALDURA MAILA**


**3.41. GRAFIKOA** Programan parte hartutako osasun zerbitzuetako profesionalak



## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Osasun arloan, Mainstreaming ardatzaren barruan jasotako programa hau gauzatzeko, 817.049 euroko gastua egin dela jakinarazi dute erakunde publikoek. Grafiko honetan, egindako jarduera bakoitzean gastatutako batez besteko kopurua ikusten da, ardatzaren jarduera bakoitzarekin egindako jardueretan gastatutako batez besteko kopuruarekin alderatuta.

### 3.42. GRAFIKOA Osasun sisteman genero ikuspegia txertatzeko bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



#### OSASUN ARLOA:

#### EMAKUMEEI BEREZIKI ERAGITEN DIETEN GAITZEI HOBETO HELTZEA

Programa honek hiru helburu ditu:

- Bularreko minbiziari aurrea hartzeko ekintzak egiten zaizkien emakumeen adina 70 urte arte luzatzea, poztasun maila handiari eutsiz hartutako tratamenduarekin, behin gaixotasunaren diagnostikoa eginda.
- Elikadurako nahasmenduen eragina murriztea, batez ere gazteen eta neskatilen artean.
- Emakumeen garuneko gaixotasunak eta gaixotasun kardiobaskularrak prebenitzeko jarrerak ugaritzea.

Programa honek lotura zuzena duenez funtsean emakumeei eragiten dieten zenbait osasun-arazoekin, egokitzat jo dugu sarrera moduan emakumeen gaur egungo egoerari buruzko zenbait datu ematea, osasun arazo horiei dagokienez.

Emakumeak eta osasuna 2009-2012 Planaren arabera, bularreko minbizia da emakumeek gehien duten tumorea; izaten dituzten tumore gaizto guztien % 27,8, hain zuzen.

Azken 5 urtetan, batez beste 1.123 kasu berriren diagnostikoa egin dute EAEko emakumeen artean, urtero, eta agerraldi tasa % 0,27 handitu da urtean (IC - 0,64 / 1,18). Hortaz, estatistikoki, igoera ez da esanguratsua izan.

Osakidetzak EAEko bularreko minbiziaren kontra borrokatzeko erabiltzen duen baliabide nagusietako bat Bularreko Minbizia Garaiz Detektatzeko Programa da. Programa hau hobetzeko azken urteetan garatutako jarduera nagusiak, Osakidetzaren 2005-2009 Jarduera Memoriaren arabera, hauek izan dira:

- Programa 60 urte bete arte luzatzea.
- EAEko Bularreko Minbizia Garaiz Detektatzeko Programaren Unitateak digitalizatzen hasi.
- Gaur egungo kudeaketa hobetzen duen aplikazio informatiko berria egitea, programa honek ekarritako beharrak jasoz.

Emakumeen parte-hartze tasa % 80an kokatu zen, beraz, Osasun Sistema Nazionalaren Minbiziaren Estrategian ezarritako gutxieneko partaidetza 10 puntutan gainditu zuen.

Programaren erabiltzaileen artean 2007ko azaroan egindako azken gogobetetze inkestaren arabera, inkesta egindako emakumeen % 95,5 oso pozik edo nahiko pozik agertu zen Programarekin, eta % 100ek deialdi berrian parte hartuko zutela erantzun zuten.

Gaixotasun kardiobaskularrei dagokienez, 2009-2012 Osasuna eta Emakumeak Programak adierazitakoren arabera, arrazoi horrengatik gertatutako heriotza kopurua minbiziarengatik eta rankingean haren atzetik agertzen diren zazpi heriotza arrazoiengatik gertatutako heriotza kopurua baino handiagoa da.

Arrazoi horrengatik gertatutako heriotza kopurua behera egiten ari da gizonen artean; emakumeen artea, berriz, ez. Horrela, Espainiako emakumezkoen artean gertatzen diren 10 heriotzetatik hiru, gaixotasun kardiobaskular batengatik gertatzen da. EAEn, 24 urtetik gorako pertsonen artean, urteko bihotzekoen tasa 236 kasukoa da 100.000 gizoneko, eta 61 kasukoa 100.000 emakumeko. Adinekoen artean, berriz, sexuen arteko aldea askoz ere txikiagoa da: 1.775 kasu, 74 urtetik gorako 100.000 gizoneko, eta 757, adin bereko 100.000 emakumeko.

Kardiopatia iskemikoaren kasuan, duela gutxi egindako *Emakumearen gaixotasun kardiobaskularren epidemiologia* (11) azterketaren arabera, miokardio infartu akutua izan eta 28 egunera, hilkortasuna % 20 handiagoa izan daitekeela emakumeengan gizonengan baino. Azterketa epidemiologiko horren arabera, patologia hori duten emakumeak, batez beste, gizonak baino ordubete beranduago heltzen dira ospitalera, eta koadro kliniko larriagoak garatzen dituzte.

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko Azterlan eta Ikerketa Zerbitzuak miokardio infartu akutuen baskularizazio goiztiarraren tratamenduan gertatzen diren genero desberdintasunei buruzko ikerketa egin zuen 2006an, eta ikerketa horren arabera, emakumeengan gizonengan baino 10 urte beranduago agertzen da patologia hori. Beraz, ondorio hauek atera zituen: miokardio infartu gehienak, adinekoek izaten dituztela; beste patologia batzuk maiztasun handiagoarekin gertatzen direla (HTA, diabetesa eta bihotz gutxiegitasuna) eta miokardio infartuaren ohiko sintoma eta zantzuak aldi gutxiagotan agertzen direla. Azkenik,

---

(11) Marrugat J, Sala J, Aboal J. Epidemiologia de las enfermedades cardiovasculares en la mujer. Rev Esp Cardiol 2006; 59:264-274.

emakumeek gizonek baino beranduago hartzen dute osasun arreta, zainketa medikoak beranduago eskatzen dituztelako, behin sintomak hasita. Aztertzen ari dira laguntza eskatzeko atzerapen horretan eragina izan dezaketen faktoreak, baina kultura alderdiak (mina eta infartua izateko arriskua hautematean aldeak), sozialak (mendeko pertsonak zaintzea, autonomia falta ospitalera joateko), psikologikoak eta medikoak (min iskemikoaren haute-matea asaldatzen duen diabete kasu gehiago) aipatu dituzte.

Gaixotasun kardiobaskularretan eragina duten ohiturak, egoera hori prebenitzeko kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsua dira, beraz. Gizonen % 59k eta emakumeen % 30ek astean behin gutxienez edari alkoholduak hartzen dituzte 2007ko Osasun Inkestaren datuen arabera. Hala ere, emakumeen artean, alkohol gehien kontsumitzen duen taldea 16 eta 24 urte artekoa da. Hortaz, bizitza ohitura osasungarrietan ez gara lortzen ari sozializazioa. Emakumeen taldearen adin guztietan, kontsumoari eusteko edo jaisteko joera antzeman da, 45 eta 64 urte arteko taldean izan ezik, goranzko joera ikusi batia alkoholaren kontsumoan.

Tabakoari dagokionez, gizonen % 29k eta emakumeen % 21ek eskuarki erretzen du. Azken urteetan tabakoaren kontsumoak behera egin du gizonen artean; hala ere, bilakiera on hori ez da gertatu emakumeen artean.

Emakumezko erretzaile gehien dituen adin-taldea 25 eta 44 urte artekoa da, hala ere, deigarria da 16 eta 24 urte artean tabakismoa handia dela, gizonen gainetik adin talde berean.

Aurretik egindako inkesten emaitzei dagokionez, gutxi mugitzeko joerak behera egin du adin talde guztietako emakumeen artean. Hala ere, aisialdian jarduera fisikorik egiten ez duten emakumeak ere badaude, % 57 hain zuzen. Hain gutxi mugitzen ez den emakume taldea, 45 eta 64 urte artekoa da.

Elikadura ohiturei dagokionez, 2007ko Osasun Inkestaren Txostenaren datuen arabera, emakumeek gizonek baino fruta eta barazki gehiago hartzeaz gain, dieta egokiagoa dute. Hala ere, emakumeek dietaren edukia hobeto banatzen badute ere, obesitate kasuak ugari dira, gizonen antzera, aurretiko emaitzen aldean. Horrela, gizonen % 13k eta emakumeen % 12k obesitatea dute. Obesitatea adin talde guztietan handitu da emakumeen artean, eta sozio-ekonomikoki baztertuen dauden taldeetan indar handiagoarekin.


Bereziki eragiten dieten zenbait gaixotasunen egoerari buruzko zenbait datu ezagututa, jarraian, Mainstreaming ardatzaren txostenaren zati honen hasieran aipatutako lau adierazleekin lortutako emaitzak azalduko dira: Osasun Programa honen gauzatzearen intentsitate maila; programa gauzatzen parte hartu duen erakunde kopurua; programaren estaldura (taldeak, emakumeak eta gizonak) eta bideratutako baliabide ekonomikoak.

## **PROGRAMAK GAUZATZEKO INTENTSITATE MAILA**

Programa honekin zerikusia duten 44 jarduera egin dira guztira, ardatz honetan barne hartutako programetan egindako jardueren batez bestekoa baino askoz ere gutxiago ( $k=140,8$ ).




**3.43. GRAFIKOA** Emakumeei bereziki eragiten dieten gaitzei hobeto heltzea (2006-2009)




**PROGRAMAK GAUZATZEN PARTE HARTUTAKO ERAKUNDE PUBLIKOAK**

**3.44. GRAFIKOA** Emakumeei bereziki eragiten dieten gaitzei hobeto heltzea (2006-2009)



## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

### 3.45. GRAFIKOA Programan parte hartu duten osasun sistemako profesionalak



### PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Programa honen garapenez arduratutako erakundeek horretarako bideratutako baliabide ekonomikoei buruzko informazio eskasa eman dutenez, ebaluazio adierazle honen emaitzak ekartzea erabaki dugu; bestela, ziur asko, interpretazioa nabarmen aldatuko bailitzateke.

#### **HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKOA ETA INGURUMEN ARLOA:**

#### **GENERO IKUSPEGIA HIRIGINTZA, GARRAIO ETA INGURUMEN POLITIKETAN ETA PROIEKTUETAN KONTUAN HARTZEA**


Programa honek hiru helburu ditu:

- Hirigintza arloko ekintza planetan genero ikuspegia txertatzeko erreminta estandar bat ezartzea.
- Esku-hartze erreminta bat ezartzea eta genero ikuspegia txertatzea garraio sozietate publikoetan.
- Ingurumen arloko ekintza planetan genero ikuspegia txertatzeko eredu bat ezartzea.

## PROGRAMAK GAUZATZEKO INTENTSITATE MAILA

Programa honen gauzatzeari dagokionez, erakunde publikoek jakinarazi dute 65 jarduera egin dituztela. Jarduera horiek, modu oso orekatuan banatzen dira hiru helburuen artean (21, 23 eta 21, hurrenez hurren). Mainstreaming ardatzaren batez bestekoaren aldean, programa honetan egindako jarduera kopurua oso baxua da, grafiko honetan adierazten den moduan.


### 3.46. GRAFIKOA Genero ikuspegia Hirigintza, Garraio eta Ingurumen politiketan eta proiektuetan kontuan hartzea (2006-2009)



## PROGRAMAK GAUZATZEN PARTE HARTUTAKO ERAKUNDE PUBLIKOAK


Programa gauzatzen parte hartu duen erakunde kopuruari dagokionez, grafiko honetan erakusten den moduan, datua, oro har, Mainstreaming ardatzaren datuaren oso antzekoa da. Baina parte hartutako erakundeen administrazio maila kontuan hartzen bada, programa honen garapenean parte hartu duen Toki Administrazioako erakunde kopurua ardatza oso-koarena baino txikiago da (10, 15,9en aldean). Bestalde, administrazioaren beste bi mailetan, erakundeen partaidetza batez bestekoaren antzekoa da.

**3.47. GRAFIKOA** Genero ikuspegia Hirigintza, Garraio eta Ingurumen politketan eta proiektuetan kontuan hartzea



**PROGRAMEN ESTALDURA MAILA**


**3.48. GRAFIKOA** Programan parte hartutako politikariak eta teknikariak: Sexuaren araberako datuak (2006-2009)



## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Hirigintza eta Ingurumen arloan, Mainstreaming ardatzaren barruan jasotako programa gauzatzeko, 387.976 euroko gastua egin dela jakinarazi dute erakunde publikoek. Grafiko honetan, egindako jarduera bakoitzean gastatutako batez besteko kopurua ikusten da, ardatzaren jarduera bakoitzarekin egindako jardueretan gastatutako batez besteko kopuruarekin alderatuta.

### 3.49. GRAFIKOA Genero-ikuspegia Hirigintza, Garraio eta Ingurumenarekin zerikusia duten politika eta proiektuetan txertatzeko baliabide ekonomikoak (2006-2009)



## EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA ARDATZEAN EGINDAKO JARDUERAK

# 3.4

### AZTERKETA OROKORRA: 2006-2009 BILAKAERA

## 3.4.1

Emakumeen ahalduntzea eta partaidetza soziopolitikoa ardatzak 11 programa proposatzen ditu sei esku-hartze arlotan, eta 2 helburu, Zerbitzu Orokorrak delako esparruan.

Ikus daitekeenez, atal honetan aztertzen den ardatzean barne hartutako programa bakoitza aipatzean kode bat agertzen da. Kode horren helburua grafikoak irakurtzen erraztea da; horrela, haietan agertzen den datu bakoitza zein programari dagokion jakin baitaiteke.

Kodea definitzeko erabilitako logika hau da: lehen letra ardatz estrategikoari egiten dio erreferentzia (Ahalduntzea kasu honetan), hurrengo letrek esku-hartze arloari eta zenba-

kiak, programa zenbakia adierazten du, arlo gehienek programa bat gehiago proposatzen dutelako. Programen izen osoa ohar batean edo orri oinean agertzen da.

Zerbitzu Orokorrak delako esparruan, IV. Planak ez du programarik proposatzen, bi helburu baizik, hala ere, interesgarritzat jo dugu ardatz estrategiko honen azterketan aipatzea, bi helburu programa bat izango balitz bezala. Beraz, AZO1 kodea esleitu zaie.

Hori argituta, zenbait datu agertzen dira jarraian, euskal administrazio publikoek emakumeen Ahalduntze arloan abian jarri dituzten berdintasunerako politiken joera orokorrak eza-gutzeko.

Ardatz honen programa guztietan, IV. Planaren lau urteko indarraldian, egindako jarduera kopuruari buruzko datuak eta horiek gauzatzeko erabilitako esku-hartze tresnak jasotzen dira (sentsibilizazioa; prestakuntza; azterketak egitea; baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea; arauak sortzea eta egokitzea eta jarraipena egitea). Tresna horiek ezinbestekoak dira Planean proposatutako zenbait programa txertatu ahal izateko, hala ere, oso desberdinak dira eskatzen dituzten baliabideak eta haiek dituzten eraginak. Hori dela eta, erreminta bat edota bestea erabiltzeak erakusten du, zeharka bada ere, botere publikoak zentzuzkoak dauden inplikaturak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko ekintzak abiarazteko.


Horrez gain, erakunde publikoek Ahalduntze jardueretan jakinarazitako gastu osoarekin zerkusia duten datuak, eta gastu horrek IV. Planean jasotako programen artean duen banaketa ere ematen dira.

Erakunde publikoek emakumeen ahalduntzearekin eta partaidetza soziopolitikoarekin zerkusia duten 1.516 jarduera egin dituzte 2006. eta 2009. urteen artean. Hurrengo grafikoa, administrazioak ardatz estrategikoan proposatutako 11 programen eta 2 helburuen (12) barruan egindako jarduera kopurua ezagutzeko aukera ematen duten datuak jasotzen dira.

---

(12) Administrazio barruko prozesuak, emakumeek politika publikoen definizioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzeko aukera izan dezaten, eta berdintasuna bultzatzeko elkarte egitura susta dezaten (AZO1); Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kirolaren eremuan (AK1); Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kultura eta arte arloan (AK2); Emakumeen presentzia eta parte-hartzea komunikabideetan (AK3); Hezkuntza sistemako erabaki eremuetara jotzea (AH1); Ezagutza ez sexista sortzea eta eskuratzea (AH2); Enplegua berdintasun baldintzetan eskuratzea (AE1); Lan-baldintzak parekatzea (AE2); Diskriminazio era bat baino gehiago eta bazterketa arriskua duten emakumeen baldintzak zein maila hobetzea (AG1); Emakumeek beren ugalketa osasunaren inguruan erabakitzeak ahalmena areagotzea (AO1); Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arlo guztietan emakumeek berdintasun parte hartzea, nola diseinuan eta plangintzan, hala hobekuntzetan (AHG11) eta Emakumeek esparru publikoetan egindako gizarte-, kultura- eta historia-ekarpenak aitortzea (AHG12).

**3.50. GRAFIKOA** Euskal Administrazioak 2006 eta 2009 artean IV. Planaren Emakumeen ahalduz eta partaidetza soziopolitikoaren programaren bakoitzean egindako jarduerak




Grafikoak argi erakusten ditu Euskal Administrazioako erakundeek gauzatutako programa nagusiak (egindako programa guztien % 62 biltzen dute; 940 jarduerak):

- Berdintasuna bultzatzeaz arduratzen den erakunde sarea areagotzea eta bultzatzea (AZO1).
- Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kultura eta arte arloan (AK2).
- Diskriminazio era bat baino gehiago eta bazterketa arriskua duten emakumeen baldintzak zein maila hobetzea (AG1).

Programen gauzatze mailari arloka begiratzen badiogu, desoreka handiak ikusiko ditugu arlo beraren barruan (esaterako, Kulturaren hiru programetan 79, 307 eta 15 jarduerak egin dira hurrenez hurren). Bestalde, zenbait programetan, hala nola -Emakumeek espazio publikoari egindako gizarte, kultura eta historia ekarpena aintzat hartzea- (AHGI2) programan, gauzatze maila hutsaren parekoa da ( $k=1$ ).

Hurrengo grafikoan informazio hori jasotzen da, baina urteka banatuta, eta urte guztietan programa berdinak lehenetsi ikusten da. Zenbait gorabehera ikusten badira ere, ezin dira esanguratsutzat hartu, joeretan aldaketa bat islatzen dutelako.

### 3.51. GRAFIKOA Egindako jarduerak, IV. Planaren programako eta urteko




Programa bakoitzean (13) IV. Planaren lau urteko indarraldian erabilitako esku-hartze tresnei dagokienez, espazio arrazoiak direla-eta, datuak bi grafikotan aurkezten dira. Lehenengoan, sei programei dagozkienak jasotzen dira; bigarreanean, gainerako seiak.


(13) Administrazio barruko prozesuak, emakumeek politika publikoen definizioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzeko aukera izan dezaten, eta berdintasuna bultzatzeko elkarte egitura susta dezaten (AZO1); Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kirolaren eremuan (AK1); Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kultura eta arte arloan (AK2); Emakumeen presentzia eta parte-hartzea komunikabideetan (AK3); Hezkuntza sistemako erabaki eremuetara jotzea (AH1); Ezagutza ez sexista sortzea eta eskuratzea (AH2); Enplegua berdintasun baldintzetan eskuratzea (AE1); Lan-baldintzak parekatzea (AE2); Diskriminazio era bat baino gehiago eta bazterketa arriskua duten emakumeen baldintzak zein maila hobetzea (AG1); Emakumeek beren ugalketa osasunaren inguruan erabakitzeko ahalmena areagotzea (AO1); Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren arlo guztietan emakumeek berdin parte hartzea, nola diseinuan eta plangintzan, hala hobekuntzetan (AHG11) eta Emakumeek esparru publikoetan egindako gizarte-, kultura- eta historia-ekarpenak aitortzea (AHG12).



**3.52. GRAFIKOA** IV. Planaren programak gauzatzeko erabilitako esku-hartze tresnak (2006-2009 aldia) (%): Lehen zatia



**3.53. GRAFIKOA** IV. Planaren programak gauzatzeko erabilitako esku-hartze tresnak (2006-2009 aldia) (%): Bigarren zatia



Grafikoen arabera, programa guztiek ez diete joera berberei jarraitzen erabiltzen dituzten esku-hartze tresnei dagokienez. Horrek planak berak egiten duen jarduera proposamen motarekin zerikusia du hein handi batean, taula honetan ikus daitekeen moduan:

PROGRAMAK	SENTSIBILIZAZIOA		PRESTAKUNTZA		EZAGUTZA		BALIABIDEAK		ARAUAK		JARRAIPENA	
	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa
AZO1	9,1	12,2	9,1	13,6	0	2,8	81,8	68	0	2,8	0	0
AK1	20	21,5	4	5,1	20	18,9	32	43	12	7,6	12	3,8
AK2	30	57,1	0	26,3	10	5,2	40	8,1	10	3,2	10	0
AK3	12	37,5	12	12,5	28	12,5	16	6,2	8	18,7	24	12,7
AH1	18,7	47,4	0	5,3	18,7	26,3	25	10,6	25	5,3	12,5	5,3
AH2	10,5	31,2	31,6	31,2	10,5	15,6	15,8	21,9	21,1	0	10,5	0
AE1	15,6	21,4	18,7	19,8	15,6	9,2	25	31,3	9,4	16	15,6	2,3
AE2	16,3	15,1	9,3	0,7	16,3	24,3	16,3	25,7	23,3	28,9	18,6	5,3
AG1	8	7	25,3	15,4	26,7	7,4	20	67,4	8	1,4	12	0,7
AO1	11,8	49,3	5,9	9,6	32,3	5,5	29,4	24,7	0	0	11,8	10,9
AHGI1	15	33,3	5	5,9	20	31,4	25	15,7	15	13,7	15	0
AHGI2	16,7	100	0	0	16,7	0	33,3	0	16,7	0	16,7	0


- IV. Planean proposatutakoaren 5 puntu gaintik edo azpitik
- IV. Planean proposatutakoaren 10 puntu edo gehiago azpitik
- IV. Planean proposatutakoaren 10 puntu edo gehiago gaintik

Taulan ikus daiteke desorekak daudela erakunde publikoek egindako jardueren joeren eta Berdintasunerako Planak berak ezartzen dituen joeren artean, IV. Planak ezarritako helburuak betetzeko erabili behar den esku-hartze tresna motari dagokionez. Horrela, esaterako, sensibilizazio tresnaren -gehiegizko- erabilera ikus daiteke 8 Ahalduztze-programetan, eta horrez gain, -gutxiagizko- erabilera gertatzen da jarraipen tresnan ia programa guztietan. Bestalde, prestakuntza tresnaren erabilera da doiketarik onena duena.

Oro har, informazio honetan emandako informazioak, erakunde publikoek egitura aldaketarik handienak sustatzen dituzten tresnak (ezagutza sortzea, arauak aldatzea eta sortzea eta jarraipena) edo sistemari baliabide ekonomiko gehien eskatzen dioten tresnak (sortzea eta baliabideak egokitzea) gutxiago erabiltzeko joera dutela adierazten du.

Lau urte hauetan Emakumeen ahalduztze ardatzerako bideratutako gastuari dagokionez, erakunde publikoek jakinarazi dute 68.292.016,56 euro izan direla, eta IV. Planean jasotako programen artean banaketa hau izan da:

**3.54. GRAFIKOA** Emakumeen ahalduntze eta partaidetza soziopolitikoko jardueretarako bideratutako gastuaren banaketa, bere programen artean (2006-2009)



Emakumeen ahalduntzerako bideratutako baliabide ekonomikoaren ehunekoari buruzko datuen arabera, euskal administrazioaren erakundeek gauzatutako programa nagusiak hauek dira: Berdintasuna bultzatzea xede duten elkarten sarea handitzea eta sustatzea (AZO1); Emakumeen presentzia eta parte-hartzea kultura eta arte arloan (AK2) eta Diskriminazio era bat baino gehiago eta bazterketa arriskua duten emakumeen baldintzak zein maila hobetzea (AG1). Hiru programa horiek, ardatz estrategiko honetarako bideratutako diruaren % 90,7 biltzen dute.

**AHALDUNTZEA ETA PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA ARDATZEAN BARNE HARTUTAKO PROGRAMA BAKOITZAREN EBALUAZIOA**

**3.4.2**

Atal honetan, Ahalduntzea eta partaidetza soziopolitikoko programa bakoitzean lortutako emaitzak erakusten dira, lau alderdi hauei dagokienez:

- Programak gauzatzearen intentsitate maila.
- Programak gauzatzen parte hartu duten erakunde publikoak.

- Programa hauek izan duten estaldura maila.
- Programak gauzatzeko erabilitako baliabide ekonomikoak.

## ZERBITZU OROKORREN ARLOA:

### **ADMINISTRAZIO BARRUKO PROZESUAK, EMAKUMEEK POLITIKA PUBLIKOEN DEFINIZIOAN, JARRAIPENEAN ETA EBALUAZIOAN PARTE HARTZEKO AUKERA IZAN DEZATEN, ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO ELKARTE EGITURA SUSTA DEZATEN**

Proposatutako bi helburuek bi alderdi desberdinei ekiten diete, hala ere, emakumeen partaidetzarekin eta elkarte mugimenduarekin lotuta daude: bata, parte hartzeko bideei eta prozesuei egiten die erreferentzia; bestea, emakume elkarten eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea funtsezko helburutzat duten beste talde batzuen gehikuntzaz aritzen da. Horregatik, bi helburu hauek ebaluatzeko erabili diren adierazleak hauek dira:

- EAEko Herri Administrazioak sustatutako herritarren partaidetzarako gune desberdinetan parte hartzen duen emakumeen ehunekoa.
- Laugarren Planaren indarraldian emakumeek eta herritarren elkarteek politika sozial, ekonomiko eta kulturalen garapenean benetan parte hartzeko bidea eskaintzeko sortutako erakunde kopurua.
- Eratutako emakume elkarte berrien kopurua, haien helburua emakumeen eta gizonen berdintasuna dela.
- Gizonen osatutako elkarte berrien kopurua, haien helburua emakumeen eta gizonen berdintasuna dela.

Lehen adierazleari dagokionez, Ajangizek (Parte Hartuz taldea) 2008an egindako partaidetza-esperientzien mapan, emakumeek EAEko udalerrien prozesu edo mekanismoetan zuten parte-hartzea aztertu zuen. Ikerketa horren arabera, ez dago daturik gordetako kasuen erdian, eta baldin badago, lau partaidetza mekanismo eta esperientzietatik hirutan emakumeen parte-hartzea % 50 baino txikiagoa dela berresten dute. Foroetan eta Tokiko Agenda 21en tailerretan % 50 eta % 75 artekoa da eta % 75 baino handiagoa da berdintasun kontseiluak edo batzordeak direnean.

Bigarren helburuari dagokionez, IV. Planaren indarraldian, 15 udalek emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako partaidetza guneak sortu dituzte. Emakumeek bakarrik parte hartzen duten guneak edo gune mistoak dira. Hiru Aldundietatik, Arabakoak eta Gipuzkoakoak gune hori sortu dute; lehenengoak 2010ean (partaidetza mistoa) eta bigarrenak, 2008an (emakumeentzat bakarrik).

Berdintasunerako Emakumeen Euskal Kontseilua sortzeko legerari dagokionez, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen web orrian jasotzen den moduan EAEko emakume guztiak parte hartzeko gunetzat hartzen dena, haren Lege aurreproiektuaren txostena eta irizpena egiten ari dira, Gobernu Batzordeak gero Lege proiektu gisa onar dezan eta Eusko Jaurlaritzara bidal dezan, izapideak egiteko.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak EAEko emakume elkarteei buruzko azterketa egitea eskatu zion Gizarte Psikologia eta Metodologia Sailari eta honek 2002an egin

zuen. Azterketa horren eta Emakundek berak 2009an egindako eta berrikusitako gidaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan beraien jarduera esparruari -gogoeta feminista- esaten dioten emakumeen elkarteak nabarmen ugartu dira; % 12,2tik (156 elkarteetatik 19) % 28,2ra pasa dira (163 elkarteetatik 46).


Azkenik, azken urteetan Administrazio Orokorrak, Foru Administrazioak eta Toki Administrazioak gizonen inplikazioa bultzatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta genero-indarkeriaren aurka egiteko gauzatutako politika desberdinei esker, gizon ez osatutako zenbait talde formal eta informal sortu dira zenbait herritan (Arrasate, Bilbao, Ermua, Hernani, Irun, Laudio, Santurtzi, Tolosa eta Vitoria-Gasteiz). Horrez gain, gizon talde antolatuez eta banako gizon ez osatutako lan sare bat sortu da: Gizon Sarea.

Bi helburu horiek izandako eraginaren emaitzak jakinda, atalaren hasieran aipatutako lau adierazleekin lortutako emaitzak azalduko dira jarraian. Lau adierazle horiek hauek dira: aurretik aipatutako Zerbitzu Orokorren esparruan barne hartutako bi helburuak gauzatzeko intentsitate maila; programa gauzaten parte hartu duen erakunde kopurua; programaren estaldura (taldeak, emakumeak eta gizonak) eta bideratutako baliabide ekonomikoak.


### **PROGRAMAK GAUZATZEAREN INTENSITATE MAILA (HELBURUAK, KASU HONETAN BAKARRIK)**

Emakumeek politika publikoak definitzen, jarraitzen eta ebaluatzen parte hartzeko aukera izan dezaten, administrazioaren barruan prozesuak gehitzeko eta indartzeko xedez, erakunde publikoek 50 jarduera egin dituzte; ardatz honetan barne hartzen diren programa guztietan egindako batez besteko jarduera kopuruaren nabarmen azpitik, beraz.

#### **3.55. GRAFIKOA Emakumeek politika publikoen definizio, jarraipen eta ebaluazioan parte hartzeko aukera izan dezaten administrazioko prozesuak ugartu eta sendotzea (2006-2009)**



**3.56. GRAFIKOA** Berdintasuna bultzatzeko elkarte-egitura handitzea eta sustatzea (2006-2009)




Erakunde publikoek 299 jarduera egin dituzte 2006 eta 2009 artea berdintasuna bultzatzea helburu duen elkarte egitura handitzeko eta sustatzeko. Datu hori, ardatz honetan barne hartutako programa guztietan egindako batez besteko jarduera kopuruaren gaineretik dago, nabarmen.

**PROGRAMAK GAUZATZEN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDE PUBLIKOAK (HELBURUAK, KASU HONETAN BAKARRIK)**

Grafikoaren datuen arabera, Zerbitzu Orokorren esparruaren bi helburu horiek gauzatzen parte hartu duen erakunde publikoen batez bestekoa ardatzean parte hartutako batez bestekoa baino handiagoa da, oro har. Joera hori, parte hartutako hiru administrazioen erakunde kopurua aztertzean ere ikusten da.


**3.57. GRAFIKOA** Berdintasuna sustatzen aritzen diren partaidetza prozesu eta elkarte kopurua gehitzea (2006-2009)



## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA (HELBURUAK BAKARRIK KASU HONETAN)

Emakumeen ahalduntzearekin eta partaidetza soziopolitikoarekin zerikusia duten eta aztertu ditugun bi helburuetan proposatutako helburuen izaera dela eta, jardueren hartzaille nagusia emakume elkarteetako emakumeak izan dira gehienbat, eta hein txikiagoan beste motatako elkarteen emakumeak.

### 3.58. GRAFIKOA Programetan parte hartutako elkarteetako emakumeak eta gizonak (2006-2009)




## PROGRAMA HAU GAUZATZEKO ERABILITAKO BALIABIDE EKONOMIKOA (HELBURUAK BAKARRIK KASU HONETAN)

Ahalduntze ardatzaren barruan, Zerbitzu Orokorren esparruan jasotako bi helburuak gauzatzeko, erakunde publikoek 22.871.415,16 euro (14)-ko gastua egin dutela jakinarazi dute. Kopuru horretatik, % 99,16a (22.679.554,84 euro) berdintasuna bultzatzeaz arduratzen den erakunde sarea areagotzea eta bultzatzea helbururako eginda; gainerakoa, 191.860,32 euro, administrazioaren prozesuak gehitzeko eta indartzeko bideratu da, emakumeek politika publikoen definizioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzeko aukera izan dezaten.

(14) Gutxi gorabehera 10.000.000 euro hegoaldeko herrialdeetako emakume elkarteei eman zaizkie, garapenerako lankide-proiektuen bidez.

**3.59. GRAFIKOA** Programa honen jardueretarako bideratutako baliabide ekonomi-koak: gastatutako batez besteko kopurua (2006-2009)



**KULTURA ARLOA:**

**EMAKUMEEN PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA KIROLAREN EREMUAN**

Programa honek hiru helburu ditu:

- Kirol erakunde publiko zein pribatuetan banaketa bertikala eta horizontala murriztea.
- Emakumeen eta gizonen kirol jarduera dibertsifikatzea eta emakumeek tradizioz gizonek egin izan dituzten kirolak sarbidea izatea, bai eta gizonek tradizioz emakumeek egin dituzten kirolak praktikatzea ere
- Kirola egiten duen emakumeen kopurua areagotzea, baita haien kirol aukerak ere, beren interesen arabera.

Lehen helburuari dagokionez, datuen arabera, oso emakume gutxi dago oraindik kirol erakundeen erantzukizun lanpostuetan:

- Eusko Jaurlaritzan, sailburua emakumea da, baina erantzukizuna duten hurrengo bi postuetan (sailburuordetza eta zuzendaritza) gizonak daude.
- Kirolaren Euskal Kontseilua, 2009an berritutakoa, 10 emakumek eta 24 gizonek osatzen dute.
- Euskal Kirol Federazioetan erantzukizuneko postuetan dauden emakumeei dagokienez, 49 gizonetako lehendakari eta emakumetzko lehendakari bat bakarrik dago.



Kirol Justiziako Euskal Batzordea izatera pasa zen Kirol Diziplinaren Euskal Batzordea 3 emakumek eta 4 gizonek osatzen dute, eta Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Batzordea 6 emakumek eta 8 gizonek osatzen dute. Hortaz, askoz ere orekatuago daude.

Ez dago datu eguneraturik Unibertsitateko Kirolaren Euskal Batzordeari buruz, hala ere, 2008an sortu zenean 5 emakume eta 8 gizon zeuden. Goi-mailako kirola kudeatzen duen Euskadiko Kirola Fundazioaren daturik ere ez dugu.

Kirol jardueri dagokienez, EAEko Kirol Ohiturei buruzko Inkestaren arabera (Deloitte, 2009), segregazio horizontala dago emakumeen eta gizonen artean: emakumeek gimnasia, aerobica, fitnessa edo yoga nahiago dute lehen tokian, ibiltzea bigarreanean eta igeri egitea hirugarrenean; gizonek, berriz, futbola nahiago dute lehen tokian, ibiltzea bigarreanean eta gimnasia, aerobica, fitnessa edo yoga hirugarrenean.

Kirol federatuan dagoen emakume kopuruari dagokionez, Kirol Zuzendaritzak (2009) emandako datuen arabera, 2009. urtean, federazioen % 35etan emakumeen % 10ek baino gutxiagok zuten lizentzia, eta federazioen % 57tan emakumeen % 10 eta % 40 artean. Kategoria gutxi batzuetan dago orekatuago emakume kopurua (% 41ek baino gehiagok): neguko kirolak, hipika, boleibol eta gimnasia.


Kirol jarduera mailari dagokionez, EAEko Kirol Ohiturei buruzko Inkestaren arabera (Kirol Zuzendaritza - Kultura Saila, 2009), gizonen % 65ek kirola egin zuten azken hilean, emakumeen % 45aren aldean.

Inkestatutakoaren adina edozein dela, gizonen jarduera maila % 50 baino handiagoa da. Bestalde, datuen arabera, 25 eta 35 urte artean kirola egiteari uzten dion arren, 36 urtetik gora gizonen kirol jarduera maila nahiko egonkor mantentzen da; emakumeen kasuan, berriz, kirol jarduera mailak behera egiten du nabarmen 50 urtetik gora.

Sexuen artean kirol esparruan dauden desberdintasunen ikuspegi orokorra aurkeztuta, aginte publikoek gizarte bizitzaren arlo honetan oraindik dirauten genero desberdintasunak ezabatzeko helburuz bultzatutako berdintasun politikei buruzko zenbait datu agertzen dira jarraian.


## PROGRAMAK GAUZATZEKO INTENTSITATE MAILA

### 3.60. GRAFIKOA Emakumeen presentzia eta partaidetza kirol esparruan (2006-2009)




## PROGRAMAK GAUZATZEN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDE PUBLIKOAK

3.61. GRAFIKOA Emakumeen presentzia eta partaidetza kirol esparruan (2006-2009)



## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA


3.62. GRAFIKOA Emakumeek kirol esparruetan parte har dezaten bideratutako jardueren hartzailleak diren biztanleria orokorraren kolektiboak: Sexuaren araberako datuak (2006-2009)



## PROGRAMA HAU GAUZATZEKO ERABILITAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Kultura arloan, Ahalduentze ardatzaren barruan jasotako hiru programak gauzatzeko, 3.984.922,64 euroko gastua egin dela jakinarazi dute erakunde publikoek. Kopuru horretatik, % 50,54 programa honi dagokio (2.013.924,17 euro).

### 3.63. GRAFIKOA Emakumeek kirol esparruan parte har dezaten bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



#### KULTURA ARLOA:


#### EMAKUMEEN PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA KULTURA ETA ARTE ARLOAN

Programa honek helburu bakarra du, emakumeen kultura eta arte sorkuntza eta gizartearen ikuspegi ez-sexista sustatzen duena bultzatzea. Adierazleak bilatzen hasita, ez dugu aukerarik izan espero genuen informazio iturrietatik datuak jasotzeko (BAI, DIRCE, EUS-TAT, Kulturaren Euskal Behatokia).

Behatokiari dagokionez, 2010eko azken hiruhilekoan argitaratutako 3 txostenetako datuek ez dutela sexuen arteko banaketarik egiten azpimarratu behar dugu. Txosten horietako bi arte eszenikoetako -programatzaileei- eta -produktoreei- buruzkoak dira hurrenez hurren, eta beste batek kultur arloko enpresak, enplegua eta lan merkatua aztertzen ditu.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

### 3.64. GRAFIKOA Emakumeen parte-hartzea kultura eta arte arloan (2006-2009)




## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

### 3.65. GRAFIKOA Emakumeen parte-hartzea kultura eta arte arloan (2006-2009)



## PROGRAMAREN ESTALDURA MAILA


**3.66. GRAFIKOA** Kultura eta arte arloan emakumeen parte-hartzea sustatzeko jardueren hartzaileak: Sexuaren arabera bereizitako datuak (2006-2009)



## PROGRAMA GAUZATZEKO ERABILITAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Kultura arloan, Ahalduntze ardatzaren barruan jasotako hiru programetan, erakunde publikoek 3.984.922,64 euroko gastua izan dela esan dute. Zenbateko horretatik, % 49,41 programa honetara bideratuko da (1.969.178,48 euro).

**3.67. GRAFIKOA** Kultura eta arte arloan emakumeen parte-hartzea bultzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



## KULTURA ARLOA:

### EMAKUMEEN PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA KOMUNIKABIDEETAN


Emakumeek komunikabideetan duten presentzia eta parte-hartzea aztertzen dituen programak bi helburu nagusi ditu:

- Komunikabideetan emakumeen parte-hartzea handitu.
- Espazio mediatikoetan emakumezkoen presentzia handitzea, jardun politikoetan, sozialetan eta kulturaletan egiten duten lana ikusarazteko, eta berdintasun baldintzetan dardela ikusarazteko eta beren ahalduntzeari mesede egiteko.

Hainbat informazio iturri azertu ostean (EUSTAT, EITB eta Kulturaren Euskal Behatokia), bi helburu hauei dagozkien ebaluazio adierazleei buruzko daturik ez dagoela ikusi dugu.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

### 3.68. GRAFIKOA Emakumeen parte-hartzea sustatzea komunikabideetan (2006-2009)




**PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK**

**3.69. GRAFIKOA** Emakumeen parte-hartzea sustatzea komunikabideetan (2006-2009)



**PROGRAMEN ESTALDURA MAILA**


**3.70. GRAFIKOA** Emakumeek komunikabideetan parte-hartzea bultzatzeko jardueretako hartzaileak (2006-2009)



## PROGRAMA GAUZATZEKO ERABILITAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Kultura arloan, Ahalduntze ardatzaren barruan jasotako hiru programetan, erakunde publikoek 3.984.922,64 euro gastua izan dela esan dute. Zenbateko horretatik, % 0,05 programa honetara bideratuko da (1.820 euro).

### 3.71. GRAFIKOA Emakumeek komunikabideetan parte-hartzea bultzatzeko bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



#### HEZKUNTZA ARLOA:

#### HEZKUNTZA SISTEMAKO ERABAKI EREMUETARA JOTZEA

Programa honek hiru helburu ditu:

- Unibertsitate sistemako erabakitze esparruetara sartzeko sexuen arteko desberdintasun kuantitatiboa gutxitzea.
- Bigarren hezkuntzako eskoletan erabakitze esparruetara sartzeko sexuen arteko desberdintasun kuantitatiboa gutxitzea.
- Lehen hezkuntzako eta haur hezkuntzako irakasleen artean sexuen arteko desberdintasun kuantitatiboa gutxitu, maila eta funtzio guztietan.

Unibertsitate sistemako erabakitze esparruetara sartzeko sexuen desberdintasuna gutxitzeko helburuari dagokionez, UPV/EHUko Zientzia politika eta administrazio saileko Genero ikasketen taldeak 2008an Emakunderentzat egindako ikerketa baten arabera, hiru euskal unibertsitateetako zuzendaritza beti gizonek osatu dutela azpimarratu behar dugu. Idazkaritza Orokorreko berdintasuna parekatuagoa da, Euskal Herriko Unibertsitatekoa zein Mondragon Unibertsitatekoa emakume banak gidatzen baititu.



UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak 2010. urteari buruzko datuak bildu ditu, eta unibertsitate gobernua berdintasunerako bidean dagoela ikusi du (8 gizon eta 7 emakume). Halaber, estatu batzordeetan gizonen portzentajea, batez beste, % 61ekoa dela adierazi du. Hainbat batzordetan oreka nabari da, Euskara batzordean adibidez (emakumeak % 53 dira), baina beste batzuetan, unibertsitate irakasleen batzordean edo Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza batzordean emakumeak % 30 eta % 29 baino ez dira, hurrenez hurren.

Antzekoak dira sailen zuzendaritzetan emakumeek duten parte-hartzeari buruzko datuak, 34 zuzendari emakume (% 31,5) eta 74 zuzendari gizon (% 68,5).

Unibertsitate sistemarekin jarraituz, 2008-2009ko (Eustat) datuek diotenez, euskal unibertsitate publikoan kontratatutako langileen % 45,5 emakumeak ziren. Hala ere, datuak sako-nago aztertuz gero, bereizketa horizontal zein bertikal handia nabarmen uzten dute datuek. Banaketa horizontala argia da: emakumeen gehiegizko ordezkariak (% 63,5) dago administrazio langileen artean eta ordezkariak txikiak berriz (% 38,8) irakasleen artean. Bereizketa bertikalari buruz ere hitz egin dezakegu. Katedra duten langileen artean, % 20,58 dira unibertsitateko emakumezko irakasleak, eta % 22,2 unibertsitate eskolako irakasleak. Irakasle langileen artean, berriz, % 39,8 dira emakumeak.


Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako erabaki guneetara iristeko dagoen sexu desberdintasun kuantitatiboa gutxitzeko helburuari dagokionez, ez dugu daturik topatu hezkuntza mailako erabaki guneetan dauden gizon eta emakume kopuruak zehazten dituenik. Hala ere, Eustatek (2008-2009 ikasturtea) plazaratutako datuen arabera, bigarren hezkuntzako irakasleen % 58,49 emakumeak dira. Edozein modutan ere, maila honetako irakaskuntzaren inguruan azterketa tipologikoa egiten badugu, DBHko irakasleen % 65,5 emakumeak direla ikusiko dugu, eta, Lanbide Heziketan, berriz, irakasleen % 39,2 baino ez dira emakumeak. Batxilergoan bakarrik aipatu dezakegu emakumeen eta gizonen arteko oreka, irakasleen % 58,9 emakumeak baitira eta % 41,2 gizonak.

Sexuen arteko desberdintasun kuantitatiboa maila eta funtzio guztietan gutxitzeko helburuari dagokionez, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako irakasleen artean gehienak emakumezkoak direla azpimarratu behar dugu: Haur hezkuntzan % 91,5 dira emakumeak, eta lehen hezkuntzan, berriz, % 80,3.

Hezkuntza maila hauetan emakumeek eta gizonek dituzten funtzioei eta karguei buruzko daturik ez dugu aurkitu.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

### 3.72. GRAFIKOA Hezkuntza sistemako erabaki eremuetako presentzia (2006-2009)




## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

### 3.73. GRAFIKOA Hezkuntza sistemako erabaki eremuetako presentzia (2006-2009)



## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA


### 3.74. GRAFIKOA Programan parte hartu duten profesionalak



### PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Kultura arloan, Ahalduntze ardatzaren barruan jasotako bi programetan, erakunde publiko-ek 583.888,54 euroko gastua izan dela esan dute. Zenbateko horretatik, % 10,59 programa honetara bideratuko da (61.854,54 euro).

### 3.75. GRAFIKOA Hezkuntza sistemako erabaki eremuetara bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



## HEZKUNTZA ARLOA:

### EZAGUTZA EZ-SEXISTA SORTZEA ETA BARNERATZEA

Programarekin bi helburu hauek lortu nahi dira:

- Unibertsitate arloan generoen harremanak aztertzearen inguruan jakintza sortzea eta hedatzea;
- Neska-mutilen ikasketak aukeratzeko garaian sexuen arteko desberdintasun kuantitatiboa murriztea, eta lehentasuna ematea sexuen araberako alde handiagoa duten ikasketei edota etorkizunerako aukera gehiago ematen dituztenei.

Lehenengoari dagokionez, une honetan, euskal unibertsitateek berdintasunarekin eta generoarekin harremana duten hiru ikasketa mota eskaintzen dituztela esan behar dugu. 2008-2009 ikasturtetik, UPV/EHUK Ikasketa feministei eta genero ikasketei buruzko masterra eskaintzen du (Filosofia, Antropologia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea). Administrazio, Enpresa eta Hezkuntza Berdintasunerako berezko titulua ere eskaintzen da 2001etik Deustuko Unibertsitatean Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurrean nola erantzun lantzen duen masterra eskaintzen da 2001etik.

Horrelako ikasketak eskaintzen hasi zirenetik, euskal unibertsitateek 300 lagun ingururi eman diete prestakuntza. Ikasketa horietan aritu diren ikasle gehienak (% 90 baino gehiago) emakumeak dira, eta hiru ikasketetan eskaria handitu dela nabarmendu daiteke (% 50 eta % 100 artean).

Ikasketak aukeratzeko garaian sexuen arteko desberdintasuna txikitu nahi duen helburuari dagokionez, datuek desberdintasun handiak adierazten dituzte bai Lanbide Heziketan, bai batxilergoan, bai Unibertsitatean.

2008-2009 ikasturteko Hezkuntza Sailaren datuen arabera, ikasleen % 39 besterik ez dira emakumezkoak Lanbide Heziketan. Datu apala izanda ere, erdi mailako hemeretzitipologietako 5etan neska asko daudela azpimarratu behar da: Irudi pertsonala; Osasuna; Gizarte- eta kultura zerbitzuak; Administrazioa; eta Merkataritza eta Marketina (% 98,19 eta % 73,15 artean).

Goi mailako lanbide heziketan handiagoa da emakumeen presentzia; alegia, ikasleen % 43,3. Aukeratutako prestakuntzari erreparatzen badiogu, eskaintzen diren 21 ikasketetatik 7tan emakume gehiegi daudela esan dezakegu: Irudi pertsonala; Zerbitzu Soziokulturalak eta Komunitateari egindakoak; Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; Osasuna; Administrazioa; Elikagaien industria; eta Kimika (% 99,52 eta % 62,07 artean).


Unibertsitate mailako ikasketetan ikasleen % 55 dira emakume (2008-2009 ikasturtea). Ikasketa arlo guztietan dira nagusi, ikasketa teknikoetan izan ezik, % 29 baitira ikasketa horietan aritzen diren emakumeak. Hiru ingeniartzatan (Industria ingeniartzat teknikoa; Industria diseinuko ingeniartzat teknikoa eta Ingeniartzat kimikoa) baino ez da orekatua emakumeen presentzia (% 61,3 eta % 58,8 artean).

Ikasketaz ikasketa azterketa egiten badugu, aurretik esandakoa berresten dugu; 34 ikasketetan emakumeak ez dira % 40ra iristen, eta 34 horietatik gehienak Ingeniartzat ikasketak dira. Badira emakumeen presentzia apalagoa duten beste lizentziatura mota batzuk: ariketa fisikoarekin eta kirolarekin, nabigazioarekin eta teologiarekin lotuta daudenak. Gainera,

badira emakumerik ez duten bi ikasketa: Meatzeetako ingeniari-tza tekniko eta Itsas lizentziatura.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

### 3.76. GRAFIKOA Ezagutza ez-sexistak sortzea eta eskuratzea (2006-2009)




## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

### 3.77. GRAFIKOA Ezagutza ez-sexistak sortzea eta eskuratzea (2006-2009)



## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

### 3.78. GRAFIKOA Programan parte hartu duten profesionalak (2006-2009)




### 3.79. GRAFIKOA Ezagutza ez-sexistak sortzera eta eskuratzera bideratutako jardueretako hartzailek (2006-2009)



## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Hezkuntza arloan, Ahalduntze ardatzaren barruan jasotako bi programetan, erakunde publikoek 583.888,54 euroko gastua izan dela esan dute. Zenbateko horretatik, % 89,41 programa honetara bideratuko da (522.034 euro).

**3.80. GRAFIKOA** Ezagutza ez-sexistak sortzera eta eskuratzera bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



**LAN ARLOA:**

**ENPLEGUA BERDINTASUN BALDINTZETAN ESKURATZEA**

Programa honekin hiru helburu zehatz lortu nahi dira:

- Emakume eta gizonen arteko desberdintasun kuantitatiboa txikitzea teknologia eta jakintza maila altuko goi sektoreko lanpostu teknikoetan, eta emakumeen parte-hartzea handitzea.
- Industriako sektore tradizionaletan emakumeen parte-hartzea handitzea eta horrelako lanpostuetan aritzen diren emakumeen eta gizonen kopurua orekatzea.
- Enpresa ekimenak abian jartzearen eta indartzearen arloan kopuru aldetik dagoen gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna murriztea, batez ere, ordezkari txikiak duten sektore eta lanbideetan sustatzaileen partaidetza areagotuta;

Eustatek (2008) zientzia ikerketari eta garapen teknologikoari buruz kaleratutako datuen arabera, minoritarioa da emakumeen parte-hartzea (ikerlarien % 33, pertsona baliokidetasunaren arabera).

Arloz arlo aztertzen badugu emaitza positiboagoa da, ingeniarietan izan ezik (ikerlarien % 27,4 besterik ez da ikerlari) gainerakoan oreka baitago; nekazaritza zientzietan ere, ikerlarien erdia baino gehiago emakumeak dira (% 51).

Doktore titulua lortzen duten gizonen eta emakumeen portzentajea ere adierazle aipagarria da, ikerketarekin harreman zuzena baitu. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak egindako ikerketaren arabera, 2010ean tesien % 53,7 emakumeek defendatu zituzten (2008an baino 11 puntu gehiago). % 66k osasun zientzietako tesiak aurkeztu zituzten, eta % 37k irakaskuntza teknikoetakoak.

Ezugarri teknikoak dituzten lanpostuetan oso emakume gutxi egiten dute lan oraindik ere: % 19,29k Eustaten 2009ko datuen arabera. Industrietako hamasei azpisektoretan


egindako azterketen arabera, bitan baino ez dago orekarik: Ehungintza eta Jantzigintza eta Larrugintza eta Zapatagintza. Gainerako industria azpisektoreetan (elikadura izan ezik, % 36,6 baitira bertan) emakumeen portzentajea % 30etik beherakoa da.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2008ko datuen arabera, emakumeen % 5,9 izan zen jardura ekintzailearen tasa (TEA) urte horretan (% 7,8 da tasa hori gizonetan), GEM Euskadiren (Global Entrepreneurship Monitor) azken txostenak dioenez. Hala ere, 2007ko datuen aldean, emakumeen TEAk % 53ko igoera izan du. Horrela bada, 2004an azterketa egiten hasi zirenetik, portzentaje altuena lortu duen emaitza izan da aurtengoa. Datuak baikorrak badira ere, emakume-gizon ratioa 0,76koa da, hau da, enpresa ekimen bat abiatzen duten 100 gizoneko, 76 emakumek erabakitzen dute gauza bera egitea. 2006an, 0,82koa izan zen ratio hori.

Sektore ekonomikoari dagokionez, 2008an egindako azterketak dioenez, enpresa gehienak zerbitzuen sektorekoak dira; nolana ere, sektoreen generalizazio nabarmena atzematen da. Merkataritzari (handizkakoa zein txikizkakoa), gizarte zerbitzuei, osasunari eta hezkuntzari lotutako enpresen taldekako azterketaren arabera, arlo horietan emakume gehiago daude (% 6-10 artean). Lehen eta bigarren sektoreetan, garraio eta komunikazioa eta finantzetan, berriz, gizon ekintzaile gehiago daude (% 3 eta % 5 artean). Talde arteko azterketa sakonago batek desberdintasun argiagoak adieraziko lituzke ziurrenik.

## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA


### 3.81. GRAFIKOA Enplegua eskuratzea berdintasunean (2006-2009)






## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

3.82. GRAFIKOA Enplegua eskuratzea berdintasunean (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

3.83. GRAFIKOA Enplegua berdintasunean eskuratzeko programan parte hartu duten eta diskriminazio anizkuneko edo gizarte bazterketako arriskuan dauden emakumeak




**3.84. GRAFIKOA** Enplegua berdintasunean eskuratzera bideratutako jardueren har-tzaileak (2006-2009)



**PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK**

Lan arloan, Ahalduntze ardatzaren barruan jasotako bi programetan, erakunde publikoek 19.781.808,07 euroko gastua izan dela esan dute. Zenbateko horretatik, % 93,67 programa honetara bideratuko da (18.531.097,24 euro).

**3.85. GRAFIKOA** Enplegua berdintasunean eskuratzera bideratutako baliabide eko-nomikoak (2006-2009)



## LAN ARLOA:

### LAN BALDINTZAK PAREKATZEA

Hiru helburu zehatz proposatzen ditu programa honek:

- Administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan emakumeen eta gizonen lan baldintzak parekatu. Langile gehien biltzen dituzten lan jardueri lehentasuna eman-go zaie
- eta sektore publikoan eta pribatuan erantzukizunezko lanpostuetan emakumeen presentzia areagotzea.
- Gainerako langileen lan baldintzak ez dituzten langile taldeen lan baldintzak eta gizarte estaldura parekatzea bultzatu.

LANBIDE Enplegu merkatuaren behatokiak (Eustateko BJAko datuak erabilia) honako datuak eman ditu 2009ko gizon eta emakumeen lan baldintzak ebaluatzeko erabilitako adierazleak kontuan hartuta:

- Langabezia tasa pixka bat altuagoa (0,6) izan zen emakumeen kasuan (% 7,8).
- Jarduera tasa 16,4 puntu apalagoa da emakumeen artean (% 47,5).
- Enplegu edo lan tasa 13,9 puntu apalagoa da emakumeen artean (% 58,1).

Lan baldintzei (Eustat, 2009) erreparatzen badiegu, emakumeak dira, oraindik ere, aldi baterako kontratu gehien (% 53,45) eta kontratu mugagabe gutxien (% 42,93) dituztenak.

Daturik kezkarriena kontraturik gabekoei dagokiena da, kontraturik gabekoen artean % 90 emakumeak baitira. Aipatu berri duguna datu bidez azaltzen badugu, soldatapeko emakumeen % 4,74k kontraturik ez duela jakingo dugu. Gizonen kasua oso bestelakoa da, % 0,45 baino ez baitago kontraturik gabe.

Lanaldiaren banaketaren azterketa eginez gero, hau da, ordukako lanaldia edo lanaldi osoa gizon eta emakumeen egoera aztertuta (langile autonomoak eta kooperatibetako kideak kontuan hartuta, betiere 2010eko lehen hiruhileko datuekin), antzeko egoera topatuko dugu. Ordukako lanaldia dutenen artean % 81,3 emakumeak dira, eta lanaldi osoa duten langileen artean % 41,31 baino ez dira emakumeak. Datu hauek argi adierazten diguten moduan, lan egiten duten emakumeen % 17,4k ordukako lana dute. Gizonezkoen kasuan, % 2,7koa da datu hori.

Amaitzeko, soldatetan dauden aldeak aztertuko ditugu. 2009an Emakundek egindako ikerketan (Eustaten eta INEren datuak oinarri hartuta), *EAEko emakumeen lan ibilbidean eta lan egoeran dagoen desberdintasuna* aztertu zen. Bertan, argi adierazi zen emakumeen eta gizonen arteko soldata desberdintasuna gertaera iraunkorra dela oraindik gurean. Ikerketa honen arabera, emakumeen eta gizonen soldaten arteko aldea % 28koa da, eta alde hori ikasketa mailari alderantziz proportzionala da, hau da, soldaten aldeak handiagoak direla lehen mailako ikasketak dituzten gizonezko eta emakumezkoen artean: % 39 da batez besteko aldea.

Ardurak dituzten lanpostuetan emakumeek duten presentziari dagokionez, Emakundek 2008an *Euskadin erabakiak hartzeko arloetan dauden gizonak eta emakumeak* izeneko ikerketaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren mendean dauden 30 entitate publikotatik, 6 enti-

tatetan (% 20) baino ez dira emakumezkoak arduradun. Ez da ia emakumerik industriarekin eta parke teknologikoekin lotutako erakundeetan (15).

Foru Aldundien mendean dauden entitate publikoei dagokienez, aldeak ikusi ditugu lurraldeen artean. Araban aztertutako 10 entitateetako 4tan emakumeak dira zuzendari (Gazteriaren Foru institutua, Arabako Kalkulu Zentroa, Uraren Agentzia eta Garapenerako agentzia); Bizkaian, aztertutako 19 entitateetatik bitan baino ez dira emakumeak zuzendari (Errekaldeko erakusketa aretoa eta Estatuko Loteria eta Apustuen Foru Erakunde autonomoaren ordezkaria); eta Gipuzkoan, aztertutako hiru entitateetako zuzendariak gizonak dira.

Laburpen modura, EAEn aztertutako 62 erakunde publikoetatik, emakumeak 12 (% 19,3) erakundetako zuzendaritzetan besterik ez ditugula topatu gogoraraziko dugu.

Aipatu ikerketak sektore pribatua ere aztertu zuen eta EAeko finantza erakunde guztietako zuzendariak gizonak direla ikusi zen. Zuzendaritzako kontseiluei dagokienez, emakumeak gutxiengo dira, nahiz eta zenbait erakundetan, Kutxan, BBKn eta Vital Kutxan besteak beste, zuzendaritza kontseiluko kideen laurdena emakumeak izan. Beste muturrean, Banco Guipuzcoano dago. Banku horretan ez dago emakume bakar bat ere erabaki guneetan.

Euskal enpresa erakundeetako zuzendariak, CONFEBASK, CEBEK, ADEGI y SEA erakundeetako zuzendaritza guztietan gizonak ikusiko ditugu, bai eta haien Zuzendaritza Batzarretan ere. ADEGI da salbuespen bakarra, zuzendaritza Batzarreko kideen % 20 emakumeak baitira.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Finantza Sailak emandako datuen arabera, EAEn dauden Gizarte Aurreikuspeneko 200 erakundeetan, batean izan ezik, zuzendariak gizonezkoak dira.

Ibex 35en barruan bauden euskal enpresa guztietako (BBVA, GAMESA eta IBERDROLA) zuzendariak gizonak dira, eta guztietako Administrazio kontseiluetan, % 85etik gorakoa da gizonen parte-hartzea.

Argazkia osatzen lagunduko digun beste datu bat honakoa da: -zuzendariak eta goi mailako karguak- mailako langileen emakume eta gizonen lan tasa. 2010eko datuek diotenez, 4,5eko tasa dute gizonen, eta 1,8koa emakumeek (Langai, Euskal enpleguaren behatokia).

Enplegu merkatuaren erroldako 2008ko datuek diotenez, emakumeek betetzen dituzten zuzendaritza postuen pisua pixkanaka murrizten ari dela adierazten dute; hau da, pixkanaka-pixkanakako joera bada ere, emakumeen zuzendaritza lanek beheranzko ohiko joera motela izan zuen 2004 eta 2008 artean.

Ebaluatzen ari garen programaren azken helburua, gainerako langileen aldean baztertuta dauden langileen lan baldintzen eta gizarte estalduraren berdintasuna bultzatzea da.

EAEk talde hauen gizarte estaldura gainerakoekin berdintzeko beharrezko diren arauak aldatzeko eskuduntzarik ez badu ere, badu ahalmena haien lan baldintzak hobetuko lituzkeen beste hainbat jarduera aurrera eramateko; eta hori da, hain zuzen ere, IV. Plan honek biltzen dituen jarduera motak. Gisa horretako neurriak dira, halaber, Etxeko Langileen

---


(15) Basquetour, Uniqal, Egailan, Osakidetza, Osatek eta Euskadi Irratia.

Elkarteak (ELE) Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politikarako, Lanerako eta berdintasunerako batzordean (2009ko urriaren 14ko saioa) proposatutakoak.

ELEk azpimarratu duen alderdietako bat da oso zaila dela jakitea etxean lan egiten dutenen kopuru ofiziala. Hala ere, 2008ko otsailean Eustatek 2007ko datuak argitaratu zituen, eta lan horietan 24.282 lagun ari zirela esan zuten; datu horiek, arraroa bada ere, ez daude sexuaren arabera banatuta. Langile hauen batez besteko soldata 571,45 eurokoa da. Aipatu dugun zenbatekoa soldataren batez bestekoaren % 44 da, eta haietako % 50 gutxi gorabehera, gizarte segurantzaren sistematik kanpo daude.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

### 3.86. GRAFIKOA Lan baldintzak parekatzea (2006-2009)




## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

3.87. GRAFIKOA Lan baldintzak parekatzea (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

3.88. GRAFIKOA Programetan parte hartu duten profesionalak (2006-2009)




**3.89. GRAFIKOA** Lan baldintzak parekatzera bideratutako jardueren hartzaileak diren biztanleria orokorraren kolektiboak (2006-2009)



**PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK**

Lan arloan, Ahalduntze ardatzaren barruan jasotako bi programetan, erakunde publikoek 19.781.808,07 euroko gastua izan dela esan dute. Zenbateko horretatik, % 6,33 programa honetara bideratuko da (1.250.710,83 euro).

**3.90. GRAFIKOA** Lan baldintzak parekatzera bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



## **GIZARTERATZE ARLOA:**

### **DISKRIMINAZIO ERA BAT BAINO GEHIAGO ETA BAZTERKETA ARRISKUA DUTEN EMAKUMEEN BALDINTZAK ZEIN MAILA HOBETZEA**

Programa honekin sei helburu zehatz lortu nahi dira:

- Pobrezia egoeran eta baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoerak hobetze aldera.
- Prostituzioan lan egiten duten eta baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoerak hobetze aldera.
- Droga mendekotasun arazoak dituzten eta baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoerak hobetze aldera.
- Askatasunik ez duten pertsonen zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoerak hobetze aldera.
- Baztertuta izateko arriskuan dauden etorkinei zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoerak hobetze aldera.
- Baztertuta izateko arriskuan dauden desgaituei zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoerak hobetze aldera.

Txirotasunari dagokionez, 2008an egindako Txirotasun eta Gizarte Desberdintasunak inkestaren datuen arabera, ongizate eza izateko arriskua handiago da etxeko pertsona nagusia emakumea denean (% 28,1 emakumeen kasuan, eta % 12 gizonezkoen kasuan). Txirotasunean bizitzeko arriskua ere handiagoa da emakumea etxeko buru denean (% 8,2 emakumezkoen kasuan, eta % 3,3 gizonezkoen kasuan direnean buru).

EDPSaren aurreko ediziora arteko joera berretsiz, emakumezkoak ez dira bakarrik nagusiak txiroenen artean (% 53,1), baizik eta, oro har, txirotasun edo ongizate ezaren inguruko arazoak dituztenen artean (% 57,3).

Diskriminazio anitza eta gizarte bazterketa jasateko arriskua duen kolektibo nagusia prostituzioan lan egiten dutenena da. Kolektibo horren inguruan, Emakunde bi txosten egin ditu azken hamarkadan: 2002an eta 2007an. Azken lanaren arabera, garai batetik bestera hainbat aldaketa izan dira prostituzioan lan egiten duten emakumeen egoeran; hauexek dira azpimarragarrienak:

- Kaleko prostituzioak nabarmen egin du behera, prostituzio mota horretan diharduten emakumeen kopurua % 68 jaitsi baita 2002. urteaz geroztik.
- Klub kopurua % 24 gutxitu da, eta horrek, bertan lanean ari diren emakumeen kopurua nabarmen gutxitu du (% 1 jaitsi da). Hori horrela, gaur egun emakume gehiago dago klub bakoitzeko: 2002an emakumeen % 12 zeuden, batez beste, eta 2007an % 16.
- Etxeetan biltzen den prostituzioa nabarmen hazi zen: % 60, hain zuzen. Ondorioz, bertan biltzen diren emakume kopurua ere hazi zen (% 41 gehiago).



Oro har, EAEn prostituzioan lan egiten duten emakumeen kopurua antzekoa da, 1.820 emakume 2007an, 2002ko datuen aldean pixka bat gehiago (% 2).

Aldaketak ondoko faktoreek eragin dituzte: prostituzioa dagoen lekua, etxebizitza eta klub handi gehiago; emakumeen jatorria, atzerriko emakume gehiago, afrikarrak batez ere (egoera ez erregularrean asko); bezeroen eskariak (emakume transexualek eta trabestiek, zerbitzu gehiago, harremanak preserbatiborik gabe edukitzeko eskari gehiago); droga kontsumoaren hazkundera, kokaina kontsumoarena batez ere. Prostituzioan aritzen diren emakumeek osasunarekin (sexu bidezko gaixotasunak) arrisku handiagoak eta zaurkortasun handiagoa izaten ari dira, bai eta norbanakoaren segurtasunarekin ere (erasoak, lan esplotazioa).

Drogei eta mendekotasunei buruzko datuen arabera, ohitura askoz handiagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino. Hori dela eta, programa terapeutikoak gizonezkoen beharrei erantzuteko diseinatzen eta kudeatzen dira, emakumezkoek kontsumitzeko dituzten arazoak eta gizonezkoek dituztenak desberdinak direla kontuan hartu gabe. Emakumezkoak gutxiago direnez, ez dira kontuan hartzen haien kontsumitzeko arazoak, ez eta haiengan drogek dituzten eragin klinikoak eta gizarte eta familia eraginak, ez baitira berdinak izango nesken eta mutilen kasuan.

Jokoarekiko mendekotasuna dutenen egoera izaten da hori (Berdintasunerako IV. Planak ez du egoera hori jasotzen), % 30 dira emakumeak, baina tratamendua dutenen artean % 10 baino ez dira emakumeak. Adibide horrekin jarraituz, orain gutxi Echeburuaren eta Corralen (2009) taldeak egindako lana aurkeztu zen Psikologia Fakultateko jardunaldi batzuetan, eta bertan esan zutenez, jokoarekiko mendekotasuna duten emakumeen % 70ek tratatu txarrak jaso dituzte edo jasotzen dituzte. Datu horrek ez du hainbesteko garrantzirik gizonezkoen kasuan.

Gizonek zein emakumeek hartzen dituzte psikofarmakoak baina emakumeek gehiago hartzen dituzte 2006an Euskadi eta Drogak izeneko txostenaren arabera, % 30 emakumeek eta % 14 gizonek. Txostenak berak droga horien kontsumitzaileen profila zehazten du, gainera: 50 urteko emakumea, etxekoandrea, ezkondua edo alarguna eta behe-erdi mailakoa.

Beste batzuk aipatu badaitezke ere, horrelako datuek IV. Planean tokia izatea arrazoitzen dute. Horrela, drogekin mendekotasun arazoak dituzten pertsonen bideratutako baliabideetan genero ikuspegiak aztertu ahal izango dira.

Kartzelan dauden emakumeei dagokienez, Euskadin espetxeratuta dauden emakumeen batez bestekoa oso txikia dela azpimarratu behar dugu; Euskadin 2009an zenbatutako 1.472 lagunetatik % 8,8 baino ez ziren emakumeak (k=129), 114 espetxeratuta zeuden eta 15 behin-behineko espetxeratze egoeran zeuden. Aurretik aipatu dugun moduan, batez ere gizonezkoen arazoa denez, baliabideak nola antolatu eta kudeatu erabakitzean kartzelan dauden emakumeen beharrak eta interesak ez dituzte kontuan hartzen. Ondorioz, askatasunik ez izateak eragiten dituen arazoez gain, emakume izaeraren behar zehatzak kontuan ez hartzean gehitzen dituen arazoak gehitu behar dira (ama direnak, adibidez), bai eta emakume izatearenak ere (baliabide guztiak eskuratzeko zailtasun handiagoak).

Ikuspegik (Inmigrazioaren euskal behatokia) argitaratutako azken datuen arabera, 139.229 pertsona etorkin daude EAEn, eta horietatik % 48,3 dira emakumeak (67.277).

2007an behatokiak egindako immigrazioa eta generoa izeneko txostenaren arabera emakume etorkinen erdiak erdi mailako curriculumak dute, gizonena baino pixka bat altuagoa; eta % 15ek goi mailako titulua dute.

1etik 7 lanean ari dira (% 60 lanaldi osoan, gutxi gorabehera); % 1,5 langabezian dago; eta % 18,9 -ez aktibo-. Gizonezko etorkinen artean langabezia (% 23,6) handiagoa da, eta -ez aktibo- (% 6,8) gutxiago dago. Hala ere, emakume etorkinen % 70 lanean badago ere (gizonezkoen portzentaje bera), sinatutako kontratuen % 25 baino ez zen emakume etorkinena izan.

Etxeko lanak dira (% 55,1) emakumeek batez ere egiten dituzten lanak. Ostalaritza lanak daude atzetik, % 17,3rekin. Hori dela eta, ez da harritzekoa emakume etorkinen % 75ek 1.000 euro azpiko soldata izatea eta % 20k 500 euro baino gutxiago irabaztea. Pajerak (2007) azaldu zuen moduan, bertako gizonezkoentzat dira lanposturik onenak. Atzetik, hurrenez hurren, bertako emakumeak, atzerriko gizonak eta atzerriko emakumeak daude.

Txirotasuna eta Gizarte Desberdintasunak (2008) Inkestaren arabera, Europako erkidegoz kanpoko biztanleak buru dituzten etxeetan ongizate eza bizitzeko % 55,5eko aukera dago, Espainiako biztanleen portzentajea baino halako lau gehiago.

Bada eskubide ekonomiko, politiko eta giza eskubide eza eragiten duen beste arrazoi bat ere, administrazio mailako irregulartasuna handiagoa baita emakume etorkinen artean.

Azkenik, ez dugu ahaztu behar indarkeria pairatzen duten emakume asko (2009ko salaketan % 32); eta prostituzioan aritzen diren emakume asko (% 85 eta % 90 artean) etorkinak direla.

Datu hauek guztiek emakumeen zaurkortasun egoera argi eta garbi adierazten dute, emakume horiek jasan behar duten diskriminazioa handia baita (txiroak direlako, etorkinak direlako eta emakumeak direlako). Hori dela eta, nor bere ahalduntzea zein gizarte eta politika ahalduntzea sustatzeko neurriak ezarri behar dira, gizarte baldintzak eta egoerak hobetzeko.

Emakume ezgaituei dagokienez, 2008ko Ezgaitasun, Autonomia pertsonal eta Mendekotasun egoerei buruzko Inkestak adierazi zuenez, 169.400 pertsona ezgaitu bizi ziren EAEn 2008an. Haietako % 60 emakumeak ziren, eta haietako % 65, 65 urtetik gorakoak.

Ebaluazioa egiteko erabili diren adierazleen datuak azaldu aurretik, herritar hauei buruzko estatistikarik ez dela azpimarratu nahi dugu. Datuak hainbat iturritatik hartu ditugu, identifikatu gabeko iturrietatik zenbaitetan. Hori dela eta, jasotako informazioak emakume ezgaituek bizi duten diskriminazio bikoitza dela eta (emakumeak direlako eta ezgaituak direlako) jasandako desberdintasun handia uzten du agerian.

Prestakuntza mailari dagokionez, hasi aurretik gauza bat argitu behar dugu, hezkuntza sisteman aurrera egin ahala, ezgaitasuna duten pertsona kopuruak behera egiten baitu. Belaunaldi berrien artean, gainera, orekatuagoa da gizonek eta emakumeek prestakuntza mailari dagokionez zuten aldea. 44 urtetik beherako emakume eta gizon ezgaituen artean ezgaitasunik ez duten pertsonen joera bera nabari da (EDADES Inkesta, 2008, INE).

Ezgaitasunen bat duten eta ez duten emakumeen eskolatzeko maila alderatzen baditugu, alfabetatzean, esaterako, alde handia dagoela ikusiko dugu: % 12,4 eta % 0,78, hurrenez hurren; unibertsitate ikasketetan ere bada aldea: % 1,56 eta % 22,6.

Lan egoerari aztertzen badugu, diskriminazio anitzaren ondorioak zeintzuk diren ikusiko dugu berriro ere: Jarduera tasa % 21,4koa da batean eta % 46,3koa bestean; langabezi tasa % 32,1 da batean eta % 7,9 bestean (2010eko bigarren hiruhileko datuak, Eustat).

44 urtetik beherako ezgaituen arteko analisiak eskolatzeko maila nahiko antzekoa dela esan digu. Halere, baliabide desberdinak eskuratzeko duten ahalmena ez da inondik inora alde-

ragarria. Lan egiten duten emakumeen portzentajea gizonezkoena baino 6 puntu txikiagoa da, baina, batez ere, kotizaziopeko pentsioetan eta kotizazio gabeko pentsioetan dago aldea, horiek eskuratzeko ahalmenean 23 puntuko aldea baitago; emakumeen % 51k baino ez du jasotzen. Gizonezkoek dagokienez, berriz, % 51k jasotzen du pentsioa.

IOE elkarteak (2003) egindako ikerketaren arabera, emakume ezgaituek hilabetean 500 euro jasotzen dituzte batez beste; 2005ean INEk 520 euro-tan kokatu zuen txirotasunaren muga. Aurrekoa irakurrita, argi dago txirotasunaren eta ezgaitasunaren arteko harremana estua dela. Hala ere, harreman hori are estuagoa izango da ezgaitua emakumea denean.

Gizarte bazterketa bizitzeko arriskua duten talde guztiekin gertatu ohi den moduan, zaila da haien gizarte baldintzak eta egoerak jarraitzeko modu sistematikoa zehaztea, askotan errola bezain oinarrizko diren gauzak egiteko ere zailtasunak izaten dira. Hori dela eta, hemen aurkeztutako datuak zaharrak direla usteko dute batzuek, baina, zoritxarrez, gaur-gaurkoak direla esango dugu, pertsona horien bizi baldintzek oso aldaketa baikor gutxi izaten baitituzte.

2009ko datuen arabera, 65 urtetik gorako 409.537 pertsona daude Euskadin, eta haietatik, % 58 inguru emakumeak dira; adin piramideak gora egin ahala, portzentaje hori handituz doa. Ondorioz, hirugarren adina eta batez ere laugarren adina (80 urtetik gorakoena), emakumeen sektoreak dira batez ere.

Emakundek 2005ean *“Euskadiko gizon eta emakume helduen egoerari buruzko zifrak”* izeneko txostena argitaratu zuen. Lan horretan, emakume helduen baldintzei eta posizioei buruzko ondorio argiak irakurri ahal dira, hurrengo lerrootan ikusiko dugun moduan.

Emakume zaharren % 44,8 alargunak dira. Askoz txikiagoa da kopuru hori gizonezkoen kasuan: % 11,41. Emakumeen % 24,33 bakarrik bizi dira; gizonezkoen artean, % 8,85 besterik ez da bakarrik bizi; bi egoerak kasuen erdian gutxi gorabehera. 65-74 urte artean % 6,1 ezgaitua da, eta 75 urtetik gora, berriz, % 22,1era arte igotzen da. Horrek guztiak ondorio nabariak ditu guztien bizitzetan txirotasun egoeragatik, isolamenduagatik eta bakardadeagatik:


- Erretiroagatik jasotzen den pentsioa emakume zaharren % 27,2k baino ez dute. Oso bestelakoa da gizonen kasua, gizonen % 89,21ek baitauka erretiroagatik jasotzen den pentsioa; Pentsioen batez bestekoa 737,12 euro-koa da.
- % 33,93k alargun pentsioa jasotzen dute; batez beste 405,85 euro pertsonako.
- 65 urtetik gorako emakumeen batez besteko errenta pertsonala 5.494 euro-koa da (gizonezkoek jasotzen dutenaren erdia ia-ia).
- 65 urtetik gorako emakumeen % 12,4 txirotasunean murgilduta bizi da.
- 65 urtetik gorako emakumeen ongizate ezaren tasa % 60koa da.
- Etxe txiroen % 26,4an, 65 urtetik gorako emakumeak dira etxeko buru.

Amaitzeko, helduak izateak zainzaile lanak egiten jarraitzeko arazorik sortzen ez duela azpimarratu behar dugu. Emakume hauek denbora asko eskaintzen diote beste pertsonak zaintzeari eta beste etxe batzuetako laguntza ez-formalei: Egunean ordubete eta 13 minutu haurrak zaintzeari, eta 2 ordu eta 6 minutu pertsona helduak zaintzeari.

## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA


Programaren barruan dagoen sektore aniztasuna dela eta, sektore bakoitzari eskainitako jarduketaren intentsitatea grafikoki markatzea beharrezkoa dela uste dugu.

### 3.91. GRAFIKOA Bazterketa edo diskriminazio anizkuna pairatzen dituzten emakumeen baldintzak hobetzea (2006-2009)




## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

**3.92. GRAFIKOA** Bazterketa edo diskriminazio anizkuna pairatzen duten emakumeen baldintzak hobetzea (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

**3.93. GRAFIKOA** Diskriminazio anizkun edo gizarte bazterketa arriskuan dauden emakumeak: Programetako parte-hartzearen banaketa (2006-2009) (2.038 emakume, batez beste)




**3.94. GRAFIKOA** Gizarte bazterketa edo diskriminazio anizkuna pairatzen duten emakumeen baldintzak hobetzera bideratutako jardueren hartzailak: Datuak, sexuaren arabera bereizita (2006-2009)




**PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK**

Gizarteratzea arloan, Ahalduntze ardatzaren barruan jasotako programan, erakunde publikoek 20.562.361,66 euroko gastua izan dela esan dute. Kopuru hori arloko zazpi helburuen artean banatuko da. Bakoitzak talde jakin bati egiten dio erreferentzia, ondorengo grafikoan azaltzen den moduan.


**3.95. GRAFIKOA** Bazterketa edo diskriminazio anizkuna pairatzen duten emakumeen baldintzak hobetzerako bideratutako programaren zazpi helburuetako jardueren arteko gastu banaketa (2006-2009)



**3.96. GRAFIKOA** Bazterketa edo diskriminazio anizkuna pairatzen duten emakumeen baldintzak hobetzerako bideratutako baldintzak (2006-2009)



**3.97. GRAFIKOA** Bazterketa edo diskriminazio aniztuna pairatzen duten emakumeen baldintzak hobetzera bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



**OSASUN ARLOA:**

**EMAKUMEEK BEREN UGALKETA OSASUNAREN INGURUAN ERABAKITZEKO AHALMENA AREAGOTZEA**

Programa honetan proposatutako helburuak hainbat izan dira:

- Antisorgailuak bermatzea, eta, beharrezkoa den kasuetan, baita koito osteko intertzezioa eta haurdunaldiak borondatez etetea ere, nahi gabeko haurdunaldi tasak murrizteko, batez ere nerabeen kasuetan. Horrekin batera preserbatiboaren erabilera bultzatu nahi da, hori baita sexu bidezko gaixotasunak saihesteko modu bakarra.
- Haurdunaldian zehar eta erditzean egindako ebakuntza mediko-kirurgikoek beharrezko diren aginduak beteko dituztela ziurtatu behar dute, zesarea eta episiotomia gutxitzeko joerari kasu eginez.
- Emakumeek haurdunaldian, erditzean zein erditu ondoren duten informazioarekiko eta erabakietan duten parte-hartzearekiko duten asebetetasun maila handitzea.
- Ugalketa zikloak berak alterazio eta nahasteak eragiten ditu aldaketetan. Aldaketa horien prebentzio eta arretarako asebetetze maila handitzeko informazioa handitu eta erabakitzekeo tarte handiagoa eskaini behar zaie. Emakume guztientzako moduko azterketa tokoginekologikoak beharrezkoak dira horretarako.

1997 eta 2007 artetan abortu tasa hazi egin da adin talde guztietan. Hala ere, 2008ko datuen arabera, 15 eta 29 urte arteko emakumeen artean joera hori pixka bat gutxitu da.



Euskal Autonomia Erkidegoan bizi eta haurdunaldia nahita eteteko erabakia hartzen dutenen emakumeen profil sozio-demografikoa aurreko urteetako antzekoa da. 20 eta 29 urte artean ditu, lanean ari da, bigarren mailako edo goi mailako ikasketak ditu edo ikasten ari da eta aurretik ez du beste haurdunaldirik boluntarioki eten.

Emakume gazteenak ziren, aurreko urteetan bezala, antisorgailuak erabiltzeko informazioa edo aholkularitza jasotzeko familia plangintza zentroetara gutxien joan direnak.

2007tik nazionalitateari buruzko datuak biltzen dira, eta EAEn lehenengoz, NHEa egin zutenen jaioterria jakin ahal izan genuen. Atzerriko jatorria zuten emakumeen kopurua 778ra arte igo zen (% 35,9), eta 2008an berriro igo zen 918 emakume arte (% 39,5). Kopurua ez da oso zehatza, zentroen % 73tan besterik ez baita informazio hori zuzen bete. Hala ere hamar kasutatik lau inguru etorkinak dira. Hori ikusita EAEn NHE kopurua igo izanak horrekin harreman zuzena duela pentsatzeko bidea ematen digu.

Helburu hori betetze aldera, Osakidetzako zentroetan pilula doan banatzea erabaki zen 2008an, gazteei eta ekonomikoki ahulak ziren sektoreei laguntza emateko. Haien bizitza sexuala hasi berri duten gazteek osasun sistemarekin zuten harremana hobetu nahi izan da, informazio eta babes handiagoa behar baitute. Gainera, NHEak egin dituzten gazte asko aholkularitza bila inoiz inongo zentrora joan ez izanak ideia hori bultzatu zuen.


Haurdunaldia saihesteari dagokionez, sarketa ondorengo pilula antisorgailuekin akats bat (preserbatiboa puskatu, DIUa atara) edo akats pertsonala (antisorgailurik ez erabili, pilula hartzea ahaztu) egon denean erabiltzen da batez ere. 2006an, 19.180 dosi banatu ziren EAEn. Sarketa ondoko pilulen azterketek diotenez, 1.000 tratamenduko 53 haurdunaldi saihesten dira. Beraz, larrialdiko metodo hau Euskadin sartu zenetik, 2006an nahi ez ziren 1.000 haurdunaldi inguru saihestuko ziren segur aski, eta 1.400 inguru 2009an.

Bigarren helburuari dagokionez, 2007an 18.134 erditze izan ziren Osakidetzan, Autonomian izan ziren erditzeen % 88. 2007an, % 13,23koa izan zen Euskadin zesareen tasa. Nazio Osasun sistemak aipatutako % 25, 8ko tasa baino dezente apalagoa da gurea. Sektore pribatuan, erditzeen % 29,66 zesarea bidez eman ziren. Osakidetzan lortutako zesarea tasa apalaren arrazoi nagusia 2007-2012 Osasun Planean zehaztutako ahaleginaren ondorio izan da, zesareen kontrola egitea eta zesareak aholkatzeko arrazoiak egokitzea erabaki baitzen bertan.

Azkenik, haurdunaldiko, erditzeko eta erditze osteko alderdien gainean eta ugalketa-zikloaren beraren aldaketetatik eratorriko alterazio eta nahasmenduei loturiko alderdien gainean emakumeek duten gogobetetze-mailari dagokion bi helburuei buruz, esan behar da Osasun Sailak eta Osakidetzak egindako inkestetan ez dagoela toko-ginekologia zerbitzuaren gaineko datu espezifikorik. Izan ere, gogobetetze-inkestetan larrialdietako arreta, akutuen ospitaleratzea eta ospitalez kanpoko kanpo-kontsultak sartzan dira, baina zerbitzuak bereizi gabe. Horretaz gainera, inkesta batek ere ez du sexuaren arabera bereizitako datu-rik eskaintzen.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

### 3.98. GRAFIKOA Emakumeek beren ugalketa osasunaren inguruan erabakitzekeo ahalmena areagotzea (2006-2009)




## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

### 3.99. GRAFIKOA Emakumeek beren ugalketa osasunaren inguruan erabakitzekeo ahalmena areagotzea (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

**3.100. GRAFIKOA** Emakumeek beren ugalketa osasunaren inguruan erabakitzeke ahalmenera bideratutako jardueren hartzailek: Datuak, sexuaren arabera bereizita (2006-2009)




**3.101. GRAFIKOA** Gizarte bazterketako edo diskriminazio anizkuneko arriskuan dauden emakumeak (2006-2009)



## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Osasun arloan, Ahalduntze ardatzaren barruan, Ahalduntze ardatzaren barnean jasotako programan, erakunde publikoek 320.613,34 euroko gastua izan dela esan dute. Hurrengo grafikoan jardueretan gastatutako zenbatekoa eta egindako jarduerak azaltzen dira, eta batez besteko kopurua ardatz bakoitzaren jarduera bakoitzaren batez besteko gastuarekin alderatzen da.

**3.102. GRAFIKOA** Emakumeek beren ugalketa osasunaren inguruan erabakitzeke ahalmena areagotzera bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



**HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKO ETA INGURUMEN ARLOA:**

**HIRIGINTZAREN, GARRAIO PUBLIKOAREN ETA INGURUMENAREN ARLO GUZTIETAN EMAKUMEEK BERDIN PARTE HARTZEA, NOLA DISEINUAN ETA PLANGINTZAN, HALA HOBEKUNTZETAN**

Programa honen garapenak hiru helburu ditu:

- Hirigintza eta ingurumen arloetan antolatzen diren parte hartzeko prozesuetan emakumeen eta emakume elkarten partaidetza eta paritatea bermatzea (batez ere Tokiko Agenda 21en eta landa inguruko eskualdeak garatzeko agentzietan). Parte-hartze prozesuak sustatzea, horrelakorik ez dagoenean.
- Garraio publikoa antolatzeko herritarrek parte hartzeko prozesuak abiaraztea, emakumezko eta gizonezko ordezkariak paritarioarekin;
- Hirigintza, garraio eta ingurumen esparruetako kargu publiko eta teknikoetan emakumezkoen presentzia indartzea, harik eta, gutxienez, 40-60 proportziora iritsi arte;

2008an (Rafael Ajangiz, Parte Hartuz) Euskal Autonomia Erkidegoko herrietako bizipen parte-hartzaileen mapan. Prozesu eta mekanismo desberdinetan emakumeek duten parte-hartzeari buruzko datuak biltzen dira, haien parte-hartzea benetan baloratzeko, baina baita gizarte parte-hartzea genero ikuspegitik nolakoa den hausnartzeko ere. Ikerketa horren arabera, erregistratutako kasuen erdiari buruzko daturik ez dago, eta horrelakoak daudenetan, emakumeen presentzia % 50 baino txikiagoa da parte-hartzen duten mekanismo eta bizi-penetako lautik hirutan. Emakumeak % 75 edo gehiago diren horiek berdintasunerako kontseiluak edo batzordeak izaten dira. Berdintasun gaiari lotuta egon gabe, gune gutxitan topatuko dugu hainbeste emakume elkarturik, % 18an hain zuzen ere.

Arloka aztertuta, Tokiko Agenda 21eko foroetan, tailerretan eta antzekoetan emakume gehiago biltzen direla azpimarratu behar dugu. Horrelakoetan, % 50-75 artekoa da emakumeen ordezkartza.

Hirugarren helburuari dagokionez, hainbat arlotako zuzendari postuen banaketa aipatu behar dugu, gizonezkoenak izaten jarraitzen baitute: Hirigintza, Garraioa eta ingurumena. Eusko Jaurlaritzak Sailburu izendapenetan berdintasun legea bete badu ere (gizonezko bat eta emakumezko bat), sailburuordetzetan eta zuzendaritzetan dauden kide gehienak gizonak dira oraindik ere.


Aldundietan, Bizkaia eta Gipuzkoan berdintasuna badago ere, Arabako bi diputatuak gizonak dira. Zuzendaritzei erreparatzen badiegu, hiru herrialde historikoetako batean ere ez dago berdintasunik boterea banatzeko garaian.

Hiriburuetakoko Udaletako zinegotzietan dagokionez, hiru daude Gasteizen eta Donostian: bi gizon eta emakume bat. Bilbon bi daude, eta biak gizonak dira. Zuzendaritza postuetan, berriz, Bilbon zein Gasteizen gizonezkoak dira zuzendari, Gasteizen emakume bat badago ere.

Guztiari oro har begiratuta, berdintasuna urruti dago oraindik. Gehien ikusten diren lanpostuetan –sailburuak, diputatuak, zinegotziak– tartea txikiagoa da, baina zuzendarien artean nabarmena da gizonen nagusitasuna.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

### 3.103. GRAFIKOA Emakumeen parte-hartzea hirigintzan, garraio publikoan eta ingurumenean (2006-2009)




**PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK**

**3.104. GRAFIKOA** Emakumeen parte-hartzea hirigintzan, garraio publikoan eta ingurumenean (2006-2009)




**PROGRAMEN ESTALDURA MAILA**

**3.105. GRAFIKOA** Programan parte hartu duten politikariak eta teknikariak (2006-2009)




**3.106. GRAFIKOA** Emakumeek hirigintzan, garraio publikoan eta ingurumenean parte hartzera bideratutako jardueren hartzaileak: Sexuaren araberako datuak (2006-2009)



**PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK**

Bi programa hauek gauzatzeko 187.007,15 euroko gastua aurreikusi dute erakunde publikoek. Aurrekontuaren % 89,3 (167.007,15 euro) izan da programa honetara bideratuko dena. Hurrengo grafikoan jardueretan gastatutako zenbatekoa eta egindako jarduerak azaltzen dira, eta batez besteko kopurua ardatz bakoitzaren jarduera bakoitzaren batez besteko gastuarekin alderatzen da.

**3.107. GRAFIKOA** Emakumeek hirigintzan, garraio publikoan eta ingurumenean parte hartzera bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



## HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKO ETA INGURUMEN ARLOA:

### EMAKUMEEK ESPARRU PUBLIKOETAN EGINDAKO GIZARTE-, KULTURA- ETA HISTORIA-EKARPENAK AITORTZEA


Programa honek helburu bakarra dauka, hiriko elementuen bidez gizon-emakumeei egiten zaien aitortza soziala orekatzea (kale izenak, plazak, monumentuak, etab.).

Herrietako eta hirietako kaleen, enparantzen eta abarren genero azterketek, EAEn eta beste autonomia erkidego batzuetan, toponimian emakumeen izena % 10ean baino gutxiagotan erabiltzen dela erakusten dute.

Adierazle hori aztertzeko, interesgarria izango litzateke Euskadin azken 5 urteetan eraiki diren gune berrietako datuak jasotzea; horrela, erakunde publikoek aurrera eramandako ekimenek alderdi horretan izan duten eragina ikusiko genuke.

## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA


### 3.108. GRAFIKOA Emakumeen esparru publikoko ekarpena aitortzea (2006-2009)





## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

**3.109. GRAFIKOA** Emakumeen esparru publikoko ekarpena aitortzea (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

Egindako jarduketaren arabera -ikerketa-, hartzailea gizarte osoa dela esan dezakegu, nahiz eta hori ez den jarduketaren ardura izan zuen erakundeak emandako informazioa.

## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Hirigintza eta Ingurumen arloan, Ahalduntze ardatzaren barnean jasotako bi programetan, erakunde publikoek esan duten 187.007,15 euroko gastua izan dela, eta % 10,7 (20.000 euro) programa honetara bideratuko da. Hurrengo grafikoan jardueretan gastatutako zenbatekoa eta egindako jarduerak azaltzen dira, eta batez besteko kopurua ardatz bakoitzaren jardura bakoitzaren batez besteko gastuarekin alderatzen da.

**3.110. GRAFIKOA** Emakumeek esparru publikoan egiten duten ekarpena aitortzera bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



**BATERAGARRITASUN ETA  
ERANTZUKIDETASUN  
ARDATZEAN  
GARATUTAKO  
JARDUERAK:  
GIZARTE EREDU  
BERRIAREN BILA**

## 3.5

**AZTERKETA OROKORRA:  
2006-2009 ALDIKO  
BILAKAERA**

### 3.5.1

Bateragarritasun eta erantzukidetasun ardatzak 8 programa ditu 6 esku-hartze arloetan eta bi helburu Zerbitzu Orokorrak izeneko arloan.

Ikus daitekeen moduan, aztergai dugun ardatzaren barneko programa bakoitzean kode bat dago idatzita. Kodearen helburua grafikoen irakurketa erraztea da, datu bakoitza zein programari dagokion identifikatzeko modua izango baitugu.

Kodeak definitzeko ondoren aipatuko dugun logika erabili da: lehenengo hizkiak ardatz estrategikoarekin dauka harremana (Bateragarritasuna kasu honetan) eta atzeko hizkiek eragite arloa aipatzen dute; zenbakiak programa zenbakia adierazten du, arlo gehienek programa bat baino gehiago proposatzen baitute). Programen izen osoa grafikoekin batera irakurri daiteke, oin oharrean

Zerbitzu Orokorrak izeneko arloan IV. Planak bi helburu baino ez ditu proposatzen. Hala ere, ardatz estrategiko honen analisisian bi helburu balira bezala sartzea interesgarria iruditu zaigu eta bi kode eman dizkiegu: BZO1 eta BZO2.

Argibide hauek eman ostean, euskal administrazio publikoek martxan dituzten berdintasunen politikek Bateragarritasunarekin eta erantzukidetasunarekin duten harremanaren jorak ikusteko hainbat datu emango ditugu.

IV. Plana indarrean egongo den lau urteetarako, ardatz honen programan egingo den jarduera kopurua ere zehazten da, bai eta garapenerako erabili diren interbentzio lanabesak ere (sentsibilizazioa; prestakuntza; Hainbat azterketaren garapena; baliabideen eta zerbitzuen sorkuntza eta egokitzapena; arauen sorkuntza eta egokitzapena; eta jarraipena).


Aipatutako sei lanabesak ezinbestekoak dira Planean proposatutako programa desberdinak landu ahal izateko. Hala ere, eskatzen dituen baliabideak oso desberdinak dira, halakoak izango baitira eraginak eta ondorioak ere. Hori dela eta, erreminta bat edota bestea erabiltzeak honakoa erakutsiko luke: zeharka bada ere, botere publikoak zenbateraino dauden inplikaturak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko jarduketak abiarazteko.

Aurrekoarekin batera, Bateragarritasun eta erantzukidetasun jarduketetan erakunde publikoek aipatutako gastuari buruzko datuak ere erantsi ditugu, bai eta IV. Planean jasotako programa horiek duten banaketa ere.

2006 eta 2009 urteen artean, erakunde publikoek bateragarritasunarekin eta erantzukidetasunarekin harremana duten 259 jarduera gauzatu dituzte. Hurrengo grafikoen adminis-

trazioak 8 programei eta bi helburuei lotuta egin dituen jarduketa kopurua ikusiko da (16), ardatz estrategiko horretan horiek proposatu baitira.

### 3.111. GRAFIKOA Euskal Administrazioak 2006 eta 2009 artean egindako jarduerak Bateragarritasun eta Erantzukidetasunerako IV. Planeko programa bakoitzean



Grafikoak argi adierazten du zeintzuk izan diren Euskal Administrazioaren erakundeek exekutatuak programak (195 jarduketa; guztien % 75,3):

- Laguntza zerbitzuak eta langile bizi-tza, familia bizi-tza eta bizi-tza pertsonala bateratzeko neurriak (BE2);
- Autonomia funtzionalik ez duten pertsonen arreta eskaintzeko baliabide sozio-komunitarioak (BG1);
- Gizarte erantzukidetasunari buruzko erronken eta aurrerapenen inguruko lanean duen jakintza, inplikazioa eta parte-hartzea areagotzea (BZO2);
- Erantzukidetasunaren eta zaintza etikaren kultura sustatzea (BK1);

(16) Gizarte antolakuntza erraztuko duten lanabesak sortutako emakumeen eta gizonen arteko erantzukidetasuna lortzeko eta bizi-tza pertsonala, familia eta lan mundua bateratzeko (BZO1); Gizarte erantzukidetasunari buruzko erronken eta aurrerapenen inguruko lanean duen ezagutza, inplikazioa eta parte-hartzea areagotzea (BZO2); Erantzukidetasuna eta zaintza etikaren kultura sustatzea (BK1); Erantzukidetasunaren eta zaintzaren etika ikasleen artean sustatzea (BH1); Denbora eta eskola azpiegiturak egokitzea eta berrantolatzea (BH2); Gizarte antolakuntza eredu berri bat sustatzea (BE1); Laguntza zerbitzuak eta langile bizi-tza, familia bizi-tza eta bizi-tza pertsonala bateratzeko neurriak (BE2); Autonomia funtzionalik ez duten pertsonen arreta eskaintzeko baliabide soziokomunitarioak (BG1); Etxeko esparru pribatuan, osasun arazoak dituzten pertsonak zaintzearen lan karga murriztea (BO1); Bizi pertsonala, familiarra eta laneko bizi-tza bateratu ahal izateko hirigintza eta garraio azpiegiturak egokitu (BHG1).


Programen gauzate maila arloz arlo aztertzen badugu, arlo beraren barruan oreka falta handia dagoela ikusiko dugu (Zerbitzu Orokorretan jasotako bi helburuetan 8 eta 41 jarduketa izan ziren, hurrenez hurren); edo lan arloko bi programetan, 8 eta 66 jarduketa, hurrenez hurren).

Bestalde, Osasun eta Hirigintza eta Ingurumen arloetako Bateragarritasun eta erantzukidetasun programek exekutatzeko maila oso apala izan dutela argitu behar dugu (6 eta 9 jarduketa, hurrenez hurren, lau urteko epean).


Urtez urte egindako azterketak, erakunde publikoek beti programa berak lehenasunezko izendatu dituela argitu behar da.

IV. Planak indarrean daramatzan lau urteetan erabilitako esku-hartze lanabesei dagokienez, espazio arazoak direla-eta, datuak bi grafikotan aurkezten ditugu: lehenak sei programaren datuak adierazten ditu, eta bigarrenak gainerako seirenak.

**3.112. GRAFIKOA** IV. Planeko programetako exekuzioan erabilitako esku-hartze lanabesak (2006-2009) (%): Lehen zatia



**3.113. GRAFIKOA** IV. Planeko programen exekuzioan erabilitako esku-hartze lanabesak (2006-2009) (%): Bigarren zatia



Grafikoen arabera, Bateragarritasun eta erantzukidetasun programa guztiek ez dituzte joera berberak jarraitzen esku-hartze lanabesei dagokienez behinik behin. Planak proposatzen dituen jarduketekin dauka horrek harreman zuzena, ondorengo taulan ikus daitekeenez:


PROGRAMAK	SENSIBILIZAZIOA		PRESTAKUNTZA		EZAGUTZA		BALIABIDEAK		ARAUAK		JARRAIPENA	
	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa
BZO1	0	25	0	0	60	25	40	25	0	12,5	0	0
BZO2	100	73,2	0	17,1	0	4,9	0	2,4	0	0	0	2,4
BK1	25	44,3	25	50	16,7	2,6	16,7	2,6	8,3	0	0	0
BH1	22,2	66,7	0	8,3	11,1	8,3	33,3	16,7	11,1	0	22,2	0
BH2	0	0	16,6	23,5	16,6	23,5	41,7	52,9	8,3	0	8,3	0
BE1	12,5	37,5	0	0	50	25	0	25	25	0	12,5	12,5
BE2	20,6	27,3	17,6	3	23,5	9,1	20,6	24,2	11,8	30,3	20,6	6,1
BG1	11,1	11,8	11,1	7,8	33,3	7,8	22,2	66,7	11,1	5,9	11,1	0
BO1	14,3	14,3	0	0	42,8	0	42,8	71,4	0	14,3	0	0
BHGI1	25	22,2	8,3	11,1	25	11,1	25	55,6	8,3	0	8,3	0

- IV. planean proposatutakotik 5 puntu gora edo behera
- IV. planean proposatutakotik 10 puntu behera
- IV. planean proposatutakotik 10 puntu edo gehiago gora

Taulan ikusten da, Erakunde publikoen jarduketan joeraren eta Planak berak markatzen duen bidearen arteko aldeari dagokionez, ez dela argia izaten Planak zehazten dituen helburuak lortzeko eragiteko zein tresna erabili, ez baita adostasunik bien artean. Horrela, bada, Bateragarritasun ataleko 5 programetan baliabideen eta zerbitzuen lanabes gehiegi erabiltzen dela ikus daiteke; ezagutza eta jarraipen erremintak, berriz, gutxiegi erabiltzen dira, 7 eta 5 programetan, hurrenez hurren. Harrigarria bada ere, bi erreminta horiek gizartean garapenerako oso garrantzitsuak direla esan izan da, biek jakintza zabaltzen laguntzen baitute: lehenengoak baliabide berriak sortzen edo oztupoak eta erresistentziak ezabatzen lagun dezake; bigarrenak, berriz, informazioa eman dezake gizarteari eskaintzen ari zaizkion zerbitzuen efikaziari eta eraginkortasunari buruz.

Lau urte hauetarako Bateragarritasunera eta erantzukidetasunera bideratutako gastua dela eta, erakunde publikoek esan dute zenbatekoa 36.650.714,90 eurokoa (17) izan dela, eta hauxe da haren banaketa IV. Planean jasotako programen artean.

### 3.114. GRAFIKOA Bateragarritasun eta erantzukidetasuneko jardueretarako bideratutako gastua (2006-2009)



Bateragarritasun eta erantzukidetasunera bideratutako baliabide ekonomikoaren portzenta-jeari buruzko datuek diote hauexek direla euskal Administrazioetako erakundeek exekutatu dituzten programa nagusiak: laguntza zerbitzuak eta langile bizitza, familia bizitza eta bizitza pertsonala bateratzeko neurriak (BE2); autonomia funtzionalik ez duten pertsonen arre-

(17) Bateragarritasunarekin lotutako jardueretara bideratutako gastu erreala askoz handiagoa litzateke baldin eta Erakunde Publikoek informatu izan balute egiten den guztiaz eta horrek dakarren gastuaz; esate baterako, Eusko Jaurlaritzak familieren eta lanaren bateragarritasunerako programa (eszedentziatarako eta lanaldia murrizteko laguntzak).

ta eskaintzeko baliabide sozio-komunitarioak (BG1); denbora eta eskola azpiegiturak egokitzeta eta berrantolatzea. Erakunde Publikoek emandako informazioaren arabera, hiru programa hauetarako bideratutako dirua ardatz estrategiko honetara bideratutako zenbatekoaren % 93,9koa da.

Funtsean, baliabideak eta zerbitzuak sortu nahi ditu familia eta lan bizitzak bateratu ahal izateko: Ikastetxeetako jangelak; haurtzaindegietako plazak; eszedentzia eta lanaldi murrizketak sustatzeko laguntza ekonomikoak; eta funtzioen autonomiarik ez dutenak zaintzeko ardura dutenei bideratutako laguntzak.

## **BATERAGARRITASUN ETA ERANTZUKIDETASUN ARDATZEKO PROGRAMA BAKOITZAREN EBALUAZIOA**

### **3.5.2**

Atal honetan Bateragarritasun eta erantzukidetasun programa bakoitzeko emaitzak erakutsiko dira:

- Programen gauzatzearen intentsitate maila.
- Programen gauatzean parte hartu duten erakundeak.
- Programek izan duten estaldura maila.
- Programa horien gauatze mailan erabilitako baliabide ekonomikoak.

#### **ZERBITZU OROKORREN ARLOA:**

**GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERRAZTUKO ETA GIZARTEAREN EZAGUTZA, INPLIKAZIO ETA PARTE-HARTZEA HANDITUKO DITUZTEN LANABESAK SORTZEA DUTE HELBURU, ERANTZUKIDETASUNAREN BIDEAN ERRONKAK ETA AURRERAPAUZOAK EGINEZ BETIERE**

Programan zehaztutako bi helburuak hurrengoak dira:

- Gizarte antolakuntza erraztuko duten lanabesak sortu emakumeen eta gizonen arteko erantzukidetasuna lortzeko eta bizitza pertsonala, familia eta lan mundua bateratzeko.
- Gizartearen jakintza, inplikazioa eta parte-hartzea areagotzea baterako erantzukizunaren bidean dauden erroka eta aurrerapenei dagokienez.

Bi helburu hauen izaera orokorrak eta zailtasunak direla eta, ezin izan dugu gauzatze maila aztertzeko adierazleen berri izan.


Atalaren hasieran aipatutako lau adierazleen inguruan lortutako emaitzak aurkeztuko ditugu jarraian: Aurretik aipatutako Zerbitzu Orokorraren arloan sartutako bi helburuak exekutatzearen intentsitate maila; programa gauzatu ahal izateko inplikaturaren egon diren erakundeak; programaren estaldura (kolektiboak, emakumeak eta gizonak); eta horretara bideratutako baliabide ekonomikoak.

### PROGRAMAK GAUZATU AHAL IZATEKO INTENTSITATE MAILA (HELBURUAK, HONETAN BAINO EZ)

Gizarte antolaketa aldatzeko lanabesak sortzera 8 jarduketa bideratu dira. Helburua gizon eta emakumeen erantzukidetasuna eta haien bizitza pertsonala, familiarra eta laborala bateratu ahal izatea dira. Ardatzean aurreikusita zeuden programa guztien jarduketak batez bestekoaren azpikoak izan dira ( $k=25,5$ ).

#### 3.115. GRAFIKOA


Gizarte antolakuntzaren aldaketa sustatzen duten lanabesen sorkuntza, gizon eta emakumeen arteko erantzukidetasuna eta bateragarritasuna lortze aldera (2006-2009)



Erantzukidetasunaren bidean laneko erronka eta aurrerapenen inguruan ezagutza, inplikazio eta partaidetza handitzeko egindako jarduketak, berriz, batez bestekoa baino gehiago izan dira, ardatz honetako programetan jasotako batez besteko jarduketak baino gehiago ( $k=41$ ).

#### 3.116. GRAFIKOA


Gizartearen ezagutza, inplikazio eta parte-hartze maila areagotu lan eremuan, erantzukidetasunaren inguruko erronka eta lorpenei buruz (2006-2009)





## PROGRAMAK GAUZATU AHAL IZATEKO INPLIKATUTAKO ERAKUNDE PUBLIKOAK (HELBURUAK HONETAN BAKARRIK)

**3.117. GRAFIKOA** Gizarte antolakuntzaren aldaketa eta gizartearen ezagutza, inplikatutako lanabesak sortzea (2006-2009)




Grafikoko datuek hauxe adierazten dute: Zerbitzu Orokorren arloko bi helburu hauek gauzatzeko orduan, inplikaturako erakunde publikoen batez bestekoa ardatzean oro har inplikaturako batez bestekoa baino handiagoa da. Lanean aritu diren hiru erakundeetako erakundeei erreparatzen badiegu joera bera ikus dezakegu guztietan, Foru Administrazioan izan ezik.


## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA (HELBURUAK HONETAN BAKARRIK)

Aztertutako helburuen izaera dela eta, -Administrazioako langile- eta -profesional- taldeetako pertsona kopuruen inguruko datuak aurkeztuko ditugu, bai eta IV. Planaren helburuak lortze aldera bultzatutako jarduketetan parte hartu dutenak ere.


**3.118. GRAFIKOA** Programetan parte hartu duten politikariak eta teknikariak (2006-2009)



**3.119. GRAFIKOA** Programetan parte hartu duten profesionalak (2006-2009)



### 3.120. GRAFIKOA Populazio orokorreko kolektiboak (2006-2009)




Bi helburu hauekin lotuta, hiru talde aritu dira batez ere lanean: Administrazio Orokorreko teknikariak, Berdintasunerako langileak eta euskal gizartea orokorrean (gizonak eta emakumeak, antzeko kopuruan).

#### **PROGRAMA GAUZATZEKO ERABILITAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK (KASU HONETARAKO HELBURUAK)**

Zerbitzu Orokorraren arloan, Bateragarritasun eta erantzukidetasunaren ardatzaren barruan jasotako bi programetan, erakunde publikoek 1.083.538,21 euroko gastua izan dela esan dute. Kopuru horretatik, % 90,26 (978.034,99 euro) erantzukidetasunaren bidean jarduteko erronka eta aurrerapen lanekiko jendartearen ezagutza, inplikazio eta parte-hartze maila handitzeko helburua lantzeko erabili da. gainerakoa, 105.503,22 euro, aldaketa soziala ahalbidetzeko lanabesak sortzera bideratu da.

Ondorengo grafiko honek helburu bietan jardura bakoitzaren batez besteko kostua erakusten du, ardatz osoaren jardura bakoitzaren batez besteko kostuarekin erkatuta.

**3.121. GRAFIKOA** Programa honetako jardueretara bideratutako baliabide ekonomikoak: gastatutako batez besteko kopurua (2006-2009)



Grafikoan ikusi daitekeen moduan, bi helburuetarako bideratutako dirua ardatzeko jarduketako batez besteko kostearen azpitik dago.

**KULTURA ARLOA:**


**ERANTZUKIDETASUNAREN ETA ZAINZAREN ETIKAREN KULTURA SUSTATZEA**

Egindako berrikusketek landutako ebaluazio adierazleen informazio sistematizaturik ez dagoela adierazten dute, ez programari, ez eta zehaztutako helburuei dagokienez ere.

Hurrengo lerroetan gizarte eredu berri bidezkoago eta erantzukidetasunaren aldekoago bat bultzatze aldera, hainbat botere publikok gauzatu dituzten zenbait berdintasun politikaren berri izango dugu.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

**3.122. GRAFIKOA** Erantzukidetasunaren eta zaintzaren etikaren kultura sustatzea (2006-2009)




## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

**3.123. GRAFIKOA** Erantzukidetasunaren eta zaintzaren etikaren kultura sustatzea (2006-2009)



## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA


**3.124. GRAFIKOA** Jardueren hartzaileak: Datuak, sexuaren arabera bereizita (2006-2009)



## PROGRAMA GAUZATZEKO ERABILITAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Kultura arloan, Bateragarritasun eta erantzukidetasun ardatzaren barruan jasotako programan, erakunde publikoek 473.434,3 euroko gastua izan dela esan dute.

**3.125. GRAFIKOA** Erantzukidetasunaren eta zaintzaren etikaren kultura bultzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



## HEZKUNTZA ARLOA:

### ERANTZUKIDETASUNAREN ETA ZAINZAREN ETIKA IKASLEEN ARTEAN SUSTATZEA


Programa honek helburu bakarra dauka, etxeko lanen erantzukidetasuna handitzea eta neska-mutilen zaintzari dagokionez ere.

2009an, ikerketa egiteko eskaria egin zuen Emakundek *Nerabeak Euskadin. Ahalduntzetik egindako gerturatzea*. Bertan, 14 eta 17 urte arteko 780 nerabek hartu zuten parte. Ikertutako arloetako bat etxeko erantzukidetasuna izan zen. Emaitzen arabera, inkesta erantzun zutenen % 38k -inoiz ez edo oso gutxitan- egin izan du ikerketan zehaztutako zazpi etxeko lanetako bat (bere gela txukundu, bere ohea egin, etxea garbitu, bere bazkaria prestatu, senitartekoak zaindu, besteen oheak egin, besteen bazkaria prestatu), % 14,9k -ia egunero- egiten duela erantzun du, eta % 15,1ek, ostera, -astean behin baino gehiagotan- egiten duela erantzun du.

Proposatutako lan guztietan, altuagoa da jarduera horiek astean behin baino gehiagotan egiten dituzten nesken kopurua (% 33,6 neskek eta % 26,3 mutilek). Norbanakoaren lana eskatzen duten jardueretan (-nork bere ohea egin- eta -logela txukundu-) ere nesken aldekoa da tarteak (% 14,3 eta % 9,6). Beste pertsonentzako onuragarriak diren lanetan ere egoera antzekoa da: -etxea garbitu- (% 25,7 neskek eta % 15,9 mutilek), -senitartekoak zaindu- (% 24,4 eta % 15,9) edo -etxeko gainerako pertsonen oheak egin- (% 10,3 eta % 8,4). Etxean laguntza handiagoa ematen dutela adierazteaz gain, betiko nesken rola berri ere ematen datu hauek (gainerakoei ongizatea eta zaintza eskaini).


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

### 3.126. GRAFIKOA Erantzukidetasunaren eta zaintzaren etika ikasleek sustatzea (2006-2009)




## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

3.127. GRAFIKOA Erantzukidetasunaren eta zaintzaren etika ikasleen artean sustatzea (2006-2009)



## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

3.128. GRAFIKOA Jardueren hartzaileak: Datuak, sexuaren arabera bereizita (2006-2009)




## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Hezkuntza arloan, Bateragarritasun eta erantzukidetasun ardatzaren barruan jasotako bi programetarako, erakunde publikoek 6.543.531,99 euroko gastua izan dela esan dute. Zenbateko horretatik, % 1,2 programa honetara bideratuko da (78.634,04 euro).



**3.129. GRAFIKOA** Erantzukidetasunaren eta zaintzaren etika ikasleen artean sustatzera bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



**HEZKUNTZA ARLOA:**

**DENBORA ETA ESKOLA AZPIEGITURAK EGOKITZEA ETA BERRANTOLATZEA**

Programa honekin bi helburu lortu nahi dira:

- 0-3 arteko adin tartera bideratutako plaza kopurua ugaritzea, eta lehen zein bigarren hezkuntzako ikastetxeetan jangela eta garraio zerbitzuak duen eskaera aseko dela ziurtatzea;
- Ikastetxeetan eta haur eskoletan ordutegien eta egutegien malgutasuna handitzea, antolatzeke duten autonomia kontuan hartuta, betiere familien beharrei hobeto erantzuteko;

Lehen helburuarekin lotuta, 0-3 urte artekoen plazei dagokionez, Lan eta Gizarte Gaietako Sailak egindako II. Familia Planaren (2008-2009) ebaluazioaren datuen arabera, ondokoa esan dezakegu: maila orokorrean 100 umeko 64 plaza eskaintzen dira haurtzaindegi zerbitzuetan, eskolara joan daitezken haur guztiak kontuan hartzen baditugu.

Adinez adin aztertzen badugu, adinen arabera desberdintasuna handia dela ikusiko dugu. 2-3 urtekoen beharretarako estaldura erabatekoa dela esan dezakegu. Are gehiago, balizko eskaria baino zabalagoa da eskaintza. Egoera desberdina topatuko dugu 1-2 eta 0-1 urtekoen artean, estaldura % 43 eta % 32 baita, hurrenez hurren.

Azpimarratzekoa da sare publikoa dela adin tarte guztietan eskaintza handiena duena. Eskaintza pribatua txikiagoa da adin tarte guztietan, 0-1 urteko tartean izan ezik. Adin tarte horretan dago, gainera, eskaintza baino eskaera zabalagoa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak, IV. Planaren ebaluazioa dela eta, 2006-2009 urteetan zehar 0-3 urtekoen artean plaza kopurua handitzea erabaki du eta 97.428.174,38 euro bideratu ditu helburu horretarako (gastua % 5 eta % 8 artean handitu da urtean).


Eskola garraioari dagokionez, 2009-2010 ikasturtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak 25.695 ikasleen garraioa bere gain hartu zuen. Horietatik 17.871 haur eta lehen hezkuntzakoak ziren, eta gainerakoak, 7.824, bigarren hezkuntzakoak. Ez dago eskariaren eta eskaintzaren arteko datu zehatzik. Hori dela eta, ezinezkoa da estaldura maila jakitea.

Gauza bera gertatzen da jangeletako plazeekin. 2009-2010 ikasturtean 85.835 ikaslek bazkaldu ohi zuten kudeaketa zuzeneko jangeletan. Eskariari buruzko daturik ez dugunez, ezinezkoa da estaldura maila zehaztu ahal izatea.

Bigarren helburuari buruzko informazioa biltzen duen daturik ez dugu topatu, hau da, ordu-tgien eta egutegien malgutzeari buruz hitz egiten duen daturik.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

**3.130. GRAFIKOA** Denbora eta eskolako azpiegiturak egokitzea eta berrantolatzea (2006-2009)



## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

**3.131. GRAFIKOA** Denbora eta eskolako azpiegiturak egokitzea eta berrantolatzea (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

Ez daukagu gaiari buruzko informaziorik.

## PROGRAMETARA BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Hezkuntza arloan, Bateragarritasun eta erantzukidetasun ardatzaren barruan jasotako bi programetan, erakunde publikoek 6.543.531,99 euroko gastua izan dela esan dute. % 98,8 programa honetara bideratuko da (6.464.897,95 euro).

### 3.132. GRAFIKOA Denbora eta eskolako azpiegiturak egokitzera eta berrantolatzerara bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



### LAN ARLOA:

### GIZARTE ANTOLAKUNTZA EREDU BERRI BAT SUSTATZEA

Programa honek helburu bakarra dauka:

- Egitura ekonomikoaren eta sozialaren analisietan sistematikoki txertatzea etxeko lanen eta zainketen balio ekonomikoari dagozkion datuak, ekoizpen esparruaren artean dituen harremanekin aurkeztuta; hau da, lan produktiboari eskainitako denborari gehituta.

Parlamentuak EUSTATI emandako agindu baten ondorioz sortu zen Satellite Kontuaren lehen edizioa (etxeko lanak baloratzeko 1996ko apirilaren 19ko osoko bilkurako eskaria). Satellite Kontuak Euskal Estatistika Erakundearen Estatistika Planen eta Programen parte dira gaur egun, eta horrelakoak 15 egunean behin egiten dira.


Etxeko lanen balioaren azken datuak 2008an egin baina 2010ean kaleratu den Etxeko Ekonomiaren Satellite Kontuaren hirugarren ediziotik atera dira.

Satelite Kontuaren azken emaitzek ondokoa adierazten dute:

- Ordaintzen ez den etxeko lanen zenbatekoa 19.642 milioi eurokoa da.
- Ordaindu ez ziren etxeko lanen zenbatekoa BPGren % 28,7koa izan zen 2008an.
- Emakumeek lan honen balioaren % 63 ematen dute.
- 2003ko datuen aldean, BPGri lan honek egiten dion ekarpena 3,1 puntu jaitsi da, eta 1993an egin zen lehen Kontuarekin alderatzen badugu, berriz, 20,4 puntu jaitsi da. Joera hori euskal ekonomiaren antzeko ekonomia duten herrialdeetan ikusi dugu.
- Transferentzia horren beherakada azaltzea ez da zaila: etxeko ekonomia alde batera utzita merkatu ekonomia da nagusiago, emakume asko hasi baitira etxetik kanpo lanean.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

### 3.133. GRAFIKOA Gizarte antolakuntza eredu berri baten sustapena (2006-2009)



## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

### 3.134. GRAFIKOA Gizarte antolakuntza eredu berri baten sustapena (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

Ez da gaiari buruzko informaziorik erantsi.

## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Lan arloan, Bateragarritasun eta erantzukidetasun ardatzaren barruan jasotako bi programetan, erakunde publikoek 461.611,20 euroko gastua izan dela esan dute. Zenbateko horretatik, % 0,12 programa honetara bideratuko da (183.928,06 euro).

### 3.135. GRAFIKOA Gizarte antolakuntza eredu berri bat sustatzera bideratutako baliabideak (2006-2009)



#### LAN ARLOA:

#### LAGUNTZA ZERBITZUAK ETA LANGILE BIZITZA, FAMILIA BIZITZA ETA BIZITZA PERTSONALA BATERATZEKO NEURRIAK

Programa honen garapenarekin, 2 helburu hauek lortu nahi dira:

- Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun kuantitatiboa gutxitzea etxeko zaintza lanetan emandako denborari dagokionez, eta amatasun/aitatasun baimena jasotzen duten eta menpeko pertsonak zaintzen dituzten gizonen kopurua handitu, hala administrazio publikoan nola sektore pribatuan.
- Administrazio publikoetako, haien mendeko enpresetako eta sektore pribatuko enpresetako langileen lan ordutegia berriro antolatzea eta malgutzea, biztanleria okupatuaren proportzio handienak biltzen dituzten jarduera adarrei lehentasuna emanez.

Lehen helburuari dagokionez, IV. Plana indarrean izan den bitartean martxan jarri den tresnetako bat II. Familia Plana izan da, Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzza Saileko Gizarteratzea eta Familia sailburuordetzak aurreko legealdian osatutako lana. Planean bertan zehazten den moduan, haien kompetentzien arabera, Foru Aldundiak eta Udalak elkarrekin lanean aritzen dira, modu aktiboan.

Besteentzat lan egiten egiten duten langileen seme-alabak zaintzeko laguntzak 118/07 Dekretuaren bitartez araututa daude. Prozedura berri baten hasiera izan zen hori: espedienteak zabaltzen ziren eszedentzian eta lanaldi murriztuan egondako hiru hilabete bakoitzeko eta ordainketak gero egin. II Familia Planeko programa baten barruan dago hori. 2008an ebaluatu zen azkeneko aldiz (Familia Legearen tarteko ebaluazioa. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila).

Dauzkagun datuen arabera, dauden bi moduetatik –eszedentzia eta lanaldi laburtzea– bigarrena da gehien eskatzen dena, 10etik 8tan lanaldi murrizketa eskatu ohi da. % 33 eta % 40 arteko lanaldi murrizketa eskatzen dute gehienetan, eta ematen diren 10 baimenetik 6 horrelakoak izaten dira.

Estaldura orokorrari dagokionez programa arrakastatsua izan da: 26.933 eskarrietatik, 26.570 onartu dira. Hala ere, gizonak eta emakumeek zerbitzua antzeko eskatzea nahi zen, eta porrot handia izan da hori. Gizonen parte-hartzea bultzatzeko haiei diru-laguntza handiagoa ematea erabaki zen haiek izan zitezkeen lanaldia laburtzen zutenak edo eszedentzia eskatzen zutenak.

Ebaluazioak erakutsi du, ordea, horrelako eskariak egin zituzten gizonak % 5,9 baino ez zirela izan. Hori dela eta, egungo gobernuak laguntzak parekatzea erabaki zuen 2010eko hasieran, guraso gizonetzkoen alde zegoen diskriminazio positibo hori desagerraraziz.

Etxeko lanei eta zaintzari dagokienez (Eustat 2008), emakumeek eta gizonak eskaintako denboraren artean alde handia dago oraindik ere. Emakumeek gizonak baino ordubete eta hamahiru minutu gehiago ematen dituzte etxeko lanak egiten batez beste. Alderik nabarmenena bazkaria prestatzean dago, eta atzetik, erropa eta garbiketa aipatu behar ditugu. Gestioak egitea da gizonak emakumeek baino denbora gehiago ematen duten jardura bakarra.

Zaintza lanei buruz, emakumeek, batez beste, 53 minutu gehiago ematen dituztela azpimarratu dezakegu.

Langileen ordutegi malgua eta denboraren berrantolatze zerbitzuak eta/edo neurriak ezartzeko helburuak lortu duen eragin maila ikusteko, enpresa pribatuaren datuak ditugu, Emakundek 2009an eskatutako *Emakumezkoen ibilbide profesionaleko desberdintasunari* buruzko ikerketa batetik ateratakoak. Bertan, euskal enpresetako giza baliabideen arduradunak ziren 649 laguni egin zieten inkesta bat, jakiteko zein neurri ezartzen ari ziren emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta bateragarritasuna bultzatzeko eta nola eragiten zieten enpresari eta neurri horiei heltzen zieten pertsonen karrera profesionalari.


Ikerketaren emaitzek diotenez, eta bateratze neurriak ezartzeari dagokionez, neurrien irisgarritasunari buruzko ezagutza txikia dagoela azpimarratu nahiko genuke. Izan ere, enpresen % 60k gutxi gorabehera ez du bateratze neurririk edo ez daki halakorik erabiltzen ote duen. Zenbaki horrek behera egin ohi du neurri zehatzak proposatzen direnean, baina hala koetan ere, ia enpresen laurdenak diote ez dutela ezarrita inongo bateratze neurririk.

Enpresaren ohiko jardura eta langile kopurua oso kontuan hartzekoak dira bateratze neurriak eskaintzean, enpresa txikietan arazoak biderkatu egiten baitira.

Lanaldi murrizketa eta ordutegi malgutasuna (lan egitera beranduago joateko aukera moduan ulertuta) dira ezarri ohi diren bi neurri nagusiak. Baloratzen direnean kontrako alde-  
ra egiten dute, ordutegi malgutasunak positibo ikusten da enpresako produktibitateari  
dagokionez, baina lanaldi partziala, berriz, neurri negatibotzat jo ohi da.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

**3.136. GRAFIKOA** Lana, bizitza pertsonala eta familia bateratzeko laguntza zer-  
bitzuak eta neurriak (2006-2009)




## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

**3.137. GRAFIKOA** Lana, bizitza pertsonala eta familia bateratzeko laguntza zer-  
bitzuak eta neurriak (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

3.138. GRAFIKOA Programetan parte hartu duten politikariak eta teknikariak



3.139. GRAFIKOA Jardueren hartzaileak: Datuak, sexuaren arabera bereizita (2006-2009)






## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Lan arloan, Bateragarritasun eta erantzukidetasun ardatzaren barruan jasotako bi programetan, erakunde publikoek 461.611,20 euroko gastua izan dela esan dute. Zenbateko horretatik, % 60,15 programa honetara bideratuko da (277.683,20 euro)

### 3.140. GRAFIKOA Lana, bizitza pertsonala eta familia laguntzeko zerbitzuetara eta bateragarritasun neurrietara bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



#### GIZARTERATZE ARLOA:

#### AUTONOMIA FUNTZIONALIK EZ DUTEN PERTSONEI ARRETA ESKAINTZEKO BALIABIDE SOZIOKOMUNITARIOAK

Programa honek helburu bakarra dauka:


- Zaintza lanak egiten dituzten pertsonen karga ekonomikoak, sozialak eta psikologikoak murrizteko baliabideak areagotzea.

EDADES Inkestak 2008an eta 1999an emandako datuen arabera, senitartekoek mendekotasuna duten pertsonak zaintzeari buruzko datuek ez dute aldaketa aipagarriarik izan azken hamarkadan. 1999an, pertsona ezgaituen % 3,29k baino ez zituen gizarte zerbitzuak izan zaintzaile nagusi moduan. 2008an, zifra ez da handitu. Gainera, zenbatekoak behera egin duela esan dezakegu: % 2,75era, hain zuzen.

Bi urteetan, senar edo emaztea izan zen zaindaria nagusi izendatu zuten pertsona. Bi inkestean artean aldaketa adierazgarriren bat aipatzekotan, zaintza horren ardura hartzen duen hirugarren pertsonari buruz hitz egin genezake; 1999an ama zen, eta 2008an langile batek betetzen zuen lan hori askotan.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

**3.141. GRAFIKOA** Autonomia funtzionalik ez duten pertsonen arreta eskaintzeko baliabide soziokomunitarioak (2006-2009)



## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

**3.142. GRAFIKOA** Autonomia funtzionalik ez duten pertsonen arreta eskaintzeko baliabide soziokomunitarioak (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

### 3.143. GRAFIKOA Diskriminazio anizkuneko edo gizarte bazterketako arriskuan dauden emakumeak (2006-2009)



### 3.144. GRAFIKOA Jardueren hartzaileak: Datuak, sexuaren arabera bereizita (2006-2009)




## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Gizarteratze arlan, Bateragarritasun eta erantzukidetasun ardatzaren barruan jasotako programan, erakunde publikoek 27.952.999,13 euroko gastua izan dela esan dute. Kopuru honetatik, 21.919.168 euro zaintzaileentzako prestazioen inguruko jarduera bakar bati

dagozkio, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak argitu duenez. Aipatu jarduketak eragiten duen soslai dela eta, baliabide ekonomikoen % 78,4 programa honetara bideratu da. Aurreikusi gabeko jarduketako batez besteko zenbatekoa 21.919.168 eurokoa izan dela kalkulatu da; hori dela eta, erabilitako oinarria 6.033.831,13 eurokoa izan da.

**3.145. GRAFIKOA** Autonomia pertsonalik ez duten pertsonen arreta eskaintzeko baliabide soziokomunitarioetara bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



**OSASUN ARLOA:**

**ETXEKO ESPARRU PRIBATUAN, OSASUN ARAZOAK DITUZTEN PERTSONAK ZAINTZEAREN LAN KARGA MURRIZTEA**

Programa hau garatzeko bi helburu proposatu dira:

- Gizarte eta osasun zerbitzuek artatutako pertsona kopurua handitzea; alegia, osasun arazoak dituztenak eta autonomoak ez direnak.
- Osasun arreta zerbitzua eta lana, norberaren bizitza eta familia bateratzeko medikuen ordutegiak zabaltzea.

Ezgaitasun, Urritasun eta Buru Osasuneko (EDDS) inkestari buruz jakin izan ditugun azken datuen arabera, 2008an nolabaiteko ezgaitasuna zuten 169.400 pertsona zeuden Euskadin. Horietatik 66.100 pertsonak (% 42,2) behintzat ez dute inolako zerbitzurik behar izan; 87.100 pertsona, % 56k zerbitzua eskatu eta jaso zuten; 4.800 pertsonak, % 3,1ek, zerbitzua eskatu zuten, baina ez zuten jaso.

Mendekotasuna duten pertsonen jaso duten zerbitzua honelakoa izan da: osasun laguntza (% 20,56), informazioa, aholkularitza eta balorazioa (% 11,65) eta osasun garraioa eta/edo garraio egokitua (% 8,61).


Komunitate Autonomoak aztertzen baditugu, EAE izan zen osasun zentroetan mendeko pertsona gutxien artatu zituen komunitatea (portzentajez). Osasun garraioari eta garraio egokituari dagokionez, berriz, seigarrena izan zen atzetik hasita. Hori bai, laguntza zentron bitartez herritarrek laguntzen bosgarren komunitate autonomoa izan zen.

Mendeko pertsonak gizarte laguntza zentroetara bideratzeko apustuaren aldeko hautua argi adierazten du honek. Izan ere, Osakidetza 2005-2009 legealdiko memoria txostenaren arabera, garai hartan etxeko ospitalizazioa handitu zen. Horrela, Euskadiko biztanleen % 98ri baino gehiagori zerbitzua emateko helburua lortu zen. Etxeko zaintzak % 48,81 areagotu ziren, eta nabarmena izan zen, halaber, eguneko ospitalean egindako prozeduren igotzea, % 63,79 areagotu baitzen. Kirurgia handi ambulatorioaren portzentajea % 7,4 hazi zen 2005 eta 2008 artean, eta 2009ko lehen hiruhilekoan % 53,9 izan zen horren portzentajea.

2005-2009 legealdiko jardute memoria Txostenak dioenez, Osakidetza lehen mailako arretari begira hartutako konpromisoetako bat prestazioak irisgarriak izatea eta jarraipena ziurtatzea izan da. Helburu horri behar bezalako estaldura emate aldera, 28 osasun zentroetan eta kontsultategietan berritze lanak egin dira, lehen mailako arreta emateko unitate berriak sortu dira eta arratsaldeko eskaintza zabaldu da. Horrela, bada, Lehen Mailako Arreta zentron % 10ek nolabaiteko aldaketa izan dute. Gaur egun, Eskualde guztiek arratsaldeko ordutegia daukate. Gainera, lau urte hauetan, landa eremuan dauden lehen mailako arretarako zentroek zerbitzuak arratsaldeko ordutegian eskaintzea lortu da.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

### 3.146. GRAFIKOA Osasun arazoak dituzten pertsonak zaintzeak etxean sortutako lan karga gutxitzea (2006-2009)



## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

### 3.147. GRAFIKOA Osasun arazoak dituzten pertsonak zaintzeak etxean sortutako lan karga gutxitzea (2006-2009)



## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

Ez da gaiari buruzko informaziorik erantsi.

## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Ez da gaiari buruzko informaziorik erantsi.

### **HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKO ETA INGURUMEN ARLOA:**

### **BIZI PERTSONALA, FAMILIARRA ETA LANeko BIZITZA BATERATU AHAL IZATEKO HIRIGINTZA ETA GARRAIO AZPIEGITURAK EGOKITU**

Programa hau garatzeko bi helburu proposatu dira:

- Familia, norberaren bizitza eta lana errazago bateratzeko hiri diseinuak antolatzeko irizpideak identifikatzea eta aplikatzea.
- Garraio publikoan, bizitza pertsonala, familia eta lana errazago bateratzera bideratutako neurriak ezartzea.

Lehenengo helburua gauzatzeko, Etxebizitza, Herri lan eta Garraio Sailak, 2010ean, Hiriko Anlisiari buruzko Gida argitaratu du: «*Generoa eta eguneroko bizitza*». Lan honen oinarria 2008ko urrian Etxebizitza Sailburuordetzak bultzatutako jardunaldiak daude. Bilboko Euskalduna jauregian izan ziren aipatu jardunaldiak ondoko lehenaren pean *Hirigintza inklusiborako planteamendu berriak. Generoa eta parte-hartzea*. Bertako emaitza EAEko Udal guztietara zabaldu zen. Txostena lau arkitekto idatzi dute –hiru emakumek eta gizon batek– eta gai nagusia beldurra eragiten duten puntuak ezabatu eta hiri ziurragoak sortzea


bada ere, hiriguneen diseinuan genero ikuspegia kontuan hartzea zer den azaltzen du kapitulu batean.

Mugikortasun Inkestaren azken datuen arabera, oraindik ere bada desberdintasunik garraioaren erabileran gizonen eta emakumeen artean (2007, Etxebizitza, Herri lan eta Garraio Saila). Gizonek haien autoa erabiltzen dute joan-etorrien % 45,7an. Emakumeen artean, berriz, datu hori txikiagoa da: % 31,8. Hori horrela izanik, ez da harritzekoa emakumeek motorrik gabeko moduak eta garraio publikoak erabiltzeko daukaten ohitura gizona baino askoz altuagoa izatea.

Oztopo horiek gainditze aldera, Euskal Trenbide Sareak eta Eusko Trenbideak-ek berdintasunerako planak egin izan dituzte( ETS: 2006-2008 eta ET: 2007-2009). 2009an II. Planaren diseinua eta I. Planaren ebaluazioa egiteko aholkulari aditu taldea kontratatzeko prozedura martxan jarri dute. Bi entitate horiek Emakundek ematen duen Berdintasunarekin kolaboratzaile ziurtagiria lortu zuten: ETS 2006ko uztailean eta ET 2007ko abenduan.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

**3.148. GRAFIKOA** Hirigintza eta garraio azpiegiturak bateragarritasunra eta autonomia pertsonalaren garapenera egokitzea (2006-2009)



## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

**3.149. GRAFIKOA** Hirigintza eta garraio azpiegiturak bateragarritasunera eta autonomia pertsonalaren garapenera egokitzea (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

Ez da informaziorik eman.

## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Programa hau gauzatzeko, 135.600 euroko gastuaren berri eman dute erakunde publikoek. Hurrengo grafikoan jardueretan gastatutako zenbatekoa eta egindako jarduerak azaltzen dira, eta batez besteko kopurua ardatz bakoitzaren jarduera bakoitzaren batez besteko gastuarekin alderatzen da.

### 3.150. GRAFIKOA Hirigintza eta garraio azpiegiturak bateragarritasunera eta autonomia pertsonalaren garapenera egokitzera bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ARDATZEAN LANDUTAKO JARDUERAK

# 3.6

### AZTERKETA OROKORRA: 2006-2009 ALDIKO BILAKAERA

# 3.6.1

Emakumeen aurkako indarkeria ardatzak 6 programa ditu guztira, parte hartu nahi duen arlo bakoitzeko bat, eta bi helburu Zerbitzu Orokorrak arloan.



Ikus daitekeen moduan, aztergai dugun ardatzaren barneko programa bakoitzean kode bat dago idatzita. Kodearen helburua grafikoan irakurketa erraztea da, datu bakoitza zein programari dagokion identifikatzeko modua errazten baitu.

Kodeak definitzeko ondoren aipatuko dugun logika erabili da: lehenengo hizkiak ardatz estrategikoarekin dauka harremana (Indarkeria kasu honetan) eta atzeko hizkiek eragite arloa aipatzen dute; zenbakiak programa zenbakia adierazten du, arlo gehienek programa bat baino gehiago proposatzen baitute. Programen izen osoa oin oharrean irakurri daiteke.

Zerbitzu Orokorrak izeneko arloan IV. Planak bi helburu baino ez ditu proposatzen. Hala ere, ardatz estrategiko honen analisisian bi helburu balira bezala sartzeari interesgarria iruditu zaigu, eta bi kode eman dizkiegu: IZO1 eta IZO2.

Argibide hauek eman ostean, euskal administrazio publikoek martxan dituzten berdintasunen politikek Emakumeen aurkako indarkeriarekin duten harremanaren joerak ikusteko hainbat datu emango ditugu.

IV. Plana indarrean egongo den lau urteetarako, ardatz honen programan egingo den jarduera kopurua ere zehazten da, bai eta garapenerako erabili diren interbentzio lanabesak ere (sentsibilizazioa; prestakuntza; hainbat azterketaren garapena; baliabideen eta zerbitzuen sorkuntza eta egokitzapena; arauen sorkuntza eta egokitzapena; eta jarraipena).

Aipatutako sei lanabesak ezinbestekoak dira Planean proposatutako programak landu ahal izateko. Hala ere, eskatzen dituen baliabideak oso desberdinak dira, halakoak izango baitira eraginak eta ondorioak ere. Hori dela eta, erreminta bat edota bestea erabiltzeak honakoa erakutsiko luke: zeharka bada ere, botere publikoak zenbateraino dauden inplikaturak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko jarduketak abiarazteko.


Aurrekoarekin batera, Emakumeen aurkako indarkeria ekintzetan erakunde publikoek aipatutako gastuari buruzko datuak ere erantsi ditugu, bai eta IV. Planean Programa horiek duten banaketa ere.

2006 eta 2009 urteen artean, erakunde publikoek emakumeen aurkako indarkeriarekin harremana duten 865 jarduera gauzatu dituzte. Hurrengo grafikoan administrazioak 6 programei eta bi helburuei lotuta egin dituen jarduketa kopurua ikusiko da (18), ardatz estrategiko horretan horiek proposatu baitira.

---

(18) Administrazioaren koordinazioa bultzatzea eta hobetzea, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan (IZO1); Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainak egitea (IZO2); Esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerraraztea (IK1); Emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta bitartekari lanak egin (IH1); Laneko eraso sexistak prebenitzea eta desagerraraztea (IE1); Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen prebentzio eta laguntza hobetzea (IG1); Indarkeria jasan duten emakumeei arreta fisikoa zein psikologikoa eskaini (IO1); Emakumeen segurtasuna eta segurtasun sentsazioa hobetzea (IHGI1).

**3.151. GRAFIKOA** Euskal Administrazioak 2006 eta 2009 bitartean Emakumeen aurkako Indarkeriaren ardatzaren barruan IV. Planaren programa bakoitzean egindako jarduerak



Grafikoak argi adierazten du Euskal Administrazioetako erakundeek gauzatu duten programa nagusia (jardueren % 40,9):

— Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen prebentzio eta laguntza hobetzea (VIS1).

Beste hiru programek ekintzen erdia biltzen dute, gutxi gorabehera (k=430):

— Administrazioaren koordinazioa bultzatzea eta hobetzea, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan; (IZO1)

— Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainak egitea (IZO2);

— Esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerraraztea; (IK1)


— Indarkeria kasuetarako prebentzioa eta bitartekaritza (IH1);

Gainerako arloetan, oso apala izan da exekuzio maila (urtean 5 eta 10 jarduera artean, batez beste).


Urtez urte egindako azterketak adierazten du erakunde publikoen joera programa berak lehenestea izan dela.

IV. Planaren lau urteko indarraldian Programa bakoitzean erabilitako Esku-hartze Lanabesei dagokienez, espazio arazoak direla eta, bi grafikotan aurkeztu ditugu datuak: lehenengoak sei programari dagozkionak biltzen ditu, eta bigarrenak gainerako seirenak.

**3.152. GRAFIKOA** IV. Planeko programak gauzatzean erabilitako esku-hartze lanabesak (2006-2009) (%): Lehen zatia



**3.153. GRAFIKOA** IV. Planaren programak gauzatzean erabilitako esku-hartze lanabesak (2006-2009) (%): Bigarren zatia



Grafikoen arabera, programa guztiek ez dituzte joera berberak jarraitzen esku-hartze lana-besei dagokienez behinik behin. Planak proposatzen dituen jarduerekin dauka horrek harreman zuzena, ondorengo taulan ikus daitekeenez:

PROGRAMAK	SENTSIBILIZAZIOA		PRESTAKUNTZA		EZAGUTZA		BALIABIDEAK		ARAUAK		JARRAIPENA	
	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa	Plana	Benetakoa
IZO1	0	0	0	0	25	12,1	50	49,4	0	0	25	38,5
IZO 2	75	76,3	0	0	0	0	25	23,7	0	0	0	0
IK1	10	95,4	20	0,6	10	0,6	50	2,6	10	0	0	0,6
IH1	22,2	46,7	22,2	34,9	16,7	6,4	22,2	11	5,6	0,9	11,1	2,7
IE1	7,1	15,8	14,3	5,3	21,4	0	14,3	63,1	28,6	10,5	14,3	5,3
IG1	16,2	14,9	18,9	20,9	10,9	15,5	27	39,4	10,8	2,8	8,1	6,5
IO1	14,3	35,3	28,6	23,5	14,3	0	14,3	5,9	14,3	11,7	14,3	23,5
IHG11	10,5	7,7	0	0	15,8	53,8	36,8	15,4	10,5	2,6	26,3	20,5


- IV. planean proposatutakotik 5 puntu gora edo behera
- IV. planean proposatutakotik 10 puntutik gora
- IV. planean proposatutakotik 10 puntu edo gehiago gora

Taulan ikusi daitekeenez, Emakumeen aurkako indarkeriarekin harremana duten hainbat programatan akatsak daude. Zerbitzu Orokorren arloari (eta hirigintza eta Ingurumenean, nolabait) dagokien programetan baino ez dago egokitzapen ona. Gainerako guztietan akats esanguratsuak topatu ditugu. Kultura arloko programak, adibidez, sentsibilizazio erreminta gehiegi erabiltzen du, beste erreminta guztien kaltean; Hezkuntzan baliabide eta zerbitzuak da gehiegi erabiltzen dena, ezagutza, prestakuntza eta arauen lanabesen kaltean.

Lau urte hauetarako Emakumeen aurkako indarkeria ardatzera bideratutako gastua dela eta, erakunde publikoek esan dute zenbatekoa 17.857.196,34 eurokoa izan dela, IV. Planean jasotako programen artean banatuta (19).

(19) Administrazioaren koordinazioa bultzatzea eta hobetzea, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan (IZO1); Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainak egitea (IZO2); Esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerraraztea (IK1); Emakumeen aurkako indarkeria prebenitu eta bitartekari lanak egin (IH1); Laneko eraso sexistak prebenitzea eta desagerraraztea (IE1); Etxeko tratatu txarren eta sexu erasoaren prebentzio eta laguntza hobetzea (IG1); Indarkeria jasan duten emakumeei arreta fisikoa zein psikologikoa eskaini (IO1); Emakumeen segurtasuna eta segurtasun sentsazioa hobetzea (IHG11).

**3.154. GRAFIKOA** Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko jardueretara bideratutako gastua bertako programen artean banatzea (2006-2009)



Emakumeen aurkako indarkeria lantzeari bideratutako diru baliabideen portzentajeak dio Euskal Administrazioetako erakunde nagusiek exekutaturako programa ondokoa izan dela: etxeko indarkeriaren prebentzioa eta arretoa eta eraso sexualak (IG1).

**EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIA ARDATZAREN  
BARNEKO PROGRAMA  
BAKOITZAREN EBALUAZIOA**

**3.6.2**

Atal honetan Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko programa bakoitzeko emaitzak erakutsiko dira:

- Programen gauzatze maila.
- Programen gauzatze mailan parte hartu duten erakundeak.
- Programek izan duten estaldura maila.
- Programa horien gauzatze mailan erabilitako baliabide ekonomikoak.

## **ZERBITZU OROKORREN ARLOA:**

### **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN INGURUAN ADMINISTRAZIOEN KOORDINAZIOA BULTZATU ETA HOBETU BATETIK. BESTETIK, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO HELBURUA BETETZEKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK EGIN**

Zerbitzu Orokorrean arloa, esan bezala, lehen ez zegoen programetan banatuta. Bertan, Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko bi helburu zeuden:

- Administrazioaren koordinazioa bultzatzea eta hobetzea emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan.
- eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainak egitea.

Lehenengo helburuari dagokionez, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokaren tresna nagusietako bat instituzioen arteko lana eta haiek sinatutako akordioak izan dira. Sinatutako akordioek bi alderdi hauek hobetzea bilatzen zuten: etxean indarkeria eta sexu indarkeria pairatzen duten emakumeen arreta. Lehen akordioa 2001eko urrian sinatu zen, eta bigarrena 2009ko otsailean. II. akordioa sinatzearekin batera, berdintasun Legeko 62. artikulua betetzen da.

Koordinazio tresna hori, sinatu zuten erakundeek eta entitateek sinatu zuten moduan, eraso sexualen biktimen arretarako sortu zen, aurretik Lurralde Historiko bakoitzak zuena osatuz eta hobetuz. Idazketarako, koordinazio akordioez gain, beste arlo batzuetako jarduteko beste protokolo eta eredu batzuk jarraitu zituzten: Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko Segurtasun sailburuordetzako tratu txarretako eta sexu erasoetako jarraibideak edo Osasun Saileko osasun protokoloa.

Emakumeen aurkako indarkeria herri artean koordinatzeko egitura ezinbestekoa da Berdinsarea (indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko euskal udalerrien sarea). Berdinsarearen helburua bertako gobernuek berdintasunaren aldeko edo emakumeen indarkeriaren kontrako programak eta zerbitzuak bultzatzea, indartzea, koordinatzea eta ebaluatzea da. Eudelek (Euskal udalerrien elkarteak) eta Emakundeak bultzatutako sarea da.

Zerbitzu Orokorrak arloko bigarren helburuarekin lotuta, lau urte hauetan 67 sentsibilizazio jarduera egin dira indarkeria desagerrarazteko helburuarekin; azaroaren 25aren inguruan gehienak (Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna).


Atalaren hasieran aipatutako lau adierazleen inguruan lortutako emaitzak aurkeztuko ditugu jarraian: Aurretik aipatutako Zerbitzu Orokorren arloan sartutako bi helburuak exekutatzeke intentsitate maila; programa gauzatu ahal izateko inplikaturik egon diren erakundeak; programaren estaldura (kolektiboak, emakumeak eta gizonak); eta horretara bideratutako baliabide ekonomikoak.

### **PROGRAMAK GAUZATU AHAL IZATEKO INTENTSITATE MAILA (HELBURUAK HONETAN BAKARRIK)**


Emakumeen aurkako indarkeriarekin lotuta eta administrazioarekin harremanean 83 jarduera izan dira. Horrelako indarkeria desagertzeko beste 83 sentsibilizazio kanpainia jarri

dira abian. Ardatzean sartutako programetan zehaztutako jarduerak baino gutxiago izan dira (k=108).

**3.155. GRAFIKOA** Administrazioaren koordinazioa bultzatzea emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan (2006-2009)




**3.156. GRAFIKOA** Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzera bideratutako sentsibilizazio kanpainak egitea (2006-2009)



**PROGRAMAK GAUZATU AHAL IZATEKO INPLIKATUTAKO ERAKUNDE PUBLIKOAK (HELBURUAK HONETAN BAKARRIK)**


Grafikoko datuek adierazten dute Zerbitzu Orokorren arloko bi helburu horiek gauzatzean inplikaturako batez besteko erakunde publikoak gehiago direla Ardatzean oro har inplikatutakoak baino. Lanean aritu diren hiru administrazioetako erakundeei erreparatzen badiegu joera bera ikus dezakegu guztietan.

**3.157. GRAFIKOA** Administrazioaren koordinazioa bultzatzea eta hobetzea eta emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzera bideratutako sentsibilizazio kanpainak egitea (2006-2009)




**PROGRAMEN ESTALDURA  
MAILA (KASU HONETAN  
HELBURUAK BAKARRIK)**

**3.158. GRAFIKOA** Programetan parte hartu duten politikariak eta teknikariak (2006-2009)






**3.159. GRAFIKOA** Programetan parte hartu duten profesionalak (2006-2009)



**3.160. GRAFIKOA** Populazio orokorreko kolektiboak (2006-2009)




**PROGRAMA GAUZATZEKO ERABILITAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK (KASU HONETAN HELBURUAK BAKARRIK)**

Zerbitzu Orokorren arloan, Emakumeen aurkako indarkeria ardatzaren barruan jasotako bi programetan, erakunde publikoek 4.552.742,26 euroko gastua izan dela esan dute. Zenbateko honetatik, % 50,87 (2.316.226,01 euro) emakumeen aurkako indarkeriaren

borrokan administrazioen koordinazioa bultzatzea eta hobetzea izan du helburu; eta gainerakoa, 2.236.516,25 euro, emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzeko sentsibilizazio kanpainak egitera zuzendu da.

Hurrengo grafikoak bi helburuetarako jardueren batez besteko kostua adierazten du.

**3.161. GRAFIKOA** Programa honetako jardueretara bideratutako baliabide ekonomikoak: gastatutako batez besteko kopurua (2006-2009)



Grafikoan ikusi daitekeenez, bi helburuetarako bideratutako dirua ardatzeko jardueretako batez besteko kostearen gaineratik dago.

**KULTURA ARLOA:**  
**ESPARRU SOZIOKULTURAL GUZTIETAN SEXISMOA DESAGERRARAZTEA**

Programa honetako helburuak bi dira:

- Pertsonak beren sexuaren arabera giza duintasun gehiago edota gutxiago dutela adierazten duten irudiak zein edukiak baztertzeko, bai eta pertsonak sexu objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arinkeria hartzen edota nolabait bultzatzen dituztenak ere.
- Emakumeen indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainak kopurua handitzea.

1998ko apirilean, Berdintasuna Garatzeko Iragarkien Aholkularitza (Begira) arautu zen EAEn, apirilaren 27ko 78/1998 Dekretuaren bidez. Batzorde hori Emakundera atxikitako organo kidea da eta berdintasunerako legearen 27. artikulua bildutako hainbat funtzio betetzen ditu. Lan nagusia publizitate eremuari dagozkio, emakumearen irudi iraingarria edo diskriminaziozkoa izan daitekeena salatu behar baitu.

Emakunde-Emakumearen euskal Institutuaren aholkularitza sailak berdintasun legearen aurka norbanakoek eta erakundeek aurkeztutako salaketak jasoko dituzte, bai eta komunikabide eta publizitatearen inguruan dituzten kexak ere. Kexarik ohikoenak sexismoari buruzkoak dira: bai telebista saioetan, bai iragarkietan (telebistaz zein idatziz) agertutakoak.


Azkenik, berdintasunerako Defentsa Bulegoak berdintasunezko tratua printzipioa bermatu behar badu ere, hori lortzen lagun dezake. Izan ere, 2008ko aholkuen artean publizitatearekin harremana zuten batzuk zeuden (Durangoko Liburu eta Disko Azokako 43. edizioako kartela; eta lau egunkarietako iragarki eta kontaktu zerbitzua).

Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta indarkeria hori desagertzeko sentsibilizazio kanpaina kopurua handitzeko helburuari dagokionez, datuek azken lau urteetan sentsibilizatzeko 155 ekintza izan direla adierazten dute

Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazi eta jasotzen duten arreta hobetzeko helburuarekin botere publikoek gauzatu dituzten berdintasun politiketara buruzko hainbat datu aurkeztuko ditugu jarraian.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

### 3.162. GRAFIKOA Esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerraraztea (2006-2009)




## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

3.163. GRAFIKOA Esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerraraztea (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA


3.164. GRAFIKOA Programan parte hartu duten politikariak eta teknikariak (2006-2009)



**3.165. GRAFIKOA** Programan parte hartu duten profesionalak (2006-20069)




**3.166. GRAFIKOA** Jardueren hartzaileak diren populazio orokorreko kolektiboak: Datuak, sexuaren arabera berezita (2006-20069)



**PROGRAMA GAUZATZEKO ERABILITAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK**

Kultura arloan, Emakumeen aurkako indarkeria ardatzaren barruan jasotako programan, erakunde publikoek 958.794,26 euroko gastua izan dela esan dute.

**3.167. GRAFIKOA** Esparru soziokultural guztietan sexismoa desagerraraztea bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



**HEZKUNTZA ARLOA:**

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA PREBENITU ETA BITARTEKARI LANAK EGIN**

Programak bi helburu ditu:

- Etxeko indarkeria kasu guztiak ikastetxeetan detektatzea eta aurrez adostutako protokolo eraginkor baten arabera tratatzea.
- Ikastetxeetan indarkeria prebenitzeko programa esperimentalak egitea harremanen kultura aldatuta eta berdintasunean oinarrituriko bizikidetzak eta lankidetzak girora bideratuta.

Hauxe da gaur egun Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, Legeak dioenarekin bat, ikastetxeen eremuko indarkeriaren gaian esku-hartzearen inguruan duen joera: gatazkak ikasgelan bertan konpontzea eta bizikidetzak bultzatzea, Hezkuntzaren Berrikuntzako Ildo Nagusiek ezarri bezalaxe.

Zentzu honetan, berdinen arteko indarkeria kasuetan, atzemateari eta esku-hartzeari ematen zaie garrantzia, etxeko indarkeria atzemateko Planaren helburuaren gainean.

*Ikastetxeetan berdinen artean tratatu txarrak ematen direnean jarduteko gidak tratatu txarra hainbat modutan gauzatu daitekeela dio:*

- Gizarte bazterketa eta marjinazioa
  - Norbait kontuan ez hartzea. (pasiboa)
  - Parte hartzen ez utzi. (Aktibo)
- Hitzeko erasoak
  - Norbait iraindu. (Zuzena)
  - Besteari buruz gaizki esaka jardun. (Zeharkakoa)
  - Izengoitiak jartzea. (Mistoa)

- Zeharkako eraso fisikoa
  - Norbaiti gauzak ezkutatu.
  - Besteari gauzak puskatu.
  - Besteari gauzak lapurtu.
- Eraso fisiko zuzena
  - Norbait kolpatu.
- Beldurraraztea/xantaia/mehatxua
  - Besteari beldurra eragiteko mehatxatu.
  - Bestea gauzak egitera behartu.
  - Armekin mehatxatu.
- Sexu jazarpena edo sexu abusua
  - Sexu jazarpena egin.
  - Sexu gehiegikeria.

2008an Hezkuntza ebaluazio eta ikerketako euskal institutuak argitaratutako tratu txarren inguruko txostenaren arabera, tratu txarren adierazle nagusia % 15,5ekoa da lehen hezkuntzan eta % 10,6koa DBHn. 2005ean ikerketa lehen aldiz egin zenetik, tratu txarrak jasan dituztela dioten ikasle kopuruak behera egin du. Lehen hezkuntzan ikusi dugu hori batez ere, % 2 inguru jaitsi baita bertan. DBHn portzentajea % 1,3 jaitsi da, nahiz eta jaitsiera ez den estatistikoki esanguratsua.

Hitzeko tratu txarrak, isekak, izengoitiak... dira nagusienak hezkuntza garaian. Bazterketa, erasoak edo tratu txar fisikoak ez dira hain ohikoak.

Tratu txarrak jasotzen dituztela dioten mutilak neskak baino pixka bat gehiago dira (% 3 Lehen hezkuntzan eta % 1,4 DBHn). 2005eko datuen aldean bi portzentajeek behera egin dute. Mutilen kasuan nabarmenagoa izan da jaitsiera hori, bai DBHn bai Lehen Hezkuntzan (% 2 inguru jaitsi da). Hala ere, desberdintasunak ez dira esanguratsuak.

Tratu txarrak ematen dituztenen datuek ere ez dute desberdintasun nabarmenik aurreko inkestakoen aldean. 2008an, Lehen eta Bigarren hezkuntzan, -mutil batzuk- edo -mutil batzuten da tratu txarren % 62,7 eta % 67 arteko egilea. Tratu txar emaleen artean ez da ohikoa neskarik izatea eta neska kopuruak behera egiten du gizarteratze prozesuan aurrera egin ahala.

Berdinen arteko tratu txarren txostenak erakusten du ikastetxe gehienek neurriak hartzen dituztela ikasleen artean tratu txarrik egon ez dadin. Neurri prebentiboak izaten dira horiek batez ere: tutoretzetan lan egin, elkarbizitza programak, elkar ezagutu, etab.; ikasleen eta haien familien elkarbizitza arazoei erantzuna emateko irakasleak trebatu eta koordinatu; muga ezagunak izango dituen barne araudia garatu ikastetxean; irakasleak partaidetza eta inplikazio handiagoa du ikastetxeko antolaketan; elkarbizitzaren inguruko hainbat programatan parte hartzea; metodologia parte hartzaileagoa bultzatzen da.

Elkarbizitza gaietako programetan ikastetxeek izan duten partaidetzari erreparatzen badiegu, emakumeen indarkeria prebenitzeko programa zehatzetako bat Nahiko Hezikidetzan

Programa da. Hasieran 10 eta 12 urtekoentzat bideratu zen eta oinarrian esperimentazioa, ikerketa eta talde ekintza izan zituen irakasle eta ikasleen artean. 2003an hasi zen programa eta lehenengo fasea 2005eko ekainean amaitu zen. Hiru ikastetxek hartu zuten parte programa pilotu gisa balio izan zuen lehenengo fase hartan. Emaizak ikusita, 2005eko azaroan, esperimentuaren 2. aldia jarri zuen martxan Emakundek 2005-06 eta 2006-07 urteetan 30 ikastetxetan. Lau esperimentazio urteen ondoren prozesu konplexu hori Lehen Hezkuntzan abiatzea erabaki zuten. 2007-2009 ikasturteetan EAEko Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako 11 ikastetxetan martxan jarri zen programa, programa pilotu moduan. Ondorioz, 2005etik 2009ra 1.000 ikaslek parte hartu dute esperientzia horretan.

Beste alde batetik, Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berrikuntza Zuzendaritzak 2007-2010 aldirako jarduketa markoa proposatu zuen. Hiru ardatz ditu, eta haietako bakoitzak bere jardute lerro nagusiak:

- 1. ardatza: Eskola denontzat.
- 2. ardatza: Eskola hobea.
- 3. ardatza: Eskola XXI. mendeko gizartean.

Lehenengo ardatzean, lehentasunezko 3. lerroak Berdintasun eta Genero arloa lantzen du eta hauxe da haren helburua: *Nagusitasun eta mendetasun sistemetan oinarritutako genero desberdintasunei aurre egitea ziurtatze aldera aurrera egiteko jarduketak gehitzea eta arreta berezia eskaini indarkeriaren prebentzioari*. Helburu hau lortzeko, garatu beharreko jarduketa nagusietako bat Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Hezikidetzari eta Prebentzioari buruzko Plana egitea izan zen. 2007an egindako planak kontua nola dagoen, dokumentu eta lege garrantzitsuenak aztertzen ditu, bai komunitate autonomoetan, bai estatu zein Europa mailan, helburuak eta helburu nagusia gauzatzeko jarduketak proposatuz.

2. ardatzean, lehentasunezko 2. ildoaren deitura Elkarbizitza eta Hezkuntza Komunitatea da, eta helburu du *ikastetxeetan pertsona guztien eskubide eta betebeharretan eta duintasunaren errespetuan oinarritutako harremanak eraikitzea, gizartearen aldeko jokabideak eta auzien eraldaketa etikoa sustatzen dituzten irizpide hezitzaile eta inklusiboen bidez*.

Lehentasunezko lerro horrek -Bizikidetzarako, bakerako eta Giza eskubideetarako hezkuntza- programa garatuko du. Programaren lehen helburuak bi adar ditu: zentro bakoitzean elkarbizitza behatokia sortzea eta urteko elkarbizitza Plana sortzea (UEP). Zentroetan gida bat izango dute horretarako, eta 18 zentrotan esperientzia pilotu moduan erabiliko da. Lana errazteko, Hezkuntza sailak ordu kreditua emango dio irakaskuntza zentro bakoitzari. Lanaldi osoz edo lanaldi erdian irakasle bat arituko da, ikastetxe bakoitzaren ezaugarrien arabera. Gaur egun, plan hori 294 ikastetxe publikotan dago martxan. Ikastetxe kontzertatuei buruzko daturik ez dugu.

“Elkarbizitzarako, bakerako eta giza eskubideetarako hezi” planaren bigarren helburua indarkeria guztiak ikusteko baldintzak ezartzea da, horrela bada, jarrera prosozialak garatzea bultzatu behar da ikasle guztien artean.

Arlo honetan, hezkuntza ikuskaritzak osatutako protokoloak erabiltzeaz gain, berdinen arteko edo hezkuntza komunitatekoen arteko indarkeria egoera ematen den egoerentarako 201/2008 dekretua landu zen 2008ko abenduaren 2an, eta bertan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako ikasle ez unibertsitarioen eskubideak eta beharrak zehazten dira.

Dekretu honek ikasleek kaien betebeharrak eta eskubideak nola gauzatu irakatsiko die bizikidetzara ona izan dadin. Horrela, eskubide guztien jabe diren herritar moduan gizarteratuko



dira. Ikastetxean elkarbizitza oztopo larriak diren portaerak eraso sexistatzat hartzen dira. Gizon eta emakumeen berdintasunerako 4/2005 legea erabiltzen da horretarako eta bertan ondokoak aipatzen dira: Sexua dela-eta beste pertsona baten duintasunaren aurka eginda-ko edozein hitzezko, ez-hitzezko portaera edo eraso fisiko.

Programaren hirugarren helburua gatazkak tratatzeko indarkeria ezabatzea da. Hainbat toki-tatik landuko da hori: berritze guneetako langileek irakasleei hitzaldiak emango dizkiete, material zehatza banatuko da, elkarreragineko metodologietan trebatzeko ikastaroak eskainiko dira.


Laugarren helburua Bigarren hezkuntzako ikasleei begira osatu da. Giza eskubideak errespetatze aldera, ikasleen artean baloreak, jarrerak eta praktikak hobetu nahi dira. Horretarako, Bigarren hezkuntzako zentroetarako materiala osatu zen eta material hori ikastetxe guztietan banatu zen.

Azkenik, bosgarren helburuak herriko bizikidetzara proiektu integrala da. Ikastetxetik eta bere testuingurutik irteten da eta eskola komunitate osoa eta auzokideak inplikatzen ditu.

Hezkuntza berrikuntza lerroen barneko helburua da hezkuntza komunitateari bideratutako sentsibilizazio kanpaina bultzatzea. Horretarako, sentsibilizazio kanpaina bat izan da urtero eta Naro programarekin lan egin izan da, urtero hori ere.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

### 3.168. GRAFIKOA Indarkeriaren aurreko laguntza eta bitartekaritza eskola komunitatean (2006-2009)




## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

3.169. GRAFIKOA Indarkeriaren aurreko laguntza eta bitartekaritza eskola komunitatean (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

3.170. GRAFIKOA Programan parte hartu duten profesionalak (2006-2009)




**3.171. GRAFIKOA** Jardueren hartzaileak: Datuak, sexuaren arabera bereizita (2006-2009)



**PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK**

Hezkuntza arloan, Emakumeen aurkako indarkeria ardatzaren barruan jasotako programan, erakunde publikoek 1.480.434,36 euroko gastua izan dela esan dute.

**3.172. GRAFIKOA** Indarkeriaren inguruko laguntzara eta bitartekaritzara bideratutako baliabide ekonomikoak eskola komunitatean (2006-2009)



## LAN ARLOA:

### LANEKO ERASO SEXISTAK PREBENITZEA ETA DESAGERRARAZTEA

Programa honek helburu bakarra dauka:

- Erasotuen arloan prebentzio eta jarduketaren protokoloak ezartzen dituzten erakunde pribatu eta publikoetan ezarri, eta biztanleria okupatuko proportzio handienak dituzten jarduerak lehenetsi, sexu jazarpen hori azaleratzeko eta gutxitzeko.

EAEko lantokiei buruz ditugun datuek diotenez, 2009 urtean zehar Lan eta Segurtasun Ikuskaritzak 424 jarduera egin zituela baieztatu du: 218 jazarpen psikologikoa dela eta, 193 arrisku psikosozialen prebentzioa hausteagatik, 7 sexua dela eta pairatutako jazarpenagatik eta 6 sexu jazarpena dela eta. Bere aldetik, Segurtasunerako eta Lan Osasunerako Euskal Institutuak –Osalan– 7 jazarpen kasu aztertu zituen. Horietako sei, administrazio publikoetan gertatu ziren.

Berdintasunerako defentsoriak analisisia egin du horrelako deliturik jazo ez dadin. 2009an taldekako hitzarmenetako genero berdintasunari buruzko txostena egin zuten eta, sexu jazarpenari eta sexuagatik jazarpenari dagokionez, azpimarratzeko bi kontu daude: Oso sektore gutxitako hitzarmenek dituzte sexu jazarpena eta sexuagatik jazarpena arautzeko klausulak, aztertutako 135 hitzarmenetatik 38k baino ez: % 28,1; eta sexu jazarpenaren inguruko indarreko legediaren transposizio falta, eta bereziki aztertutako hitzarmen kolektiboetan agertzen ez den sexu arrazoiengatik jazarpena, nahiz eta haietako batzuk 3/2007 Lege Organikoa indarrean sartu baino lehen izenpetu diren.

Sektorekako 38 hitzarmenetan jasotako 39 klausuletatik, gehienek hobekuntzarako arauzuek dituzte (32 klausula). 6 klausula ilegalak dira edo sexu jazarpen gaitan egun indarrean dagoen legedia urratzen dute. Azkenik, klausula orokor bat ere badago.


Hitzarmen gehienek sexu jazarpenarekin harremana duten edukietan hobetzeko klausulak biltzen dituzte (32 hitzarmen). Hitzarmen horietan sexu jazarpena diziplinazko falta moduan hartzen dute, baina hitzarmenen % 23,7 baino ez dira horrelakoak.

3/2007 Lege Organikoa onartzearekin batera, langileen estatutuak, 54. artikuluan, kontratu urraketa izendatzen du honakoa: "sexu jazarpena edo sexuagatik jazarpena enpresaburuari edo enpresan lan egiten duten pertsonen". Hala ere, hitzarmen batzuetan sexu jazarpena laneko falta bada ere, hitzarmen batean ere ez da esaten kontratua urratzeko arrazoi denik, nahiz eta hitzarmen batzuk Lege Organikoa indarrean sartu ondoren sinatu.

Gaur egun, 6 hitzarmenetan topatu ditugu indarrean dagoen legea hausten dituzten klausulak. Horietako hiruk erregulazio ilegala dute; izan ere, arau-hauste oso larritzat hartzen dute langileek «lapurreta, ebasketa, bortxaketa edo sexu abusuengatik epai irmo bidezko zigorra izatea, eta halaber enpresak harekiko konfiantza falta izatea eragin dezaketen delituenak, nahiz eta enpresatik kanpo eginak izan».


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

3.173. GRAFIKOA Laneko eraso sexistak prebenitzea eta desagerraraztea (2006-2009)



## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

3.174. GRAFIKOA Laneko eraso sexistak prebenitzea eta desagerraraztea (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

Ez daukagu gaiari buruzko informaziorik.

## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Lan arloan, emakumeen aurkako Indarkeria ardatzaren barruan jasotako programan, erakunde publikoek 179.652,80 euroko gastua izan dela esan dute.

### 3.175. GRAFIKOA Laneko eraso sexistak prebenitzea eta desagerraraztea (2006-2009))



#### GIZARTERATZE ARLOA:

#### ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU ERASOEN PREBENTZIOA ETA LAGUNTZA HOBETZEA

Programa honek hiru helburu ditu:

- Indarkeria zikloa lehenago atzematea areagotzea.
- Indarkeriaren eta sexu erasoen biktimen egindako arreta, laguntza eta babes eskaerei koordinazio, kalitate eta eraginkortasun irizpideekin erantzutea, EAEko herri eta hirietan etxeko indarkeriaren eta sexu erasoaren aurrean jokatzeko lekuan lekuko protokoloak ezarriz.
- Tratu txarren eta sexu erasoaren biktima direnen arreta beharrei kalitate eta eraginkortasun irizpideak aintzat hartuta erantzutea eta -etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako abegi eta etxebizitza baliabideak hobetzeko Programan- jasotako neurriak ezartzen direla bermatzea.

Indarkeria goiz atzemateari dagokionez, indarkeriaren biktimen arretarako telefonoak 2.874 dei jaso zituen 2009an; hilean 232 dei, batez beste. 2008ko kopuruaren aldean dei kopurua nabarmen igo da, 2.698 dei jaso baitziren 2008an.

Deiaren arrazoi nagusiari dagokionez, hiru gai aipa ditzakegu: segurtasun gunea bilatu, bere egoerari buruz hitz egiteko babes emozionala bilatu eta tratu txarrekin harremana duen informazioa eskatu (zerbitzuarekin harremanetan jartzeko era izaten da askotan). Ondoren telefono bidezko laguntza izaten da eta adituek erabakiak hartzen laguntzen diete.

Zerbitzuak desbideratzeari dagokionez, hauek zehatzak izan edo ez, deien % 53,53 hasiera batean beste zerbitzuetara desbideratzen ez direla argitu dute. Erabiltzaileen % 8,79rekin interbentzio intentsiboa jarraitu da; hau da, zerbitzutik bertatik zehaztu eta telefono arretatik garatutako txostenekin desbideratu dira baliabide batera.

Deribazioen artean honakoak azpimarratu ditzakegu: emakumearen berdintasunerako arlo-ara atxikitako lege eta gizarte zerbitzuak eta bestelako zerbitzu zehatzak. Neurri txikiagoan bada ere, kasuak arreta psikologikoko zerbitzuetara deribatu dira. 2009an, 793 (% 27,5) dei larrialdi zerbitzuetara eta 112ra (SOS Deiak) bideratu ziren. Beste 39 dei (% 1,36) Polizia zerbitzuetara bideratu ziren.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren (CGPJ) datuen arabera, Euskadiko epaitegietan genero indarkeriarekin harremana zuten 4.058 salaketa ikertu zituzten. Egunean ustezko hamaika eraso izaten dira batez beste eta horietako bitan, heriotza izan zen emaitza. Iaz autonomia erkidegoan aurreko urteetan baino prozedura gehiago ireki zituzten, aurreko urteetan moduan, goranzko joera bati eutsiz: % 8 handitu zen 2008ko kasuen aldean, orduan 3.739 espediente zabaldu baitziren.

Tratu txarren salaketa tasa Espainiako baxuenetakoa izaten jarraitu zuen 2009an, nahiz eta aurreko urteen aldean pixka bat igo zen -19 ustezko delitu 10.000 biztanleko 2009an; 2008an 17,5 izan ziren. Hala ere, Bilboko epaitegi barrutian prozedura kopurua asko igo dela azpimarratu behar dugu: 1.557 espediente izan ziren eta % 30era iritsi zen, Euskadiko beste tokietako hazkundera ia lau bider.

Beste alde batetik, 2009an euskal epaitegietan emakumeek eskatutako babes kopurua jaitsi dela ikusi dugu. Joera hori kopuru osoetan zein erlatiboetan nabari da. Organo judizialek 989 eskari jaso zituzten, Euskadin jasotako salaketa kopuruaren % 24. Urte bat lehenago 1.110 izan ziren babes eskariak (irekitako prozeduren % 30 ia-ia).

Iaz komunitate autonomoan egindako eskariak % 60 izan ziren, 2008an antzerakoa izan zen kontuan (onartutako eskariak % 57 izan ziren).

Koordinazio helburuari begira, hitzarmena arreta hobetzeko sortutako beharretara egokitzeko, 2009ko otsailaren 3an beste hitzarmen bat sinatu zuten, *Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko II. erakunde arteko hitzarmena*. Horren bidez, autonomia erkidego osorako jarduera protokolo homogeneoa eta koordinatua ezarri zuten, biktimek artatzen dituzten profesionalen kolektiboen jarduerari buruz. Erakundeen Arteko II. Akordioak Jarraipen Batzorde bat sortzea aurreikusten du, Akordioan bertan jasotzen diren neurriak ezartzen direla bermatzeko eta jarduera bateratuak zein hobekuntzak proposatzeko.


Euskal Autonomia Erkidego osorako jarduera Protokoloa ezarri duen Erakundeen Arteko II. Akordio horrez gain, eta Barne Saileko Indarkeria Biktimen Arretarako Zuzendaritzak esan duenez, nabarmentzekoa da udaletako 32k indarkeriaren biktimei beren esparruan arreta hobea emateko koordinazio akordioak egin dituztela edo egiten ari direla. Foru Aldundiei dagokien esparruan, aldiz, jarduera protokolorik ez dago gaur egun.

Egoera berri honek hobekuntza handia eragin du 2006ko datuen aldean, protokoloa duten 9 Udal baitaude eta beste 19 Udaletan protokoloa lantzen ari baitira.

Etxean tratu txarrak pairatzen dituzten biktimei harrera eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programa ezartzeko helburuari dagokionez, ez dugu programaren jarraipenari buruzko daturik topatu. Programa hori *Etxeko tratu txarren biktimei eta sexu jazarpena jasaten duten emakumeei arreta hobetzeko instituzioen arteko II. akordioa* delakoaren barnean zegoen.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

**3.176. GRAFIKOA** Indarkeriaren eta sexu erasoen ondorengo arreta eta prebentzioa hobetzea (2006-2009)



## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK


**3.177. GRAFIKOA** Indarkeriaren eta sexu erasoen ondorengo arreta eta prebentzioa hobetzea (2006-2009)






## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA


**3.178. GRAFIKOA** Programetan parte hartu duten politikariak eta teknikariak (2006-2009)



**3.179. GRAFIKOA** Programetan parte hartu duten profesionalak (2006-2009)




**3.180. GRAFIKOA** Jardueren hartzaileak: Datuak, sexuaren arabera bereizita (2006-20069)



**PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK**

Gizarteratze arloan, Emakumeen aurkako indarkeria ardatzaren barruan jasotako programan, erakunde publikoek 9.825.426,98 euroko gastua izan dela esan dute.

**3.181. GRAFIKOA** Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen ondorengo arretara eta prebentziora bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



## OSASUN ARLOA:

### INDARKERIA JASAN DUTEN EMAKUMEEI ARRETA FISIKOA ZEIN PSIKOLOGIKOA ESKAINI

Programa honek helburu bakarra dauka:

- Indarkeria pairatu duten emakumeek arreta fisiko eta psikiko egokia jasoko dutela ziurtatu etxeko tratu txarren biktimei eta sexu jazarpena jasaten duten emakumeei arreta hobetzeko instituzioen arteko II. akordioan jasotzen zen moduan.

Osasun arloko langileek tratu txarren edo sexu indarkeriaren biktima izan eta osasun zentro batera jo duen pertsona baten aurrean duten jokabidea 2000. urtean Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren osasun protokoloan ezarritakoaren arabera izango da, bai lehen mailako arretako kontsultetan, kontsulta espezializatuetan edo larrialdi zerbitzuetan, bai arlo pribatuan edo publikoan. Protokolo hori *Etxeko tratu txarren biktimei eta sexu jazarpena jasaten duten emakumeei arreta hobetzeko instituzioen arteko akordioaren I. eta II. edizioan* jaso zen.

Osasun protokoloaren helburua da EAEn jarduteko jarraibide komunak ezartzea, etxeko tratu txarren, sexu eraso edo gehiegikerien biktima izan eta osasun zentro batera joaten diren emakumeek osasun arreta osoa ziurtatua izan dezaten. Osasun eta gizarte mailan eta maila judizialean arreta osoa eskaintzeko, osasun arloko langileei erabaki eta prozeduren zuhaitz-diagrama bat eman zaie. Erabaki eta prozedura horiek ahalbidetuko dute, batetik, biktimaren osasuna berreskuratzea eta eskura dauden baliabide sozialez baliatzea, eta bestetik, kasu bakoitzean egokiak diren auzitegiko eta legezko jarduerak egitea.

Helburua nola bete den baloratu ahal izateko, 2008an Emakumeen aurkako etxeko indarkeria gaietarako osasun baliabideen irisgarritasun eta eraginkortasunari buruzko ebaluazioa egin zen. Delphi metodoa erabilita analisisa osatu zen eta panelistek –osasun zerbitzu publikoetako langileak– jardute protokoloaren eragina nolakoa izan zen aipatzen zuten: haien sentipenak, osasun zerbitzua nola hobetu zen, difusio maila... eta osasun arloko beste taldekoentzat erabilgarria ote den.

-Emakumeen kontrako etxeko tratu txarren aurkako osasun protokoloaren ezagutza maila zein den jakiteko, hainbat osasun kolektibo aztertu dira, lan egiten duten osasun zentro motaren arabera bereizita (etxeko tratu txarren inguruko osasun baliabideak ebaluatzeko zentroak, osasun zentroak, etengabeko arreta puntuak, ospitaleak eta ospitalez kanpoko osasun mentaleko zentroak).


Ebaluazioaren emaitzak esan zuenez, motza da oraindik ere protokolo berriak egindako ibilbidea (2008ko iraila), eta ezin dugu ziurtatu indarkeriaren biktima diren emakumeek arreta hobea dutenik. Era berean, oraindik ezin dugu esan kasu gehiago ikusteko aukerarik izan denik ez eta egiten zaien jarraipena hobea denik. Protokoloan lanean aritu diren pertsonen arabera, oraingoz ez da lanabes erabilgarria izan indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko. Hala ere, balorazio horren arrazoi nagusia martxan jarri zenetik igaro den denbora tarte motza izan da. Protokoloak eragina izan dezan, aplikazioa eta zehaztasunak ezagutu ahala, emakumeen indarkeria kasuak antzemateko eta jarraipena egiteko gehiago erabiliko baita.

Egindako ebaluazioaren bigarren ondorio nagusia da emakumeen aurkako etxeko eremuko indarkeriaren egoeretan esku hartzeari buruz hitz egitean, kontuan izan behar dugu hainbat ziklo dituen prozesua dela. Indarkeria pairatzen duen emakumea fase guztietan joaten da osasun zerbitzuetara. Hainbat eskari egin ohi ditu, bizi duen egoeraren somatizazioa

dela eta. Zentzu horretan, oso garrantzitsua da hainbat egoera identifikatzen jakitea, horrela emakumea bera nola dagoen jakingo baitugu. Gaur egungo jarduketako protokoloak ez ditu osasun jarduketaren eta indarkeria bizi duten emakumeen zikloen artean loturarik egiten. Horrekin batera, jarraitu beharreko pausoak zeintzuk diren ez duela argitzen esan behar dugu. Hori guztia etorkizunean hobetu beharrekoa izango da.


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

**3.182. GRAFIKOA** Indarkeria jasan duten emakumeei arreta fisikoa zein psikologikoa eskaini (2006-2009)




## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

**3.183. GRAFIKOA** Indarkeria jasan duten emakumeei arreta fisikoa zein psikologikoa eskaini (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

3.184. GRAFIKOA Programan parte hartu duten profesionalak (2006-2009)




3.185. GRAFIKOA Diskriminazio anizkuneko edo gizarte bazterketako arriskuan dauden emakumeak (2006-2009)



## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Osasun arloan, emakumeen aurkako Indarkeria ardatzaren barruan gauzatzea aurreikusi duen programan, erakunde publikoek 520.036 euroko gastua izan dela esan dute. Hurrengo grafikoan jardueretan gastatutako zenbatekoa eta egindako jarduerak azaltzen dira, eta batez besteko kopurua ardatz bakoitzaren jarduera bakoitzaren batez besteko gastuarekin alderatzen da.

### 3.186. GRAFIKOA Tratu txarrak jasan dituzten emakumeen arreta fisiko zein psikologikora bideratutako baliabide ekonomikoak (2006-2009)



#### HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKO ETA INGURUMEN ARLOA:

#### EMAKUMEEN SEGURTASUNA ETA SEGURTASUN SENTSAZIOA HOBETZEA

Programa honekin bi helburu lortu nahi dira:

- Emakumeak arriskuan sentitzen diren udalerriko lekuak identifikatzea haiek neutralizatzeko neurriak ezartzeko; emakumeak arriskua ikusten duten leku berririk ez izateko irizpideak ezartzea.
- Indarkeriaren biktima diren eta hala eskatzen duten emakumeen etxebizitza eskaerak % 100 estaltzea, babes ofiziala lortzeko lehentasuna emanez edota etxebizitza lortzeko bestelako edozer abantailaren bitartez.

Lehen helburuari dagokionez, hau da, segurtasun faltari dagokionez, Autonomia Erkidegoko hainbat Udaletan diagnosiak osatu dira (Hiri Debekatuaren Mapa deitu izan zaio zenbaitetan). Horrela, -puntu beltzak- edo emakumeak bereziki ahulak diren guneak (eraso sexuala edo bestelako erasoak) identifikatu dituzte. Horrelako lana egin duten Udaletako batzuk hauek dira: Bilbo, Donostia, Gasteiz, Basauri, Erandio, Getxo eta Zumarraga.

Indarkerien biktimei etxebizitza errazteari dagokionez, 2006ko urriaren 4ko agindu baten bidez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuak genero indarkeriaren biktimei etxebizitza lortzea errazteko neurriak ezarri zituen.


Arau hori dela eta, 2009an, 153 emakume sartu zituzten alokairuko etxea egokitzeko prozeduretan: Araba 43; Bizkaia: 93; Gipuzkoa 23. Etxebideko izen emateetan eskaera guztiak onartu zituztela esan behar dugu. Genero indarkeriaren biktima izaki, horretarako zehaztutako etxebizitzetako zozketan hartu zuten parte. Prozedura orokorretan sartu ziren 153 espediente horietatik (etxebizitza zozketak), 6 emakumek lortu zuten etxebizitza.

Etxebizitza Hutsa programaren baitan alokairuan etxebizitza lortu zutenen artean, 2009an 16 esleipen zuzen izan ziren (ezohiko prozedurak). Araban: 2; Bizkaia: 13; Gipuzkoa: 1

Beste alde batetik, indarkeria jasan duten emakume gutxiagok eskatu dute etxebizitza. 2006an 114 emakume izan ziren eta 2008an 59. Era berean eta hala ere, gutxiago izan dira indarkeria pairatzen dutela onartu duten emakumeak, 2006an % 64,91 (onartutako 74 kasu) eta % 38,98 2008an (23 kasu).


## PROGRAMEN GAUZATZE MAILA

### 3.187. GRAFIKOA Emakumeen segurtasuna eta segurtasun sentrazioa hobetzea (2006-2009)



## PROGRAMEN GAUZATZE MAILAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

**3.188. GRAFIKOA** Emakumeen segurtasuna eta segurtasun sentsazioa hobetzea (2006-2009)




## PROGRAMEN ESTALDURA MAILA

Ez da gaiari buruzko informaziorik erantsi.

## PROGRAMETARAKO BIDERATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOAK

Hirigintza eta Ingurumen arloan, Emakumeen aurkako indarkeria ardatzaren barruan jasotako programan, erakunde publikoek 340.109,68 euroko gastua izan dela esan dute. Hurrengo grafikoan jardueretan gastatutako zenbatekoa eta egindako jarduerak azaltzen dira, eta batez besteko kopurua ardatz bakoitzaren jarduera bakoitzaren batez besteko gastuarekin alderatzen da.

**3.189. GRAFIKOA** Emakumeen segurtasuna eta segurtasun sentsazioa hobetzea (2006-2009)





# 4

## **ONDORIOAK ETA BALORAZIOA**



Txostenaren laugarren zati honetan plana indarrean egon den lau urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan bultzatutako berdintasun-politiken inguruko ondorio eta balorazioak jaso dira. Egindako aurrerapenak eta geldialdiak jaso dira, hala nola, gure iritziz, onartu berri den Berdintasun Planak izan behar dituen erronka zahar eta berriak.

Zati honetan, oinarrian, edozein ebaluaziok izan behar dituen hiru galderei erantzuten saiatu gara:

- Zer baliabide erabili da IV. Plana gauzatzeko? Aurreko Berdintasun Planean erabilitakoekin alderatuta, aurrerapenik egon al da? Zer falta dute baliabideek egokiak izateko?
- Ikuspegi kuantitatibo eta kualitatibotik, zein neurritan bete da IV. Plana? Aurreko Berdintasun Planarekin alderatuta, aurrerapenik egon al da? Geldiunerik egon al da? Eta atzerapenik?.
- Ahal den neurrian honako galderei erantzuna emango zaie: nahi ziren ondorioak eragin ditu planak? Aurreikusitako helburuak bete dira?

## **EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA GAUZATZEKO ERABILITAKO (ETA SORTUTAKO) BALIABIDEAK**

# **4.1**

Zati honetan EAEko erakunde publikoek IV. Plana gauzatzeko eskura izan dituzten baliabideak jaso dira, era berean hona ekarritako emaitzek agerian utziko dituzte IV. Plana indarrean izan den epealdian (2006-2009) egindako aurrerapenak. IV. Plana gauzatzeko erabilitako eta eskura izandako baliabideak, besteak beste, honakoak izan dira:

- Berdintasun-politikak kudeatzeko, sustatzeko eta ebaluatzeko egiturak (berdintasun unitateak); koordinazio egiturak, egituretako talde tekniko eta politikoak barne; emakumeen eta elkartegintza mugimenduen parte-hartze egiturak.
- Kudeaketarako mekanismo eta tresnak: Euskal administrazio publikoetako organoek onartutako Berdintasun Planak eta dagozkien ebaluazioak.
- IV. Plana gauzatzeko erabilitako baliabide ekonomikoak.

Berdintasun-politikak kudeatzeko, sustatzeko eta ebaluatzeko egiturei (berdintasun unitateak) dagokienez, IV. Plana indarrean egon denean, oinarrizko aurrerapauso kualitatibo eta kuantitatiboa gertatu da:

- 2006an (IV. Planaren hasiera urtea) Eusko Jaurlaritzako sail bakar batek ere ez zuen administrazio berdintasun unitaterik; bai, ordea, Emakunderekiko solaskide lanak egin zituen langileren bat, hain zuzen ere, ekintzak diseinatzea eta programak identifikatzea eta zegokien organoak aurrera eramandako ekintzen jarraipena egitea zen beren zeregina. Gaur egun, aldiz, Eusko Jaurlaritzako sail orok du berdintasun unitatea.

- Foru Aldundiei dagokienez, 2005ean Bizkaikoak eta Gipuzkoak baino ez zuten berdintasunerako egituraren bat (2000. eta 2004. urteetatik, hurrenez hurren); 2010ean, ostera, hiru Aldundiak dituzte berdintasunerako egiturak.
- Toki Administrazioan ere aurrerabide esanguratsuak egin dira (20). Izan ere, 2005ean, EAEko udalen %15,5ek (39 udalek) bakarrik zeukan administrazio-unitate bat berdintasun-politikak bultzatu, kudeatu eta jarraitzeaz arduratzeko (soilik ardura horiekin edo ez), eta 2009an, % 27,09k (68 udalek).

Erakundeen barruko egituren arteko koordinazio-egiturei dagokienez aurrerapen handiak antzeman dira:

- 2010ean aipatutako ikerketan parte hartu duten 70 udalen % 21,4ak (15 udalek) sailen edo atalen arteko batzordeak dituzte. Gehien-gehienak (14 udal), gainera, 2005 eta 2009 bitartean sortu dira.
- Hiru foru aldundietan, sailen arteko batzordeak 2008an sortu ziren.

Azkenik, gaur egun 41 udalek (EAEko udalen % 16,33) dituzte berdintasun-politikekin lotutako emakumeen eta elkartegintza mugimenduetarako parte-hartze egiturak; eta hain zuzen ere, egitura horien erdia baino gehiago 2005 eta 2009 bitartean sortu dira. 2005ean EAEko udalen % 6,77k zuten horrelako egituraren bat.

IV. Plana gauzatzeko funtsezko beste elementu bat Administrazio Orokorreko, Foru Administrazioetako eta Tokiko Administrazioetako Berdintasun Planak izan dira.

Ondoren egindako ebaluazioetatik ateratako datuen arabera, 2005 urte amaieran eta 2006 urte hasiera bitartean Emakundek aditu talde baten zerbitzua kontratatu zuen Eusko Jaurlaritzako sailei legegintzaldirako berdintasun plan estrategikoak egiteko aholkularitza eta laguntza emateko. Horrenbestez, 2006an Eusko Jaurlaritzako sail guztiek plan propioa edota legegintzaldirako programa dokumentua zuten. Lehenago, urteko kudeaketa programen bidez lan egiten zuten.

Bestalde, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek IV. plangintzaldian onartu dituzte, hurrenez hurren, hirugarren eta bigarren planak (Arabak berriki onartu dute III. plana). Datu horiek argi erakusten dute lurraldeetako berdintasun planak sendotu egin direla; eta antza, sendotze horren eragileetako bat lurraldeetako udal planak gehitu izana izan daiteke.

Toki administrazioan IV. plangintzaldiaren amaieran 68 udalek eta 6 mankomunitatek (29 udalek) zuten Berdintasun Plana; 2006an baino % 70,17 gehiago, hain zuzen ere. Hiru lurraldeetan gehitu da: Araban % 9,8; Bizkaian % 23,4; eta Gipuzkoan % 25,3. Emakundek eta foru aldundiek planak garatzeko emandako diru-laguntzek (3 milioi euro inguru) eragin handia izan dute ezbairik gabe.

---

(20) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea ebaluatzeko egindako bi azterlan espezifikotatik ateratako datuak: bata 2005ean egin zen; une horretan berdintasun-plan bat zuten 46 udaletatik 39k parte hartu zuten; bestea 2010ean egin zen; horretan, berdintasun-plan bat duten 97 udalez gain, 50 udalek eta 5 mankomunitatek (20 udalez osatuta) parte hartu dute. Lehen azterlanak EAEn berdintasun-plan bat zuten udalen % 84,78 ordezkatu zuen; bigarrenak, EAEn berdintasun-plan bat zuten udalen % 72,16.

Berdinketa Planen ebaluazioari dagokionez, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea ebaluatzeko 2010ean egindako ikerketak emandako emaitzen arabera, ikerketan parte hartu duten organoen % 41,4k (29 organok) 2006-2009 bitartean ebaluatu dituzte planak (26 udalek eta 3 foru aldundiek); Eusko Jaurlaritzak, bestalde, berdintasun arloan egindako ekintzen urteko ebaluazioak egin ditu.

IV. Plana gauzatzeko erabilitako baliabide ekonomikoak direla eta, organismo publikoek emandako datuen arabera (21) 136.740.364,28 euroko gastua izan da guztira (2.113 ekintza 2006-2009 bitartean); Berdintasunerako III. Plana gauzatzeko, aldiz, 5 urteko epean, gastua 134.579.679 eurokoa izan zen.

IV. Plana gauzatzeko batez beste urtean 34.185.091,05 euro gastatu dira; III. Planean, berriz, 26.915.935 euro, % 27 gutxiago alegia.

Udaletako berdintasun unitateetako batez besteko urteko aurrekontuen datuek ere goranzko joera erakusten dute, hain zuzen ere, % 38 egin dute gora, 2005eko 97.886,306 eurotik 2009ko 135.667,74 eurora; Berdintasun Legea ebaluatzeko egindako zenbait ikerketa zehaztatik ateratako datuak dira.

Hiru foru aldundietako aurrekontuetan ere aldaketa nabarmenak izan dira: 2005ean Bizkaian berdintasun unitate bakarra zuen eta 1.412.000 euroko aurrekontua; 2009an, ostera, aurrekontua 1.600.000 eurokoa izan da; Gipuzkoan eta Araban sortutako berdintasun unitateek 2009an 750.500 eta 876.916 euroko aurrekontuak izan dituzte hurrenez hurren.

Eusko Jaurlaritzan 2005eko aurrekontuetan ez zen berdintasun gaietarako partida espezifikorik aurreikusi, ez eta berdintasun unitaterik ere; 2009an, ordea, egoera honako hau izan da:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren aurrekontua 1.467.299 eurokoa izan zen.
- Barne Saileko aurrekontua 2.593.832 eurokoa izan zen.
- Eusko Jaurlaritzako gainerako sailetan, batez beste, 84.287,27 euroko aurrekontuak izan dira (gehien-gehiena langile arloetarako).

Euskadiko administrazioetako berdintasun unitateetako berdintasun eta genero gaietan espezializatutako langileak direla eta, datuen arabera aurrerapen handiak izan dira. Aurrerapen nabarmenenak Administrazio Orokorrean eta Foru Administrazioan gertatu dira: 2005ean ez zegoen berdintasun teknikaririk administrazio horietan, Bizkaiko Foru Aldundian izan ezik, berdintasun unitatea zuen bakarra zen eta zuzendaritzan pertsona bat zuen garai hartan.

Gaur egun Eusko Jaurlaritzako sailtako berdintasun unitateetan berdintasunerako 12 teknikari ari dira lanean; gaiari buruzko formazio espezifikoak dute den-denek (zenbaitetan oso formazio sakona) eta erdiak 5 urteko esperientzia baino gehiago du arlo honetan.

---

(21) Plana gauzatzen diharduten organoek emandako datuak dira horiek. Organoek ez dute ekintzen % 9,02ren (377 ekintza) datu ekonomikorik eman. Jakin badakigu dagokion Sailak ez duela zenbait partidaren berri eman, familia eta lana batezgarri egiteko Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzei dagokiena esate baterako. Horregatik guztiagatik adierazi beharra dago datuok emakumeen eta gizonen berdintasunerako legediaren inguruan botere publikoen joerak ezagutzeko baino ez digutela balio.

Foru aldundietan berdintasun unitateetan lanean dauden 10 langileen (zuzendaritza, zerbitziburuak, teknikariak eta administrari laguntzaileak barne) % 70ek gaiari buruzko formazio espezifikoak jaso du (erdiak baino gehiagok formazio sakona) eta 5 urte baino gehiagoko esperientzia dute % 20k eta 2 eta 5 urte bitartekoa % 50ek.

Tokiko administrazioei dagokienez, datuen arabera, gaur egungo unitateetan langile guxtiago dago (2005ean unitateko 1,9 langile eta 2009an 1,4 langile); halere, askoz ere formazio eta esperientzia hobea dute gaur egungoek: 2005ean % 36,8k ez zuen berdintasun arloan inolako formazio espezifikorik; 2009an, ordea, formaziorik ez dutenak % 6,6 baino ez dira izan; esperientziari dagokionez, 2005ean % 69,2k ez zuen esperientziarik; 2009an, ordea, % 8k baino ez.

Ondorioz, aurkeztutako datuen arabera, IV. Plana indarrean egon den bitartean, emakumeen eta gizonen berdintasuna sutatzeko Euskal Administrazioek dituzten baliabideak nabarmen gehitu eta hobetu dira (egiturak, kudeaketa-sistemak, langileak eta baliabide ekonomikoak). Aurrerapen horiek bi eragile izan dute: batetik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen I. eta II. ataletako zenbait artikulua; eta, bestetik, IV. Planean jasotako zenbait ekintza, plana ezartzeko neurriak eta berdintasunerako Zerbitzu Orokorrei dagozkienak hain zuzen ere. Tresna bi horien konbinazioaren eta elkar eraginaren ondorioz, gaur egun, emakumeen eta gizonen berdintasun politiken erantzukizuna duten erakunde publikoetan berdintasunaren aldeko marko politiko eta egitura funtzional eraginkorrak daude.

## **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN GAUZATZE MAILA: ALDERDI KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA**

# **4.2**

Lehendabizi, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana indarrean egon den lau urte hauetan, erakunde publikoek planaren helburu guztiekin lotutako ekintzak gauzatu dituzte, "Komunikabideetan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua"ri dagokion helburuari lotutakoak izan ezik. Haatik, lau esku-hartze ardatzen programetako emaitzetan azaldu dugunez, erakunde publikoek ez diote intentsitate, inplikazio, diru-baliabide eta babesa bera eman lau esku-hartze ardatzei, sei esparruei eta dagozkien programei.

IV. Planean jasotako ardatz estrategikoak direla eta, datuen arabera, ekimen kopuruari dagokienez bederen, Mainstreaming eta Emakumeak ahalduntzeko eta gizarte eta politikan parte-hartze handiagoa izateko ekintzetan egin da esfortzu handiena (guztira egindako ekintza guztien % 73,1).

Mainstreaming ardatzari dagokionez, IV. Planean erabilitako eta sortutako baliabideei buruzko aurreko atalean aurkeztutako datuek argi erakusten dute administrazioetako organoek egin duten esfortzu handia. Nolanahi ere, esfortzuak Zerbitzu Orokorretan egin dira batez ere (% 42,5). Lanaren atalean, genero mainstreamingak ezartzeko Kidetu programari esker batik bat, ekintza ugari egin dira, gainerako esku-hartze ardatzetan baino gehiago (% 7,1). Hain zuzen ere, programa horri esker, lanarekin eta formazioarekin lotutako enti-

tate batzuek berdintasun planak jarri dituzte martxan: Gasteizko Udalaren Lanbide Arloa; GFAREN Giza Eskubide, Lan eta Gizarteratze Saila; Lanbide-Debegesa; Txorierriko Behargintza; eta Elizbarrutiko Caritas.

Beren programetan genero ikuspuntua txertatzeko egindako ahalegin eskasaren erakuslea da zenbait kolektibotan sentsibilizazio edota formazio ekimenetako profesional eskasiak:

- Kulturako profesionalak (% 2,6)
- Komunikabideetako profesionalak (% 0,2).
- Kulturako profesionalak (% 2,7)
- Gizarte zerbitzuetako profesionalak (% 6,7)
- Hirigintza, garraio eta ingurumeneko profesionalak (% 9,9).

Bestalde, Administrazio Orokorreko langile teknikoek % 22k jaso dute formazioa edo sentsibilizazioa; ez, ordea, profesional espezifikoek; % 22,7 poliziak dira (emakumeen aurkako indarkeriari buruzko ikastaro eta moduluetan parte hartu dute); % 19,7 lan eta formazio arloko langileak dira; eta % 15,5 osasun arloko langileak.

Alderdi honen ebaluazioari amaiera emateko, aipatu beharra dago sentsibilizazio ekintzetan parte hartu edo formazio ikastaroak jaso dituzten administrazioeko edo bere zerbitzuetako langileen % 67,7 emakumeak direla eta % 32,3 gizonezkoak. Arloen arabera ere antzeko joerak antzematen dira, batez ere gizarte zerbitzuetan eta osasun arlokoetan (parte hartzen dutenen % 80-90 emakumezkoak dira). Hirigintza, garraio eta ingurumen arloetako langileen artean bakarrik gertatzen da alderantzizko joera (% 68,5 gizonezkoak dira eta % 31,1 emakumezkoak).

Mainstreaming ardatzarekin lotuta Kultura eta Gizarteratze arloetan egindako ekintza eskasak emaitzek, eta genero ikuspuntua txertatzeko formazio eta sentsibilizazio ekimenetan arlo hauetako langileen parte hartze eskasak, partzialki behintzat, agerian uzten dute kultura eta gizarteratze arloetako dibertsitate eza eta ekintzen geldiunea, guztira egindako ekintzen % 34 arlo honetakoak dira:

- Kultura arloan egiten dira ekimen gehienak (% 15,8), erdia kulturagintzan emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzeko programak, garapen pertsonalerako ikastaroak eta martxoaren 8aren inguruko sentsibilizazio eta dibulgazio ekimenak dira (aurreko ebaluazioetan jasotakoaren harira).
- Gizarteratze arloan, aurreko planetan egin bezala, erakunde publikoek egindako ekintzak oinarrian emakume txiroei zuzendutakoak izan dira (ekimen guztien % 58,1), bazterketa edo askotariko bereizkeria pairatzeko arriskuan dauden gainerako emakumeen kolektiboei zuzendutako ekimenak, ordea, oso gutxi izan dira (% 11,6 eta % 2,8 artean). Bateragarritasuna eta erantzukidetasunerako eta emakumeenganako indarkeriaren ardatzei dagokionez, ekimenak batez ere laguntza ematean oinarritu dira, eta hori VI. Planaren espiritutik nabarmen aldentzen da, alegia, emakumeak oro har, arriskuan dauden emakumeak edo askotariko bereizkeria egoeran daudenak ahalduntzeko prozedurak sustatzeko espiritutik.

Lan arloan egin dira estraminarengan ekimen gehien (109 ekimen), eta arlo horretako profesionalak dira formazio gehien jaso dutenak; hala ere, ahalduntze programen garapen aldakorra antzeman dugu (berdintasun egoeran laneratzea eta emakume eta gizonen lan baldintzak parekatzea). Ekimen kopuru bertsua egin bada ere, lehendabiziko programarako 17 aldiz baliabide ekonomiko gehiago erabili da. Uste dugu emakumeak laneratzea (lan-

postu ez teknikoetara) errazagoa dela lan baldintzak parekatzea baino, eta hori adierazten dute ebaluaziorako adierazleek.

Bateragarritasuna eta erantzukidetasunaren ardatzari dagokionez, Familia Planaren bidez, familia eta lana bateragarri egiteko diru baliabideak nabarmen handitu dira; alabaina, gutxi dira laguntza hau eskatzen duten gizonezkoak. Administrazio publikoko hiru mailetako batek ere ez du etxerako lanen eta zaintzaren ardurak emakume eta gizonen artean parekatzeko apustu argi eta garbirik egin.

Hezkuntza eta Osasun arloetan (arlotan honetako eskumen handiena Administrazio Orokorra du) egin dira ekimen guztien % 6. Helburu guztiak batzen dituzten arloak diren arren, ekimen gutxi egiten dira. Gainera, gai horien inguruan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sail biek ez dute informazio argi eta osorik eman Plan honen (eta aurrekoen) ebaluazioetan zehar (ez datu ekonomikoei buruzkorik, ez parte hartzeari buruzkorik), eta ondorioz, ezin izan dira ontzat eman igorritako galdetegiak. Haatik, azken lau urteetan sail biek egindako zenbait ekintza esanguratsuenen berri ematea interesgarri ikusten dugu:

- Osasun Sailean, ez bairik gabe, bularreko minbiziaren diagnostiko goiztiarrerako programetan egindako hobekuntzak; Emakumeak eta Osasuna Plana 2009-2012; zenbait ikerketetan genero ikuspegia txertatzea; egindako galdetegietan sexuaren arabera datuak zehaztea (gogobetetzea, osasuna, elikadura ohiturak); eta ugalketa arloan egindako zenbait hobekuntza (zesarea gutxiago eta koitoaren osteko pilula).
- Hezkuntzan, Berritzegune nagusian Aniztasunaren eta Generoaren Barneratze Eskolako arduraduna (Hezkuntza Berrikuntza zuzendaritzaren barruan); 2006-2007 eta 2007-2008 ikasturteetan lizentziatura ikasketadun langile bat liberatu zen Berritzegune nagusian berdintasunarekin eta emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako zenbait ekimen egiteko; irakasleen etengabeko formazioaren barruan urteroko edukazio ikastaroak antolatu dira; 2009an Haur Eskolak Partzuergoak (Hezkuntza Sailera lotutako Sozietate Publikoa) genero diagnostikoa egin zuen, gainera, berdintasun batzordea eratu zuten Berdintasun Plana egiteko helburuarekin; 0-3 urte bitarteko haurrentzako plazak gehitu egin dira, hain zuzen ere helburu horrekin aurrekontua 19.100.000 euro igo da 2006-2009 urte bitartean; hezkuntza arloan berdinen arteko indarkeriaren aurrean egitekoen protokoloa garatu da (jarduera gida).

Azpimarratu nahi dugun beste datu positibo bat berdintasuna indartzeko helburuarekin emakumeen elkartegintza sutatzearen eta bultzatzearen ingurukoa da. Guztira helburu horrekin 299 ekintza egin dira. Emakundek, hiru foru aldundiek eta udalek arlo honetan egin dituzten esfortzuen erakusgarri dira erabilitako diru baliabideak (diru-laguntzak), gutxi gorabehera 11.000.000 euro; laguntza horien ondorioz, emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromiso argia duten emakumeen elkarteek gora egin dute.

Eusko Jaurlaritzako Gizartekintza Sailak ere, Garapenerako Kooperaziorako zuzendaritzaren bitartez, IV. Planarekiko konpromisoa erakutsi du, hain zuzen ere Hegoaldeko herrialdeetako emakumeen elkarteei 11.000.000 euroko diru-laguntza eman diete.

Emakumeen arteko elkartegintza bultzatzeko helburuarekin jarraituz, eta bereziki emakumeak ahalduzko ekimenekin lotuta, zenbait udalerri jabetza-eskolak antolatu dituzte, zonalde edo eskualdeka eskola-sareak bultzatu dituztelarik: Basauri, Ermua, Getxo eta Ondarroa; Arrasate, Azpeitia, Eibar eta Hernani; Donostia; Urola Garaiko eskualdea eta Tolosa; Irun, Gasteiz (sortzen ari dira). Esperientzia hau bultzatu duten teknikariek oso balorazio onak egin dituzte, baita eskola hauen baitan antolatutako ekimenetan parte hartu duten emakumeek ere. Aipatzekoak dira ere bai, zenbat udalerrietako berdintasun arloetatik emakumeen parte-hartzea bultzatzeko sortu dituzten espazioak (Emakumeen Kontseiluak, Berdintasun Foroak,...).



IV. Planean garatutako ekimen berritzaileetako bat da berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan sortutako gizonaen lan taldeak, eremu formal zein informaletan, maskulinitate eredu ez hegemonikoari jarraituz, eta nagusitasunean eta emakumeenganako mendekotasunean oinarritu gabe. Emakunde eta Lehendakariak Gizonduz programaren bitartez egindako ekimenak; Arabako Foru Aldundiak, hitzarmenen bidez, lehendabizi EHUrekin eta gero gai honen inguruan lan egiten duten erakundeekin; hala nola, hainbat udalerrietako berdintasun sailetatik gauzatutako ekimenak (Arrasate, Ermua, Getxo, Hernani, Irun, Laudio; Ondarroa; Santurtzi; eta Zarautz), ekimena sustatzeko ezinbesteko izan dira.

Emakumeenganako indarkeriari dagokionez, hainbat eragite esparruetan erakunde publikoen inplikazioa azpimarratzekoa izan da, arazo honen inguruko ekimena martxan jartzeko. Lan-ildo nagusiak honakoak izan dira: etxe barruko indarkeriaren biktimei arrera (baliabideak hobetu, sortu eta egokitu); erakunde arteko koordinazioa hobetzea eta batez ere arazo honen inguruan egitekoen protokoloen aplikazioa; eta herritarrei oro har zuzendutako sentsibilizazio ekimenak (gehien-gehienak azaroaren 25aren ingurukoak).

Atal honi amaiera emateko, esan beharra dago, beste behin ere, Bateragarritasuna eta erantzukidetasunaren ardatzean erabilitako baliabideak eskasak izan direla, aurreko berdintasun planetan agerian geratu izan zen bezala. Gainerako ardatzekin alderatuta ekimen kopurua txikiagoa izan da, Indarkeriaren ardatzekoak baino sei aldiz gutxiago eta Ahalduztzea eta Mainstreaminga baino sei aldiz gutxiago. Gainera, maila guztietan, emakumeen eta gizonen Erantzukidetasunerako esfortzuak gutxi dira oraindik ere. Programa nagusienak (Eusko Jaurlaritzaren Familia Plana esate baterako) familia eta lana bateratzea helburu duten ekimenak dira, baina gizonen artean eragin txikia dute.

**EMAKUMEEN ETA  
GIZONEN  
BERDINTASUNERAKO  
IV. PLANEAN  
JASOTAKO ESKU-  
-HARTZE ARDATZETAKO  
HELBURUEN  
EBALUAZIOA**

# 4.3

Txosten honen metodologiari buruzko atalean jaso denari jarraituz, IV. Planaren helburuetako bat -positiboegia agian-, 2005 eta 2009 artean emakumeen eta gizonen egoera aldatzea zen. Horretarako, zenbait adierazle zehaztu ziren IV. Planaren ardatzetako helburuak zenbateraino bete diren ebaluatzeko. Haatik, IV. Planaren indarraldia amaitu eta gero, hasierako eta amaierako datu faltagatik ezin izan da azterketa hori egin; eta, ondorioz, Planean aurreikusitako helburuekin lotuta emakume eta gizonen egoeraren berri jasotzen duen atala osatu dugu, objektiboki ez da gutxi hala ere.

- **Kirol erakunde publiko eta pribatuetan bereizkeria bertikala eta horizontala murriztea.**

Kirol erakundeetako zuzendaritza organoetan emakumeen presentzia bereziki txikia da. Datu onak ere badira, Kirol Justiziarako Euskal Batzordean zein Kirolean Indarkeriaren aurkako Batzordean emakume eta gizonen presentzia parekoa da esate baterako.

Ez dago daturik Unibertsitateko Kiroleko Euskal Batzordearen inguruan, ez eta goi mailako kirolaren kudeaketaz arduratzen den Euskadi Kirola Fundazioaren inguruan ere.

- **Emakumeen eta gizonen kirol jarduera dibertsifikatzea eta emakumeek tradizioz gizonek egin izan dituzten kirolek sarbidea izatea, bai eta gizonek tradizioz emakumeek egin dituzten kirolak praktikatzeko ere.**

2009an kirolen araberrako genero banaketa argia antzeman da, eta federatutako kirolari dagokionez, datuek argi erakusten dute emakumezko gutxiago ari dela federatutako kirolean. Kategoriatan gutxi batzuetan baino ez da emakumearen presentzia gizonen parekoa (neguko kirolak, hipika, boleibola eta gimnasia).

- **Kirola egiten duen emakumeen kopurua areagotzea, baita dituzten kirol aukerak ere, beren interesen arabera.**

Kirola egiteari buruzko datuek diote, oraindik orain gizon gehiagok egin ohi dutela kirola, adina edozein dela ere. 36 urtetik aurrera gizonen kasuan konstante mantentzen dira datuak; emakumeen kasuan, ordea, 50 urtetik aurrera kirola egiteko ohiturak nabarmen egiten du behera.

- **Emakumearen kultura eta arte sorkuntza bultzatzea, bai eta gizartearen ikuspuntu ez-sexista bultzatzen duena ere.**

Objektibo honekin lotutako daturik ez dago.

- **Komunikabideetan emakumeen parte hartzea areagotzea.**

Objektibo honekin lotutako daturik ez dago.

- **Komunikabideetan emakumezkoen presentzia handitzea, jardun politikoetan, sozialetan eta kulturaletan egiten duten lana ikusarazteko, eta berdintasun baldintzetan daudela ikusarazteko eta beren ahaldutzari mesede egiteko.**

Objektibo honekin lotutako daturik ez dago.

- **Zaintzaren ardura banatua eta etika bultzatzen duten espazio soziokulturalak areagotzea.**

Objektibo honekin lotutako daturik ez dago.

- **Pertsonak euren sexuaren arabera giza duintasun gehiago edota gutxiago dutela adierazten duten irudiak eta edukiak gutxitzea, bai eta pertsonak sexu objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, arinkeriaz hartzen edota nolabait bultzatzen dituztenak baztertea.**

1998ko apirilatik aurrera, EAEn Berdintasuna Garatzeko Iragarkien Aholkularitza (Begira) arautu zen, apirilaren 27ko 78/1998 Dekretuaren bidez.

Emakunderen Aholkularitza Juridikorako Sailak pertsona pribatuen eta erakundeen kexak jasotzen ditu Berdintasun Legea ez betetzeari buruzkoak, baita komunikabide zein publizitatearen ingurukoak ere.

Azkenik, Berdintasunaren Defentsa Bulegoak, berdintasun tratua berme izan nahi duenak, helburu hori lortzen lagunduko du.

- **Emakumeen indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainak kopurua handitzea.**

Emakumeenganako indarkeria ekidin eta desagerrarazteko helburuarekin lotutako datuek adierazten dutenez, azken lau urteetan 147 sentsibilizazio ekimen egin dira.

## OSASUN ARLOA

### 4.3.2

- **Bularreko minbizia prebenitzeko ekimenetan parte hartzen duten emakumeen adina 70 urte arte luzatzea eta gaixotasuna diagnostikatuz gero, jasotako tratamenduekin asebetetze maila altua jasotzea.**

EAEn bularreko minbiziaren aurka Osakidetzak duen baliabide nagusietako bat Bularreko Minbiziaren Detekzio Goiztiarrerako Programa da (BMDGP) eta 2005-2009 urte bitartean aurrera eramandako ekimenen artean, programa bera hobetzen laguntzeko, programan parte hartuko duten emakumeen adina 69 urte artera luzatzea izan da.

Emakumeen parte hartzea, oro har % 80koa da, Osasun Sistema Nazionaleko kantzerrerako Estrategian zehaztutako gutxienekoak baino 10 puntu gorago, hain zuzen ere.

Programan parte hartu duten emakumeei egindako asebetetasun inkestaren arabera (2007an egindakoa), emakumeen % 95,5ek programarekin pozik edo oso pozik zeudela adierazi zuten eta % 100ek deia jasotakoan joan egingo zirela adierazi zuten.

- **Elikadurako nahasmenduen (EN) eragina murriztea, batez ere gazteen eta nerabeen artean.**

Elikadura nahasmenduak dituzten nerabe eta gazteen kopuruak gora egin duela antzematen da maila klinikoan; lehenago hasten direla; gizonezko gehiagok jasaten duela, nolabait ere, ez emakumeak beste; eta nahasmen horiek goranzko joera hartu dutela batez

ere lehenengo haurra izan ondorengo emakumeen artean, haurdun geratu aurreko itxura berreskuratzeke nahiak eraginda. Autonomia erkidegoen artean ezberdintasunak daude, baina oro har, 12 eta 20 urte arteko nerabeen artean % 4 eta 5 artean eragiten du gaixotasunak, % 6,5 unibertsitate ikasleen artean, eta gizonezkoen artean % 0,6, emakumeena batez beste % 3,8 da, ordea.

Beste alde batetik, elikadura ohiturei buruzko inkestan (2007) jasotako datuek erakusten dute emakumeek dieta osasungarriagoa eragiten dutela, gizonezkoak baino fruta eta barazki gehiago jaten dutela. Nolanahi ere, obesidadeak gora egin duela antzeman da, gizonezkoen parean dago (gizonen % 13 eta emakumeen % 12), nabarmenagoa da gainera, behar ekonomiko handiagoak duten biztanle taldeetan.

- **Burmuineko eta bihotzeko gaixotasunak ekiditeko ohiturak emakumeen artean areagotzekoa.**

Emakumeak eta Osasuna programak 2009-2012 agerian utzi du emakumeen heriotza gehiago eragiten dutela gaixotasun kardiobaskularrek minbiziak baino, baita -rankingean- diren gainerako 7 gaixotasunak baino (10 emakumetik 3 gaixotasun kardiobaskular baten eraginez hiltzen da).

Kardiopatia iskemikoaren kasuan, miokardioaren infartua pairatu ostean 28 egunera hiltzen dira emakumeak batez beste, eta emakumeen artean % 20 handiagoa da gizonezkoen artean baino; Patologia hau duten emakumeak batez beste gizonezkoak baino ordu bete beranduago heltzen dira erietxera, eta larriago egon ohi dira.

Miokardioko infartu larriaren rebaskularizazio goiztiarrean tratamenduaren inguruko genero ezberdintasunen gaineko ikerketa baten arabera, emakumeen artean gaixotasuna 10 urte beranduago ageri dela ikusi da, hain zuzen ere bestelako patologiak izatea ohikoagoa den adinetan (HTA, diabetesa eta gutxiegitasun kardiakoa), eta miokardioko infartuaren sintomak ez direnean hain agerikoak.

Emakumeek osasun arreta beranduago jasotzen dute, sintomak hasten direnetik gizonezkoek baino beranduago eskatzen dutelako laguntza; Hori, besteak beste, honako arrazoiekin dago lotuta antza: kultur ohiturekin (minaren pertzepzioan dauden ezberdintasunak eta infartua pairatzeko arriskuen gaineko aurreiritziak), gizarte ohiturekin (mendekotasuna duten pertsonak zaintzen egotea, ospitalera joateko autonomia falta), eta arrazoi psikologiko eta medikoekin (diabetesa dute maizago, eta horrek min iskemikoa antzematea zaildu egiten du).

Gaixotasun kardiobaskularretan eragina duten ohitura asko dago, prebenitu daitezkeenak hein handi batean: alkohola eta tabakoa kontsumitzea eta egonean egoteko ohitua. Alkoholari dagokionez, 2007 datuen arabera, gizonen % 59k eta emakumeen % 30ek alkoholdun edariak kontsumitzen dituzten gutxienez astean baten; emakumeen artean, gainera, alkohol gehien kontsumitzen duen adin-taldea 16-24 urte bitartekoa da; eta emakumeen adin talde guztietan ageri da kontsumoa mantendu edo gutxitzeko joera, 45-64 urte bitarteko emakumeen artean izan ezik, joera goranzkoa baita talde horretan. Tabakoari dagokionez, gizonen % 29k eta emakumeen % 21ek erre ohi dute. Azken urteetan, tabakoaren kontsumoak behera egin du gizonezkoen artean; ez, ordea, emakumeen artean, batez ere 25-44 urte bitarteko emakumeen artean. 16-24 bitarteko adin taldean, gizonezkoek baino emakume gehiagok erretzen dute.

Egonean egoteko ohiturak behera egin du emakumeen artean adin talde guztietan. Haatik, oraindik orain emakumeen % 57k ez du inolako jarduera fisikorik egiten aisialdian. 45 eta 64 urte bitarteko emakumeak dira egonean gutxien daudenak.

- **Antisorgailuak eskuratzeko erraztasuna bermatzea, eta beharrezkoa denean, koitoaren osteko eten-metodoak eta nahi ez diren haurdunaldiak gutxitzeko, batez ere nerabeen artean eta preserbatiboaren erabilera sustatzea, sexu bidezko transmisioiko gaixotasunak ekiditeko metodo bakarra izanik.**

Emakumerik gazteenak, aurreko urteetan bezala, planifikazio familiarreko zentroetara gutxien jotzen dutenak dira antisorgailuen erabilerari buruzko informazio eske edo aholku eske.

1997tik 2007ra haurdunaldia eten duten emakume kopurua igo da adin-talde guztietan. Halere, 2008ko datuek erakutsi dute 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen artean gutxitu egin direla tasak. Datuaren irakurketa, ordea, ez dago behar bezala egina, izan ere BHE duten emakumeen erdia atzerritarra da, eta horrek eragina izan dezake EAEn borondatez haurdunaldia eteteari buruzko tasetan.

2008an koitoaren osteko pilula Osakidetzako zentroetan doan banatzeko erabakia hartu zen, eta 2007ko datuekin alderatuta, 2009an % 42,3 handitu zen pilula hartu zutenen kopurua. Koitoaren osteko pilulak ekiditen dituen haurdunaldien estimazioa 1.000tik 53koa da, eta ondorioz, Euskadin 2009an gutxi gorabehera 1.400 nahi ez ziren haurdunaldiak ekidin zirela pentsa daiteke (2006an baino 400 gehiago).

- **Haurdunaldian eta erditzean egiten diren interbentzio kirurgikoak kasu bakoitzean behar-beharrezkoak baino ez direnak dira, gero eta zesarea eta episiotomia gutxiago egiten dira.**

2007an Osakidetzak artaratutako 18.134 erditzeetan % 13,23an baino ez zen zesarearik egin, Osasun Sistema Nazionalean baino (% 25,8) eta Euskadiko osasun sektore pribatuan baino (% 29,66) nabarmen gutxiago.

- **Emakumeek jasotako informazioaren inguruko asebetetasuna handitzea, baita haurdunaldian, erditzean eta erditze osteko garaietan erabakiak hartzeko partaidetzaren inguruan ere.**

Objektibo honekin lotutako daturik ez dago.

- **Ugalketa sistemaren berezko aldaketaren inguruko arazo eta nahasmenak prebenitu eta tratatzearen inguruan emakumeen satisfazioa handitzea, informazioa banatu eta emakume ororentzako errekonozimendu toko-ginekologikoak erraztu eta parte hartzaileagoak egin.**

Objektibo honekin lotutako daturik ez dago.

- **Osasun arazoak dituzten eta zaintza behar duten pertsona ez autonomoak zaintzeko gizarte zerbitzuetako langileak gehitzea.**

Euskadin 2008an 169.400 pertsona inguru zeuden ezgaitasunen bat zuena, % 42,2k ez dute inolako zerbitzurik behar izan; % 56k zerbitzua eskatu eta jaso zuten; eta % 3,1ek zerbitzuren bat eskatu eta ez zuten jaso.

Beste autonomia erkidego batzuekin alderatuta, 2008an EAE izan da osasun zerbitzuak mendeko pertsona gutxien erabili duten erkidegoa eta seigarrena amaieratik osasun garraio eta egokitua behar izan duten pertsona kopuru gutxien duena.

Laguntza zentroen bidez artaratutako mendeko pertsonen dagokionez, EAE ehunekorik altuenen artean bosgarrena izan da, eta horrek argi erakusten du mendeko pertsonak artaratzeko gizarte laguntzetara gehiago jotzen duela osasun zerbitzuetara baino.

Etxez etxeko osasun arretari dagokionez, 2005 eta 2009 bitartean etxeko ospitalizazioa areagotu egin zen Euskadiko biztanleen % 98ra heltzeko asmoz; etxeko ingresoen % 48,81 egin zuten gora. Beste datu esanguratsuak ere badira: eguneko ospitaletan egindako prozedura medikuen gehitzea, % 63,79 hain zuzen ere; hala nola osasun etxeetan egindako kirurgia handiko interbentzioak, % 7,4 2005 eta 2008 artean, 2009ko lehen hiruhilekoan, ordea, % 53,9ra heldu ziren. Neurtu beharko litzateke norainoko eragina duen mota honetako osasun arreta gaixoen eta zaintzaileengan (emakumeengan batik bat).

- **Mediku arretarako ordutegiak zabaltzea, familia, lana eta osasun arreta bateratzea errazteko.**

Lehen Mailako Arretaren erabilerraztasuna eta jarraipena bermatzeko 2005 eta 2008 urte bitartean 28 osasun etxe eta kontsulta berritzeari ekin zaio, Lehen Mailako Arretarako (LMA) unitateak gehitu dira eta arratsaldeko ordutegiaren eskaintza zabaldu da. Gaur egun eskualdeen % 100ean eskaintzen da arratsaldeko ordutegia, eta hiriguneko Lehen Mailako Arreta zentro guztietan ere arratsaldeko ordutegiak egotea lortu da. Horrenbestez, Lehen Mailako Arreta zentroen % 10ean eragin da.

- **Indarkeriaren biktimak diren emakumeen osasun fisiko eta psikikoa behar bezala atenditzen dela bermatzeko erakundeen artean hitzartutako etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeriaren biktimak artatzeko osasun protokoloa ezarri eta hobetzea.**

2000. urtean eta *etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko I. Akordioari* jarraituz, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak osasun protokoloa egin zuen indarkeriaren biktima eta sexu jazarpenaren biktima artatzeko osasun arloko erietxetako langileen lana sistematizatzeko, bai Lehen Mailako Arreta kontsultetan, espezializatuan, larrialdietan, publikoan zein pribatuan.

Emakumeenganako indarkeriaren inguruko baliabideei 2008an egindako ebaluazioaren ondorioetan jasotzen denez, osasun protokoloaren ibilbidea laburra da oraindik indarkeriaren biktimen arreta hobetzen duen esateko edota kasu gehiago antzeman diren esateko edota kasuen jarraipena hobetu duen. Programa honetan parte hartu duten osasun arloko langileen iritziz, aparteko baliabideez osatu ahala, emakumeen aurkako indarkeria kasuak antzemateko eta jarraipena egiteko protokoloaren erabilgarritasuna handitu egingo da.

Ebaluazioak emandako bigarren ondorio nagusia honakoa da: etxe barruko indarkeria egoeretan hainbat ziklo daudela gogoan hartuta, momentuz protokoloak ez duela emakumea zein ziklotan dagoen gogoan hartzen, ez eta jarraitu beharreko urratsak adierazten osasun interbentzio bakoitzean. Beraz, etorkizunean hobetu behar den arlo bat da.

## HEZKUNTZA ARLOA

### 4.3.3

- **Unibertsitate sistemako erabakitze esparruetara sartzeko sexuen arteko ezberdintasun kuantitatiboa gutxitzea.**

Emakunderen aginduz 2008an egindako ikerketa batek adierazi zuenez, Euskadiko hiru unibertsitate nagusienetan gizonaek agindu izan dute beti. Idazkaritza Orokorrean gauzak bestelakoak dira, izan ere, bai EHU bai Mondragon Unibertsitatean emakumeak dituzte buru sail horiek.

2010eko datuak (EHUko Berdintasun Zuzendaritza) parekotasunak eta ezberdintasunak jarri dituzte agerian: unibertsitate gobernu paritarioa (8 gizon eta 7 emakume); estatu batzordeetan, batez beste gizon gehiago dago (% 61) eta parekotasuna (Euskara batzordeetan % 53, unibertsitate irakasleen % 30, eta Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza batzordeetan % 29); eta Sailen Zuzendaritzetan, emakumeen presentzia % 31,5koa da.

Beste alde batetik, Eustateko datuek eta EHUko Berdintasun Zuzendaritzarenak berarenak ere, segregazio bertikal eta horizontal argia erakusten dute; nahiz eta kontratatutako langileen % 45,5 emakumezkoa izan: zerbitzu administrazioetan emakumeen presentzia nabarmena da (% 63,5); ez, ordea, irakasleen artean (% 38,8); unibertsitate katedra eta unibertsitate eskoletan emakumeen presentzia % 20,58koa eta % 22,2koa da hurrenez hurren, eta irakasle titularren % 39,8koa.

- **Bigarren hezkuntza zentroetan erabaki arloetan sexu ezberdintasun kuantitatiboak gutxitzea.**

Hezkuntza maila honetako erabakiguneetako emakumeen eta gizonen presentziari buruzko daturik ez dago.

Bigarren hezkuntzako irakasleen datuak, ordea, baditugu (% 58,49) eta segregazio horizontal argia ikusten da: DBHn % 65,5; Lanbide heziketan % 39,2. Batxilergoan baino ez dago emakumeen eta gizonen presentzia parekatuago, % 58,9 eta % 41,2 hurrenez hurren.

- **Sexu mailako ezberdintasun kuantitatiboa gutxitzea, haur hezkuntza eta lehen hezkuntza arloetako maila eta funtzio guztietan.**

Etapa hauetako irakasleen feminizazioa argia da: haur hezkuntzan irakasleen % 91,5 emakumezkoa da eta lehen hezkuntzan % 80,3.

Hezkuntza maila hauetan emakumeek eta gizonak betetzen dituzten funtzio eta karguei buruzko daturik ez dago.

- **Unibertsitate alorrean generoen harremanak aztertzearen inguruan jakintza sor-tzea eta hedatzea.**

Gaur egun euskal unibertsitateek berdintasunarekin eta genero harremanekin lotutako hiru ikasketa mota eskaintzen dituzte: 2008-2009 ikasturtea ezkerro, Feminismo eta Genero Ikasketetan masterra (Filosofia eta Hezkuntza Zientzien fakultatea, Antropologia Saila, EHU); 2001 ezkerro, Administrazioarako, Enpresetarako eta Hezkuntzarako Berdintasun teknikarirako titulu propioa (Zuzenbide fakultatea); 2001 ezkerro, Emakumeenganako Indarkerian Esku-hartzeko unibertsitate masterra (Deustuko Unibertsitatea). EHUko unibertsitateak eskaintako ikastaroetan parte hartu dute 300 ikaslek (% 90 baino gehiago emakumeak). Bestalde, hiru formazio ikastaroetarako eskaera % 50 eta % 100 inguruan handitu da.

- **Neska-mutilek ikasketak aukeratzeko garaian sexuen arteko desberdintasun kuantitatiboa murriztea, eta lehentasuna ematea sexuen arabera alde handiagoa duten ikasketei edota etorkizunerako aukera gehiago ematen dituztenei.**

Hezkuntza Saileko 2008-2009 ikasturteko datuen arabera, lanbide heziketako erdi mailako ikasleen % 39 inguru dira emakumeak eta goi mailako ikasleen % 43,3. Ikasketa tipoak, bestalde, oso generizatuta daude: Erdi mailako lanbide heziketako 19 ikasketetarik 5ean daude emakumeen gehiengoa, % 73,15 eta % 98,19 hain zuzen ere; goi mailako 21 ikastaroetatik 7an biltzen dira emakumeen % 62,07 eta % 99,52 bitartean.

Unibertsitate ikasketei dagokienez, ikasleen % 55 inguru dira emakumeak (2008-2009 ikasturteko datuak) eta arlo gehienetan ikasleen gehiengoa dira arlo teknikoetan izan ezik, horietan % 29 inguru baino ez dira. Hiru ingeniariaritzaren arloetan bakarrik dira emakumeak nagusi (industria ingeniariaritzaren teknikoak, Industria diseinuan ingeniariaritzaren teknikoak eta kimika ingeniariaritzaren), horietan ikasleen % 61,3 eta % 58,8 dira emakumeak). Ikasketen arabera analisiak agerian usten du 34 arloetako ikasketetan emakumeak % 40 baino gutxiago direla, gehienak ingeniariaritzaren ikasketak. Jarduera fisikoarekin, kirolarekin, nabigazioarekin eta teologiarekin zerikusia duten ikasketetan ere emakume gutxiago ari da. Gainera, emakumerik ez dagoen karrera bi daude: Meatzetako Ingeniariaritzaren Teknikoa eta Itsasketa Lizentziatura).

- **Neska eta mutilen artean etxeko lanen ardura banaketa areagotzea.**

2009an Emakundek egindako ikerketa batean galdetutako lagunen % 38k -inoiz ez edo ia inoiz ez- erantzun zion ikerketan jasotako 7 etxeko lanei buruzko galderari, % 14,9k -egunero- egiten dituela erantzun zuen eta % 15,1ek -asteen baten-. Emandako aukera guztietan, nerabeen artean emakume gehiagok egiten dituzten etxerako lanak astean behin baino gehiago (% 33,6), gizonezkoek, ostera, % 26,6. Datuek erakusten dutenez, emakumeek etxeko lanetan gehiago laguntzen dute, eta ohiko emakumeen rola erreproduzitzen dute (ongizatea ematea eta besteak zaintzea).

- **0-3 arteko adin tartera bideratutako plaza kopurua ugaritzea, eta lehen zein bigarren hezkuntzako ikastetxeetan jangela eta garraio zerbitzuak duen eskaera aseko dela ziurtatzea.**

100 haurreko 64 plaza inguru eskaintzen dira, hala ere, adinaren arabera alde handiak daude: 2-3 urte bitartean estaldura osoa dago, baina 1-2 eta 0-1 urte bitartean, estal-



dura % 43 eta % 32 bitartean dago, hurrenez hurren. Hezkuntza pribatuko eskaintza-  
ren okupazio indizea txikiagoa da adin talde guztietan; 0-1 adin tartean baina, eskaerak  
eskaintza gainditzen du eta.

0-3 haurrentzako plazak gehitzearen inguruan esan beharra dago 2006 eta 2009 bitar-  
tean 97.428.174,38 eurotan gehitu dela aurrekontua helburu horrekin, urtero batez  
beste % 5 eta % 8 handitu da.

Eskola garraioari dagokionez, 2009-2010 ikasturtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza  
Sailak okupazio datuak baino ez ditu, ez estaldura indizerik. Jangelarako plazei dago-  
kionez, gauza bera.

- **Ikastetxeetan eta haur eskoletan ordutegien eta egutegien malgutasuna handi-  
tzea, antolatzeke duten autonomia kontuan hartuta; guztia ere, familien beharrei  
hobeto erantzuteko.**

Objektibo honekin lotutako daturik ez dago.

- **Ikastetxeetan gertatzen diren etxeko indarkeria kasu guztiak detektatzea eta  
aurrez adostutako protokolo eraginkor baten arabera tratatzea.**

Objektibo honekin lotutako daturik ez dago, baina bai berdinen arteko indarkeriari  
dagozkionak. Indarkeriaren adierazlea % 15,5 Lehen Hezkuntzan eta % 10,6 DBHn  
dago. 2005 urtearekin alderatuta, 2008an Lehen Hezkuntza eta DBHn ikasle gutxiago  
egon ziren; halere, estatistikoki ez da oso esanguratsua. Indarkeria pairatzen dutela  
esaten dutenen artean mutilak neskak baino gehiago dira (lehen hezkuntzan % 3 eta  
DBHn % 1,4), eta 2005etik datuek nabarmen egin dute behera.

Indarkeria erabiltzen duenari buruzko datuei dagokionez, 2005 zein 2008ko datuetan  
Lehen Hezkuntzan eta DHHn, gizonezkoak dira batez ere (bakarrik zein taldean) indar-  
keria erabiltzen dutenak, % 62,7 bakarrik, eta % 67 taldean. Erasotzaileen taldean nes-  
ken presentzia oso txikia da eta sozializazio prozesuak aurrera egin ahala gutxitu egiten  
da.

- **Ikastetxeetan indarkeria prebenitzeko programa esperimentalak egitea harrema-  
nen kultura aldatuta eta berdintasunean oinarrituriko bizikidetzak eta lankidetzak  
girora bideratuta.**

Hezkuntza Berrikuntzako lan-ildo nagusien artean dago eskolako indarkerian esku  
hartzea. Lehentasun honekin lotutako ekimen bat "Berdinen arteko indarkeriaren gai-  
neko gida" da, emakumeenganako indarkeria barne dagoelarik.

Ikastetxe gehienetan neurriak hartu dituzte, gelatan zein zentroan bertan, ikasleen arte-  
an indarkeria ekiditeko asmoz, batez ere prebentziorako.

Elkarbizitza arloko programetan ikastetxeetan parte hartzeari dagokionez, Nahiko hez-  
kuntza programa aipatu behar da, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea helburu  
duena. Hasiera batean 10-12 urte bitarteko ikasleei zuzendua bazegoen ere, gerora 8-  
10 urte bitarteko haurrei ere zabaldu zen (gaur egun 6-8 urte bitartera ere zabaldu da).  
2005etik 2009ra 1000 ikasle inguruk parte hartu du ekimen honetan.

Hezkuntza Sailak 2007-2010 urte bitartean jarduera markoan aurreikusi dute berdinen arteko indarkeria ekiditeko gaia; "Elkarbizitza, Bakea eta Giza Eskubideetan hezteko" programaren bitartez hain zuzen ere; eta baita abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe ez unibertsitarioetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoaren bidez.

Emakumeenganako indarkeriaren inguruan sentsibilizazio kanpainak hezkuntza arloan bultzatzeko betebeharra, Hezkuntza Berrikuntza lan ildoetan sartuta dago eta urtero egin da Naro programaren bitartez.

## LANA ARLOA

### 4.3.4

- **Emakume eta gizonen arteko ezberdintasun kuantitatiboa txikitzea teknologia eta jakintza maila altuko goi sektoreko lanpostu teknikoetan, emakumeen parte-hartzea handituz.**

Ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoari buruzko estatistikek (2008) emakumeen presentzia txikia dela adierazten dute (% 33), arlokako programen analisiak hala ere, emaitza positiboak erakusten ditu, ingeniartzan izan ezik, bertan emakumeen presentzia ikerlarien artean % 27,4koa da.

Doktore titulua eskuratzen duten emakumeak (ikerketarekin zuzenean lotutako formazioa) 2010ko datuek erakusten dute tesien % 53,7 emakumeek defendatu zituztela (2008an baino 11 puntu gaineratik) eta % 66ak Osasun Zientzietan eta % 37 Ikasketa Teknikoetan egin zituzten.

- **Industriako sektore tradizionaletan emakumeen parte-hartzea handitzea eta horrelako lanpostuetan aritzen diren emakumeen eta gizonen kopurua orekatzea.**

Industria sektorean emakumeen presentzia oso txikia izaten jarraitzen du, lanean dauden % 19,29 dira emakumeak (2008). Industria azpisektoreka aztertuz gero, hama sei azpisektoretatik bitan baino ez da emakumeen eta gizonen presentzia parekoa, Oihalgintza eta Joskintza eta Larrua eta Zapatagintza. Gainerako azpisektoreetan, Elikagaietan izan ezik (% 36,6), emakumeen presentzia % 30 baino txikiagoa da.

- **Enpresa ekimenak abian jartzearen eta indartzearen alorrean kopuru aldetik dagoen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna murriztea, batez ere, ordezkari txikiegia duten sektore eta lanbideetan sustatzaileen partaidetza areagotuta.**

Emakumeen ekintzailetasun jarduera tasa (EJE) EAEn 2008an % 5,9koa izan zen (gizonezkoena % 7,8), 2007arekin alderatuta % 53 altuagoa da. Gizon-emakume ratioa 0,76koa da, 2006an 0,82koa izan zen.

Ekonomia sektoreka, 2008an enpresa gehienak zerbitzu sektorekoa izan zen, eta talde barruko ikerketa batek erakutsi zuen sektoreen generarizazioa nabarmena izan zela: emakumeen artean merkataritza sektoreko enpresak dira gehienak (gizonezkoak baino % 6 eta % 10 artean gehiago); lehen eta bigarren sektoreko enpresetan gizonen presentzia handiagoa da, baita garraioa eta komunikazioarekin eta finantza aholkularitzare-

kin lotutako sektoreetan ere (% 3 eta % 5 gehiago). Talde barruko azterketa batek diferentziak gehiago markatzen ditu.

- **Administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan emakumeen eta gizonen lan baldintzak parekatzea, eta lehentasuna langile gehien aritzen diren lan jarduerari ematea.**

2009eko hainbat iturritako datuek honako emaitzak erakusten dituzte:

- Emakumeen artean langabezi tasa altuagoa izan zela (0,6 puntu gehiago, % 7,8).
- Jarduera tasa emakumeen artean 16,4 puntu txikiagoa dela (% 47,5).
- Jarduera tasa emakumeen artean 13,9 puntu txikiagoa dela (% 58,1).
- Behin behineko kontratua duten langileen gehiengoa emakumea da (% 53,45) eta behin betiko kontratua dutenen artean gutxiengoa da % 42,93).
- Kontraturik gabeko pertsonen % 90 emakumeak dira. Alegia, soldata duten emakumeen % 4,74 ez dauka kontraturik, gizonen artean, ordea, % 0,45 baino ez dute kontraturik.

Zatikako lanaldiei eta lanaldi osoei dagozkien 2010eko datuei dagokienez, zatikako lanaldian dauden langileen gehiengoa % 81,13 emakumeak dira eta lanaldi osoan dauden langileen % 41,31 baino ez da emakumea. Alegia, lanean dauden emakumeen % 14,7 zatikako lanaldian dago; gizonezkoen % 2,7.

Soldatak (2009): batez bestekoa % 28koa da, eta emakume eta gizonen arteko soldaten aldea ikasketa mailarekin aurkako proportzioa du, hau da, soldaten aldea nabarmenagoa da lehen mailako ikasketak dituztenen artea, aldea % 39 artekoa izan daiteke.

- **Sektore publikoan eta pribatuan erantzukizunezko lanpostuetan emakumeen presentzia areagotzea.**

2008an Eusko Jaurlaritzaren mendeko entitateen % 20k bakarrik izan zuen emakume bat arduradun (industria eta parke teknologikoekin lotutako entitateetan emakumerik ez zen egon); Foru aldundien mendekoetan, lurraldearen arabera ezberdintasunak daude (Arabako % 40 emakumeek zuzentzen dituzte; % 10,5 Bizkaian; eta 0 Gipuzkoan). Laburbilduz, EAEko 62 entitateetatik, 12k baino ez dute (% 19,3) emakume bat zuzendari.

Sektore pribatuan, honako datu hauek:

- EAEn egoitza duten Finantza Entitate guztiek dute gizonezko bat zuzendari, zuzendaritza batzordeetan emakumeen presentziarik ia ez dago; hiru kutxetan baino ez da presentzia areagotzen (% 25 inguru).
- Euskadiko enpresa erakundeak gizonezkoek zuzentzen dituzte, beren zuzendaritzetan ere gizonezkoak baino ez daude, ADEGIIn izan ezik, bertan % 20 emakumeak dira.
- EAEn diren 200 Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen buruan gizonezkoak daude, bakar batean izan ezik.
- Ibex35ko euskal enpresa guzti-guztietan gizonak daude buru, Administrazio Kontseiluetan ere % 85 inguru gizonezkoak dira.

- Zuzendariak eta buruak jardun kategorian lan-tasa 2010ean honakoa da: gizonak 4,5 eta emakumeak 1,8.
- Zuzendaritza postuetan emakumeen pisu erlatiboak behera egin zuen 2004 eta 2008 artean, eta joera hori erakusten du, astiro baina konstante.

- **Gainerako langileen lan baldintzetatik kanpo dauden langile taldeen lan baldintzen eta gizarte estalduren parekatzea bultzatzea.**

EAEk kolektibo hauetako gizarte estaldura parekatzeko arauetan aldaketak egiteko eskumenik ez badu ere, lan baldintzak hobetuko lituzkeen beste ekimen batzuk aurre-eramaiteko baditu, eta horrela jasotzen da IV. Planean edota Etxeko Langileen Elkarateak berak planteatu bezala.

2008ko otsailean Eustatek (2007ko datuak dira) zioen 24.282 lagun inguru ari zirela jarduera honetan lanean (ez dago sexu banaketarik), eta batez besteko soldata 571,45 eurokoa zuten, batez besteko soldataren % 44 alegia; guzti gorabehera pertsona horien % 50 gizarte segurantzako sistematik kanpo daude.

- **Egitura ekonomiko eta sozialaren analisietan sistematikoki txertatzea etxeko lanen eta zainketen balio ekonomikoari dagozkion datuak, ekoizpen esparruaren artean dituzten harremanak ere aurkeztuta; hau da, ugalketa-lanari eskainitako denbora eta ekoizpen-lanari eskainitakoa batuta.**

1996ko apirilean Legebiltzarrak Eustati eskatu zion etxeko langileen balorazioa egin zezan, eta harrezkero, datu hori Euskal Estatistika Erakundeko datuetan ageri da beti, bost urterik behin egiten diren datu bilketetan. Etxeko lanaren balorazioari buruzko azken datuen arabera, Etxeko Ekonomiari buruzko Kontu Sateliteen edizioan jasotako datuen arabera, 2008an egindakoa (2010eko ekainean argitaratu ziren), 2003. urtearekin alderatuta BPGak 3.1 puntu egin du behera eta lehendabiziko kontuarekin alderatuta (1993) 20,4 puntu. Joera hau Euskadiren ekonomiaren parekoa duten herrialdeetan antzematen da, eta hain zuzen ere, langileak etxetik merkatu ekonomiara pasatu direlako gertatu da, emakume gehiago daudelako lan merkatuan.

- **Etxeko zaintza lanetan emandako denboran emakumeen eta gizonen ezberdintasun kuantitatiboa gutxitzea, amatasun/aitatasun baimena jasotzen duten eta mendeko pertsonak zaintzen dituzten gizonen kopurua handituz, administrazio publikoan.**

Helburu hau lortzeko martxan jarritako neurri nagusia besteren kontura lan egiten duten langileen seme-alabak zaintzeko emandako diru-laguntzak dira. 118/07 Dekretuak arautzen ditu eta II. Familia Planean sartutako programan sartzen dira, 2008an azkenez ebaluatu zena. Ebaluazioak honako datuak erakutsi zituen:

- Aukeran ematen diren bi aukeretatik (eszedentzia edo lanaldia murriztea) bigarrena da gehien eskatzen den (eskaeren % 80); lanaldiaren % 33 eta % 40 arteko murrizketa onartutakoen hamarretik sei dira.
- Estaldura globalari dagokionez programak arrakasta handia du (eskaeren % 98,6).

- Programak, aldiz, ez du espero ziren emaitzak lortu (diskriminazio positiboaren bitartez) emakume eta gizonen eskaerak berdintzeko ahaleginetan, eskaeran % 5,9 baino ez dituztelako gizonezkoek egin.

Etxeko lanei eta zaintzari dagokienez, emakumeek gizonen baino ordu bat eta hamahiru minutu gehiago egiten dute lan etxean, batez beste emakumeek gizonen baino 53 minutu gehiago egiten dute lan etxean.

- **Ordutegiak malgutu eta administrazio publikoetako erakundeetako langileen lan orduak berrantolatzeke zerbitzuak edota neurriak ezartzea, hala nola enpresa pribatuetan, batez ere langile asko dituen jardueretan.**

Bateratzea sustatzeko neurriak ezartzeari buruzko analisia egiten duen ikerketa baten emaitzen arabera, enpresen % 60k ez du bateratze neurririk hartzen, edo ez daki halakorik dagoen. Neurri zehatzak aztertzen direnean gutxitu egiten da neurriak hartzen dituen enpresa kopurua, hala ere, halakoetan ere ia enpresen laurden batek onartzen du ez duela bateratze neurririk. Enpresek bateratze neurriak hartzeko erabakia jardueraren eta plantilla tamainaren arabera izan ohi da (zenbat eta txikiagoa izan enpresa orduan eta arazo gehiago).

Lanaldia murriztea eta ordutegi malgutasuna (beranduago sartzeko aukera) gehien hartzen diren neurriak dira; Lehenengo neurriak enpresaren produktibitateari zuzenean eragiten diola uste da, baina bigarren neurria positibotzat jotzen dute.

- **Eraso sexisten alorrean prebentzio eta ekintza protokoloak ezartzea erakunde pribatu eta publikoetan, biztanleria okupatuko proportzio handienak dituzten jarduerak lehenetsiz, sexu jazarpen hori azalertzeko eta gutxitzeko.**

Lan tokietan jazarpenari buruzko ditugun datuen arabera, 2009an EAEn egindako 424 Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzak egindako jardunetatik % 1,65 sexu bazterketa-gatik izan ziren eta % 1,4 sexu jazarpenagatik. Osalanek kudeatu zituen jazarpenari buruzko 7 kasuak, horietatik 6 administrazio publikoan izan ziren.

2009an Berdintasunaren Defentsarako Bulegoak egindako ikerketaren arabera, sektorekako lan hitzarmenen % 28,1ek baino ez dute sexu bazterketa eta sexu jazarpenari buruzko klausulak sartzen. Lan hitzarmenen % 0k, gainera, ez du sexu jazarpenaren inguruko legedia jasotzen, nahiz eta horietako asko 3/2007 Lege Organikoa indarrean sartu eta gero onartu diren.

## GIZARTERATZEA ARLOA

### 4.3.5

- **Pobrezia egoeran eta baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetze aldera.**

Pobrezia eta Gizarte Ezberdintasunei buruzko inkestako datuek adierazten dutenez (2008) ongizate eza nagusiagoa da etxeko burua emakume bat denean (% 28,1, gizonezkoa denean, ordea, % 12); emakumea buru duten familietan pobreziarako arriskua handiagoa da (% 8,2, gizonezkoa denean, ordea, % 3,3). Emakumezkoak gehiago dira

kolektibo txiroenetan (% 53,1), baita pobrezia arazoak edo ongizate eza duten kolekti-boetan (% 57,3).

2006-2009 bitartean 165 ekimen egin dira objektibo horri lotuta.

- **Prostituzioa egiten duten eta bazterketa arriskuan dauden emakumeei zuzendutako baliabideak egokitzea, beren bizi baldintzak eta egoera hobetzeko.**

2002an eta 2007an egindako ikerketa bien artean, honako hiru aldaketa nabarmentzen dira: 1) kaleko prostituzioa nabarmen jaitsi da (% 68 gutxiago); 2) klub kopuruak ere % 24 egin du behera (% 16an bertan egiten du prostituzioa); 3) prostituzioa egiten den pisu kopuruak, ordea, % 60 egin du gora, eta bertan lan egiten duten emakume kopuruak ere % 41 egin du gora. EAEn prostituzioa egiten duten emakumeen kopuruak % 1 egin du gora.

Aldaketek (prostituzioa pisuetan egiten da, ez klubetan; emakume atzerritar gehiago ari da prostituzioak, gehienak legez kanpo daude; preserbatiborik gabeko harreman gehiago eskatzen dira; eta droga gehiago kontsumitzen da, kokaina batez ere) arrisku handiak dakartzate eta emakume prostituten osasun ahultasuna (sexu bidezko transmisio-ko gaixotasunak, mendekotasunak) eta segurtasun pertsonal eskasa (erasoak, lan baldintza txarrak).

2006-2009 bitartean 32 ekimen baino ez dira egin objektibo horri lotuta.

- **Droga mendekotasun arazoak dituzten eta baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetze aldera.**

Drogak hartzea eta mendekotasuna, oro har, gizonen artean hedatuago dago emakumeen artean baino, eta horrenbestez ikerketak eta terapia programak gizonezkoentzako diseinatzen dira; eta ondorioz, emakumeek horietaz baliatzea oztopatu egiten da (esate baterako, ludopatia dutenen artean % 30 emakumea da, baina % 10 baino ez da terapiara joaten).

Psikofarmakoenganako adikzioak esate baterako, nagusiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (% 30, gizonezkoek % 14). Droga mota hau hartzen duen kontsumitzailearen profila 50 urtetik gorako emakumea da, ezkondua edo alargundua, etxeko andrea eta erdi-behe mailakoa.

2006-2009 bitartean 33 ekimen baino ez dira egin objektibo horri lotuta.

- **Espetxeratuta dauden pertsonen bideratutako baliabideak egokitzea, kolektibo horretan dauden emakumeen egoera hobetzeko.**

Euskadin espetxean dauden emakume kopuruan oso txikia da; 2009an Euskadin espetxean zeuden 1472 pertsonetatik % 8,8 baino ez da emakumea (k=129), 114 behin betiko epaiaz espetxeratua eta 15 behin behineko espetxeratze egoeran. Beste behin ere, nagusiki gizonen arazoa izateak dakar baliabideak eurei zuzenduak egotea eta ez dira gogoan hartzen emakumeen behar eta interesak; eta ondorioz, berez espetxeratua egoteak dakartzan arazoei, emakume izateagatik eragiten zaizkien arazoak gehitu behar zaizkie (ama direnen kasua esate baterako), hala nola emakume izateagatik eragindakoak (era guztietako baliabideen eskuragarritasuna).

2006-2009 bitartean 8 ekimen baino ez dira egin objektibo horri lotuta.

- **Etorkinak diren eta baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baldintzak eta egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetze aldera.**

EAEEn etorkinen % 48,3 (139.229) emakumeak dira. Behatokiak 2007an etorkinak eta generoari buruz egindako txostenaren arabera:

- Erdiak erdi mailako formazio curriculum du, gizonezkoena baino zer edo zer hobea; eta % 15ek goi mailako titulazioa du.
- 10etik 7k lan egiten dute (% 60 lanaldi osoan); % 11,5 langabeturik daude; eta % 18,9 -jardunik gabe-. Gizon etorkinen artean langabezi gehiago dago (% 23,6), eta -jardunik gabe- gutxiago (% 6,8).
- Emakume etorkinen % 70 lanean dauden arren (gizonezkoen parean), atzerritarrek sinatutako kontratuen % 25 bakarrik emakumeena da.
- Lan merkatuan dauden emakumeen % 55,1 etxeko lanetan egiten dute lan nagusiki eta % 17,3 ostalaritzan egiten du lan.
- % 75 1000 euro baino gutxiagoko soldata du eta % 20 500 baino gutxiago.

Administrazio irregulartasun egoera etorkinen artean eragin handiagoa du emakumeen artean, eskubide ekonomiko, politiko eta gizarte eskubideei eragiten die; indarkeriaren biktimen ehuneko handi bat emakume etorkinak dira (2009ko salaketan % 32); eta prostituzioa egiten duten emakumeena ere bai (% 85 eta % 90 artean etorkinak dira).

2006-2009 bitartean 30 ekimen baino ez dira egin objektibo horri lotuta.

- **Elbarritasunen bat duten eta baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baldintzak eta egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetze aldera.**

2008an 169.400 pertsona inguru zuten ezgaitasunen bat EAEEn, % 60 emakumeak, eta horietatik % 65 65 urte baino gehiago du. Halere, sektore honen gaineko estatistikarik ez dugu. Hori dela eta, hemen erabilitako datuak hainbat iturritatik atera dira, batzuetan identifikatu ezin direnak. Adierazgarrienak honakoak:

- Hezkuntza sisteman aurrera egin ahala, ezgaitasunen bat duten ikasle kopurua gutxituz doa, eta belaunaldi gazteagoetan formazioa jasotzen duten ezgaitasuna dutenen artean orekatu egiten da sexuaren arabera.
- 44 urte baino gutxiagoen artean, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak ezgaitasunik ez dutenen berberak dira.
- Ezgaitasuna duten emakumeen eta ez dutenen formazioa alderatuz gero, alfabetatze ezan alde nabarmena dagoela antzematen da, % 12,4 ezgaitasunen bat duten emakumeak eta % 0,78 ezgaitasunik ez dutenak; unibertsitate ikasketetan esate baterako, % 1,56, ezgaitasunik ez duten emakumeen % 22,6k, ordea, ditu unibertsitate ikasketak.
- Lan egoera dela eta, askotariko bereizkeria ondorioak agerikoak dira: ezgaitasuna duten emakumeen jarduera tasa % 21,4koa da, ezgaitasunik ez dutenena % 46,3koa; eta langabezi tasa % 32,1, ezgaitasunik ez duten emakumeena % 7,9.

Kolektiboaren barruan generoaren azterketak honako ondorio hauek ematen ditu:

- 44 urte beherakoen kasuan formazio parekoa dute eta baliabideak berdintsu eskuratzen dituzte.
- Lanean dauden emakume kopurua gizonezkoena baino 6 puntu beherago dago, eta pentsio kontributibo eta ez kontributiboetan aldea nabaria da, % 23koa hain zuzen ere; emakumeen % 28k baino ez du pentsiorik jasotzen, baina gizonen % 51.

Ezgaitasuna duten emakumeen diru-sarreraren batez bestekoa 500 eurokoa da (estadistika Institutu Nazionalak 2005ean pobreziaren muga 520 eurotan ezarri zuen); ondorioz, konfirmatu egiten da ezgaitasunen eta txirotasunaren arteko lotura, eta nola areagotzen den ezgaitasuna duena emakume denean.

Gizarte bazterketa arriskuan diren gainerako kolektiboekin gertatzen den bezala, zaila da estatistika eguneratuak aurkitzea jarraipen zehatza egin ahal izateko, egoeren, posizioen, edota errolden gainean. Horregatik guztiagatik, hemen emandako datuak oso zaharrak dira, baina gaur egungoak ere, zoritzarrez; izan ere pertsona hauen bizi baldintzen aldaketa positibo gutxi izan ohi dituzte.

2006-2009 bitartean 8 ekimen baino ez dira egin objektibo horri lotuta.

- **Adineko pertsonak eta baztertuta izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta posizioak hobetze aldera.**

Euskadin 409.537 adineko bizilagun dauden 65 urtetik gorakoak, eta gutxi gorabehera % 58 emakumeak dira (2009). Adinaren piramidean gora egin ahala, ehunekoak gora egiten du, kolektibo honetan emakume asko dago eta.

2005eko datuek ondorio garrantzitsuak ematen dizkigute adineko emakumeen egoera eta posizioei buruz: adinekoen % 44,8 emakume alargunak dira, gizonezkoak, osterak, % 11,41. Emakumeen % 24,33 bakarrik bizi dira, gizonezkoak % 8,85 baino ez; kolektibo honetan ezgaitasuna dutenen kopurua altua da, % 6,1 65-74 urte bitartean eta 75 urtetik gora % 22,1. Horrek guztiak pobrezia egoerak, isolamendua, eta bakardadea eragiten du adineko emakumeen artean:

- Adineko emakumeen % 27,2k baino ez du jasotzen erretiro pentsiorik; gizonezkoen kasuan, aldiz, % 89,21ek; batez besteko pentsioa 737,12 eurokoa da.
- % 33,93k alarguntasun pentsioa jasotzen du; batez beste 405,85 euro.
- 65 urtetik gorako emakumeen batez besteko errenta pertsonala 5.494 eurokoa da (gizonezkoen erdia gutxi gorabehera).
- 65 urtetik gorako emakumeen artean pobrezia % 12,4ri eragiten die.
- 65 urtetik gorako emakumeen artean ongizate eza % 60koa da.
- Familia txiroen % 26,4 65 urtetik gorako emakumeak dituzte buru.

2006-2009 bitartean 8 ekimen baino ez dira egin objektibo horri lotuta.



- **Zaintza lanak egiten dituzten pertsonen karga ekonomikoak, sozialak eta psikologikoak murrizteko baliabideak areagotzea.**

2008ko datuak (1999koekin alderatuta) hurbileko senidea zaintzaile zuten mendeko pertsonen ehunekoak aldaketa nabarmenak izan dituela adierazten dute azken hamarkadan. 1999an, mendeko pertsonen % 3,29k bano ez zuen gizarte zerbitzuetako langileren bat zaintzaile; 2008an % 2,75ra jaitsi zen.

Zaintzailea ez da aldatu, gehienetan bikotea izan ohi da (bitxia bada ere, ikerketak ez du sexuaren araberako daturik ematen). 2008an aldaketa nabarmena gertatzen da 1999rekin alderatuta, zaintzaz arduratzen den hirugarren baten inguruan hain zuen ere; 1999an ama zen nagusiki, eta 2008an langile bat; baliteke aldaketa hori gizarte zerbitzuetan gertatutako aldaketa eta zerbitzuen eskaintza zabaltzeagatik gertatzea, hain zuzen ere zerbitzu horiek baliabide ekonomikoen premia zuten familiengana hurbildu dira.

- **Indarkeria zikloak garaiz detektatzeari bultzada ematea.**

Indarkeriaren biktimetzako telefonoak 2009an 2.874 dei jaso zituen, hilean batez beste 232 dei egin ziren; 2008. urtearen aldean, % 6,5 handiagoa da.

Kasuen % 53,53ak ez da, hasiera batean behintzat, beste zerbitzuetara deribatzen; erabiltzaileen % 8,79 beste baliabide batera deribatu da (baliabide juridiko, gizarte laguntzaile, berdintasun arloetara, arrera psikologikoa) eta deribazio txostena egin da edota esku hartze proiektu zehatza egin zaio, betiere telefono deitik abiatuta.

Deien % 2,75 larrialdi zerbitzuetara deribatu dira, 112 telefonora (SOS Deiak) eta % 1,36 polizia.

Euskadiko epaitegietan, 2009an, 4.058 salaketa aztertu zituzten, horietako bi erailketak. Horrek esan nahi du, egunean ustezko hamaika eraso daudela. 2008aren aldean hasitako prozedura kopuruak % 8 egin du gora.

Emakumeek Euskadiko epaitegietan eskatutako babes aginduek behera egin dute, bai termino absolutuetan zein erlatiboetan: Salaketen % 24, lehengo % 30aren aldean. Alabaina, EAEn iaz egindako eskaeren proportzioa % 60koa izan zen, 2008ren parekoa (% 57).

- **Tratu txarrak edo sexu erasoak jasan dituzten biktimek arreta, laguntza edota babesa jasotzeko egindako eskaerei koordinazioz, kalitatez eta eraginkortasunez erantzuteko, EAEn udalerrietan tokiko protokoloak ezartzea.**

Objektibo hau lortzeko garatutako baliabiderik eraginkorrena *Etxeko tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko Akordioa* da. Oinarrizko alderdia izan da jarduera protokolo homogoneoa egitea eta erkidego osoan koordinatua egitea zen, biktimak artatzen dituzten profesionalek erabili ahal izateko. 3 2009 Erakundeen arteko Arteko II. Akordioak Jarraipen Batzorde bat sortzea aurreikusten du, Akordioan bertan jasotzen diren neurriak ezartzen direla bermatzeko eta jarduera bateratuak zein hobekuntzak proposatzeko.

32 udalek gainera, indarkeriaren biktimak artapena hobetzeko koordinazio akordioak egiten dihardute euren lurralde eta esku hartze eremuetan; ez dago, halere, lurralde

mailako foru aldundietako protokolorik. 2006ko datuekin alderatuta aldaketa handia da, orduan 9 udalek baino ez zuten protokoloa eta 19 egiten ziharduten.

- **Tratu txarren eta sexu erasoen biktima direnen arreta beharrei koordinazio, kalitate eta eraginkortasun irizpideak aintzat hartuta erantzutea eta etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako abegi eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programan jasotako neurriak ezartzen direla bermatzea.**

Objektibo honekin lotutako daturik ez dago.

## **INGURUMENA, HIRIGINTZA ETA GARRAIO PUBLIKO ARLOA**

### **4.3.6**

- **Hirigintzan eta ingurumen arloetan egiten diren parte hartze prozeduretan emakumeen eta emakume elkarten parte hartzea bermatzea eta berdintzea (Agenda 21ean eta eskualdeetako Landa Garapen programetan) eta parte hartze prozedurak sustatzea halakorik ez balego.**

2008an egindako zehaztugabeko ikerketa baten arabera erregistratutako kasuen erdiari buruz daturik ez dagoela, eta daudenetan agerian geratzen da parte hartze mekanismo eta esperientzietan emakumeen parte hartzea % 0 bano txikiagoa dela. Berdintasun batzordeetan salbu, bertan emakumeen presentzia % 75 baino gehiago da, emakumeak nagusi diren gainerako espazioek % 18 suposatzen dute.

Tokiko Agenda 21eko tailer eta foroetan parte hartzen dute nagusiki emakumeek, % 50 eta % 75 artean, eta IV. Planetan zehaztutako helburuekin bat dator.

- **Garraio publikoa antolatzeko herritarrek parte hartzeko prozesuak abiaraztea, emakumezko eta gizezko ordezkariak paritarioarekin.**

Objektibo honekin lotutako daturik ez dago.

- **Hirigintza, Garraio eta Ingurumen esparruetako kargu publiko eta teknikoetan emakumezkoen presentzia indartzea, harik eta, gutxienez, 40-60 proportziora iritsi arte.**

Hirigintza, Garraio eta Ingurumen sailetan zuzendaritza postuak nagusiki gizonenak dira. Eusko Jaurlaritzak, sailetan paritate irizpidea betetzen da (sailburuak emakumeak eta gizonak daude), sailburuordetzetan eta zuzendaritzetan, ordea, nagusiki gizonak daude. Foru Aldundietan, Bizkaia eta Gipuzkoan goi karguak emakumezkoak dira, Araban, ordea, kargu nagusi biak gizonak betetzen dituzte. Zuzendaritzetan, lurralde historiko batean ere ez dago botere paritaterik.

Hiriburuen udaletan, zinegotzietan dagokienez, Gasteizen eta Donostian hiru karguak gizezko bik eta emakumezko batek betetzen dituzte; Bilbon, aldiz, kargu biak gizonak betetzen dituzte.

- **Hiriko elementuen bidez gizon-emakumeei egiten zaien errekonozimendu soziala orekatzea (kale izenak, plazak, monumentuak, etab.).**

Hainbat ikerketek, gainera, jasotzen dute kale-izendegietan emakumeen izenak % 10 baino ez direla. Adierazle honen jarraipena egin ahal izateko, Euskadin azken 5 urteetan eraikitako hiri espazioen gaineko datuak batu beharko liriateke eta erakunde publikoek arlo honetan egin dezaketenaren eragina.

- **Familia, norberaren bizitza eta lana errazago bateratzeko hiri diseinuak antolatzeko irizpideak identifikatzea eta aplikatzea.**

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak Hiri Azterketarako eskuliburua argitaratu berri du 2010ean: Generoa eta eguneroko bizitza, eta EAEko udaletan zabaldu da. Arriskuguneak kentzea eta hiri seguruak sortzea du helburu, eta gainera, hiri espazioak diseinatzean genero perspektiba nola txertatu behar den azaltzen duen kapitulua ere jasotzen du.

- **Garraio publikoan, bizitza pertsonala, familia eta lana errazago bateratzera bideratutako neurriak ezartzea.**

Mugikortasunaren gaineko Inkesta batek jasotako datuen arabera, garraioen erabilera sexuaren araberako aldeak daude (Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, 2007). Inkesta horren emaitzek baieztatu egiten dute ibilgailu pribatua batez ere gizonezkoek erabiltzen dutela, joan-etorrien % 45,7, eta emakumeek joan-etorrien % 31,8. Horrenbestez, motorrik gabeko garraioak eta garraio publikoak emakumeek erabiltzen dituzte gizonezkoek baino askoz gehiago.

Objektibo bi hauei dagokienez, eta familia eta lana bateragarri egiteko neurriekin lotuta, organo eskudunek 9 ekimen baino ez dituzte jarri IV. Plana indarrean izan den bitartean.

- **Emakumeak arriskuan sentitzen diren udalerriko lekuak identifikatzea haiek neutralizatzen dituzten neurriak ezartzeko Emakumeak arriskuan sentitzen diren leku berriak sortu ez daitezkeen irizpideak finkatzea.**

EAEko bi udalerririk diagnosi bana egin dute (haietako Debekatutako hiriaren Mapa izenekoa), -puntu beltzak- edota emakumeak sexu erasoa jasateko arriskua izan dezakeela sentitzen duen lekuak identifikatzea izan dute helburu. Era horretako diagnosiak egin dituzten udalerriak: Bilbo, Donostia, Gasteiz, Basauri, Erandio, Getxo eta Zumarraga.

- **Indarkeriaren biktima diren eta hala eskatzen duten emakumeen etxebizitza eskaerak % 100 estaltzea, babes ofiziala lortzeko lehentasuna emanez edota etxebizitza lortzeko bestelako edozer abantailaren bitartez.**

Eusko Jaurlaritzaren ekimen garrantzitsuena 2006ko urriaren 4ko Agindua izan da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoa .

2009ko datuen aranera, 153 emakume sartu ziren alokairu erregimenean etxebizitza esleitzeko prozeduretako kupoetan (ohiko prozeduretan). Horietatik % 3,9ri esleitu zi-

tzaien etxebizitza; alokairuan zeuden etxebizitza zuzenean esleitu zitzairen 16 emakumeri (Etxebizitza Hutsen Programa)

Indarkeriaren biktimek eskatutako etxebizitza kopuruak ere nabarmen egin du behera (2006an 114k, eta 2008an 59k). Indarkeriaren biktima izaera aitortzen zaien emakume kopuruak ere behera egin du (2006an % 64,91, eta 2009an % 38,98).

## ZEHARKAKO HELBURUAK

### 4.3.7

- **Euskal Administrazio Publikoak sustatutako parte hartze guneetan emakumeen presentzia.**

2008an Ajangizek (Parte Hartuz Kolektiboa) egindako parte hartze esperientzien mapan, EAEko udalerrietan emakumeen parte hartzea neurtu zuen udalerrien prozedura eta mekanismoetan. Ikerketa horren arabera, kasuen erdian ere ez dago erregistratutako daturik, eta daudenean, datuek erakusten dutenez parte hartze mekanismo eta esperientzietan emakumeen presentzia % 50 baino gutxiago da; Tokiko Agenda 21eko foro eta tailerretan, ordea, % 50 eta % 75 bitartean dago; eta % 75 baino gorago berdintasun batzordeetan.

- **IV. Plana indarrean egon den bitartean gizarte politika, ekonomia eta kulturaren emakumeen parte hartze eraginkorra eta elkartegintza sustatzea helburu duten entitateen sorrera kopurua.**

IV. Plana indarrean egon den bitartean 15 udalek sortu dituzten emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako parte hartze guneak. Emakumeak bakarrik edo emakumeak eta gizonak parte hartzen duten espazioak dira. Hiru foru aldundietatik, Arabakoak eta Gipuzkoakoak baino ez dute egitura hori sortu: 2010ean (parte hartze mistoa) eta 2008an (emakumeak bakarrik), hurrenez hurren.

Berdintasunerako Emakumeen Euskal Kontseilua sortzeari buruzko legea EAEko emakume ororen parte hartze gunea izan nahi du, Emakunderen webgunean jartzen duenari jarraituz, legearen aurre proiektua txosten eta irizpen fasean dago, ondoren Gobernu Kontseiluak lege proiektua egin eta Legebiltzarrak onartzeko.

- **Emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu duten elkarte berriak.**

2002an eta 2009an jasotako datuetatik egindako konparazio azterketak agerian utzi du -Hausnarketa Feminista- lantzeko helburuarekin sortutako elkarteek gora egin dutela; % 12,2tik (156 elkartetatik 19), % 28,2ra (163 elkartetatik 46).

- **Emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu duten elkarte berriak.**

2005etik aurrera hainbat udalerritako berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeria matxistaren aurka lan egiten duten gizonezkoen taldeak sortu dira: (Arrasate, Bilbo, Ermua, Hernani, Irun, Laudio, Santurtzi; Tolosa eta Gasteiz), era berean antolatutako gizon taldea zein maila indibidualean sarea sortu dute, Gizon Sarea.

- **Emakumeen eta gizonen erantzukidetasuna eta bateragarritasuna erraztuko duten baliabideak sortzea.**

Objektibo honekin lotutako daturik ez dago.

- **Gizartearen jakintza, inplikazioa eta parte-hartzea areagotzea baterako erantzukizunaren bidean dauden erronka eta aurrerapenei dagokienez.**

Objektibo honekin lotutako daturik ez dago.

- **Administrazioaren koordinazioa bultzatzea eta hobetzea emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan.**

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako oinarritzko baliabidea izan da erakundeen arteko koordinazioa, batez ere tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktimei arreta hobetzeko erakundeen arteko Akordioak.

Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan udalen arteko koordinaziorako Berdinsarea programak (Eudelek eta Emakundek bultzatutako emakumeenganako indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko udalen sarea) erabateko garrantzia izan du, batez ere diagnostikoen eta udal protokoloak martxan jartzerako orduan; hala nola, herritarrei oro har, edo talde espezifikoiei, gizonezkoiei eta emakume gazteei, zuzendutako sentsibilizazio kanpainak diseinatzerako eta martxan jartzerako orduan.

- **Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio kanpainak egitea.**

IV. Plana indarrean izan den lau urteetan 67 sentsibilizazio ekimen egin dira indarkeria desagerrarazteko helburuarekin, gehienak azaroaren 25aren inguruan, emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren inguruan.

## BALORAZIO OROKORRA

# 4.4

Ondorioen atal honetan jasotako datuak argi erakusten dute zenbait kasutan, Euskal Administrazioari hiru mailetatik egindako esfortzuei esker aurrerapen handiak egin direla; beste batzuetan, ordea, emakumeen aukerak, baldintzak eta posizioak hobetzeko asko egin behar da oraindik.

Kultura eta kirol arloan egindako ekimen kopuruak oraindik ere ez du eragin positiborik, batez ere emakumeak kultur eta arte eragile gisa sustatzeko, edota arlo hauetako kudeatzaile izateko. Ez du lortu era berean, kirolean dagoen banaketa desagertzea, federatutako kirolean emakumeen presentzia areagotzea edota erabakiguneetan parte hartzea. Arlo hauetako programetan eta helburuetan antzemandako desorekak, batez ere egindako ekimenak eta erabilitako baliabide ekonomikoak, azaltzen dute kultura eta kirol arloetako geldiunea.

Oraindik ez dugu komunikabideetan emakumeen presentziari buruzko daturik, ez eta lau urte hauetan egindako ekimenei, ez aurreko urteetan egindakoei buruzkorik, eta horrek gainerako arloetako egoeraren parean egon daitekeela adierazten digu.

Emakumeen ugalketa osasunean hobekuntzak aipagarriak dira, baina funtsezkoa da derri-gorrezko hezkuntzako etapa guztietan hezkuntza afektibo-sexuala sustatzea, BHEak ekiditeko, koito osteko pilulak eta GBH eta bestelako sexu transmizio gaixotasunak ekiditeko, sexualitate osasungarria bizi (buruz eta gorputzez), eta sexu harreman orekatu, errespertzuzkoak eta arduratsuak.

Erakunde publikoetako erabakiguneetan emakumeen presentzia ere aurrerapenak izan dira (herritarrek gehien ikusten dituzten postuetan batez ere); baina erakunde pribatuetan, ia ez da aurrerapenik izan.

Lanpostu eta ikerketa teknikoetan emakumeen eta gizonen presentzia berdintzeko asko dago egiteko oraindik; ikerketan batez ere, ikerketa tekniko eta berritzaileetan.

Emakumea eta generoa ikergai duten ikerketan asko ugarritu dira, bai eta gai honen inguruko ikasketen eskaintza ere; horiek guztiek ezagutza ez sexista zabaltzen eta hainbat diziplinetan emakumeen ekarpenak ikusgai egiten lagundu dute. Erakundeetatik, bereziki Emakundetik, egiten den lana gutxietsi gabe, ikerlari eta irakasle askoren lana goraiatu beharra dago, urteetan zehar laguntzarik eta baloraziorik gabe, ezagutza ez sexistaren alde lan egin dutelako. Gauzak horrela, behar beharrezkoa da erakundeek horrelako ekimenak eta ikerketak sustatzea. Ezagutza ez sexista zabaltzeaz gain, oinarriko eta funtsezkoa da belaunaldi berrietan aldaketak eragiteko, hezkuntza etapa guzti-guztietan emakumearen ekarpena ikusgai izatean eta errealitatearen analisi kritikoa sustatzea, besteak beste, gure gizartean eta inguratzen gaituen munduan emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunen iturriak eta emakumeenganako berezikeriak hobeto ulertzen ahalbidetuko du eta.

Emakume langabetuen kopuruak behera egin badu ere, lan baldintzak lehen bezain txarrak dira, batez ere etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan lan egiten duten emakumeenak (eremu pribatuetakoak batik bat). Horrek, ezbairik gabe, lotura handia du emakumeen tea gizonen soldaten arteko aldearekin.

Jazarpen sexista eta sexu jazarpenarekin lotutako ekimenak lan eremuan landu beharreko arloa da, materialen esku hartzea ahalbidetzen duten arauak egon arren.

Bateratzearen arloan baliabideak ugarritu direna argi dago (haur eskolak, jangelak, eskola garraioa, lanaldi murrizketak eta eszedentziak...); hala ere, non dago ardura banaketa? Oraindik ere berdintasun politikak 30 urte bete eta gero, emakumeen denbora gehiago ematen dute etxean lanean; eta lan hori ez du gizartearen eta pertsonaren aitorpenik jasotzen, nahiz eta erkidegoaren BPGean eragina izan eta pertsonen mantenu eta bizi kalitatea hobetzen duen. Zalantzarik gabe, nahi diren helburuak lortzeko ekimen sendoagok eta jarraigoan jarri beharko dira martxan.

Emakumeenganako indarkeriaren arloan, gaur egun biktimen arretarako dauden baliabideak onak dira, eta horrek ziurrenik zerbitzuak eta eskaintako baliabideak hobetu ditu; alabaina, hutsunea nabari da lehen mailako prebentzioari dagokionez (programa batzuen onurak baztertu gabe, eskoletan esate baterako). Gai honetan adituek prebentzio programak diseinatzearen garrantzia aipatzen dute, hezkuntza aro ezberdinetan eragiteko, unibertsitate ikasketetan barne, batez ere gazteen eta nagusien artean indarkeria sexista eta matxista kasuan gutxitu nahi baditugu.

Ingurumenarekin lotutako helburuen emaitzak, batez ere Agenda 21ean emakumeen parte hartzearekin lotutakoak, oso onak dira; ezbairik gabe, eskumena duten erakundeek urtetan udalerrietan egindako ekimenetan genero ikuspegia txertatzeko izandako interesaren eta esfortzuaren emaitza izan da hori.

Hirigintzan, hainbat udaletan egin diren ekimenak aipatu behar dira, emakumeen segurtasuna areagotzeko helburuarekin.

Garraio publikoa asko hobetu da, hiri eta industria guneean bereziki, duda izpirik gabe; eta baliteke, nahita ala ez, familia eta lana bateragarri egiteko ahaleginetan eragin positiboa izan izana. Baina, zein da landa eremuetako egoera? landa guneean zer nolako oztopoak dituzte emakumeek eta gizonak familia eta lana bateragarri egiteko?; seguruenik, emakumeek gizonezkoek baino zailago izatea, gogoan hartzen badugu emakume gutxiagok dutela gidatzeko baimena gizonak baino, eta beraz mendekotasuna eta isolamendua handiagoa da.

Mendekotasun arazoak dituzten kolektiboak edo espetxean daudenak, baliabideetan eta zerbitzuetan dagoen alde endozentrikoa agerian uzten duten ikerketak falta dira, emakumeen premietara egokitzeko eta egoera horretan daudenen artean aukera berdintasuna sutatzeko.

Prostituzioa egiten duten emakumeen kolektiboaz ere hitz bi esango dugu; aktibitate hau egiten duten emakumeen baldintzak okertu dira eta GIB birusaz, edota beste sexu transmisiozko gaixotasunen batez kutsatzeko eta lan baldintza txartzeko arriskua handitu egin du horrek.

Azkenik, egituretan eta baliabideetan izandako aurrerapen handiak aipatuko ditugu (giza baliabideak, ekonomikoak..), Euskadiko administrazio publikoan Mainstreaminga sustatzeko helburuarekin. Horrek, bestalde, helburu hori lortzeko egindako esfortzuak behar bezala aprobetxatzea dakar (erakundeetako eta gizartekoak, mugimendu feministetan batez ere). Gainera, arlo guztietako esku-hartze politikan, programetan eta proiektuetan genero ikuspegia txertatzeko erronka handia da.





# E

## ERANSKINA:

**“EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN  
BERDINTASUNERAKO IV. PLANA:  
VIII. LEGEALDIRAKO JARRAIBIDEAK”  
EBALUAZIOAN ERABILITAKO  
GALDESORTAK ETA MATERIALA**



## EBALUAZIORAKO GALDESORTAK

# 1.E

### JAKINTZA EKINTZAK EBALUATZEKO TRESNA\*

## 1.1.E

- GALDESORTA BIDALTZEN DUEN ERAKUNDEAK:.....
- HARREMANETARAKO PERTSONA ETA TELEFONOA: .....
- POSTA ELEKTRONIKOA:.....

### 01.G **DESKRIBA EZAZU BURUTUTAKO EKINTZA AHALIK ETA ZEHATZEN:**

.....

.....

.....

### 02.G **AZAL EZAZU IV. PLANAREN BARRUAN ZEIN ARLORI DAGOKIO (BEGIRATU: EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN EBALUAZIOAN ERABILTZEKO MATERIALA):**

- 1. IV. Plana ezartzeko neurriak
- 2. Berdintasunerako zerbitzu orokorren arloa
- 3. Kultura arloa
- 4. Hezkuntza arloa
- 5. Lan arloa
- 6. Gizarteratze arloa
- 7. Osasun arloa
- 8. Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro arloa

---

\* Gai jakin baten inguruko jakintza areagotzera bideratutako ekintzak sartzen dira; hala nola mota guztietako ikerketak, azterlanak eta azterketak.

### 03.G ZURE IRITZIZ, BURUTUTAKO EKINTZA ZEIN NEURRITAN DATOR BAT IV. PLANETAN GOMENDATUTAKO EKINTZEKIN (BEGIRATU: EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN EBALUAZIOAN ERABILTZEKO MATERIALA)?:

- 1. Bai (IV. Planaren barruan jarduera horri lotu zaion identifikazio kodea idatzi):
- 2. Ez (hurrengo taulako datuak bete itzazu):

ARDATZA	Programa Zkia	Helburu Zkia
Mainstreaming		
Ahalduntzea		
Bateragarritasuna eta Erantzukizuna		
Emakumeen aurkako indarkeria		

### 04.G EKINTZA BULTZATU D(IT)UTEN ERAKUNDE(AR)EN IZENA:

- EUSKO JAURLARITZA

SAILBURUORDETZA

1. Eusko Jaurlaritzako Saila(k): .....

.....

.....

2. Erakunde Autonomiaduna: .....

.....

.....

3. Elkarte Publikoa: .....

.....

.....

4. Eusko Jaurlaritzako bestelako Erakundea .....

.....

.....

- FORU ALDUNDIAK

SAILA

1. Arabako Foru Aldundia: .....

.....

.....

**04.G**  
**jarraipena**

- 2. Bizkaiko Foru Aldundia: .....
- .....
- .....
- .....
- 3. Gipuzkoako Foru Aldundia: .....
- .....
- .....

• UDALAK	HERRIA	ARLOA
<input type="checkbox"/> 1. Araba:	.....	.....
	.....	.....
	.....	.....
<input type="checkbox"/> 2. Bizkaia:	.....	.....
	.....	.....
	.....	.....
<input type="checkbox"/> 3. Gipuzkoa:	.....	.....
	.....	.....
	.....	.....
<input type="checkbox"/> 4. Eudel:	.....	.....
	.....	.....
	.....	.....

- **AUTONOMI KOORDINAZIO EGITURAK**
  - 1. Gobernuaren Sailen arteko batzordea
  - 2. Instituzioen arteko batzordea
  - 3. Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeentzako laguntza hobea emateko Instituzioen arteko batzordea

**05.G EKINTZAREN KOSTUA AZALDU, MESEDEZ:**

Zuen erakundeak berak jarduera egiteko inbertitu duen kopurua: ..... Euro

Europako edota estatuko erakundeetatik etorritako kopurua: ..... Euro

**06.G** EKINTZA HORI ARLO EZBERDINETAN EMAKUMEEN EGOERA EZAGUTZEKO DIAGNOSTIKO BAT EGITEAN DATZA DENEAN, AIPATU ZEINTZUK IZAN DIREN LORTUTAKO EMAITZETATIK ERAKARRI IZAN DIREN EKINTZAK.:

.....

.....

.....

.....

.....

- GALDESORTA BIDALTZEN DUEN ERAKUNDEAK:.....
- HARREMANETARAKO PERTSONA ETA TELEFONOA: .....
- POSTA ELEKTRONIKOA:.....

## 01.G DESKRIBA EZAZU BURUTUTAKO EKINTZA AHALIK ETA ZEHATZEN:

.....

.....

.....

## 02.G AZAL EZAZU IV. PLANAREN BARRUAN ZEIN ARLORI DAGOKIO (BEGIRATU: EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN EBALUAZIOAN ERABILTZEKO MATERIALA):

- 1. IV. Plana ezartzeko neurriak
- 2. Berdintasunerako zerbitzu orokorren arloa
- 3. Kultura arloa
- 4. Hezkuntza arloa
- 5. Lan arloa
- 6. Gizarteratze arloa
- 7. Osasun arloa
- 8. Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro arloa

## 03.G ZURE IRITZIZ, BURUTUTAKO EKINTZA ZEIN NEURRITAN DATOR BAT IV. PLANETAN GOMENDATUTAKO EKINTZEKIN (BEGIRATU: EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN EBALUAZIOAN ERABILTZEKO MATERIALA)?:

- 1. Bai (IV. Planaren barruan jarduera horri lotu zaion identifikazio kodea idatzi):
- 2. Ez (hurrengo taulako datuak bete itzazu):

ARDATZA	Programa Zkia	Helburu Zkia
Mainstreaming		
Ahalduntzea		
Bateragarritasuna eta Erantzukizuna		
Emakumeen aurkako indarkeria		

\* Kolektibo edo kolektibo multzo jakin bati zuzendutako informazioko, komunikazioko eta/edo kontzientziazioko ekintza guztiak sartzen dira; esaterako, kanpainak egitea, parte-hartze prozesuak, konferentziak, jardunaldiak eta biltzarrak.

## 04.G EKINTZA BULTZATU D(IT)UTEN ERAKUNDE(AR)EN IZENA:

- EUSKO JAURLARITZA

SAILBURUORDETZA

- 1. Eusko Jaurlaritzako Saila(k): .....
- .....
- .....
- 2. Erakunde Autonomiaduna: .....
- .....
- .....
- 3. Elkarte Publikoa: .....
- .....
- .....
- 4. Eusko Jaurlaritzako bestelako Erakundea .....
- .....
- .....

- FORU ALDUNDIAK

SAILA

- 1. Arabako Foru Aldundia: .....
- .....
- .....
- 2. Bizkaiko Foru Aldundia: .....
- .....
- .....
- .....
- 3. Gipuzkoako Foru Aldundia: .....
- .....
- .....

- UDALAK

HERRIA

ARLOA

- 1. Araba: .....
- .....
- .....



**04.G jarraipena**

- 2. Bizkaia: .....  
.....  
.....
- 3. Gipuzkoa: .....  
.....  
.....
- 4. Eudel: .....  
.....  
.....

• **AUTONOMI KOORDINAZIO EGITURAK**

- 1. Gobernuaren Sailen arteko batzordea
- 2. Instituzioen arteko batzordea
- 3. Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeentzako laguntza hobea emateko Instituzioen arteko batzordea

**05.G EKINTZAREN KOSTUA AZALDU, MESEDEZ:**

Zuen erakundeak berak jarduera egiteko inbertitu duen kopurua: ..... Euro

Europako edota estatuko erakundeetatik etorritako kopurua: ..... Euro

**06.G EGINDAKO JARDUERAREN ZUZENENKO ONURADUN IZAN DIREN GIZA TALDEAK ADIERAZI. MESEDEZ, ERABIL ITZAZU ERANSKINAREN BARRUAN AGERTZEN DIREN KODEAK.**

.....  
.....  
.....

**07.G EZAUGARRI BEREZIAK DITUZTEN GIZA TALDEAK (ETORKINAK, ELBARRIAK...) DIRELA ETA, EGIN AL DA EGOKITZAPENEN BAT TREBAKUNTZA JARDUERAN?**

- 1. Bai (giza taldeak zehaztu): .....
- 2 . Ez

**08.G EKINTZA ANTOLATU ETA DISEINATZERAKO ORDUAN, JARDUERA JOMUGA DUTEN PERTSONEN BIZITZA PERTSONALA, FAMILIARRA ETA LABORALA ADOSTEN EDO BATERATZEN DITUZTEN NEURRIAK KONTUAN HARTU AL DIRA?**

- 1. Bai (zehaztu zein motatako neurriak):
- 2. Ez

**09.G JARDUERA ONARTZEN DUENEAN (HITZALDIAK, JARDUNALDIAK...), AZAL EZAZU EGINIKO JARDUERAN PARTE HARTU DUTEN GIZA TALDEKO EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN KOPURUA:**

GIZA TALDEAK	EMAKUME KOPURUA	GIZON KOPURUA
Administrazio Orokorrean ardura politikoa duten profesionalak		
Foru Administrazioan ardura politikoa duten profesionalak		
Herri Administrazioan ardura politikoa duten profesionalak		
Administrazio Orokorrean ardura teknikoa duten profesionalak		
Foru Administrazioan ardura teknikoa duten profesionalak		
Herri Administrazioan ardura teknikoa duten profesionalak		
Enplegu eta formakuntza arloko profesionalak		
Lan-Osasun arloko profesionalak		
Zuzenbide arloko profesionalak		
Zigor-erakundeetako profesionalak		
Polizietako profesionalak		
Ikastetxe eta Hezkuntza Zerbitzuetako profesionalak		
Osasun Zerbitzuetako profesionalak		
Kultur arloko profesionalak		
Gizarte Zerbitzuetako profesionalak		
Aukera berdintasun arloko profesionalak		
Askotariko diskriminazioa edota gizartean bazterturik geratzeko arriskuan dauden emakumeak		
Euskal gizarte orokorra		
Erakunde eta Elkarteak		
Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko giza taldeak		
Besteak		

**10.G AHAL DENEAN, AZAL EZAZU EKINTZAREN IRAUPENA (ORDU KOPURUA): .....**

- GALDESORTA BIDALTZEN DUEN ERAKUNDEAK:.....
- HARREMANETARAKO PERTSONA ETA TELEFONOA: .....
- POSTA ELEKTRONIKOA:.....

## 01.G **DESKRIBA EZAZU BURUTUTAKO EKINTZA AHALIK ETA ZEHATZEN:**

.....

.....

.....

## 02.G **AZAL EZAZU IV. PLANAREN BARRUAN ZEIN ARLORI DAGOKIO (BEGIRATU: EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN EBALUAZIOAN ERABILTZEKO MATERIALA):**

- 1. IV. Plana ezartzeko neurriak
- 2. Berdintasunerako zerbitzu orokorren arloa
- 3. Kultura arloa
- 4. Hezkuntza arloa
- 5. Lan arloa
- 6. Gizarteratze arloa
- 7. Osasun arloa
- 8. Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro arloa

## 03.G **ZURE IRITZIZ, BURUTUTAKO EKINTZA ZEIN NEURRITAN DATOR BAT IV. PLANETAN GOMENDATUTAKO EKINTZEKIN (BEGIRATU: EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN EBALUAZIOAN ERABILTZEKO MATERIALA)?:**

- 1. Bai (IV. Planaren barruan jarduera horri lotu zaion identifikazio kodea idatzi):
- 2. Ez (hurrengo taulako datuak bete itzazu):

ARDATZA	Programa Zkia	Helburu Zkia
Mainstreaming		
Ahalduntzea		
Bateragarritasuna eta Erantzukizuna		
Emakumeen aurkako indarkeria		

\* Kolektibo edo kolektibo multzo jakin baten berdintasun-politikak garatzeko edo betetzeko trebetasunak gaitzera eta sus-tatzera bideratutako ekintza guztiak sartzen dira.

## 04.G EKINTZA BULTZATU D(IT)UTEN ERAKUNDE(AR)EN IZENA:

- **EUSKO JAURLARITZA** **SAILBURUORDETZA**
    - 1. Eusko Jaurlaritzako Saila(k): .....
    - .....
    - .....
  - 2. Erakunde Autonomiaduna: .....
  - .....
  - .....
- 
- **FORU ALDUNDIAK** **SAILA**
    - 1. Arabako Foru Aldundia: .....
    - .....
    - .....
  - 2. Bizkaiko Foru Aldundia: .....
  - .....
  - .....
- 
- **UDALAK** **HERRIA** **ARLOA**
    - 1. Araba: .....
    - .....
    - .....

**04.G jarraipena**

- 2. Bizkaia: .....  
.....  
.....
- 3. Gipuzkoa: .....  
.....  
.....
- 4. Eudel: .....  
.....  
.....

• **AUTONOMI KOORDINAZIO EGITURAK**

- 1. Gobernuaren Sailen arteko batzordea
- 2. Instituzioen arteko batzordea
- 3. Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeentzako laguntza hobea emateko Instituzioen arteko batzordea

**05.G EKINTZAREN KOSTUA AZALDU, MESEDEZ:**

Zuen erakundeak berak jarduera egiteko inbertitu duen kopurua: ..... Euro

Europako edota estatuko erakundeetatik etorritako kopurua: ..... Euro

**06.G EGINDAKO JARDUERAREN ZUZENEKO ONURADUN IZAN DIREN GIZA TALDEAK ADIERAZI. MESEDEZ, ERABIL ITZAZU ERANSKINAREN BARRUAN AGERTZEN DIREN KODEAK.**

.....  
.....  
.....

**07.G EZAUGARRI BEREZIAK DITUZTEN GIZA TALDEAK (ETORKINAK, ELBARRIAK...) DIRELA ETA, EGIN AL DA EGOKITZAPENEN BAT TREBAKUNTZA JARDUERAN?**

- 1. Bai (giza taldeak zehaztu): .....
- 2 . Ez

**08.G EKINTZA ANTOLATU ETA DISEINATZERAKO ORDUAN, JARDUERA JOMUGA DUTEN PERTSONEN BIZITZA PERTSONALA, FAMILIARRA ETA LABORALA ADOSTEN EDO BATERATZEN DITUZTEN NEURRIAK KONTUAN HARTU AL DIRA?**

1. Bai (zehaztu zein motatako neurriak):
2. Ez

**09.G ADIERAZ EZAZU GIZA TALDE HAUETATIK ZENBAT EMAKUMEZKOK ETA ZENBAT GIZONEZKOK PARTE HARTU DUTEN PRESTAKUNTZA JARDUERAN:**

GIZA TALDEAK	EMAKUME KOPURUA	GIZON KOPURUA
Administrazio Orokorrean ardura politikoa duten profesionalak		
Foru Administrazioan ardura politikoa duten profesionalak		
Herri Administrazioan ardura politikoa duten profesionalak		
Administrazio Orokorrean ardura teknikoa duten profesionalak		
Foru Administrazioan ardura teknikoa duten profesionalak		
Herri Administrazioan ardura teknikoa duten profesionalak		
Englegu eta formakuntza arloko profesionalak		
Lan-Osasun arloko profesionalak		
Zuzenbide arloko profesionalak		
Zigor-erakundeetako profesionalak		
Polizietako profesionalak		
Ikastetxe eta Hezkuntza Zerbitzuetako profesionalak		
Osasun Zerbitzuetako profesionalak		
Kultur arloko profesionalak		
Gizarte Zerbitzuetako profesionalak		
Aukera berdintasun arloko profesionalak		
Askotariko diskriminazioa edota gizartean bazterturik geratzeko arriskuan dauden emakumeak		
Euskal gizarte orokorra		
Erakunde eta Elkarateak		
Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko giza taldeak		
Besteak		

**10.G EKINTZAREN IRAUPENA (GUZTIRA ZENBAT ORDU EMAN DIREN): .....**  
 .....

- GALDESORTA BIDALTZEN DUEN ERAKUNDEAK:.....
- HARREMANETARAKO PERTSONA ETA TELEFONOA: .....
- POSTA ELEKTRONIKOA:.....

### 01.G DESKRIBA EZAZU BURUTUTAKO EKINTZA AHALIK ETA ZEHATZEN:

.....

.....

.....

### 02.G AZAL EZAZU IV. PLANAREN BARRUAN ZEIN ARLORI DAGOKIO (BEGIRATU: EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN EBALUAZIOAN ERABILTZEKO MATERIALA):

- 1. IV. Plana ezartzeko neurriak
- 2. Berdintasunerako zerbitzu orokorren arloa
- 3. Kultura arloa
- 4. Hezkuntza arloa
- 5. Lan arloa
- 6. Gizarteratze arloa
- 7. Osasun arloa
- 8. Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro arloa

### 03.G ZURE IRITZIZ, BURUTUTAKO EKINTZA ZEIN NEURRITAN DATOR BAT IV. PLANETAN GOMENDATUTAKO EKINTZEKIN (BEGIRATU: EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN EBALUAZIOAN ERABILTZEKO MATERIALA)?:

- 1. Bai (IV. Planaren barruan jarduera horri lotu zaion identifikazio kodea idatzi):
- 2. Ez (hurrengo taulako datuak bete itzazu):

ARDATZA	Programa Zkia	Helburu Zkia
Mainstreaming		
Ahalduntzea		
Bateragarritasuna eta Erantzukizuna		
Emakumeen aurkako indarkeria		

\* Berdintasun-helburuak lortzeko lagungarri diren baliabideen —giza baliabideak, baliabide ekonomikoak, azpiegiturei dagozkionak edo bestelakoak— eta zerbitzuen —informazioko, aholkularitzako, laguntzeko zerbitzuak— kopurua areagotzera bideratutako ekintzak sartzen dira.

## 04.G EKINTZA BULTZATU D(IT)UTEN ERAKUNDE(AR)EN IZENA:

- EUSKO JAURLARITZA SAILBURUORDETZA
    - 1. Eusko Jaurlaritzako Saila(k): .....
    - .....
    - .....
  - 2. Erakunde Autonomiaduna: .....
  - .....
  - .....
- 
- FORU ALDUNDIAK SAILA
    - 1. Arabako Foru Aldundia: .....
    - .....
    - .....
  - 2. Bizkaiko Foru Aldundia: .....
  - .....
  - .....
- 
- UDALAK HERRIA ARLOA
    - 1. Araba: .....
    - .....
    - .....



**04.G**  
**jarraipena**

- 2. Bizkaia: .....  
.....  
.....
- 3. Gipuzkoa: .....  
.....  
.....
- 4. Eudel: .....  
.....  
.....

• **AUTONOMI KOORDINAZIO EGITURAK**

- 1. Gobernuaren Sailen arteko batzordea
- 2. Instituzioen arteko batzordea
- 3. Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeentzako laguntza hobea emateko Instituzioen arteko batzordea

**05.G EKINTZAREN KOSTUA AZALDU, MESEDEZ:**

Zuen erakundeak berak jarduera egiteko inbertitu duen kopurua: ..... Euro

Europako edota estatuko erakundeetatik etorritako kopurua: ..... Euro

**06.G EGINDAKO JARDUERAREN ZUZENEKO ONURADUN IZAN DIREN GIZA TALDEAK ADIERAZI. MESEDEZ, ERABIL ITZAZU ERANSKINAREN BARRUAN AGERTZEN DIREN KODEAK.**

.....  
.....  
.....

**07.G EZAUGARRI BEREZIAK DITUZTEN GIZA TALDEAK (ETORKINAK, ELBARRIAK...) DIRELA ETA, EGIN AL DA EGOKITZAPENEN BAT PRESTAKUNTZA JARDUERAN?**

- 1. Bai (giza taldeak zehaztu): .....
- 2 . Ez

## 08.G EKINTZA ANTOLATU ETA DISEINATZERAKO ORDUAN, JARDUERA JOMUGA DUTEN PERTSONEN BIZITZA PERTSONALA, FAMILIARRA ETA LABORALA ADOSTEN EDO BATERATZEN DITUZTEN NEURRIAK KONTUAN HARTU AL DIRA?

1. Bai (zehaztu zein motatako neurriak):
2. Ez

## 09.G INFORMAZIOA JASOTZEN DEN ZERBITZU EDO BALIABIDEAK ONARTZEN DUENEAN, AZAL EZAZU MODU ZUZENEAN ONURA ATERATZEN DUTEN GIZA TALDEKO EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN KOPURUA:

GIZA TALDEAK	EMAKUME KOPURUA	GIZON KOPURUA
Administrazio Orokorrean ardura teknikoa duten profesionalak		
Foru Administrazioan ardura teknikoa duten profesionalak		
Herri Administrazioan ardura teknikoa duten profesionalak		
Enplegu eta formakuntza arloko profesionalak		
Lan-Osasun arloko profesionalak		
Zuzenbide arloko profesionalak		
Zigor-erakundeetako profesionalak		
Polizietako profesionalak		
Ikastetxe eta Hezkuntza Zerbitzuetako profesionalak		
Osasun Zerbitzuetako profesionalak		
Kultur arloko profesionalak		
Komunikabide arloko profesionalak		
Gizarte Zerbitzuetako profesionalak		
Aukera berdintasun arloko profesionalak		
Askotariko diskriminazioa edota gizartean bazterturik geratzeko arriskuan dauden emakumeak		
Haurrak		
Gazteak		
Hirugarren Adina		
Euskal gizarte orokorra		
Erakunde eta Elkarteak		
Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko giza taldeak		
Besteak		

**10.G** **INFORMAZIOA EMATEN ARI DEN ZERBITZU EDO BALIABIDEA ANTOLATU EDO DISEINATU AURRETIK, ARAZOA AZTERTZEKO EDO ALDATU NAHI DEN EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA EGIN AL ZEN GENEROA AZTERKETA KATEGORIA BAT BEZALA HARTUZ?**

1.: Bai (Aipatu, zehazki, zertan datza zen eta nola burutu zen) .....

.....

.....

.....

.....

.....

2.: Ez (Aipatu, zehazki, zertan datza zen eta nola burutu zen) .....

.....

.....

.....

.....

.....

3.: Besteak (Zehaztu) .....

.....

.....

.....

.....

.....

- GALDESORTA BIDALTZEN DUEN ERAKUNDEAK:.....
- HARREMANETARAKO PERTSONA ETA TELEFONOA: .....
- POSTA ELEKTRONIKOA:.....

**01.G DESKRIBA EZAZU BURUTUTAKO EKINTZA AHALIK ETA ZEHATZEN:**

.....  
.....  
.....

**02.G AZAL EZAZU IV. PLANAREN BARRUAN ZEIN ARLORI DAGOKIO (BEGIRATU: EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN EBALUAZIOAN ERABILTZEKO MATERIALA):**

- 1. IV. Plana ezartzeko neurriak
- 2. Berdintasunerako zerbitzu orokorren arloa
- 3. Kultura arloa
- 4. Hezkuntza arloa
- 5. Lan arloa
- 6. Gizarteratze arloa
- 7. Osasun arloa
- 8. Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro arloa

**03.G ZURE IRITZIZ, BURUTUTAKO EKINTZA ZEIN NEURRITAN DATOR BAT IV. PLANETAN GOMENDATUTAKO EKINTZEKIN (BEGIRATU: EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN EBALUAZIOAN ERABILTZEKO MATERIALA)?:**

- 1. Bai (IV. Planaren barruan jarduera horri lotu zaion identifikazio kodea idatzi):
- 2. Ez (hurrengo taulako datuak bete itzazu):

ARDATZA	Programa Zkia	Helburu Zkia
Mainstreaming		
Ahalduntzea		
Bateragarritasuna eta Erantzukizuna		
Emakumeen aurkako indarkeria		

\* Berdintasunaren mesederako edozein arau sortzea edo egokitzea hartzen du barnean.

## 04.G EKINTZA BULTZATU D(IT)UTEN ERAKUNDE(AR)EN IZENA:

- **EUSKO JAURLARITZA** **SAILBURUORDETZA**
    - 1. Eusko Jaurlaritzako Saila(k): .....
    - .....
    - .....
  
  - 2. Erakunde Autonomiaduna: .....
  - .....
  - .....
- 3. Elkarte Publikoa: .....
  - .....
  - .....
- 4. Eusko Jaurlaritzako bestelako Erakundea .....
  - .....
  - .....
- 
- **FORU ALDUNDIAK** **SAILA**
  - 1. Arabako Foru Aldundia: .....
  - .....
  - .....
- 
2. Bizkaiko Foru Aldundia: .....
- .....
- .....
- .....
- 3. Gipuzkoako Foru Aldundia: .....
  - .....
  - .....
- 
- **UDALAK** **HERRIA** **ARLOA**
  - 1. Araba: .....
  - .....
  - .....

**04.G jarraipena**

- 2. Bizkaia: .....  
.....
- 3. Gipuzkoa: .....  
.....
- 4. Eudel: .....  
.....

• **AUTONOMI KOORDINAZIO EGITURAK**

- 1. Gobernuaren Sailen arteko batzordea
- 2. Instituzioen arteko batzordea
- 3. Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeentzako laguntza hobea emateko Instituzioen arteko batzordea

**05.G EKINTZAREN KOSTUA AZALDU, MESEDEZ:**

Zuen erakundeak berak jarduera egiteko inbertitu duen kopurua: ..... Euro

Europako edota estatuko erakundeetatik etorritako kopurua: ..... Euro

**06.G INFORMAZIOA EMATEN ARI DEN EKINTZA EDO ARAUA ANTOLATU EDO DISEINATU AURRETIK, ARAZOA AZTERTZEKO EDO ALDATU NAHI DEN EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA EGIN AL ZEN GENEROA AZTERKETA KATEGORIA BAT BEZALA HARTUZ?**

- 1. Bai (Aipatu, zehazki, zertan datza zen eta nola burutu zen)  
.....  
.....
- 2. Ez. Esan zergatik hartu zen erabaki hori  
.....  
.....

**06.G** jarraipena  3.: Besteak (zehaztu)

.....  
.....  
.....

**07.G** EGOKIA DENEAN, AZAL EZAZU AIPATURIKO ARAUAREN AURRETIK EGINIKO INPAKTUZKO EBALUAZIOA GENEROAREN ARABERA EGIN DEN:

- 1. Bai
- 2. Ez

**08.G** AURRETIK EGINIKO INPAKTUZKO EBALUAZIOA GENEROAREN ARABERA OINARRITZEN BADA, AZAL EZAZU EBALUATU IZAN DEN ARAUAN EA ZUZENTZEKO ALDAKETAK EGIN DIREN.

- 1. Bai
- 2. Ez

**09.G** AURREKO ERANTZUNA BAIEZKOA BADA, AZAL ITZAZU ZEIN MOTATAKO ALDAKETAK EGIN DIREN:

.....  
.....  
.....  
.....

**10.G** EGINIKO JARDUERAREN EZAUGARRIEK ONARTZEN DUTENEAN, AZAL EZAZU EMAKUMEZKOEN, GIZONEZKOEN EDO ERAKUNDEEN KOPURUA, ZEINAK AIPATUTAKO JARDUERAREN EGITEAZ MODU ZUZENEAN ONURA ATERA DUTEN:

- 1. Emakumeen kopurua: .....
- 2. Gizonen kopurua: .....
- 3. Erakundeen zenbakia: .....

- GALDESORTA BIDALTZEN DUEN ERAKUNDEAK:.....
- HARREMANETARAKO PERTSONA ETA TELEFONOA: .....
- POSTA ELEKTRONIKOA:.....

## 01.G DESKRIBA EZAZU BURUTUTAKO EKINTZA AHALIK ETA ZEHATZEN:

.....

.....

.....

## 02.G AZAL EZAZU IV. PLANAREN BARRUAN ZEIN ARLORI DAGOKIO (BEGIRATU: EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN EBALUAZIOAN ERABILTZEKO MATERIALA):

- 1. IV. Plana ezartzeko neurriak
- 2. Berdintasunerako zerbitzu orokorren arloa
- 3. Kultura arloa
- 4. Hezkuntza arloa
- 5. Lan arloa
- 6. Gizarteratze arloa
- 7. Osasun arloa
- 8. Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro arloa

## 03.G ZURE IRITZIZ, BURUTUTAKO EKINTZA ZEIN NEURRITAN DATOR BAT IV. PLANETAN GOMENDATUTAKO EKINTZEKIN (BEGIRATU: EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN EBALUAZIOAN ERABILTZEKO MATERIALA)?:

- 1. Bai (IV. Planaren barruan jarduera horri lotu zaion identifikazio kodea idatzi):
- 2. Ez (hurrengo taulako datuak bete itzazu):

ARDATZA	Programa Zkia	Helburu Zkia
Mainstreaming		
Ahalduntzea		
Bateragarritasuna eta Erantzukizuna		
Emakumeen aurkako indarkeria		

\* Kolektibo edo kolektibo multzo jakin baten berdintasun-politikak garatzeko edo betetzeko trebetasunak gaitzera eta sustatzera bideratutako ekintza guztiak sartzen dira.



## 04.G EKINTZA BULTZATU D(IT)UTEN ERAKUNDE(AR)EN IZENA:

- **EUSKO JAURLARITZA** **SAILBURUORDETZA**
    - 1. Eusko Jaurlaritzako Saila(k): .....
    - .....
    - .....
  - 2. Erakunde Autonomiaduna: .....
  - .....
  - .....
- 
- **FORU ALDUNDIAK** **SAILA**
    - 1. Arabako Foru Aldundia: .....
    - .....
    - .....
  - 2. Bizkaiko Foru Aldundia: .....
  - .....
  - .....
- 
- **UDALAK** **HERRIA** **ARLOA**
    - 1. Araba: .....
    - .....
    - .....

**04.G jarraipena**

- 2. Bizkaia: .....  
.....
- 3. Gipuzkoa: .....  
.....
- 4. Eudel: .....  
.....

• **AUTONOMI KOORDINAZIO EGITURAK**

- 1. Gobernuaren Sailen arteko batzordea
- 2. Instituzioen arteko batzordea
- 3. Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeentzako laguntza hobea emateko Instituzioen arteko batzordea

**05.G EKINTZAREN KOSTUA AZALDU, MESEDEZ:**

Zuen erakundeak berak jarduera egiteko inbertitu duen kopurua: ..... Euro

Europako edota estatuko erakundeetatik etorritako kopurua: ..... Euro

**06.G INFORMAZIOA JASOTZEN DEN EBALUAZIOA EDO JARRAIPENA NORK EGIN DU?**

- 1. Instituzio berak
- 2. Kontsultora edo enpresa batek
- 3. Biek
- 4. Bestek (zehaztu zeinek):

**07.G AURRETIK EGINIKO INPAKTUZKO EBALUAZIOA GENEROAREN FUNTZIOAN OINARRITZEN BADA, AZAL EZAZU EBALUATU IZAN DEN ARAUAN EA ZUZENTZEKO ALDAKETAK EGIN DIREN.**

- 1. Bai
- 2. Ez

**08.G AURREKO ERANTZUNA BAIEZKOA BADA, AZAL EZAZU ZEIN MOTATAKO ALDAKETAK BARNERATU DIREN:**

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

**BERDINTASUN  
POLITIKEN  
HELBURUAK  
LORTZEKO,  
IV. PLANEAN  
PLANTEATZEN DIREN  
BEHARREZKO ETA  
GOMENDATUTAKO  
EKINTZAK**

## **2.E**

**BEHARREZKO NEURRIAK**

### **2.1.E**

**PLANA EZARTZEKO  
NEURRIAK**

Dokumentu honetan proposatutako berdintasun-politiken helburuak betetze aldera, plana erakunde-maila guztietan ezartzea eta ahaleginak koordinatzea (dela erakundea osatzen duten sailen artean, dela erakundeen beraien artean) ahalbidetzeko egitura jakin batzuk beharrezkoak dira.		
<b>BEHARREZKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Zerbitzuak eta Baliabideak	OM.0.1	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitate administratiboak sortu Autonomia Erkidego, Foru eta Tokiko Administrazioan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	OM.0.2	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sailen arteko koordinazio egiturak sortzea (Sailen arteko Batzordea, Berdintasunerako foru-organismoak edo foru-unitate administratiboak, Berdintasunerako tokiko organismoak edo unitate administratiboak)
Zerbitzuak eta Baliabideak	OM.0.3	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Erakunde arteko ezartze egiturak sortzea (emakumeen eta gizonen berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea).
Zerbitzuak eta Baliabideak	OM.0.4	Emakumeek eta mugimendu asoziatiboak politika publikoetan parte hartzeko Gizarte Ezarpeneko egiturak sortzea.

**BERDINTASUNERAKO ZERBITZU  
OROKORREN ARLOA**

Arlo honen xedea honako hau da: erakundeek berdintasun-politikak garatzeko oinarrizkoak diren zerbitzuak definitzen laguntzea. Hain justu, arlo honetan biltzen dira berdintasun-politiken arduradunentzat gomendatutako lan-eremuak eta jarduteko helburu espezifikoak; bi multzo handitan sar ditzakegu:

Lehenengo lan-eremua honako hau da: administrazioaren barruan, berdintasun-politikak garatzeko baldintza egokiak sortzea. Sail guztien zereginetan genero-ikuspegia behar bezala ezarri behar da eta ahalduntzea, erantzunkidetasuna eta familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea, eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borroka sustatzearen

alde lan egin behar dute, baina horretarako, ezinbestekoa da zerbitzu orokor jakin batzuk eskaintzea, berdintasunaren aldeko helburuak garatzeko babesa, koordinazioa, prestakuntza eta aholkularitza emateko, baita hori guztia lortzeko beharrezkoak diren tresna eta baliabideak ere.

Bigarren lan-eremu handia honako hau da: gizarte-sareari zuzendutako ekintza zuzenak egitea, berdintasunerako politikei buruzko ebaluazioan, hausnarketan eta horien ezarpenean duen interes-maila, jakintza, inplikazioa eta parte-hartzea areagotze aldera. Esan gabe doa lan-eremu hori ez dela eragozpen sail bakoitzak berezko prozesuak gara ditzan emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea sustatzeko; aitzitik, sailen eta gizarte-eremuaren arteko loturaren mesederako zerbitzuak eta tresnak sortzea dakar, beste erakunde-esparruetatik at geratzen diren helburuak garatuta.

Ardatz guztietan garatzen dira bi eremu horiek, jarraian deskribatuko dugun moduan.

## MAINSTREAMING ARDATZA

<b>1M HELBURUA:</b> Genero-ikuspegia integratzeko ahalmena ematea erakundeari.		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>1M. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK</b>
Zerbitzuak eta Baliabideak	OM.1.1	Genero-ikuspegia etorkizunean ezartzeari begira, sailetan dagoen ezarpen-mailaren, sentikortasunaren eta iragazkortasunaren diagnostikoa egitea. Diagnostiko horretatik gabeziak eta premiak ondorioztatuko dira, hau da, erakundea orokorrean gaitzeko ezarri behar diren neurriak, egingarritasun-ordenaren eta eragin positiboa izateko gaitasunaren arabera lehenetsita. Azterketa horren osagarri, administrazioaren maila guztietan eskura dauden edo egon daitezkeen baliabideen azterketa eta bilketa egingo da, diseinaturiko ekintzak diseinatzeko, ezartzeko eta horiei jarraipena egiteko lagungarri izango da.
Zerbitzuak eta Baliabideak	OM.1.2	Genero-ikuspegiaren ezarpena koordinatzea eta bultzatzea, berdintasun-politikak koordinatzeko egituretan aholkularitza, laguntza eta integrazioa eskainita honako politika hauen arduradunei: garapenerako lankidetzak, gazteria, euskara, ingurumena, lehendakaritza, zerbitzu juridiko, ogasuna eta egoki irizitako bestelako zeharkako plan edo politika ororen arduradunei.

<b>2M. HELBURUA:</b> Gizarteak berdintasun-politiketan duen interesa eta inplikazioa areagotzea.		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>2M. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK</b>
Sentsibilizazioa	OM.2.1	Berdintasun-politikak ezagutarazteko prozesuak areagotzea gomendatzen da, honako hauen bitartez: komunikazio-kanpainak eginda, komunikabideetan berdintasunarekin loturiko gaiak (prentsan, irratian eta telebistan eztabaidak, magazinak, informatiboak eta albisteak) indartuta agertzea, berdintasun-politikak eragiten dituzten diagnostikoei buruzko konferentziak, jardunaldiak eta biltzarrak eginda, informazio-buletinak argitaratuta...
Jakintza	OM.2.2	Herritarren iritziei buruzko informazio-bilketari bultzada ematea ere gomendatzen da, bai metodologia kuantitatiboan (inkestak) bitartez, baita kualitatiboan (eztabaida-mahaia, lan-taldearen foroak) bitartez ere.
Sentsibilizazioa	OM.2.3	Herritarrei arreta emateko prozesuak diseinatzea eta ezartzea komeni da, egiten diren kontsultei eta ekarpenei behar bezala erantzutea ahalbidetze aldera, dela eguneroko lanean, dela parte-hartze prozesuetan.

## AHALDUNTZEAREN ARDATZA

<b>1A. HELBURUA:</b>		
Administrazioaren barruko prozesuak areagotzea eta indartzea, politika publikoen definizioan, jarraipenean eta ebaluazioan emakumeek parte har dezaten.		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>1A. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK</b>
Zerbitzuak eta Baliabideak	0A.1.1	Erakundearen barruan parte-hartze prozesuak egin daitezzen sustatzea, honako gai eta/edo eremu politiko hauek lehenetsita: emakumeen parte-hartzeak haien ahalduntzea erraztu, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna areagotuko dutenak; esate baterako, aurrekontuak lantzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	0A.1.2	Emakume-elkarteen erregistroa sortzea, eta parte-hartze prozesuak egin behar dituzten sail guztiei helaraztea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	0A.1.3	Erakundeetako parte-hartze prozesuen hiru-hileko egutegia osatzea eta erregistroan sartutako elkarte guztietara igortzea; halaber, erregistro horretan sartuko dira banako moduan parte hartzen duten emakumeek ere, etorkizuneko parte-hartze prozesuetara gonbidatze aldera.

<b>2A. HELBURUA:</b>		
Berdintasunaren aldeko asoziazio-sarea areagotu eta indartzea.		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>2A. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK</b>
Zerbitzuak eta Baliabideak	0A.2.1	Berdintasunerako emakume elkarteak osatzeko eta erregistratzeko aholkularitza.
Zerbitzuak eta Baliabideak	0A.2.2	Diru-laguntzen programak berdintasunerako emakume elkarreentzat.
Sentsibilizazioa Baliabideak	0A.2.3	Berdintasunerako emakume elkarreentzat Autonomia Erkidegoaz gain dauden administrazio-mailetako baliabideei buruzko informazioa eman.
Zerbitzuak eta Baliabideak	0A.2.4	Berdintasunerako emakume elkarreentzat lokalen edo/eta materialen mailegua.
Zerbitzuak eta Baliabideak	0A.2.5	Emakumeak ahalduntzeko eskolak sor daitezzen sustatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	0A.2.6	Gizonen lan-taldeak sor daitezzen sustatzea, maskulinitasun-ereduen gainean, eta berdintasunean oinarritutako banakako eta gizarte-arloko harremanen gainean.
Prestakuntza	0A.2.7	Berdintasunaren alde aritzen diren elkarte, talde eta gizarte-eragileek bat egiteko, hausnartzeko eta esperientziak elkartrukatzeko jardunaldiak ezartzea
Zerbitzuak eta Baliabideak	0A.2.8	Asoziazio-mugimenduaren eta berdintasun-politikatako arduradunen artean harremanetarako eta komunikaziorako mekanismo egonkorak ezartzea, jakintzak elkarri helaraztearren eta asoziazio-mugimendua indartzeko neurriak eguneratzearren.

**BATERAGARRITASUNA ETA  
ERANTZUNKIDETASUNAREN  
ARDATZA**

<b>1B. HELBURUA:</b>		
Gizarte-antolamenduaren aldetari lagunduko dioten tresnak sortzea, emakumeen eta gizonen arteko erantzunkidetasunaren alde, eta norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitearen alde.		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>1B. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK</b>
Jakintza	OB.1.1	Bateragarritasunari dagokionez, gizarte-zerbitzuak zein egoeratan dauden eta horien arteko koordinazioa ere ikustea ahalbidetuko duen mapa bat sortzea, betiere norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza modu eraginkorrean bateratzea lortzeari dagokionez. Zerbitzuen sorreran inplikaturik dauden sail eta arloei diagnostiko koordinatu bat erraztea da, udal-mailan bateragarritasun-jardunetako lehenetsuei buruzko jakintza errazteko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	OB.1.2	Erakundearen barruan, sailen arteko eztabaidarako egiturak sortzea, bateragarritasun-zerbitzuak koordinatzea sustatzearen.
Zerbitzuak eta Baliabideak	OB.1.3	Bateragarritasun-zerbitzuak sortzeko erakundearen arteko akordioak sustatzea, egindako diagnostikoetatik abiatuta.
Zerbitzuak eta Baliabideak	OB.1.4	Norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea sustatzeko zerga-neurriak ezartzea.
Jakintza	OB.1.5	Zaintza eta ugalketa lanaren balio ekonomikoa aztertzea eta ezagutaraztea.

<b>2B. HELBURUA:</b>		
Erantzunkidetasunaren aldeko erronkei eta aurrerabideei dagokienez, gizartearen jakintza-maila, inplikazioa eta parte-hartzea areagotzea.		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>2B. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK</b>
Sentsibilizazioa	OB.2.1	Gizonei zuzendutako prestakuntza eta sentsibilizazio ikastaroak egitea, erantzunkidetasunaren inguruko jakintzak eta sentikortasuna areagotze aldera; emakumeei zuzendutako ikastaroetan, familiaren eta lan-arloko bizitza garatzeaz gain, norberaren bizitza garatzearen garrantzia ikusaraztea.
Sentsibilizazioa	OB.2.2	Gizarte-antolamendu berrirantz aurrera egiteko eta erantzunkidetasun-maila handiagoa lortzeko formulei buruz eztabaidatzeko foroak, jardunaldiak eta lan-taldeak antolatzea.
Sentsibilizazioa	OB.2.3	Gizonengan lan erantzunkidea sustatzeko komunikazio-kanpainak egitea.
Sentsibilizazioa	OB.2.4	Erantzunkidetasunean gizonen inplikazioa aztertzekeo tailerrak eta jardunaldiak egitea.

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. HELBURUA:		
Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan administrazioaren koordinazioa indartzea eta hobetzea.		
Tresna	ID	1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK
Zerbitzuak eta Baliabideak	01.1.1	Sailen eta erakundeen arteko koordinazio-egiturak sortzea, indarkeriaren aurkako borroka koordinatze aldera.
Jarraipena	01.1.2	Jardun Protokoloaren eragina aztertzea.
Jakintza	01.1.3	Ikerketak egitea, biktimei harrera hobea ematea eta arreta-zerbitzu gehiago garatzea ahalbidetuko duten metodologia egokiak dituzten parte-hartze prozesu eta guzti.
Zerbitzuak eta Baliabideak	01.1.4	Prebentzio-neurri berriak eta/edo hobekak aztertzea eta sustatzea.

2. HELBURUA:		
Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio-kanpainak egitea.		
Tresna	ID	2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK
Sentsibilizazioa	01.2.1	Prentsan, irratan eta telebistan komunikazio-kanpainak sortzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	01.2.2	Gizarte-eztabaida sustatzea, gai horren inguruko eztabaidak izaten diren irratiko eta telebistako saioen kopurua areagotuta.
Sentsibilizazioa	01.2.3	Profesionalen lana agerian uztea.
Sentsibilizazioa	01.2.4	Tratu txarrak ematen dizkion laguna utzi eta/edo salatzeko erabakia hartzen duenak zer egin eta nora jo dezakeen jakiteko informazioa errazago lortzea.



Jarraian ekintza-katalogoa aurkeztuko dugu, EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planaren seigarren kapitulua osatzen duten arloetan ezarritako helburu guztiak erdiesteko gomendaturiko ekintzak barnean hartuta.

Gomendatutako estrategiak xehetasun handiagoz eta zehatzago garatuko ditugu, eta ekintza txertatzen den jardun-tresna motaren identifikazioa ere txertatu dugu. Hain justu, sei tresna mota definitu ditugu eta horien arabera sailkatuko ditugu erakundeetako jardun mota guztiak:

- Jakintza: Gai jakin baten inguruko jakintza areagotzera bideratutako ekintzak sartzen dira; hala nola mota guztietako ikerketak, azterlanak eta azterketak.
- Sentsibilizazioa: Kolektibo edo kolektibo multzo jakin bati zuzendutako informazioko, komunikazioko eta/edo kontzientziazioko ekintza guztiak sartzen dira; esaterako, kanpainak egitea, parte-hartze prozesuak, konferentziak, jardunaldiak eta biltzarrak.
- Prestakuntza: Kolektibo edo kolektibo multzo jakin baten berdintasun-politikak garatzeko edo betetzeko trebetasunak gaitzera eta sustatzera bideratutako ekintza guztiak sartzen dira.
- Zerbitzuak eta Baliabideak: Berdintasun-helburuak lortzeko lagungarri diren baliabideen —giza baliabideak, baliabide ekonomikoak, azpiegiturei dagozkionak edo bestelakoak— eta zerbitzuen —informazioko, aholkularitzako, laguntzeko zerbitzuak— kopurua areagotzera bideratutako ekintzak sartzen dira.
- Arauak: Berdintasunaren mesederako edozein arau sortzea edo egokitzea hartzen du barnean.
- Jarraipena egitea: Ekintza edo arau baten betetze-maila, arrakasta edo porrota neurtzeko ekintza guztiak sartzen dira; esate baterako prozesuaren, emaitzen edo eraginaren ebaluazioak.

Berdintasun-politiken programazioa errazteko xedea du katalogo honek, eta eskaintzen dituen sistematika eta egituraketa oinarri hartuta, esku-hartze planak diseina daitezke.

## KULTURAKO EKINTZAK

### MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1M–: GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA KULTURA ARLOETAN		
1M.1. HELBURUA: Kultura-jarduerak genero-ikuspegiari jarraiki planifikatzen eta betearazten dituzten Administrazioetako kultura-arloen kopurua handitzea.		
1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Prestakuntza	1M.1.1.	Administrazioko langileei aukera berdintasunaren inguruko prestakuntza ematea, programatzen diren kulturaren arloko programen eta jardueren planifikazioan eta garapenean genero-ikuspegia txertatzeko gai izan daitezen.
Jakintza	1M.1.2.	Administrazioko eta azpikontratutako enpresetako langileentzat, barneko ezagutarazpen-gida bat lantzea eta zabaltzea, kulturaren arloko jarduerak eta programak diseinatu, planifikatu eta ezartzeko jarraibide eta praktika onak bilduta.
Jakintza	1M.1.3.	Kulturaren eremuan, emakumeen zaletasunak, itxaropenak, premiak eta interesak agerian uzteko diagnosiak egin daitezen sustatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.4.	Genero-ikuspegia integratzen duten plan, jarduera, programa eta arauak gauza daitezen sustatzea, helburuaren kontzeptuak mugatzean definitutako irizpideei jarraiki.
Jarraipena	1M.1.5.	Euskal administrazio publikoetako kultura-arloek ezarritako plan, jarduera, programa eta arauen genero-eragina ebalua dadin sustatzea.
Sentsibilizazioa	1M.1.6.	Administrazioak kontratuak esleitzeko garaian, kontratatutako erakundea genero-ikuspegia txertatzera behartzen duen barne-araudia betetzen dela bermatzea eta ezagutaraztea, kultura-jarduerak diseinatu, planifikatu eta garatzean.
Prestakuntza	1M.1.7.	Gizartearen eta kulturaren arloko animazioko eta aisialdiko begiraleei eta zuzendariari prestakuntza ematea, genero-ikuspegia txertatutako jarduerak diseinatu, planifikatu, dinamizatu eta ebaluatzeko.
Jarraipena	1M.1.8.	Genero-ikuspegitik begiratuta, kulturaren arloko plan, arau, jarduera eta programak diseinatu, planifikatu eta ezartzeko praktika onei buruzko lan-mahaiak egitea, administrazio publikoen jardunean koordinazioa sustatuta eta gida eguneratuta.

## AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA – 1A–:		
EMAKUMEEK PRESENTZIA ETA PARTE–HARTZEA IZATEA KIROLAREN EREMUAN		
1A.1. HELBURUA:		
Bereizketa bertikala eta horizontala murriztea kirol-arlo eta -organismo publiko eta pribatuetan.		
1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK:		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.1.1.	Euskal administrazioetako kirol-arloetan eta -organismoetan, eta kirol-klubetan eta -federazioetan dagoen bereizketa horizontala eta bertikala agerian utziko duen diagnostikoa egiteari bultzada ematea, eta jarduteko gomendioak ematea.
Araudia	1A.1.2.	Kirolaren Urteko Sariak emateko epaimahaietan emakumeen eta gizonen presentzia eta parte-hartze orekatua ziurtatuko duen araudia garatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.3.	Berdintasunerako eragileak edo aholkularitza-zerbitzuak kontratatze laguntza ekonomikoak, kirolaren eremuan eta kirol-sistemaren hierarkia-eskala osoan (teknikariak, entrenatzaileak, kirol-epaileak eta kudeatzaileak), lanbide maskulinizatuetan emakumeen presentzia areagotzea bultzatzeko neurriak hartzeko edo berdintasun planak egiteko garaian lagun dezaten.
Sentsibilizazioa	1A.1.4.	Euskal administrazioetako kirol-arloetako eta -organismoetako, eta kirol klubetako eta federazioetako politikariak eta teknikariak sentsibilizatzeko jarduerak egitea, egindako diagnosiaren emaitzak eta erabilgarri dauden baliabideak ezagutarazteko, kirolaren eremuan eta kirol-sistemaren hierarkia-eskala osoan (teknikariak, entrenatzaileak, kirol-epaileak eta kudeatzaileak), lanbide maskulinizatuetan emakumeen presentzia areagotzea bultzatzeko neurriak edo berdintasun planak ezartzeko.
Jarraipena	1A.1.5.	Euskal administrazioetako kirol-arlo eta -organismoen, nahiz kirol-federazio eta -klubei ebaluazio-txostenak eskatzea, bereizketa horizontala eta bertikala ezabatzeko hartutako neurrien gainean.

<b>1A.2. HELBURUA:</b>		
Emakumeen eta gizonen kirol-praktika dibertsifikatzea, kirol maskulinizatuetan emakumeen sarbidea eta kirol feminizatuetan gizonen sarbidea ahalbidetuta.		
<b>A ESTRATEGIA:</b>		
<b>1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1A.2.A.1.	Genero-ikuspegitik begiratuta, kirolean (batik bat, euskal herri-kiroletan) emakumeen bilakaera, historia eta ibilbidea aztertzea, ikuskera androzentrikoa agerian utzita. Emakume kirolarien lorpenak eta ibilbidea agerian utziko dituzten ezagutarazteko eta zabalkundeko materialak sortzea.
Jakintza	1A.2.A.2.	Kirol federatuan dagoen genero-aldean eta, batik bat, emakumeen kirol-jarduerak lortzen duen babes txikian eragiten duten faktoreen gaineko ikerketa egitea.
Prestakuntza	1A.2.A.3.	Kirol-klubetako eta -federazioetako zuzendaritzako langileei prestakuntza ematea, aukera-berdintasunean oinarrituta, emakumeek kirol guztietarako sarbidea izan dezaten eragozpenak gainditzeko eta kirol-azpiegiturak egokitzeko (ikusuntu ergonomikotik eta funtzionaletik begiratuta).
Araudia	1A.2.A.4.	Emakumei eta gizoni zuzendutako sariak eta ordainsariak orekatzearren, diruz lagundutako kuota-sistema ezartzea.
Araudia	1A.2.A.5.	Komunikabide publikoetan gutxieneko kuota ezartzea, kirol-emankizunen %30 emakumeen kirol-emankizunak izan daitezen.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.A.6.	Emakumeen nahiz gizonen kirol-jardueri babes ematea, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.A.7.	Emakumeak gehiago diren kirol modalitateentzako laguntza publikoak ematea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.A.8.	Emakumeen nahiz gizonen kirol-jardueri emandako babesetan zerga-pizgarriak ezartzea, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.A.9.	Emakumeek eta gizonen egiten dituzten kirol-jarduerak dibertsifikatzeko laguntza publikoak ematea.
<b>B ESTRATEGIA:</b>		
<b>1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1A.2.B.1.	Eskolako eta eskolaz kanpoko kirolaren eremuan, genero-aldea izateko eragiten duten faktoreak ikertzea, eta batik bat, generoaren arabera gizarte-erakuntzan oinarrituta, neska-mutilen kirol-praktika mugatzen duten faktoreak.
Sentsibilizazioa	1A.2.B.2.	Jarduera fisikoan eta kirol-jardueran aukera berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea gurasoak, garatzen duten hezkuntza-lanean neska-mutilen kirol-praktika dibertsifikatua susta dezaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.B.3.	Kirolaren eta ariketa fisikoan eremuan, aukera berdintasunean oinarrituriko prestakuntza diruz laguntzea gorputz-hezkuntzako irakasleei, eskola-kiroleko eta aisialdiko begiraleei, eta entrenatzaileei, garatzen duten hezkuntza-lanean neska-mutilen kirol-praktika dibertsifikatua susta dezaten.
Jarraipena	1A.2.B.4.	Hezkuntzaren eremuan egindako kanpainen eta prestakuntzaren jarraipena egitea, eta eskola-eremuan genero-aldeari buruzko txostenak eskatzea.

### 1A.3. HELBURUA:

Parte-hartze kirolak egiten dituzten emakumeen proportzioa areagotzea, baita haien interesen arabera kirol-praktika hautatzeko aukerak ere.

#### 1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.3.1.	Kirol motari dagokionez, emakumeen eta gizonen interes eta aukera bereizgarrien inguruko ikerketa egitea, administrazioek egiten duten kirol-eskaintzan sartu gabeko motak identifikatuta.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.2.	Udal-kiroldegietako eta beste guneetako kirol-jardueren eta atsegin hartzeko jardueren programazioak egokitzea, emakumeek modu aktiboan parte hartuta egindako azterlana abiapuntu izanik.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.3.	Udal-kiroldegietako zerbitzuak, ekipamenduak eta guneak egokitzea emakumeen eta gizonen premien arabera, betiere aukera-berdintasuna errespetatuta.
Jarraipena	1A.3.4.	Udal-kiroldegietako kirol-eskaintzaren jarraipena egitea, baita zerbitzuak, ekipamenduak eta guneak emakumeen eta gizonen premia, zaletasun eta interes bereizgarrietarako egokitzearena ere.

**2. AHALDUNTZE PROGRAMA -2A-:  
EMAKUMEEK PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA IZATEA  
KULTURAREN ETA ARTEAREN EREMUAN**

**2A.1. HELBURUA:**

Emakumeen kulturaren eta artearen arloko sorkuntza handitzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista sustatzen duena ere.

**2A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK**

<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.1.	Emakumeentzako kulturagune erreferenteak sortzea, honako zerbitzu hauek barnean hartuta: - Ikertzeko, aholkularitza emateko eta dokumentazio feministako zerbitzua. - "Ikuspegi feministatik ikertzea" Prestakuntzagunea. - Kultura kontsumitzen duten emakumeentzako gunea. - Emakume artisten arteko hausnarketarako eta topaketarako gunea.
Jarraipena	2A.1.2.	Kultura-eremu guztietan emakumeek eta gizonen sortutako arte-produkzioen jarraipena eta azterketa egitea.
Araudia	2A.1.3.	Emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatzea, parekotasuna lortze aldera, euskal administrazio publikoak sustatutako edo diruz lagundutako sariak (artearen eta, literaturaren esparruan) emateko osatzen diren epaimahai guztietan, baita fondoak erosteko sortzen diren antzeko organoetan ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.4.	Kulturaren diziplina guztietan, genero-azterketak egiteko ikerketa-bekak ematea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.5.	Emakume artista gazteei bekak ematea obra garatzeko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.6.	Emakumeen kultura-sorkuntza eta pentsamolde feminista sustatzen duten argitalpenei, hitzaldiei, erakusketei, bideoei laguntzak ematea.
Jakintza	2A.1.7.	Historian zehar, gizonen eta emakumeen kultura sortzeko izan dituzten moduak, emakumeen kulturaren ondareari egindako ekarpen historikoak ikertzea eta sistematizatzea, euskal kulturaren mundua bereziki aztertuta.
Sentsibilizazioa	2A.1.8	Kultura-sorkuntzaren eta emakumeen inguruko eztabaida publikoa sustatzea, eztabaida-foroak eta topaketak antolatuta, emakumeen kulturaren munduari egindako ekarpen historikoa ezagutarazita, eta historian zehar emakumeen kultura sortzeko izan dituzten moduak balioetsita.
Sentsibilizazioa	2A.1.9.	Emakume sortzaileen eta artisten topaketak, jardunaldiak antolatzea, euren lana gehiago balioesteko, esperientziak elkartrukatzeko, eta sareak sortzeko eta egiteko moduak sistematizatzea.
Sentsibilizazioa	2A.1.10.	Ezagutarazteko jarduera guztien barnean hartzea honako hauek: Administrazioak egiten edo bultzatzen dituen kultura- eta arte-produkzioak, emakumeen egindako lanak eta obrak, baita emakumeen kulturaren munduari egindako ekarpena jasotzen dutenak ere.

### 3. AHALDUNTZE PROGRAMA –3A–: EMAKUMEEK PRESENTZIA ETA PARTE–HARTZEA IZATEA KOMUNIKABIDEETAN

#### 3A.1. HELBURUA:

Komunikabideetan emakumeen parte-hartzea areagotzea.

#### 3A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	3A.1.1.	Titulartasun publikoa eta pribatua duten komunikabideetan diagnosiak egitea, emakumezko eta gizonezko kazetarien egoera agerian uzteko, eta bereizketa bertikala eta horizontala jakinarazteko.
Araudia	3A.1.2.	Komunikabide publikoetan parekotasuna izatera behartzen duen araudia sortzea, sexuen arteko alderik (+ %20) egon ez dadin.
Jarraipena	3A.1.3.	Komunikabide publikoetan parekotasun-araudiaren betetzearen jarraipena egitea, sexuen arteko alderik (+ %20) egon ez dadin.
Jakintza	3A.1.4.	Titulartasun publikoa duten komunikabide guztietan aukera berdintasuneko planak egitea.
Jarraipena	3A.1.5.	Komunikabide publikoetan, urtean behin berdintasun-ebaluazioa egin dadin sustatzea eta araudia betetzen dela egiaztatzea.
Prestakuntza	3A.1.6.	Aukera berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren inguruko prestakuntza ematea titulartasun publikoa duten komunikabideetako zuzendariak eta langileei, baita sexuen arteko alderik (+ %20) egon ez dadin, komunikabide publikoetan parekotasuna izatera behartzen duen araudiari buruzko informazioa ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	3A.1.7.	Komunikabide pribatuetako zuzendariak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, enpresetan berdintasun planak eta diagnosiak abiaraz ditzaten, eta horretarako dauden zerbitzuen eta laguntzen berri emanda.
Zerbitzuak eta Baliabideak	3A.1.8.	Berdintasunerako eragileak edo aholkularitza-zerbitzuak kontratatzeke laguntza ekonomikoak ematea komunikazio-enpresei, berdintasun planak eta diagnosiak garatzeko, edo emakumeen parte-hartzea areagotu eta dibertsifikatuko duten neurriak ezartzeko, dela erantzukizun handiko mailatan, dela komunikabideen zeregin, atal edo arlo guztietan.
Jarraipena	3A.1.9.	Titulartasun pribatuko komunikabideei emakumeen eta gizonen parte-hartzearen adierazleen inguruko txostenak eskatzea.

<b>3A.2. HELBURUA:</b>		
Komunikabideetako saioetan emakumeen presentzia areagotzea, politikaren, gizartearen eta kulturaren arloko jardueretan aukera-berdintasunean duten presentzia agerian uztearren eta haien ahalduntzeari laguntzearren.		
<b>3A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Zerbitzuak eta Baliabideak	3A.2.1.	“Generoa eta Komunikazioa” arloko adituaren irudia sortzea, komunikabide publikoetan genero-ikuspegia txertatzen dela eta aukera berdintasuna errespetatzen dela bermatzeko.
Araudia	3A.2.2.	Komunikabide publikoek nahitaez betetzeko araudia garatzea, guztien intereserako gaiak eztabaidatzen diren saioetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua arautzeko.
Jakintza	3A.2.3.	Hainbat gaitako emakume adituekin datu-basea sortzea, emakume horiek ezagutaraztearren eta komunikabideetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzearren.
Sentsibilizazioa	3A.2.4.	Honako hauek ezagutaraztea eta horiei buruzko informazioa ematea komunikabide publikoetako eta pribatuetako profesionalen artean: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen komunikabideei buruzko araudia; eta titulartasun publikoa duten komunikabideetako saioetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatera, eta zenbait gaietako emakume adituen datu-basea ematera behartzen duen araudia, betiere saio horietan guztientzat interesgarriak diren gaiak eztabaidatzen badira.
Jarraipena	3A.2.5.	Berdintasunerako Legearen araudia betetzen dela egiaztatzea eta horren jarraipena egitea; araudi horren arabera, titulartasun publikoa duten komunikabideek, euskal administrazioek, organismo autonomoek eta gainerako erakunde publikoek –mendekoak edo lotura dutenak– lehentasunezko tratua emango diete erakunde arteko kanpainei (Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak sustatuak), eta bultzatu egingo dituzte, betiere helburua honako hau izanik: desorekak desagertzea, eta gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzea, publizitatera bideratutako barruko nahiz kanpoko tokien edo saioen %30 utzita.
Jarraipena	3A.2.6.	Komunikabide publikoek emandako edukien ebaluazioa egitea.
Prestakuntza	3A.2.7.	Kazetariei prestakuntza ematea, informazio-zereginetan genero-ikuspegia integra dezaten, eta batik bat, gizartearen, politikaren, ekonomiaren eta kulturaren eremuetan, emakumeen errealitatea ikusezin bihurtuko ez duen moduan tratatu behar dutela informazioa, eta iturriak dibertsifikatu behar direla nabarmenduta.
Prestakuntza	3A.2.8.	EHUko Kazetaritzako eta Komunikazio Zientzietako irakasleei prestakuntza ematea, euren ikasgaietako edukietan genero-ikuspegia txerta dezaten.
Jakintza	3A.2.9.	Titulartasun publikoa eta pribatua duten kazetaritzako nahiz publizitateko komunikabideen saioetako edukia aztertzei ikerketak.
Jakintza	3A.2.10.	Komunikazioan genero-ikuspegia txertatzeko jarraibideak emango dituen estilo-liburu bat lantzea eta jendaurrean ezagutaraztea; liburu horretan, komunikabideek programazioak prestatzeko garaian kontuan izan beharreko hainbat elementu bilduko dira, hala nola: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Hizkera ez-sexista erabiltzea.</li> <li>– Emakumeen parte-hartze aktiboa eta presentzia orekatua bermatzea.</li> <li>– Emakumei zuzendutako edo emakumeek sustatutako gizartearen, politikaren, ekonomiaren, zientziaren eta kulturaren arloko jarduerak ezagutaraztea, baita emakumeak ahalduntzeari laguntzen diotenak ere.</li> </ul>



Sentsibilizazioa	3A.2.11.	Kazetaritzako nahiz publizitateko komunikabideen edukien azterketaren emaitzak ezagutaraztea komunikabide publiko eta pribatuetako profesionaleri, eta EHUko kazetaritzako eta ikus-entzunezkoen fakultateei, eta argitaratutako estilo-liburua aditzera ematea.
Jakintza	3A.2.12.	Eragina izango duten publizitate-kanpainak diseinatzea, politikaren, gizartearen, zientziaren, ekonomiaren eta kulturaren arloko jardura guztietan emakumeen presentzia berdintasun-egoeran sustatzeko, baita emakumeak ahalduz eta genero-estereotipoak desagerraraztea sustatzeko ere.
Jakintza	3A.2.13.	Erakunde publikoetatik, eta batik bat, komunikazio-enpresa pribatuetatik bultzaturiko publizitate-kanpainen eragin mediatikoa aztertzea eta praktika onak sistematizatzea, genero-estereotipoak desagerrarazteko lagungarri badira.
Sentsibilizazioa	3A.2.14.	Genero-estereotipoak desagerrarazita, berdintasuna lortzeko asmoz, emakumeak eta gizonak pentsamolde-aldaketa errazteko roletan edo egoeratan agertzen dituzten publizitate-kanpainetako praktika onak eta eragin mediatikoaren azterketa ezagutaraztea komunikabide publiko eta pribatuetako profesionalen artean, batik bat, enpresa pribatuek sustaturiko kanpainak izanik.
Zerbitzuak eta Baliabideak	3A.2.15.	Berdintasunerako eragileak kontratatuzko diru-laguntzak ematea komunikabide pribatuei, informazioan genero-ikuspegia txertatzen dela eta aukera berdintasuna errespetatzen dela bermatzeko.
Jarraipena	3A.2.16.	Komunikabide pribatuek emandako saioretako edukiak aztertzea, eta ateratako emaitzei buruzko txostenak egitea.

**BATERAGARRITASUNA ETA  
ERANTZUNKIDETASUNAREN  
ARDATZA**

<b>1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA – 1B-: ERANTZUNKIDETASUNAREN KULTURA ETA ZAINZAREN ETIKA SUSTATZEA</b>		
<b>1B.1. HELBURUA:</b>		
Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzen dituzten gizartearen eta kulturaren arloko guneak areagotzea.		
<b>1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1B.1.1.	Erantzunkidetasunaren kultura emakumeengan eta gizonengan zenbateraino dagoen txertatua eta zenbateraino den nagusi aztertze ikerketa egitea, eta zaintzaren eta erantzunkidetasunaren kultura sustatzeko gizartearen eta kulturaren eremuko praktika onak eta esperientzia berritzaileak sistematizatzea.
Sentsibilizazioa	1B.1.2.	Honako hauek ezagutaraztea: erantzunkidetasunaren kultura emakumeengan eta gizonengan zenbateraino dagoen txertatua eta zenbateraino den nagusi aztertze ikerketaren emaitzak, eta zaintzaren eta erantzunkidetasunaren kultura sustatzeko gizartearen eta kulturaren eremuko praktika onak eta esperientzia berritzaileak, teknikariak eta politikariak sentsibilizatzeko, administrazioetik sustatzen diren gizartearen eta kulturaren arloko guneetan erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika txertatzeko premiaren inguruan.
Prestakuntza	1B.1.3.	Administrazioaren kultura-arloetako teknikariei prestakuntza ematea, kultura eta erantzunkidetasuna sustatzeko programak eta jarduerak diseina ditzaten.
Prestakuntza	1B.1.4.	Gizartearen eta kulturaren arloko eta hezkuntzako animazioaren eremuan –batik bat, aisialdian eta denbora librean– lan egiten duten hezitzaileei, begiraleei eta langileei prestakuntza ematea, zaintzaren etikaren eta erantzunkidetasunaren inguruko balioak sortzeko metodologiak eta baliabideak izan ditzaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.5.	Erantzunkidetasunaren eta zaintzaren kultura sustatzeko jarduerak barnean hartuta, kulturaren eremuko zerbitzuak eskaintzen dituzten Hirugarren Sektorako erakundeak lehenestea kontratatzeko garaian.
Araudia	1B.1.6.	Honako hau barnean hartzen duen araudia garatuko da: titulartasun publikoa duten komunikabideek, eskal administrazioek, organismo autonomoek eta gainerako erakunde publikoek –mendekoak edo lotura dutenak– lehenestuzko tratua emango diete erakunde arteko kanpainei (Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak sustatuak), eta bultzatu egingo dituzte, betiere helburua honako hau izanik: zaintzaren etikaren eta erantzunkidetasunaren inguruko gizonen pentsamoldea aldatzea, publikizatara bideratutako barruko nahiz kanpoko tokien edo saioen %5 utzita.
Sentsibilizazioa	1B.1.7.	Gizonei zuzenduta, zaintzaren etikaren eta erantzunkidetasunaren inguruko pentsamoldea aldatze aldera, erakunde arteko sentsibilizazio-kanpainak egitea komunikabideetako saioen bitartez.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.8.	Administrazioen kultura-arloetan diru-laguntza ildoak sortzea, erantzunkidetasunaren kultura eta zaintzaren etika sustatzeko proiektuak gauzatu nahi dituzten elkartei begira.
Jakintza	1B.1.9.	Haurrei eta gazteei zuzendutako aisialdiko eta denbora libreko programak berriz aztertzea, erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzen duten jarduerak sartzearen.
Sentsibilizazioa	1B.1.10.	Haurrei eta gazteei zuzendutako aisialdiko eta denbora libreko jarduera ludikoak egitea, erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzeko.
Prestakuntza	1B.1.11.	Zereginak dibertsifikatzeko tailerrak egitea gizonekin eta emakumeekin, generoan oinarritutako gizarte-erakuntzak mugatzen ez dituen trebetasunak eta gaitasunak gara ditzaten biek.
Jarraipena	1B.1.12.	Egindako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

<b>1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA – 11–:</b>		
<b>GIZARTEAREN ETA KULTURAREN EREMU GUZTIETAN SEXISMOA DESAGERRARAZTEA</b>		
<b>11.1. HELBURUA:</b>		
Sexuaren arabera, sexu batekoa edo bestekoa izan, jendeak giza duintasun gutxiago edo gehiago duela edo sexu-objektu soil direla adierazten duten irudi eta eduki mediatikoak murriztea, eta emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen dutenak desagerraraztea.		
<b>A ESTRATEGIA:</b>		
<b>11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.A.1.	Publizitatea kontrolatzeko organo bat eratzea, komunikabideen eta publizitate-euskarrien bitartez hedatzen denaren inguruan aholku emateaz eta hori aztertzeaz arduratuko dena; horrela, sexuak eragindako diskriminazio mota oro desagerraraziko da. Aldi berean, komunikabide publikoek zabalduko edukiek beren kode etikoak izan ditzaten zainduko da.
Araudia	11.1.A.2.	Baliabide arau-emaileak betetzen direla zaintzea, publizitatea onartzeko irizpideei dagokienez eta produkzio-etxeen konpromiso-klausulari dagokienez; klausula horren arabera emakumeentzako iraingarriak eta/edo diskriminatzaileak diren irudiak edo mezuak ez erabiltzeko konpromisoa hartzen dute produkzio-etxeek.
Prestakuntza	11.1.A.3.	Komunikabide publikoetako eta pribatuak profesionalen prestakuntza ematea irudi eta eduki sexistak identifika ditzaten, hizkera egokia erabiltzeko duen garrantziaz jabe daitezela, eta eguneroko lanean hizkera ez-sexista erabiltzeko metodologiak eta baliabideak izan ditzaten.
Jakintza	11.1.A.4.	Titulartasun publikoa eta pribatua duten komunikabideetan, irudi eta eduki sexistak atzemateko ikerketak egitea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.A.5.	Komunikabide pribatuak zuzendaritzetako langileekin negoziazio-bideak irekitzea eta laguntza ekonomikoak sortzea, irudiak eta edukiak emateko garaian, sexuak eragindako diskriminazio-praktikak zuzentze aldera.
<b>B ESTRATEGIA:</b>		
<b>11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Sentsibilizazioa	11.1.B.1.	Herritarrak sentsibilizatzea emakumeen aurkako indarkeriaren arrazoien eta adierazpen moduen inguruan, batik bat, gizartearen, kulturaren eta komunikabideen eremuan, irudi eta eduki sexistak identifika ditzeko, eta salatza animatzeko, horretarako jarritako bideen berri emanda.
Prestakuntza	11.1.B.2.	Gurasoei prestakuntza ematea, irudi eta eduki sexistak identifika ditzaten, eta hezikidetzan oinarritutako irizpideak har ditzaten seme-alabek ikusteko programazioa hautatzeko garaian.

<b>11.2. HELBURUA:</b>		
Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eta horren prebentziorako sensibilizazio-kanpainen kopurua handitzea.		
<b>11.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.1.	Erakunde arteko akordioak egiteari bultzada ematea, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eta horren prebentziorako sensibilizazio-kanpainak egiteko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.2.	Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztearen eta horren prebentzioaren inguruan sensibilizatzeko edukiak programazioan sartzen dituzten komunikabideei diru-laguntzak ematea.

## HEZKUNTZAKO EKINTZAK

### MAINSTREAMING ARDATZA

<b>1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1M–: IKASTETXEETAN HEZKIDETZA SUSTATZEA</b>		
<b>1M.1. HELBURUA:</b> Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, eta Helduen Hezkuntzako ikastetxeen urteko programazio guztietan hezkidetzaren integratzea.		
<b>A ESTRATEGIA:</b>		
<b>1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.A.1.	Hezkidetzaren lantzen ari diren ikastetxeen sarea sortzeari laguntzea, tartean sartutako irakasleek hezkidetzaren berak eragindako jardueretan parte hartzea erraztuta.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.A.2.	Berritzegune guztietan hezkidetzarako langile espezifikokoak izatea.
Prestakuntza	1M.1.A.3.	Berritzeguneetako langileei prestakuntza ematea hezkidetzaren inguruan.
Prestakuntza	1M.1.A.4.	Curriculum-dukietan eta irakaskuntza-praktikan, nahiz irakasleen balio, jarrera eta itxaropenetan joera sexistak atzemateko prestakuntza-ekintzak egitea, nesken eta mutikoen oinarritzko gaitasun guztiak indartuko dituzten metodologia-proposamenak diseinatze eta garatze aldera.
Jakintza	1M.1.A.5.	Gure Erkidegoan nahiz kanpoan izandako hezkidetzaren inguruko esperientziak ezagutaraztea eta argitaratzea.
Sentsibilizazioa	1M.1.A.6.	Ikastetxeetara aldizka bidaltzen diren zirkularretan orientazio espezifikokoak sartzea, hezkidetzaren garatzearen. Ikastetxeen hezkuntza-proiektuan hezkidetzaren sartzea eta hezkidetzarekin loturiko gaiak lantzeko asteko ordu-kredituak ematera bideratuko da edukia.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.A.7.	Hezkidetzaren oinarritutako lanari pizgarriak ematea, sari espezifikokoaren bitartez.
Arauak	1M.1.A.8.	Sexuen arteko aukera-berdintasuna lehenetsuzko gaitzat hartzea, praktika pedagogikoa hobetzeko laguntzen deialdietan: prestakuntza-proiektutan, berrikuntzako proiektutan, hezkidetzaren esperientzian...

<b>B ESTRATEGIA:</b>		
<b>1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1M.1.B.1.	Ikastetxeetan hezkidetzaren ezartze-adierazleak definitzeko azterlan kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea.
Jarraipena	1M.1.B.2.	Ikastetxeetako kalitatea ebaluatzeko prozesuen txostenetan, kalitate-adierazleei hezkidetzaren gehitzea.
Arauak	1M.1.B.3.	Hezkidetzaren irizpidetzaren integratzea urteko programen ikuskaritza-protokoloetan.
Prestakuntza	1M.1.B.4.	Hezkuntzaren Ikuskaritza Teknikoko langile guztiei hezkidetzaren inguruko prestakuntza ematea, kualifikazio espezifikoko ikastaroen bitartez.

<b>1M.2. HELBURUA:</b> Berdintasunerako Legearen 30. artikulua betetzen ez duten hezkuntza-materialen erabilera ezabatzea.		
<b>1M.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Araukak	1M.2.1.	Hezkuntza-materiala baimentzeko irizpideak berrikustea, Berdintasunerako Legearen 30. artikulua betetzea irizpidetzat ezartze aldera. 30. artikulua betetzen ez duen hezkuntza-material ororen berri Berdintasunaren Defentsa Erakundeari nahitaez eman behar izatea.
Jarraipena	1M.2.2.	Hezkuntza-materialen batek Berdintasunerako Legearen 30. artikulua ez duela betetzen jakinarazten zaionean, Berdintasunaren Defentsa Erakundeak eskura dituen mekanismo guztiak baliatzea.
Jarraipena	1M.2.3.	Testu-liburuak baimentzea eta gainbegiratzea arautzen duten irizpideak –emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari dagozkionak– aplikatzea, eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa urratzen duen material oro merkatutik ateratzea.
Sentsibilizazioa	1M.2.4.	Hezkidetzatza-irizpideak betetzen ez dituzten materialen berri Defentsa Erakundeari emateko aukera dutela jakinaraztea ikastetxeei.
Sentsibilizazioa	1M.2.5.	Berdintasunerako Legearen 30. artikulua potentzialki betetzen ez duten materialen berri Berdintasunaren Defentsa Erakundeari emateko aukera dutela jakinaraztea hezkuntza-materiala aztertzen duten Berritzeguneetako langileei.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.2.6.	Berdintasunerako Legearen 30. artikulua betetzen ez duen curriculum- eta hezkuntza-materialaren berri eman dezaten pizgarriak ematea ikastetxeei, eta ezarritako pizgarriak jakinaraztea.

## AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA – 1A–:		
HEZKUNTZA SISTEMAN ERABAKIAK HARTZEKO EREMUETARAKO SARBIDEA		
1A.1. HELBURUA:		
Unibertsitate-sistemaren erabakiak hartzeko eremurako sarbidean, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea.		
1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Araudia	1A.1.1.	Prestakuntzari eta ikerketari laguntzeko deialdietan, honako proiektu hauek balioestea bereziki: Berdintasunerako Legearen 33.4. artikuluan xedaturiko irizpideak betetzen dituztenak.
Jakintza	1A.1.2.	Erabakiak hartzeko eremuetarako sarbide paritarioa lortzeko dauden eragozpenak gainditzera bideratutako alderdiei buruzko ikerketak egitea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.3.	Unibertsitatean, emakumeen karrera profesionalari pizgarriak ematea, ekintza positiboan bitartez.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.4.	Diru-laguntzak ezartzea, euskal unibertsitate-sistemaren eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko proiektuak egitea bultzatzeko.
Arauk	1A.1.5.	Unibertsitateko karrera profesionalen meritua gisa puntuagarriak diren jarduerak, eta erabakiak hartzeko eremuetako parte-hartzea familiaren eta norberaren bizitzarekin bateragarri izateko beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea.
Arauk	1A.1.6.	Genero-ikuspegitik begiratuta, karrera profesionalen meritua balioesteko ezarritako irizpideak berrikustea eta aldatzea.
Sentsibilizazioa	1A.1.7.	Sentsibilizazio-jarduerak egitea, presentzia oso mugatua duten edo batere presentziarik ez duten eremuetan (kudeaketa, ikerketa-ildoan eta ikasketen programen planifikazioa...), arian-arian, sartzen joan daitezkeen emakumeak.
1A.2. HELBURUA:		
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen erabakiak hartzeko eremurako sarbidean, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea.		
1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.2.1.	Bigarren hezkuntzako sisteman, emakumeen eta gizonen presentziari buruzko azterlana egitea, sexuaren arabera, espezialitateen arabera eta zentroetan bete daitezkeen eginkizunen arabera banakatua. Zuzendaritzako postuetarako emakumeek sarbide txikiagoa izatearen arrazoiak aztertzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.2.	Diagnostikoei jarraiki, emakumeen zuzendaritza-postuetarako sarbideari laguntzeko neurriak ezartzea: prestakuntza, pizgarriak, sentsibilizazio-jarduerak...
Jarraipena	1A.2.3.	Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako antolamenduaren eta funtzionamenduaren araudiaren kalitateari buruzko txostenetan, emakumeen baldintzak eta egoera berdintasunezkoa izatea modu positiboan balioesteko mekanismoak ezarriko dira.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.4.	Bigarren hezkuntzako hezkuntza-sisteman, erabakiak hartzeko eremuetako parte-hartzea familiaren eta norberaren bizitzarekin bateragarri egiteko mekanismoak ezartzea.
Sentsibilizazioa	1A.2.5.	Familiekin sentsibilizazioko jarduerak egitea, hurrek zuzendaritzako postuetan emakumezko eredu erreferenteak izateak duen garrantziaren gainean hausnar dezaten.

<b>1A.3. HELBURUA:</b>		
Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan, irakasleen maila eta eginkizun guztietan, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea.		
<b>1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Araudia	1A.3.1.	Ikasleentzat erreferentzia-eredu izan dadin, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuagoa sustatzea lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako curriculum-gaietan, zentroetako erantzukizunen eta eginkizunen banaketan eta esleipenean.
Jarraipena	1A.3.2.	Lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako ikastetxeetako antolamenduaren eta funtzionamenduaren araudiaren kalitateari buruzko txostenetan, hezkidetzaren ikuspegia txertatzea modu positiboan balioesteko mekanismoak ezartzea.
Jakintza	1A.3.3.	Lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako sisteman, emakumeen eta gizonen presentziari buruzko azterlana egitea, sexuaren arabera, espezialitateen arabera eta zentroetan bete daitezkeen eginkizunen (garraioa, jangela, eskolaz kanpokoak...) arabera banakaturia.
Sentsibilizazioa	1A.3.4.	Familiekin sentsibilizazioko jarduerak egitea, haurrek zaintzako zereginetan gizonetzko eredu erreferenteak izateak duen garrantziaren gainean hausnar dezaten.

<b>2. AHALDUNTZE PROGRAMA -2A-:</b>		
<b>JAKINTZA EZ-SEXISTA SORTZE ETA HORRETAZ JABETZE</b>		
<b>2A.1. HELBURUA:</b>		
Unibertsitate-eremuan, genero-harremanen azterketari buruzko jakintzaren sorkuntza eta zabalkundea areagotzea.		
<b>2A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Araudia	2A.1.1.	Ikerketako eta berrikuntzako proiektuak garatzeko laguntzen deialdietan, honako hauek lehentasunezko gaitzat hartzea: genero-harremanen azterketa, jakintzaren arloetan emakumeek egindako ekarpenak, eta arrazoibide zientifikoaren eduki androzentrikoa aztertu eta gainditzea.
Prestakuntza	2A.1.2.	Proposaturiko gaiekin loturiko Fakultate eta Unibertsitate Eskolen prestakuntzako, graduatuondoko eta udako prestakuntza-eskaintzaren programazioan, honako hauei buruzko ikastaroak, masterrak edo diplomak txertatzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Generoaren ikuspegia politika publikoetan.</li> <li>- Genero-ikuspegitik begiratuta, jakintza aztertu eta berrikustea.</li> <li>- Hezkidetzak.</li> </ul>
Prestakuntza	2A.1.3.	Jakintza-arlo guztietako irakas-lanean eta ikerketa-lanetan genero-ikuspegia txerta dadin, hizkera ez-sexista erabil dadin, eta emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenera egindako ekarpen sozial eta historikoa jaso dadin, gai horien inguruko prestakuntza emateko 3 kreditu sartzea Irakaskuntzarako Gaitasun Ikastaroan.
Sentsibilizazioa	2A.1.4.	Jakintza-arlo guztietako irakas-lanean eta ikerketa-lanetan genero-ikuspegia txerta dadin, hizkera ez-sexista erabil dadin, eta emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenera egindako garapen sozial eta historikoa jaso dadin sentsibilizazio-jarduerak egitea irakasleen artean.
Jakintza	2A.1.5.	Jardunaldiak, konferentziak eta/edo biltzarrak egitea, giza jakintzaren eremu eta diziplina guztietan emakumeek egindako ekarpeni buruz, eta jakintza sortzeko eremuan emakumeen egungo egoerari buruz, eta etorkizuneko joerei buruz.



**2A.2. HELBURUA:**

Neska-mutilek ikasketak hautatzean sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, etorkizuneko aukera hobekak eskaintzen dituzten ikasketei eta tarte handiena dutenei lehentasuna emanda.

**2A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK**

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2A.2.1.	Azterketa sektorialak egitea: sexu jakin baten presentzia/absentzia, lanbideratzea, prestakuntza, eragozpenak, etab. Eta ondorioetan diagnosis lortzea, helburu hori betetzeko lehentasunezko esku-hartzea eskatzen duten karreraren eta ikasketen inguruan.
Sentsibilizazioa	2A.2.2.	Irakasleei eta familiei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea, nesken prestakuntzak duen garrantzia eta eragin nabarmena aditzera emateko, etorkizunean aukerak izateari dagokionez. Orientazio-proiektuak hezkidetzaren ikuspegitik diseinatzeko eta garatzeko orientazioak eta/edo jarraibideak zabaltzea zentroetan.
Prestakuntza	2A.2.3.	Nesken lanbide-proiektuan aukera handiagoak eskainiko dituzten azterketa-mekanismoak hartzea prestakuntza-ekintzen barnean, lan-munduan generoak duen eragina atzemateko.
Prestakuntza	2A.2.4.	Orientazio-profesionalentzako prestakuntza-jarduerak egitea, neskekin enpleguaren garrantzia eta mutilekin etxearen eta familiaren eremuko erantzunkidetasuna landu daitezen bereziki.
Prestakuntza	2A.2.5.	Ikasketa-arlo maskulinizatuenetako irakasleei prestakuntza ematea, emakumezko ikasleei harrera egiteko prozesuak hobetze aldera.
Prestakuntza	2A.2.6.	Heziketa Zikloak eta Lanbide Hastapenerako Programak ematen dituzten zentroetako zuzendaritza-taldeak gaitzea, produkzioaren eta gizartearen arloko inguruneak eskaintzen dituen aukerak aztertzearen, eta lanbide-profilak aukera horietara eta nesken interesetara, gaitasunetara, motibazioa eta itxaropenetara egoki ditzaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.2.7.	Gaur egungo sistema arautuak eskaintzen dituen prestakuntza-ibilbideak egiteko emakumeek ere aukera izan dezaten, beharrezko mekanismoak ezartzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.2.8.	Heziketa Zikloetako ikasleek lantokietan praktikak egiteko proiektuak garatzeko hitzarmenak berrikustea, eta kasuan kasu, nesken eta mutilen arteko aukera-berdintasunaren printzipioaren arabera egokitzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.2.9.	Hezkidetzaren ikuspegitik begiratuta, orientazio-programatan aholkuak emateko gaituak dauden profesionalen kopurua handitzea.
Arauak	2A.2.10.	Jende eta/edo prestakuntza-erakunde jakinak hautatzeko garaian, eta horiei kontratuak esleitzeko garaian, balioespen-irizpidetzat hartzea programetan genero-ikuspegia txertatzea.
Arauak	2A.2.11.	Eskola-antolaketaaren esparruan, denbora eta tokia bermatzea orientazioari hezkidetzaren ikuspegitik ekiteko.
Arauak	2A.2.12.	Dagokionean, neskek ere praktikak egiteko aukera izateari begira, enpresek antolaketa eta azpiegiturak egoki ditzaten eskatzea lan ikuskaritzari.
Jarraipena	2A.2.13.	Heziketa Zikloetako ikasleek lantokietan praktikak egiteko proiektuak garatzeko hitzarmenak berrikustea, eta kasuan kasu, nesken eta mutilen arteko aukera-berdintasunaren printzipioaren arabera egokitzea.
Jarraipena	2A.2.14.	Lanbide Heziketaren curriculum-diseinua berrikustea, nesken eta mutilen arteko aukera-berdintasunaren printzipioaren arabera egokitzeko.

**BATERAGARRITASUNA ETA  
ERANTZUNKIDETASUNAREN  
ARDATZA**

<b>1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA - 1B-: IKASLENGAN ERANTZUNKIDETASUNA ETA ZAINZAREN ETIKA SUSTATZEA</b>		
<b>1B.1. HELBURUA:</b>		
Etxeko eta zaintzako lanetan erantzunkidetasuna areagotzea nesketan eta mutiletan.		
<b>1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1B.1.1.	Haurrek eta gazteek familiaren lanetan eta erantzukizunetan duten erantzunkidetasunaren inguruko ikerketa egitea, oro har, haurren eta gazteen, eta kolektibo espezifikoaren ezaugarriak eta hasierako egoera aintzat hartuta: egungo denbora-erabilera, arazoak eta ondorioak, ikasleen artean erantzunkidetasuna sustatzeko estrategiak, eta beste testuinguruetan egindako esperientziak aztertzea, zaintza-lanak curriculumean txertatzeari dagokionez.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.2.	Lehen hezkuntzan, adin bakoitzeko gaitasunen arabera, etxeko eta zaintzako lanak egiteko tailerrak diseinatzea eta burutzea.
Araudia	1B.1.3.	Bigarren hezkuntzan nahitaez eskaini beharreko aukerako ikasgaia sortzea, neska-mutilek etxeko eta zaintzako lan gehiago egin ditzaten, eta familiaren eremuan erantzukizunak hartzen ikas dezaten.
Jarraipena	1B.1.4.	Eskola-komunitatean erantzunkidetasuna sustatzeko tailerrak eta jardunak egiteko eskaintako ordu kopurua kalitate-adierazletzat hartzea eskoletan.
Sentsibilizazioa	1B.1.5.	Familiak sentsibilizatzea erantzunkidetasunaren garrantziaz eta etxetik nahiz eskolatik lantzeko premiaz jabe daitezen, betiere egoera espezifiko bizi duten kolektiboaren hasierako egoera eta ezaugarriak aintzat hartuta: familia etorkinak, landa-eremuko familiak, kide ezinduren bat duten familiak...
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.6.	Ikastetxeetan, familien eta irakasleen arteko lan-taldeak osatzeari bultzada ematea, etxeko eta zaintzako lanetan erantzunkidetasuna sustatzera bideratutako estrategia bateratuak diseinatzearen.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.7.	Eskolako azpiegituren eta ikasleen beraien premien mantentze-lanetan eta zaintzan, ikasleen erantzukizuna areagotzeko zentroetan egindako jardun zehatzei diru-laguntzak ematea.
Jarraipena	1B.1.8.	Eskolako azpiegituren mantentze-lanetan eta zaintzan ikasleen erantzukizuna areagotzea lortzeko zentroetan egindako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egitea.
Sentsibilizazioa	1B.1.9.	Gure Erkidegoan eta kanpoan, erantzunkidetasunarekin loturiko esperientziak eta praktika onak ezagutaraztea.

## 2. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –2B–: ESKOLAKO DENBORA ETA AZPIEGITURAK EGOKITZEA ETA BERRIZ ANTOLATZEA

### 2B.1. HELBURUA:

0-3 urte bitarteko haurrentzako tokiak areagotzea, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan jangela- eta garraio-zerbitzuen eskaera beteko dela bermatzea.

### 2B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2B.1.1.	Hezkuntza-eremuarekin loturiko zerbitzuen eskaintza eta eskaera aztertzea: jantokiak, garraioa, Haur Eskolak... Tokiak, jarduerak eta horiek guztiak gurasoen premia eta egoera ezberdinetara egokitzen ote diren aztertzea bereziki, eta eskaera eta eskaintza alderatzea, banaketa geografikoaren irizpideei jarraiki.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.1.2.	Haur-eskoletan ikasleentzako toki gehiago sortzeko baliabideak areagotzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.1.3.	EAEko jantokien baldintzei buruzko azterketa egitea, eta baldintza horiek hobetzeko eta estaldura areagotzeko baliabide gehiago bideratzea.
Jarraipena	2B.1.4.	Helburuaren betetze-mailaren jarraipena egitea, eta prentsaren bitartez, tartean sartutako erakundeen lankidetzamaila eta izandako aurrerapenak jakinarazteari bultzada ematea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.1.5.	Zerbitzu soziokomunitarioen mantentze-lanetan eta/edo egokitzean laguntza ekonomikoak ematen dituzten enpresentzat zerga-pizgarriak ezartzea.

### 2B.2. HELBURUA:

Hezkuntza-zentroetan eta haur-eskoletan ordutegiak eta egutegiak malguagoak izatea, horien antolaketa-autonomia kontuan izanik, eta familien premiak betetzea bermatze aldera

### 2B.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2B.2.1.	Ordutegiak eta egutegiak zabal ditzaketen zentroyen azterketa egitea: irizpideak, jarduerak eta arduraduna.
Arauk	2B.2.2.	Eskola-ordutegiak eta -egutegiak zabalatzeko formulak bilatzeko erakunde arteko hitzarmena sortzea, eskola-ordutik at, jai-egunetan eta oporretan arreta handiagoa izan dadin: 14 ordutan, ordutegi jarraituan, arreta bermatzea. Hilabete guztietan arreta bermatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.2.3.	Eskolaz kanpoko orduetan, ikasgela batean edo gehiagotan, ikasleak artatu eta gainbegiratu dituzten langileentzako lanpostuak sortzea, eskola-ordutik at ikasteko eta elkartzeko tokia izan dezaten ikasleak.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.2.4.	Familiak bateragarri egiteari laguntzeko pizgarriak ematea zentroyei.
Prestakuntza	2B.2.5.	Prestakuntzako eskaintza planifikatzea, jardueren ordutegiak egokitu behar direla kontuan izanda, familiaren, norberaren eta lan-arloko erantzukizunak behar bezala uztartzearren.
Prestakuntza	2B.2.6.	Inoren laguntza behar dutenei arreta emateko zerbitzu soziokomunitarioak (maila guztietako ikastetxeak, eskolaz kanpoko jarduerak, etab.) egokitzea, lagun horien eta familien egiazko premiaren arabera eta dagoen eskaeraren arabera: ordutegiak, garraioa, banaketa geografikoa, oporraldia.

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA – 11–:		
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN PREBENTZIOA ETA BITARTEKOTZA		
11.1. HELBURUA:		
Ikastetxeetan etxeko indarkeria-kasu guztiak atzematea, eta adostutako protokolo eraginkorrari jarraiki, kasu guztiei erantzuna ematea.		
11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	11.1.1.	Emakumeen aurkako indarkeria-ekintzak atzemateko metodologiari buruz ikerketak egitea.
Jakintza	11.1.2.	Etxeko tratu txarrek haurren eskolatzean duten eragina aztertzea eta neurriak erabakitzea.
Sentsibilizazioa	11.1.3.	Irakasleek nabaritzen duten emakumeen eta neskato-mutikoen aurkako indarkeria-zantzu ororen berri ikastetxeen zuzendaritza-organoei emateko moduen inguruko informazioa eta sentsibilizazioa ematea irakasleei.
Sentsibilizazioa	11.1.4.	Etxeko indarkeriaren kasuetarako jardun-protokoloa lantzea eta zabaltzea zentroyen artean: – zer egin, eskura dauden gizarte-zerbitzuak, eta ikasleak eskolatzeko izan ditzakeen arazoak.
Prestakuntza	11.1.5.	Hezkuntzaren eremuko profesionali prestakuntza emateko jarduerak egitea, emakumeen aurkako indarkeria atzemateko trebetasunak eskura ditzaten.
Prestakuntza	11.1.6.	Orientazio Zerbitzuan eta Berritzeguneetan prestakuntza-jarduerak egitea, emakumeen aurkako indarkeriaren kasuan erantzuteko eta bitartekotza egiteko.
Prestakuntza	11.1.7.	Berritzeguneetako irakasleek eta langileek genero-indarkeriaren inguruko prestakuntza izango dutela bermatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.8.	Emakumeen eta haurren aurkako indarkeriaren kasuan, arreta emateko eta bitartekotzako jardun-protokoloa lantzea eta zabaltzea eskola-eremuan, zentroak dagozkien gizarte-zerbitzuekin koordinatze aldera, eta etxeko indarkeriaren biktimak edo biktimen seme-alabak eskolatzeko neurri lagungarrien berri irakasleei emate aldera.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.9.	Berritzeguneetan, indarkeriaren aurrean eman beharreko arreta eta bitartekotza integratzea.
Arauak	11.1.10.	61. artikuluan zehazturiko irizpideak betetzen dituztenek haur-eskoletan lehenasunezko tratua izan dezaten irizpideak txertatzea.
Jarraipena	11.1.11.	Etxeko edo kideen arteko indarkeriaren kasuetarako jardun-protokoloen ezartze- eta betetze-maila ebaluatzea. Emaitzak ebaluatzea eta etengabe hobetzeko neurriak ezartzea.

**11.2. HELBURUA:**

Indarkeriaren prebentziorako programa esperimentalak egitea ikastetxeetan, berdintasunean oinarritutako bizikidetzak eta lankidetzak lortzeko harremanen kultura aldatzea.

**11.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK**

<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	11.2.1.	Ikastetxeen antolaketa aldatzea sustatzeko programa diseinatzea, helburuan ezarritako jarraibideei jarraiki.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.2.	Programa esperimentalak ezartzen duten ikastetxeentzat pizgarriak sortzea, antolaketa-kultura aldatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.3.	Ikastetxeetan, bizikidetzak positiboak ahalbidetuko duten antolamenduari dagozkion laguntzeko eta aholkularitzako zerbitzuak erabakitzea.
Prestakuntza	11.2.4.	Parte hartzen ari diren ikastetxeetako irakasleentzat hezkidetzan oinarritutako prestakuntza antolatzea.
Sentsibilizazioa	11.2.5.	Programa garatzen ari diren ikastetxeen arteko hausnarketa-jardunaldiak antolatzea, programaren ezarpenari eta emaitzei buruzko esperientziak elkartrukatzeko aldera.
Sentsibilizazioa	11.2.6.	Programa esperimentalean parte hartzen ari diren ikastetxeetako familiak sentsibilizatzeko jardunaldiak antolatzea.
Jarraipena	11.2.7.	Programa esperimentalak garatu duten ikastetxeen emaitzak ebaluatzea.

## LANEKO EKINTZAK

### MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1M--:		
ENPLEGU ZERBITZUETAN GENERO IKUSPEGIA INTEGRATZEA		
1M.1. HELBURUA:		
Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea.		
1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.1.	Administrazio-unitate bat sortzea, honako hauek lankidetzan aritzea, koordinatzea eta indartzea helburu duena: sail, zuzendaritza eta arloak, udal eta aldundietako enplegu-zerbitzuak, zentro laguntzaileak eta jardun horiek abiarazteko ardura duten gainerako erakundeak.
Jakintza	1M.1.2.	Laneko orientazioaren eta informazioaren eremuan edo lanerako prestakuntzan lan egiten duten organismo eta erakundeetan sakabanatua dagoen sexuaren arabera informazio estatistikoa biltzeko, datu-base homogeneo bat diseinatu eta garatzea. Eta enplegua/prestakuntza.
Jakintza	1M.1.3.	Txertaturiko aldagaiak sexuaren aldagaiaren arabera ustiatzeko eta aztertzeko aukera emateko moduko lagin zabalak hartzea, dela azterketa, ikerketa eta azterlanei dagokienez, dela egiten diren analisi eta ebaluazioei dagokienez.
Jakintza	1M.1.4.	Haur-hezkuntzako udal-zerbitzuak, adinekoei arreta emateko zerbitzuak eta enplegu-zerbitzuak antolatze moduak aztertzea, bateragarri egitea ahalbidetze aldera eta bete beharreko "hutsuneak" edo gabeziak identifikatze aldera, betiere izandako esperientziak –udalaren edo eskualdearen mailan– kontuan izanik.
Sentsibilizazioa	1M.1.5.	Zerbitzu soziokomunitarioak eta enplegu-zerbitzuak antolatze metodoei buruz egindako azterlanak ezagutaraztea, baita zerbitzu horietan atzemandako gabeziak betetzeko eta zerbitzu horien osagarri izan daitezkeen neurri arinei eta malguei buruzko azterlanak ere.
Arauk	1M.1.6.	Prestakuntza homologatzea, lanaren eremuan emakumeen berdintasunari buruz eta enplegu-zerbitzuak osatzen dituzten prozesu guztietan genero-ikuspegia integratzeko moduari buruz.
Prestakuntza	1M.1.7.	Enplegu-zerbitzuetako eta erakunde laguntzaileetako langileei prestakuntza ematea, laneratzeari laguntzeko prozesu integralaren fase guztietan genero-ikuspegia txertatzeko moduaren inguruan: laneratzeari, enpresak sustatzeari eta autoenpleguari buruzko informazioa, orientazioa, prestakuntza eta babesa ematea eta jarraipena egitea.
Arauk	1M.1.8.	Genero-ikuspegiaren arabera informazioa eta orientazioa egokitzea merkatuan eskaera duten enpleguetara bideratuta emakumeak, batik bat ordezkariak txikiegia duten lanbideetan. Horretarako, genero-ikuspegitik begiratuta berrikusi behar dira enplegura gerturatzeko fase guztietan baliatzen diren tresna eta baliabideak.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.9.	Enplegu-zerbitzuei pizgarriak ematea emakumezko eskatzaileekin ekintza positiboa gauza dezaten, langileak eskatzen dituzten enpresetara bidaltuta eskatzaile horiek, batez ere emakumeek ordezkariak txikiegia duten postuak betetzeko.

Arauk	1M.1.10.	Zentro laguntzaileei diru-laguntzak esleitzeko balioespen-irizpideen artean sartzea honako hau: prestakuntzako eta enplegu/prestakuntzako proiektuetan genero-ikuspegia txertatzea.
Arauk	1M.1.11.	Lan-arloko, familiaren eta norberaren bizitza bateragarri egiteko neurri eta/edo horri laguntzeko zerbitzu malguak garatzea, eskolaldiaren iraupenarekin loturarik gabe, eta jendea zaintzeko unean uneko arreta ere ahalbidetuta (esaterako, zerbitzu-txekeak, bonuak, umezain-zerbitzuak, etab.), betiere prestakuntzako ekintza eta enplegurako zerbitzu guztietan emakumeen parte-hartzea ziurtatzearren.
Jarraipena	1M.1.12.	Diru-laguntza publikoa jaso duten prestakuntza-eskaintzetan eta enplegu/prestakuntzako programetan, emakumeenganako zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa atzemateko jarraipen-mekanismoak ezartzea, elementu zuzentzaileak txertatuta, edo, dagokionean, prestakuntza ematen duen erakundearekiko lankidetzeta-hitzarmena bertan behera utzita: sartzeko baldintzengatik, hartzeko eta hautatzeko prozesuengatik, ezagutarazteko bideengatik, hizkeragatik, etab.
Jarraipena	1M.1.13.	Baztertzailak izan daitezkeen lan-eskaintzak identifikatzeko prozedurak ezartzea, eta neurri zuzentzaileak aplikatzea.
Jarraipena	1M.1.14.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

## AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA – 1A--:		
ENPLEGURAKO SARBIDEA AUKERA BERDINTASUNEAN		
1A.1. HELBURUA:		
Teknologiaren eta jakintzaren arloko osagai handia duten puntako sektoreetako enplegu teknikoetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta.		
1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.1.1.	Emakumeen parte-hartzeari buruzko diagnostikoa egitea, erreferentzia-sektoretako lanbide teknikoetan (besteren kontura, autonomo eta sustatzaile gisa); unibertsitate, zentro teknologiko eta enpresen arteko I+G+B-ko proiektuetan; eta enpresetako beka-programetan. Jarduera horien eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko ezinbestekoak diren hasierako adierazleak diseinatu beharko dira diagnostiko horretan.
Jakintza	1A.1.2.	Sektore horietan emakumeen kontratazio bereizgarrian eragiten duten hautatze-prozesuak eta zenbait faktore aztertzea, eta faktore horiek leuntzeko jardunak diseinatzea.
Sentsibilizazioa	1A.1.3.	Erreferentzia-sektoretako enpresetara eta giza baliabideetako kontsultoretzatara zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak egitea, erreferentzia-sektoretan emakumeak kontratatzea mugatzen duten estereotipoak desagerraraztearren, enpresa-erreferente positiboak sortuta, eta baztertzailak ez diren hautatze-prozedurak sustatzearren.
Sentsibilizazioa	1A.1.4.	Emakumeenganako sentsibilizazio-ekintzak egitea, sektore horietako okupazioetan emakumezko erreferenteak sortuta, eta erreferentzia-sektoretako enpresetako erantzukizun-karguetan emakumeen sareak sortuta, betiere okupazio horietarako emakumeen sarbidea errazteko asmoz.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.5.	Emakumezko ikertzaileei, bekadun/ikertzaileei eta horrekin lotura duten karreretako azken urteko ikasleei orientazio-zerbitzua eskaintzea, erreferentzia-sektoreek eskaintzen dituzten aukeren inguruan, besteren konturako lanari dagokionez, lan autonomoei dagokienez eta enpresak sortzeari dagokionez. Besteak beste, Euskadiko klusterren bitartez, erreferentzia-sektoretako enpresekin komunikazio-sistema iraunkorra ezarrita lortuko da informazio-inputa, behar diren eskumenak eta langileen premiak atzemateko.
Prestakuntza	1A.1.6.	Zeharkako eskumenei (talde-lana, proiektuak kudeatzea, bezeroekin loturikoak, zuzendaritza-trebetasunak) eta jarrera berritzailea eta lanbide-proiektzioa garatzeari buruzko prestakuntza diruz laguntzea, emakumezko ikertzaileei, bekadun/ikertzaileei eta erreferentzia-sektoretako lanbideekin lotura duten karreretako azken urteko ikasleei zuzenduta.
Prestakuntza	1A.1.7.	Enpresetan praktikak egiteko programetan eta enpresetan doktore-tesiak egiteko beka-programetan emakumeen parte-hartze kuota bat ezartzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.8.	Enplegua sustatzeko programa bat garatzea, erreferentzia-sektoretako lanpostu teknikoetan emakumeak kontratatzeari lagunduta, eta emakumeak kontratatzeko laguntza ekonomikoak emanda enpresei.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.9.	Lan-poltsak kudeatzen dituzten unibertsitatei eta zentro teknologikoei pizgarriak ematea, emakumeek ordezkaritza txikiagia duten lanbidetan kontratatuturiko emakumeen kopurua handitzea lor dezaten.
Jarraipena	1A.1.10.	Unibertsitateen eta zentro teknologikoen lan-poltsetan izan daitezkeen lan-eskaintza baztertzailak identifikatzeko jarraipena egitea, eta neurri zuzentzaileak ezartzea, dagokionean.
Jarraipena	1A.1.11.	Abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.



**1A.2. HELBURUA:**

Industria-sektore tradizionalak osagai teknikodun enpleguetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta.

**1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK**

<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1A.2.1.	Sektore horietako emakumeen kontratazio bereizgarrian eragiten duten hautatze-prozesuak eta zenbait faktore aztertzea, eta faktore horiek ezabatzeko jardunak diseinatzea.
Sentsibilizazioa	1A.2.2.	Emakume langabetuei zuzenduta, informazioko, motibazioko eta orientazioko ekintzak egitea, ordezkari txikiak duten industria-sektoreetako okupazio teknikoetan lana bilatzeari ekin diezaioten, kontratatze aukera handiak baitaude, kalitatezko enplegua izanik. Lanbide horietan okupaturiko emakumeen erreferenteak baliatzea.
Sentsibilizazioa	1A.2.3.	Familiei zuzendutako informazioko eta sentsibilizazioko ekintzak (hitzaldiak, industria-enpresetara bisitaldiak, etab.) egitea, industria-produkzioan emakumeek lan egiteko dauden aurreiritziak ezabatzeko, produkzio-prozesuetan izandako aldaketak nabarmenduta, baita enplegu mota horren kalitateari dagozkion onurak ere.
Sentsibilizazioa	1A.2.4.	Enpresaburuei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak egitea, emakumeak kontratatzea eragozten duten estereotipoak ezabatzeko asmoz, batik bat, ordezkari txikiak duten lanbidetan. Horretarako, praktikak egiteko eta/edo lanerako emakumeak kontratatuta dituzten enpresa-erreferenteak baliatu behar dira, bereziki industriaren sektorekoak.
Prestakuntza	1A.2.5.	Prestakuntza-eskaintzan moduluak txertatzea, honako gai hauen inguruan: antolaketa-eredu berrien inguruan, aitzindaritzaren inguruan, produkzio-moduen inguruan, eta abarren inguruan, baita industriaren sektorean lana bilatzen ari diren emakumei laguntzeko prestakuntza ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.6.	Adina gorabehera, emakumeen enplegua sustatzeko eta kontratazioari laguntzeko programak garatzea, enpresei emakumeak kontratatze laguntza ekonomikoak emanda, hainbat kontratazio modalitatetan emakumeen parte-hartze kuota handitzeko, eta batik bat, ordezkari txikiak duten lanbidetan eta kategoriatan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.7.	Erreferentzia-sektoretako lanbide teknikoetan –batik bat, ordezkari txikiak duten kategoriatan– sartzeko emakumeak gaituko dituen prestakuntza-ekintzetan emakumeen parte-hartzea sustatzea.
Arauk	1A.2.8.	Lanerako Prestakuntzari eta enplegu/prestakuntzako programei diru-laguntzak emateko garaian, lehenetsutako irizpidetza hartzea honako hau: prestakuntza-prozesuaren barruan, emakumeek enpresetan praktikak egitea, batik bat ordezkari txikiak duten lanbidetan.
Arauk	1A.2.9.	Lanerako prestakuntzako eta enplegu/prestakuntzako proiektuei zuzendutako laguntzak emateko garaian, balioespen-irizpidetza hartzea honako hau: proiektuen diseinuan, betearazpenean eta ebaluazioan genero-ikuspegia txertatzea.
Jarraipena	1A.2.10.	Enpresetan praktikak egiteko programei jarraipena egiteko mekanismoak ezartzea, emakumeen parte-hartzea ziurtatzeko, batik bat, ordezkari txikiak duten okupazioetan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.11.	Enpleguaren eta prestakuntzaren eremuan lan egiten duten profesionalen sareak indartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ebaluazioak eta esperientziak elkartrukatzea eta koordinatzea erraztearren.
Jarraipena	1A.2.12.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

### 1A.3. HELBURUA:

Enpresa-ekimenak sortzen eta sendotzen emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumezko sustatzaileen parte-hartzea areagotuta, batik bat, ordezkari-tza txikiegia duten sektoretan eta lanbidetan.

### 1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.3.1.	Emakumezko enpresaburuen egoera eta premiak aztertzea, estrategia hau osatzen duten jardunak ahalik eta modu eraginkorrenean garatze aldera.
Jakintza	1A.3.2.	Emakumeen enpresa-ekimenak sortzeko eta indartzeko finantziario-formulak aztertzea: laguntza-fondoak, banketxeekiko hitzarmenak kreditu mesedegarriak eta/edo abalik gabeko kredituak emateko...
Prestakuntza	1A.3.3.	Emakumezko ekintzaileei eta enpresaburuei zuzendutako programetan, faktore psikosozialek jardura ekintzailean duten eraginari buruzko hausnarketa-moduluak txertatzea, baita zeharkako trebetasunetako eta berrikuntzarako prestakuntza ere, metodologia esperientzialekin (mentoring, coaching, etab.)
Prestakuntza	1A.3.4.	Emakumezko enpresaburuei eta ekintzaileei zuzendutako programetan, emakumeek osaturiko enpresen arteko lankidetzak eta sare-lana sustatzeko jarraibideak txertatzea.
Prestakuntza	1A.3.5.	Landa-eremuko emakumei begirako prestakuntza-ekintzak egitea, enpresako eta merkataritzako teknikei buruz, kooperatibismoari buruz, produkzio teknika berriei buruz, eta eremu horrekin loturiko jardura ekonomikoari buruz: turismoa, artisautza, etab.
Araukak	1A.3.6.	Emakumeek ordezkari-tza txikiegia duten sektoretan eta lanbidetan, emakumeek sustatuko enpresa-ekimenei (autoenplegua, enpresak, kooperatibak eta lan sozietate anonimoak) lehentasuna ematea enpresa-proiektua lantzeko prestakuntza- eta aholkularitza-prozesuetarako sarbidean, proiektuaren bideragarritasuna aztertzean, eta enpresa abiarazteko prozesuan, baita eratze-gastuak, aktiboetan egindako inbertsioak eta funtzionamendu-gastu orokorrak finantzatzeko diru-laguntzetarako sarbidean ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.7.	ETEak sustatzen dituzten emakumeentzat pizgarriak ezartzea, ordezkari-tza txikiegia duten sektoretan eta lanbidetan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.8.	Gizarte-ekonomiako enpresetan emakume langabetuak bazkide-langile gisa edo langile gisa sartzeko pizgarriak ematea.
Jarraipena	1A.3.9.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

## 2. AHALDUNTZE PROGRAMA -2A-: EMAKUMEEN ETA GIZONEN LAN BALDINTZAK PAREKATZEA

### 2A.1. HELBURUA:

Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jarduera-adarrei lehentasuna emanda.

### SEKTORE PUBLIKOA

### 2A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2A.1.A.1.	Genero-diagnostikoa egitea, emakumeen lan-baldintzetan izan daitezkeen diskriminazioak edo desorekak identifikatzeko, ezarritako gutxieneko nahitaezko edukiak betez, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko beharrezko adierazleak ezarri.
Sentsibilizazioa	2A.1.A.2.	Honako hauek ezagutaraztea euskal gizarteari: genero-diagnostikoen emaitzak, emakumeen eta gizonen arteko desorekak ezabatzeko hartutako neurriak, eta jardun horien eragin-ebaluazioaren emaitzak.
Prestakuntza	2A.1.A.3.	Administrazio eta enpresa publikoetan, erakundeetan berdintasuna ezartzeko beharrezkoa den prestakuntza ematea lan-baldintzak kudeatzeaz arduratzen direnei.
Arauk	2A.1.A.4.	Administrazio publikoek eta horien mendeko enpresek -langileekiko negoziazio kolektiboaren bitartez- enplegu publikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak proposatzen dituztela ziurtatzea.
Arauk	2A.1.A.5.	Gehienbat kapital publikoarekin partaidetutako enpresetan eta administrazio publikoetan berdintasunerako planak lantzea eta ezartzea, egindako diagnostikoen ondorioetan oinarrituta, eta barne-funtzionamenduan identifika daitezkeen diskriminazioak eta desorekak ezabatzeko neurri zehatzak eta eraginkorrak barnean hartuta.
Arauk	2A.1.A.6.	Berdintasun-planen jardun-eremuetan sartzea lanbide-sailkapenaren, lanpostuen balioespenaren eta dagozkien ordainsarien berrikuspena, gehienbat emakumeek okupaturiko lanpostuen eta lanbide-kategorien balioa gutxitzea saihesteko eta balio bereko lanaren aurrean soldata-aldeak desagerrarazteko, baita zeharkako diskriminazioa identifikatu eta ezabatzeko ere, eginkizunen araberako plusen eta osagarrien bitartez.
Jarraipena	2A.1.A.7.	Diagnostikoetan eta berdintasun-planetan gutxieneko nahitaezko edukiak gutxienez barnean hartzen direla bermatzeko beharrezko prozedurak ezartzea.
Jarraipena	2A.1.A.8.	Abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

SEKTORE PRIBATUA		
2A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2A.1.B.1.	Sexuaren araberako ordainsariei buruzko funtsezko datuen bilketa sistematikoa egitea eta hobetzea, jardun-sektoreak eta lanbide-kategoriak aintzat hartuta. Gizonen eta emakumeen ordainsarien eta soldatetako desoreka kuantitatiboaren bilakaera eta jarraipena egitea ahalbidetuko duten hasierako adierazleak ezartzea.
Jakintza	2A.1.B.2.	Negoiazio kolektiboan berdintasunerako politikak txertatzearen eremuko gidak, metodologiak eta esperientziak biltzea eta ezagutaraztea edo gizarte-eragileen esku jartzea, baita enpresetan berdintasuna ezartzeko lan-metodologiak ere.
Sentsibilizazioa	2A.1.B.3.	Lan Harremanen Kontseiluko kide diren erakundeen artean, sektore pribatuaren negoziazio kolektiboan emakumeen lan-baldintza txarrak hobetzeko neurriak ezar daitezzen sustatzea, ordainsarietan diskriminazioa ezabatzeko neurriak, batik bat.
Prestakuntza	2A.1.B.4.	Bereziki balio bereko lanen aurrean ordainsari berdinak lortzeari dagokionez, enpresetan berdintasuna lortzeko modu praktikoa eta lege-xedapenak hobeto ezagutzearen, prestakuntza praktikoko eta juridikoko ikastaroak diruz laguntzea. Sindikatuei eta enpresaburu-elkarteei begirako ikastaroak izango dira.
Prestakuntza	2A.1.B.5.	“Lan-eremuan, emakumeenganako desorekak eta diskriminazioak” gaiari buruzko prestakuntza-plana diseinatzea eta ematea lan-ikuskatzaileei, sexuak eragindako diskriminazio-egoerak kontrolatzeko eta ezabatzeko zeregina behar bezala bete dezaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.B.6.	Erakunde horietan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko, eta adituak kontratatuzko laguntzak ezartzea enpresentzat, sindikatuentzat eta enpresaburu-elkartentzat.
Arauk	2A.1.B.7.	“Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko erakunde laguntzailetzat” hartzea berdintasun-politikak garatzen dituzten erakundeak.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.B.8.	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak abiarazteak kostu ekonomiko erantsia eragiten dien enpresentzat zerga-pizgarriak ezartzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.B.9.	Emakumeak lanaldi osorako kontratatuzko, eta emakumeen behin-behineko edoaldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeko pizgarriak ematea.
Arauk	2A.1.B.10.	Lan Ikuskaritzaren jardunearan lehentasuntzat definitzea honako hau: sexuak eragindako diskriminazio-egoerak kontrolatzea eta ezabatzea, soldata-diskriminazioei arreta berezia eskainita.
Arauk	2A.1.B.11.	Lizitazioak esleitzeko eta diru-laguntzak emateko irizpideetan txertatzea honako hau: erakunde lizitatuak edo diru-laguntzen onuradun direnetan berdintasun-politikak ezartzea.
Jarraipena	2A.1.B.12.	Berdintasunerako plan edo programa horietan jaso behar diren gutxieneko edukiak, eta plan edo programa horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak ezartzea.
Jarraipena	2A.1.B.13.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

<b>2A.2. HELBURUA:</b>		
Sektore publikoan eta sektore pribatuan, erantzukizun handiko postuetan emakumeen presentzia areagotzea.		
<b>SEKTORE PUBLIKOA</b>		
<b>2A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	2A.2.A.1.	Maila teknikoen Zerbitzu Batzordearen postuak betetzeko balioesten diren merituen, eta/edo esleipen-irizpideak aztertzea, meritu edo irizpide horiek gehienbat gizonaen mesederako ote diren jakiteko. Kasuak kasu, atzemandako desabantailak leuntzeko ekintza zuzentzaileak diseinatzea.
Prestakuntza	2A.2.A.2.	Erantzukizun handiko postuak lortzeko beharrezkoak diren eskumenen inguruko prestakuntza homologatzea, emakumeen prestakuntza-premiak kontuan izanik (eduki teknikoak eta zeharkako trebetasunak).
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.2.A.3.	Erantzukizun handiko postuetako lan-denborak egokitzea lanaldiaren arabera eta/edo bateragarritasunari laguntzeko neurriak edo zerbitzuak eskaintzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.2.A.4.	Barne-prestakuntza lanaldiaren barruan ematea eta/edo bateragarritasunari laguntzeko neurriak edo zerbitzuak eskaintzea.
Arauak	2A.2.A.5.	Lanaldi-murrizketa hartu duten guztiei barne-prestakuntzarako sarbidea bermatzea, batik bat, lanpostuz igotzea eta/edo lan-baldintzak hobetzea ahalbidetzeko prestakuntza baldin bada.
Arauak	2A.2.A.6.	Dagokionean, Zerbitzu Batzordeko postuak betetzeko identifikatu diren neurri zuzentzaileak aplikatzea, emakumezkoen kolektiboa kaltetua izan ez dadin.
Arauak	2A.2.A.7.	Erantzukizun handiko postuetan emakumeak sartzeko ekintza positiboko neurriak ezartzea, batik bat ordezkari txikiak duten lanbide-kategoriatan, betiere pixkanaka-pixkanaka parekotasuna lortzearen horrelako postuetan.
Jarraipena	2A.2.A.8.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

SEKTORE PRIVATUA		
2A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2A.2.B.1.	Etengabeko prestakuntza-programetan emakumeen eta gizonen parte-hartze bereizgarria aztertzea, baita programa horiek bi kolektiboetan duten eragina ere, eta dagokionean, aldean arrazoiak.
Sentsibilizazioa	2A.2.B.2.	Etengabeko prestakuntzaren sustatzaile nagusi izaki, sindikatuek eta enpresaburu-elkarteak sentsibilizatzeko jarduerak egitea, prestakuntzako programen diseinuan eta garapenean emakumeentzako ekintza positiboak txerta ditzaten, batik bat erantzukizun handiko postuak okupatzeko ezinbestekoak diren eskumen teknikoetan eta zeharkakoetan (proiektuen kudeaketa, lan-taldeen kudeaketa, zuzendaritza-trebetasunak, berrikuntzarako prestakuntza, etab.).
Sentsibilizazioa	2A.2.B.3.	Sindikatuak eta enpresaburu-elkarteak honako hau proposatzea: erantzukizun handiko postuetako lan-denborak lanaldiaren arabera egokitzea, eta/edo lan-arloko, familiaren eta norberaren bizitza bateragarri egiteko neurri lagungarriak ezartzea, baita lanpostuz igotzeko emakumeekiko ekintza positiboko neurriak ezartzea ere.
Sentsibilizazioa	2A.2.B.4.	Sindikatuak eta enpresaburu-elkarteak negoziazio kolektiboan honako hauek txerta ditzaten sustatzea: lanpostuz igotzeko irizpideak eta/edo emakumei erantzukizun handiko postuetarako sarbidea bermatzeko ekintza positiboak.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.2.B.5.	Prestakuntza-ekintza guztietan emakumeen parte-hartzea bermatzeko mekanismoak ezartzen dituzten Prestakuntza Planei pizgarriak ematea, batik bat, emakumeek ordezkaritza txikiak duten lanpostutara edo mailatara sartzeko gaikuntza emango dieten kasuetan.
Jarraipena	2A.2.B.6.	Diru-laguntza publikoa jaso duen etengabeko prestakuntzan, emakumeenganako zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa atzemateko jarraipen-mekanismoak ezartzea, elementu zuzentzaileak txertatuta, edo, dagokionean, prestakuntza ematen duen erakundearekiko lankidetzaren hitzarmena bertan behera utzita: sartzeko baldintzengatik, hartzeko eta hautatzeko prozesuengatik, ezagutarazteko bideengatik, hizkeragatik, etab.
Jarraipena	2A.2.B.7.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

**2A.3. HELBURUA:**

Gainerako langileen lan-baldintzetatik at dauden emakumezkoen langile-kolektiboen lan-baldintzak eta gizarte-estaldura parekatzeari bultzada ematea.

**2A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK**

<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	2A.3.1.	Gizarte Segurantzaren Erregimen Berezetan emakumeen egoera eta premiak aztertzea (Etxeko Zerbitzurako langileak eta Nekazaritzako Erregimen Berezia...).
Jakintza	2A.3.2.	Etxeko Zerbitzurako sektorearen ezkutuko ekonomia agerian uztea ahalbidetuko duten neurriak aplikatzeari buruzko ikerketak egitea, zerbitzuak emateko erakundeak sortuta Enplegu Sorgune Berrien filosofiari jarraiki, zerbitzu-txekoa...
Sentsibilizazioa	2A.3.3.	Etxeko Zerbitzurako lan-emateen artean informazioa banatzea, kontratatzaile gisa dituzten betebeharren inguruan.
Sentsibilizazioa	2A.3.4.	Etxeko Zerbitzurako langileen lan-eskubideak ezagutaraztea, baita kolektibo horren gizartearen eta lanaren arloko baldintzak ere.
Araukak	2A.3.5.	Jarduera nagusia nekazaritzako ustiapenetan garatzen duten emakumeak jabe gisa edo jabe-kide gisa titular edo titularkide izateari bultzada ematea, titular edo titularkide izate horrek dakartzan eskubideen berri emanda.
Araukak	2A.3.6.	Estatuko Administrazioaren beste mailekin ekintza bateratuak egiteko aukera proposatzea, etxeko zerbitzuko lan-baldintzak gainerako langileekin parekatzeari, eta, batik bat, Erregimen Berezia eta Nekazaritzako Erregimen Berezia Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrekin parekatzeari dagokionez.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.3.7.	Etxeko zerbitzuak eskaintzeko erakundeak sortzeari pizgarriak eta laguntza teknikoak emateko programa pilotua abiaraztea, emakumezko langileen lan-baldintzak hobetzeko zerbitzu horiek eskaintzeko beste modu batzuekin esperimentatzeko asmoz. Programa ebaluatzea eta praktika onak politika publikoetara eramatea.
Jarraipena	2A.3.8.	Abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

**BATERAGARRITASUNA ETA  
ERANTZUNKIDETASUNAREN  
ARDATZA**

<b>1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA - 1B-: GIZARTEA ANTOLATZEKO EREDU BERRIA SUSTATZEA</b>		
<b>1B.1. HELBURUA:</b>		
Etxeko eta zaintzako lanen balio ekonomikoa sistematikoki gehitzea gizarte-egituraren eta egitura ekonomikoaren inguruko azterketei, betiere produkzio-eremuarekin loturik aurkeztuta, hau da, produkzio-lanean eta ugalketa-lanetan emandako denborak batuta.		
<b>1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1B.1.1.	Soilik etxeko lanetan aritzen direnei ez-aktibo kalifikazioa kentzeko sistema estatistikoak garatzea, horien egoeraren berri izateko beharrezkoak diren kategoriak sartuta.
Jakintza	1B.1.2.	Etxeko lanaren (jendea zaintzea barnean hartuta) balio ekonomikoa kalkulatzeko sistemak garatzea eta aplikatzea, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko makromagnitude ekonomikoetan (BPG, NPG, Errenta Nazionala...) txertatzea.
Jakintza	1B.1.3.	Emakumeek doan egindako etxeko eta zaintzako lanek eragindako gizarte-aurrezkoa kalkulatzea.
Jakintza	1B.1.4.	Hainbat lanbide-kategoriatako emakumeen lanaldiaren konparazio-kalkuluak egitea, gizonen produkzio-lana beren gain hartu ahal izateko emakumeek produkzio-lanetarako eta etxeko eta zaintzako lanetarako eman beharreko denbora kontuan hartuta, betiere honako hauek agerian uzteko: bizitzari eusteko oinarrizko premiak gizartean ez direla aintzat hartzen, eta ugalketako edo mantenuko lan-banaketarik ez dagoela.
Sentsibilizazioa	1B.1.5.	Lanbide-kategorien arabera, lanaldi osoaren iraupenari dagozkion kalkuluak eta ugalketa-lanetan izandako gizarte-aurrezkiaren zenbatekoa euskal gizartean ezagutaraztea, helburu eredugarriari jarraiki.
Araukak	1B.1.6.	Lanaldiaren egiazko iraupena (produkzio-lanaren, eta etxeko eta zaintzako lanaren denbora batuta) sistematikoki aintzat hartzea, gizartearen eta ekonomiaren arloko politika guztietan, gizarte-denborak egokitzearen gizarte-premia guztiak betetze aldera.
Araukak	1B.1.7.	Eskualdearen edo udalaren eremuko esperientzia pilotua gauzatzea, gizarte-premia guztiak betetzeko gizarte-antolamenduan egin beharreko aldaketak eta sexuen arteko lan-banaketa ekitatiboa neurtzeko. Aldaketa horien eragina neurtzea eta izandako esperientzia eta emaitzak ezagutaraztea.
Jarraipena	1B.1.8.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.



**2. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –2B–:  
NORBERAREN, FAMILIAREN ETA LAN ARLOKO BIZITZA BATERAGARRI  
EGITEKO NEURRIAK ETA LAGUNTZA ZERBITZUAK**

**2B.1. HELBURUA:**

Etxeko eta zaintzako lanetan emandako denboraren erabileran emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, murrizketa hori honela zehaztuta: inoren laguntza behar duten lagunak zaintzeko eta amatasunak/aitatasunak eragindako baimenak eta lizentziak hartzen dituzten gizonen kopurua areagotuta administrazio publikoetan nahiz sektore pribatuan.

**SEKTORE PUBLIKOA**

**2B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK**

<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	2B.1.A.1.	Denboraren Erabilerari buruzko Inkesta bost urtean behin egiten denez, proposaturiko adierazleak bi urtean behin eguneratzea.
Sentsibilizazioa	2B.1.A.2.	Sentsibilizazio-ekintzak egitea, inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatiko eta aitatasunagatiko baimenak eta lizentziak gizonak har ditzaten.
Prestakuntza	2B.1.A.3.	Lanerako prestakuntzako ikastaro guztietan modulu bat txerta dadin bultzatzea, gizonak etxeko lanetan eta familia-erantzukizunetan erantzunkidetasuna hartzea beharrezkoa dela lantzeko.
Prestakuntza	2B.1.A.4.	Erantzunkidetasuna ezinbestekoa dela sentsibilizatzeako prestakuntza-produktuak (autoprestakuntza, bideoak, bestelakoak) prestatzea, eta enplegurako baliabide aktibo guztietan zabaltea.
Prestakuntza	2B.1.A.5.	Gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko baimenei eta lizentziei dagokienez, langileen eskubideen inguruko prestakuntza-ekintzak egitea, administrazio publikoetan giza baliabideak kudeatzeaz arduratzen direnei begira.
Arauk	2B.1.A.6.	Lanpostuen balioespena eta dagokien soldata-eskala berriz aztertzea genero-ikuspegitik begiratuta, gehienbat emakumeek okupatzen dituzten lanpostuetan gizonak okupaturiko balio bereko lanpostuen antzeko ordainsariak jasotzen dituztela bermatzeko.
Arauk	2B.1.A.7.	Inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatiko eta amatasunagatiko/aitatasunagatiko baimenak hartzen dituztenei lehenago lanpostuetara itzuliko direla bermatzea, euren lanbide-garapenean kalteak izatea saihestuta.
Arauk	2B.1.A.8.	Amatasunagatiko eta aitatasunagatiko baja edo baimen guztiak behar den denboran eta moduan aurreikustea eta ordezkatzeta.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.1.A.9.	Familia-arloko arazoiek eragindako eta amatasunarekin/aitatasunarekin loturiko baimenen erregimena zabaltea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.1.A.10.	Ordaindu gabeko baimenak hartzeko aukera ezartzea, indarreko legedian aurreikusten ez diren beste aukerak betetzeko (adopzioa bideratzea, iraupen luzeko gaixotasunak familian...).
Jarraipena	2B.1.A.11.	Inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatiko eta amatasunagatiko/aitatasunagatiko baimenak emakumeek eta gizonak har ditzaten eragozpenak jartzen dituzten egoerak atzemateko jarraipena egitea. Eta dagokionean, neurri zuzentzaileak ezartzea.
Jarraipena	2B.1.A.12.	Amatasunagatiko/aitatasunagatiko baimen guztiak lantokietan ordezkatzeko direla ziurtatzeko jarraipen- eta kontrol-mekanismoak ezartzea.
Jarraipena	2B.1.A.13.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

SEKTORE PRIVATUA		
2B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Sentsibilizazioa	2B.1.B.1.	Familia-arloko arrazoiengatiko baimenak, lizentziak eta eszedentziak, baita amatasunak eta aitatasunak eragindakoak ere, arautzen dituzten arauak ezagutaraztea langileen artean; halaber, Administrazio Publikoak neurri horiei heltzen zaizkien langileei ematen dizkien laguntzen berri ere ematea.
Sentsibilizazioa	2B.1.B.2.	Gure Erkidegoan eta kanpoan, erantzunkidetasunarekin loturik, enpresek garatutako esperientziak eta praktika onak ezagutaraztea enpresaburuaren artean.
Sentsibilizazioa	2B.1.B.3.	Gizarte-eragileen arteko elkarrikerak sustatzea hitzarmen kolektiboetan honako hauek txerta ditzaten: amatasunagatiko /aitatasunagatiko baimenei edo edoskitzeagatiko baimenei dagokienez, lege-araudian ezarritako iraupena luzatzea; baimen hori baliatzeko garaian malgutasuna ematea, langileen premien arabera; eta bi gurasoek lan egiten duten kasuetan, baimen horren zati bat aitak hartzeko aukera dagoela xedatzen duen indarreko lege-araudia. Baimen horiek gizonak baliatzeko ahalegina egingo da.
Prestakuntza	2B.1.B.4.	Sindikatuak eta enpresaburu-elkarteei zuzendutako prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea, amatasunagatiko/aitatasunagatiko edo inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatiko baimen eta lizentzia horiek hartzen dituztenak ez daitezkeen kalteak suertatzen diren lanbide-garapenean. Prestakuntza horren barruan sartuko dira lanpostuen balioespina eta dagozkien ordainsariak berrikusteko irizpideak, gehienbat emakumeek okupatzen dituzten lanpostuetan gizonak okupaturiko balio bereko lanpostuen antzeko ordainsariak jasotzen dituztela bermatzeko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.1.B.5.	Baimenak eta lizentziak gizonak hartzeko pizgarriak ematea.
Jarraipena	2B.1.B.6.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

**2B.2. HELBURUA:**

Laneko denbora berrantolatze eta ordutegia malgutzeko zerbitzuak eta/edo neurriak ezartzea langileen lan-baldintzetan, administrazio publikoetan eta horien mendeko enpresetan, baita sektore pribatuko enpresetan ere, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jarduera-adarrei lehentasuna emanda.

**SEKTORE PUBLIKOA****2B.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK**

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2B.2.A.1.	<p>Lanaldia egokitzeko zenbait formula aztertzea, eta lan-zamaren, antolaketaren ezaugarrien eta langileen egoeraren arabera, egokienak direnak aplikatzea, betiere ohikoa ez den lanaldia hartzen dutenei honako hauek bermatuz gero:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez zaie eragotziko ez lanbide-garapena, ezta barne-sustapena ere.</li> <li>- Ez dira erantzukizun gutxiko edo erabakitze ahalmen txikiko postuetara aldatuko.</li> <li>- Ez dute barne-prestakuntzako aukerarik galduko antolaketan lan-zentro nagusitik urrun egonda ere.</li> </ul>
Sentsibilizazioa	2B.2.A.2.	Langileei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak egitea, bateragarritasunari laguntzeko neurriak baliatzeko motibatzearen.
Prestakuntza	2B.2.A.3.	Administrazio publikoetan, giza baliabideak eta lan-baldintzak kudeatzeaz arduratzen direnei prestakuntza ematea, bateragarritasuna eta bateragarritasuna bermatzeko neurriak aplikatzea beharrezkoa dela ikusarazteko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.2.A.4.	Gizonei nahiz emakumeei zuzenduta, bateragarritasunari laguntzeko zerbitzuak ezartzea, laguntza-zerbitzuei dagokienez premiak edo lehentasunak atzemateko azterketa oinarri hartuta.
Araua	2B.2.A.5.	Laneko bilerak edo jende askoren parte-hartzea eskatzen duten bestelako jarduerak egiteko ordutegia zehaztea, horrelako jarduerak ordu jakinetan edo egun jakinetan jartzea ezinezkoa izanik.
Jarraipena	2B.2.A.6.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

SEKTORE PRIBATUA		
2B.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2B.2.B.1.	Enpresaren testuinguruan, lan-arloko, norberaren eta familiaren bizitza bateragarri egiteko esperientziak eta praktika onak, materialak eta azterlanak biltzea eta ezagutaraztea edo enpresen eta sindikatuen esku jartzea.
Jakintza	2B.2.B.2.	Billetako eta/edo gastuko sistema publikoetan sar daitezkeen mekanismoak –zerga-onurak, prezio publikoak...– aztertzea, norberaren, familiaren eta lan-arloko premiak bateragarri egiteko laguntza ekonomikoak txerta daitezzen.
Jakintza	2B.2.B.3.	Egiaztatze-erakundeen bitartez arau berria ezartzeko helburua lortzearen bideragarritasuna eta eraginkortasuna aztertzea, “enpresa bateratzaileak” edo “familiarekiko arduratsuak” ziurtagiria emanez enpresei.
Sentsibilizazioa	2B.2.B.4.	EFQM ereduaren “langileen gogobetetze-maila” irizpidean sar daitezkeen bateragarritasun-neurriak ezagutaraztea langileak hautatzeko enpresetan, eta enpresen kudeaketako eta zuzendaritzako ereduak ezartzen aritzen diren enpresetan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.2.B.5.	Bateragarritasuna bermatzeko zerbitzuak eta/edo neurriak ezarri behar dituzten enpresa pribatuei informazioa, aholkularitza eta prestakuntza ematea, baita lor daitezkeen laguntzen berri ematea ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.2.B.6.	Zerbitzu soziokomunitarioen mantentze-lanetan eta/edo egokitzean laguntza ekonomikoak ematen dituzten enpresentzat zerga-pizgarriak ezartzea, ezarritako helburua betetzeko moduan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.2.B.7.	Erantzukizun Sozial Korporatiboaren programetan, lan-arloko, familiaren eta norberaren bizitza bateragarri egiteko neurriak eta/edo zerbitzuak txertatzeko pizgarriak ematea.
Jarraipena	2B.2.B.8.	Laneko denbora malgutzeko neurriak, eta bateragarritasunari laguntzeko zerbitzuak eta/edo neurriak abiarazteko laguntzak eta/edo zerga-pizgarriak jaso dituzten enpresen jarraipena eta kontrola egiteko mekanismoak ezartzea.
Jarraipena	2B.2.B.9.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

**EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIAREN ARDATZA**

<b>1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA -11-: LANEAN JAZARPEN SEXISTAREN PREBENTZIOA ETA DESAGERTZEA</b>		
<b>11.1. HELBURUA:</b>		
Jazarpen sexistari aurre egitearren, prebentzioko eta jarduteko protokoloak ezartzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jarduera-adarrei lehentasuna emanda, jazarpen sexista hori agerian uzteko eta murrizteko asmoz.		
<b>SEKTORE PUBLIKOA</b>		
<b>11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	11.1.A.1.	Jazarpen sexistak izan ditzakeen formak, zein egoeratan gertatzen den, eta biktimarentzako eta erakundearentzako ondorioak aztertzea.
Jakintza	11.1.A.2.	Jazarpen sexistaren eraginari eta maiztasunari dagokionez, hasierako egoera kuantifikatzea eta egindako aurrerapenak neurtzea ahalbidetuko duten adierazleak identifikatzea, bai sektore pribatuan, bai publikoan. Honako hauen arabera, gutxienez, bereiztea: jarduera-sektorearen, lanbide-kategoriaren eta kontratu motaren arabera.
Araukak	11.1.A.3.	Printzipioen adierazpena lantzea, administrazio publikoek eta mendeko enpresek jazarpen sexistaren aurrean harturiko prebentzioko eta ezabatzeko konpromisoa (zero tolerantzia-maila) agerian uztearren.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.A.4.	Jazarpen sexistaren egoeretan, prebentzioko, ebazteko, aholkularitzako, asistentziako, ikerketako, salaketako eta zigortzeko prozedurak lantzea.
Prestakuntza	11.1.A.5.	Administrazio publikoetan erantzukizun handiko karguak dituztenei prestakuntza espezifiko ematea, batik bat, giza baliabideak kudeatzen dituztenei, arazoaren prebentzioa eta ebazpen eraginkorra bermatze aldera. Prebentzio-jarduera gisa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako prestakuntza ere ematea.
Araukak	11.1.A.6.	Jazarpen sexistaren egoerak ebazteko hartutako neurriek biktimen lan-baldintzei kalterik ez eragiteko mekanismoak ezartzea.
Jarraipena	11.1.A.7.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

SEKTORE PRIVATUA		
11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	11.1.B.1.	Jazarpen sexista tipifikatzen duten araudi guztiak (nazioartekoak, Europakoak, estatukoak eta Autonomia Erkidegokoak) ezagutaraztea enpresetan, sindikatuetan eta langileen artean.
Sentsibilizazioa	11.1.B.2.	Jazarpen sexista zer den eta zer ez den argitzeko, nola tratatu eta nola aurrea hartu jakiteko ikus-entzunezko materiala sortzea eta enpresetan eta sindikatuetan banatzea.
Prestakuntza	11.1.B.3.	Lan-ikuskatzaileei prestakuntza ematea, jazarpen sexista ezabatzeko euren ikuskapen-zeregina gauza dezaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.B.4.	Prebentzio-ordezkariei eta enpresaburu-elkarteei zuzenduta, jazarpen sexistaren prebentzioari eta tratamenduari buruzko prestakuntza emateko pizgarriak eskaintzea, gai hori negoziazio kolektiboan txerta ahal izan dezaten.
Araukak	11.1.B.5.	Lan Ikuskaritzaren helburuetan eta jardute-irizpideetan honako hauek sartzea: jazarpen sexista debekatzeko arauak betetzen direla zaintzea eta eskatzea.
Araukak	11.1.B.6.	Enpresetan jazarpen sexistaren prebentzioko eta tratamenduko protokolo orokorra landu eta enpresa eta sindikatuetan banatzea, erakunde bakoitzaren errealitateari egokitu eta ezarpena errazte aldera.
Jarraipena	11.1.B.7.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

## GIZARATERATZEKO EKINTZAK

### MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1M–: GIZARTE ZERBITZUETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA		
1M.1. HELBURUA: Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetan, diagnostikoetan, planifikazioetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan genero-ikuspegia integratzea.		
1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1M.1.1.	Administrazio publikoetako gizarte-arloko diagnostikoen ikuspegia berrikustea helburu duen ikerketa egitea. Eta diagnostiko horietan honako hauek barne hartzen ote diren aztertu beharko da: – Sexuaren arabera bereizitako datuak. – Emakumeen konparazio-egoera agerian uzten duen hizkera. – Arazo ezberdinek emakumeengan eta gizonengan duten eragin bereizgarriari buruzko beharrezko informazioa. – Kolektibo bakoitzean eta eremu bakoitzean dagoen genero-aldea. – Emakumeek eta gizonen baliabideetarako sarbidea eta kontrola izatea. – Premia praktikoen eta genero-interesen diagnostikoa.
Jakintza	1M.1.2.	Genero-ikuspegitik begiratuta, euskal administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetan gauzatzen den gizarte-arloko esku-hartzearen fase guztiak berrikustea helburu duen ikerketa egitea, hobetu daitezkeen guneak atzematearren.
Prestakuntza	1M.1.3.	Administrazio publikoetako gizarte-ekintza arloetako teknikariei zuzendutako prestakuntza-ekintzak garatzea, gizarte-arloko diagnostikoak, plangintzak, esku-hartzeak eta ebaluazioak genero-ikuspegiari jarraiki egiteko gaitze aldera.
Jarraipena	1M.1.4.	Gizarte-arloko esku-hartzearen fase guztietan genero-ikuspegia txertatzen izandako hobekuntzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko ekintzak gauzatzea.
Jakintza	1M.1.5.	Genero-ikuspegiari jarraiki, gizarte-arloko plangintzan eta esku-hartzean praktika onak aztertzea eta sistematizatzea.
Sentsibilizazioa	1M.1.6.	Administrazio publikoek gizarte-arloan egindako diagnostikoen ikuspegiari buruzko ikerketaren emaitzak ezagutaraztea euskal administrazio publikoetako gizarte-ekintza arloetako teknikariei eta politikariei, eta politikariak sentsibilizatzea, "Gizarte-arloko plangintzan eta esku-hartzean genero-ikuspegia txertatzearen" inguruan teknikariak gaitzearen, denbora eta baliabideak ematen lagun dezaten eta tartean sar daitezten.
Jarraipena	1M.1.7.	Araudia betetzea zainduko da, euskal administrazio publikoen zerbitzura dauden langileak gaitzeari dagokionez, dela prestakuntza-planetan, dela hautaketako prozesuetan eta gai-zerrendetan.
Sentsibilizazioa	1M.1.8.	"Gizarte-arloko plangintzan eta esku-hartzean genero-ikuspegia txertatzearen" inguruko praktika onak biltzen dituen materiala sortzea, gizarte-ekintzako arloetan banatzeko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.9.	Berdintasun-eragileak kontratatuzko diru-laguntzak ematea Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloei, arlo horietako langileei aholkularitza eta laguntza eman diezaieten gizarte-eremuko diagnostikoa, planifikazioa, esku-hartzea eta ebaluazioa egiteko genero-ikuspegitik begiratuta.

## AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA - 1A-:		
ASKOTARIKO DISKRIMINAZIOA PAIRATZEN DUTEN ETA/EDO BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEEN BALDINTZAK ETA EGOERA HOBETZEA		
1A.1. HELBURUA:		
Pobrezia ekonomikoaren egoeran egonik, bazterketa-arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.		
1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.1.1.	"Pobreziaren feminizazioaren" eraginez, bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak, egoera eta premiak aztertzea.
Jakintza	1A.1.2.	Administrazio publikoek aginduta egiten diren ikerketetan eta estatistiketan gurasobakarra izatea ere txertatzea.
Jakintza	1A.1.3.	"Pobreziaren feminizazioaren" eraginez, bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomikoen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.4.	Ezkontza-deuseztasuna, legezko ezkontza-banaketa, dibortzioa, izatezko bikotea hausturaz iraungitzea edo filiazio-prozesuaren kasuan, ezarritako pensio osagarriak eta mantenu-pentsioak jasotzen ez dituztelako, edo alargun geratu direlako, egoera ekonomiko txarrean dauden emakumeei errenta ziurtatzeko baliabide ekonomikoak ezartzea. Honako hauen bitartez: - Berme-fondoa sortzea, pensioak ordaintzen ez diren kasuetarako. - Alarguntza-pensio txikientzako osagarriak.
Jarraipena	1A.1.5.	Pensioak ordaintzen ez diren kasuetarako berme-fondoa sortzeari dagokionez, eta alarguntza-pensio txikientzako osagarriak ezartzeari dagokionez, legearen betetze-maila ebaluatuko da.
Jarraipena	1A.1.6.	"Pobreziaren feminizazioaren" eraginez, bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako etxebizitza-baliabideen estaldura nahikoa ote den aztertzea, malgutzeko eta/edo kolektiboari lehenetasun handiagoa emateko irizpideak balioestearren.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.7.	"Pobreziaren feminizazioaren" eraginez, bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko, gizartearen edo ekonomiaren arloko laguntza osagarriak ezartzea, hala nola: - Egoera ekonomikoa eta gizarte-arlokoa txarra izanik, soilik euren kargurako seme-alabak dituztenei begira, garraio publikoan laguntzak ematea. - Emakume horien seme-alaben ikasketetarako laguntzak eta bekak emateko irizpidetzat hartzea gurasobakarra izatea. - Euren kargurako seme-alabak dituzten emakumei lehenetasuna ematea lanerako prestakuntzako ikastaroetan, euren premia espezifikoak artatuta. - Jardueretan eta/edo zerbitzuetan (jantokiak, haur-eskolak, udalekuak, etab.), soilik emakumeen kargura dauden adingabeak onartzeko irizpideak edo faktoreak txertatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.8.	Ama nerabeei informazioa, orientazioa eta aholkularitza emateko zerbitzuak eskaintzea, hezkuntza-sistemaren barruan iraungo dutela ziurtatzera bideratuak, edo kasuan kasu, euren gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetuta.
Prestakuntza	1A.1.9.	Administrazioko langileei eta hirugarren sektorean lan egiten duten erakundeei prestakuntza ematea, emakume horien egoera hobetzeko programak diseinatu eta planifikatu dituzaten eta haien ahalduntzea susta dezaten.
Prestakuntza	1A.1.10.	Emakume horiekiko esku-hartze programetan prestakuntza-ekintzak txertatzea, egoera horretan dauden emakumeen mugimendu asoziatiboan indartzeko gizartearen eta politikaren arloko trebetasunak lortze aldera, euren premiak eta interesak bideratzeko modutzat.
Jarraipena	1A.1.11.	"Pobreziaren feminizazioaren" eraginez, bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko baliabideen eraginkortasunaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.



**1A.2. HELBURUA:**

Prostituzioan aritzen diren eta gizarte-bazterketaren arrisku-egoeran dauden emakumeei zuzendutako baliabideak egokitzea, haien baldintzak eta egoera hobetzearren.

**1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK**

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.2.1.	Prostituzioaren arloko Jardun-plana lantzea, prostituzioan aritzen diren emakumeen baldintzak, egoera eta premiak aztertzeko alde zuzeneko diagnostikoan oinarrituta, eremu horretan lan egiten duten gainerako administrazioekin eta gizarte-taldeekin lankidetzan.
Jakintza	1A.2.2.	EAEan, sexu-esplotazioa helburu duen emakumezkoen salerosketaren ezaugarriak eta nondik norakoa aztertzeko, eta salerosketa hori desagerrarazteko neurri espezifikoak eta koordinatuak antolatzea.
Prestakuntza	1A.2.3.	Administrazioiko teknikariei eta dagokionean, hirugarren sektorean lan egiten duten erakundeei begira, prestakuntza-plana garatzea, nahi duten emakumeei laneko orientazioa emateko eta haien ahalduzko-prozesua indartuko duten alderdiak txertatuta, zeharkako moduan.
Jakintza	1A.2.4.	Prostituzioan aritzen diren eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomikoen estaldura nahikoa ote den aztertzeko, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.5.	Prostituzioan aritzen diren emakumeentzat atsedena- eta orientazio-zentroak sortzea, honako hauen inguruko premiak artatzeko: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Higienea.</li> <li>- Atsedena.</li> <li>- Lehen-mailako asistentzia.</li> <li>- Dauden baliabideen eta gizarte-zerbitzuen gaineko informazioa, baita kolektiboari laguntzeko elkarten eta erakundeen gainekoa ere</li> <li>- Sexu-transmisioko gaixotasunen prebentzioa</li> <li>- Euren kargurako jendeari (haurrak eta inoren laguntza behar dutenak) laguntzeko zerbitzuak.</li> </ul>
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.6.	Prostituzioan aritzen diren emakumeen ginekologia-osasuneko premia espezifikoari behar bezala erantzuteko baliabideak sortzea.
Araudia	1A.2.7.	Prostituzioa egiten den klubek edo lokalek osasunaren eta higienezaren arloko, eta segurtasuneko gutxienezko baldintzak beteko dituztela bermatzeko beharrezko arauak ezartzea.
Prestakuntza	1A.2.8.	Prostituzioa utzi eta beste lanbide bat bilatu nahi duten emakumeei zuzendutako prestakuntzako eta lan-orientazioko programak antolatzea, haien ahalduzko-prozesua indartuko duten alderdiak txertatuta zeharkako moduan.
Prestakuntza	1A.2.9.	Emakume horiekiko esku-hartze programetan prestakuntza-ekintzak txertatzea, egoera horretan dauden emakumeen autoantolakuntza indartzeko gizartearen eta politikaren arloko trebetasunak lortze aldera, euren premiak eta interesak bideratzeko moduzat.
Jarraipena	1A.2.10.	Prostituzioan aritzen diren eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko baliabideen eraginkortasunaren eta eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

1A.3. HELBURUA:		
Droga-mendetasun arazoak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetzearen.		
1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.3.1.	Genero-rolekin loturik, emakumeengan droga-mendetasuna eragin dezaketen faktoreak ikertzea, baita genero-rolekin loturiko droga-mendetasunen ondorioak ere (arau-hauste bikoitza, zigor bikoitza, gehiegizko erruduntasuna...)
Prestakuntza	1A.3.2.	Osasun-arloko, gizarte-zerbitzuetako (gizarte-bitartekoak, lan-osasuneko eragileak, boluntarioak) eta hirugarren sektoreko profesionalen prestakuntza ematea, generoari eta droga-mendetasunei buruz.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.3.	Arreta-zentroetan droga-mendetasun arazoak dituzten emakumeentzako programa espezifikoak izango direla bermatzea, eta programa horietatik abiatuta, mendetasunen eta genero-ikuspegiaren arteko lotura lantzea, ahalduz ere emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioarekin loturiko alderdiak txertatuta, zeharkako moduan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.4.	Tratamendu-programak egokitzea, espetxeratuena ezaugarri berezietara. patologia bikoitza, behin baino gehiagotan berrerortzea, iraupen luzeko zigorrak, haurdun dauden emakumeak, talde etnikoak, etorkinak, etab.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.5.	Tratamendu-programak egokitzea, droga-mendetasun arazoak dituzten eta prostutuzioaren aritzen diren emakumeen ezaugarri berezietara.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.6.	Mendetasuna gainditzeko programak egokitzea, droga-mendetasun arazoak eta familia-kargak dituzten emakumeen ezaugarri berezietara.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.7.	Mendetasuna gainditzeko tratamenduari ekin nahi dioten baina bizileku egonkorrik ez duten emakumeentzat, etxebizitza babestuen aukera emateko baliabideren bat erabakitzea.
Prestakuntza	1A.3.8.	Droga-mendetasunak dituzten emakumeen artean, parekoak eta osasun-eragileak prestatzea.
Prestakuntza	1A.3.9.	Osasun-hezkuntzako proiektuetan genero-ikuspegia integratzea.
Jakintza	1A.3.10.	Prebentzio-proiektuak (selektiboak eta egokituak) egokitzea emakumeen eta gizonen kontsumoaren ezaugarri berezietara.
Jakintza	1A.3.11.	Kidetasunagatiko mendetasunari eta bitariko mendetasunari buruzko ikerketa egitea emakume kontsumitzaileen artean eta kontsumitzaileak zaintzen dituzten emakumeen artean.
Jakintza	1A.3.12.	Droga-mendetasun arazoak dituzten eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomikoaren estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
Sentsibilizazioa	1A.3.13.	Droga-mendetasunari buruzko programa, topaketa, jardunaldi eta mintegietan generoaren eta droga-mendetasunen inguruko adituak txertatzea.
Sentsibilizazioa	1A.3.14.	Emakumei eta herritarrei, oro har, zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea generoarekin eta droga-mendetasunekin loturiko faktoreen eraginari buruz, emakumei gehiegizko errua leporatzea saihestuta, eta ezkutuko droga-mendetasunak, alkoholismoak eta botiken gehiegizko kontsumoak emakumeengan dituzten ondorioen berri emanda.
Sentsibilizazioa	1A.3.15.	Emakume gazteei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea tabakismoaren eta alkoholismoaren prebentzioari buruz, eta substantzien kontsumoaren, sexualitatearen eta nahi gabeko haurdunaldien arteko loturaren berri emateko.
Jarraipena	1A.3.16.	Droga-mendetasun arazoak dituzten eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko baliabideen eraginkortasunaren eta eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea droga-mendetasunen arloan eskutik.

1A.4. HELBURUA:		
Askatasunik gabeko egoeran daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horretako emakumeen baldintzak eta egoera hobetzearen.		
1A.4. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.4.1.	Euskadin askatasunik gabe dauden emakumeen baldintzak, egoera eta premiak aztertzea.
Jakintza	1A.4.2.	Askatasunik gabeko aldia amaitu eta gizarteratze-prozesuan dauden emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomikoaren estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.4.3.	Askatasunik gabeko egoeran dauden emakumeen premiei erantzuteko zerbitzuak sortzea. Esate baterako: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Espetxearen eremutik kanpo, espetxeratu toxikomanoentzat arreta espezifikoko zerbitzuak, terapia-komunitateetan eta ordeko tratamenduetan sartzera errazte aldera.</li> <li>– Emakumezko espetxeratuak gizarte-zerbitzu normalizatuetarako eta osasun-sistema publikorako sarbidea izatea, baita osasun-asistentzia espezializatutarako ere.</li> </ul>
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.4.4.	Dagokien agintariei giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eskaintzea "Amen Unitateak" sortzeko, askatasunik gabeko egoeran dauden eta beren haurtxoei bizi nahi duten emakumeek horretarako aukera izan dezaten, erkidegotik kanpoko espetxeetara eraman behar izan gabe.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.4.5.	Dagokien agintariei giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eskaintzea "Mendeko Unitateak" ezartzeko: "Gizarteratzeko Zentroak" eta Sekzio Irekiak, non emakumeek erregimen irekian bete ahal izango duten zigorra.
Araudia	1A.4.6.	Gizarte-ekintzako arloetako diru-laguntzen barruan, askatasunik gabeko egoeran dauden edo preso egon diren emakumei zuzendutako programak lehenestea, betiere helburua emakume horien baldintzak eta egoera hobetzea izanik, ahaldunduekin eta gizarteko parte-hartzea indartzearekin loturiko estrategien bitartez.
Araudia	1A.4.7.	Emakumezko espetxeratu biziak gertuko espetxeetan zigorak betetzeko aukera emango duten neurriak garatzeko aholkua ematea dagokien agintariei, baita gerturatzeko horretan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna errespetatu dadin beharrezkoak diren baliabideak sortzeko ere.
Araudia	1A.4.8.	Dagokien agintariei honako aholku hau ematea: destinoa esaten zaien espetxeetako zerbitzu osagarrietan (sukaldea, ile-apaindegia, garbitegia, mantentze-lanak), egindako lana eta tailerretako produkzio-lana parekatzeko araudia garatzea espetxeetan.
Araudia	1A.4.9.	Dagokien agintariei honako aholku hau ematea: askatasunik gabe dauden emakumeek gatazka gutxiago eragiten dutenez, espetxeetako segurtasun-erregimena eta -neurriak egokitzeko barne-araudia garatzea.
Prestakuntza	1A.4.10.	Askatasunik gabeko egoeran dauden emakumei hezkuntza-baliabideetarako sarbidea erraztea, irakaskuntza-sistema arautuaren bitartez, lanerako prestakuntzaren bitartez, eta produkzio-tailerren bitartez.
Prestakuntza	1A.4.11.	Emakume horiekiko esku-hartze programetan prestakuntza-ekintzak txertatzea, egoera horretan dauden emakumeen autoantolakuntza indartzeko gizartearen eta politikaren arloko trebetasunak lortze aldera, eta emakumeen mugimendu asoziatiboarekin sareak sortzea.
Jarraipena	1A.4.12.	Askatasunik gabe dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko baliabideen eraginkortasunaren eta eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

**1A.5. HELBURUA:**

Etorkinak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetzearren.

**1A.5. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK**

<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1A.5.1.	Euskadiko emakume etorkinen baldintzak, egoera eta premiak aztertzea, bazterketaren aurrean kalteberago egiten dituzten faktoreetan eraginda, eta kolektibo horiekin lan egiten duten administrazioen eta erakundeen jardunak orientatzeko neurriak eta jarraibideak ezarrita.
Sentsibilizazioa	1A.5.2.	Emakume etorkinen baldintzen, egoeraren eta premien azterketaren emaitzak ezagutaraztea kolektibo horrekin lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeen eta teknikarien artean, euren jarduna genero-ikuspegiari atxikitze aldera.
Jakintza	1A.5.3.	Etorkinak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan dauden emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomikoen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
Araudia	1A.5.4.	Behar izanez gero, emakume etorkinek baliabide publikoetarako sarbidea izan dezaten, irizpideak malguago bihurtzea, honako hauen inguruko premiak bermatzearren: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasun-asistentzia.</li> <li>- Hezkuntza.</li> <li>- Lanerako prestakuntza.</li> <li>- Etxebizitzarako sarbidea.</li> </ul>
Prestakuntza	1A.5.5.	Genero-ikuspegitik begiratuta, emakume etorkinen baldintzak eta egoera hobetzeko programak diseinatzen eta planifikatzen dituzten hirugarren sektoreko erakundeei eta Administrazio teknikaiei prestakuntza ematea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.5.6.	Etorkinei orientazioa eta arreta emateko zerbitzu espezializatuetan genero-ikuspegia txertatzea.
Prestakuntza	1A.5.7.	Genero-ikuspegitik begiratuta, kulturarteko bitartekotzaren inguruko prestakuntza ematea etorkinen kolektibo horrekin lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeei eta administrazio langileei.
Prestakuntza	1A.5.8.	Emakume etorkinei prestakuntza ematea, hizkuntza ez dadin oztopo izan emakume horiek oinarriko eskubideak baliatzeko.
Prestakuntza	1A.5.9.	Emakume horiekiko esku-hartze programetan prestakuntza-ekintzak txertatzea, egoera horretan dauden emakumeen autoantolakuntza indartzeko gizartearen eta politikaren arloko trebetasunak lortze aldera, euren premiak eta interesak bideratzeko moduzat.
Jarraipena	1A.5.10.	Etorkinak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko baliabideen eraginkortasunaren eta eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

**1A.6. HELBURUA:**

Ezinduak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

**1A.6. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK**

<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1A.6.1.	Ezintasun funtzionala, fisikoa edo psikologikoa duten emakumeen errealtate bereizgarria eta espezifikoa ikertzea, baita gizarte-bazterketaren arrisku handiagoan eragiten duten faktore espezifikoak ere.
Jakintza	1A.6.2.	Ezinduak izanik, bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomikoen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
Jakintza	1A.6.3.	Ezintasunen bat duten eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako etxebizitza-baliabideen estaldura nahikoa ote den aztertzea, beren premia espezifikoetara egokitutako etxebizitzarako sarbidea izan dezaten zainduta, edo etxebizitzak egokitzeko laguntzak nahikoak ote diren aztertzea, eta ez badira, neurri zuzentzaileak hartzea.
Jakintza	1A.6.4.	Eguneko zentroetan, lanerako tailerretan edo aldi baterako edo behin betiko egoitzetan, azpikolektibo bakoitzaren premietara egokitutako zenbat toki dauden aztertzea, betiere familiaratzea eta gizarteratzea ahalbidetzeko edo horiei eusteko moduko esparru geografikoaren barruan, eta egungo errealtatea ebaluatu ostean, behar diren neurriak hartu ahal izateko.
Sentsibilizazioa	1A.6.5.	Herritarrei zuzendutako informazio-kanpainak egitea, ezintasunen bat duten emakumeen irudi barne-hartzaileak eta ez-estereotipatuak sortzeko.
Prestakuntza	1A.6.6.	Genero-ikuspegitik begiratuta, ezintasunen bat duten eta urrakortasun-egoera larrian dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko programak diseinatzen eta planifikatzen dituzten hirugarren sektoreko erakundeei, eta erakunde publikoetako, osasun-erakundeetako eta gizarte-erakundeetako langileei prestakuntza ematea.
Prestakuntza	1A.6.7.	Ezintasunen bat duten emakumeekiko esku-hartze programetan prestakuntza-ekintzak txertatzea gizartearen eta politikaren arloko trebetasunak lortze aldera, egoera horretan dauden emakumeen sare asoziatiboak sortzeko eta autoantolaketa indartzeko, euren premiak eta interesak bideratzeko modutzat.
Jarraipena	1A.6.8.	Ezinduak izanik, bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko baliabideen eraginkortasunaren eta eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

**1A.7. HELBURUA:**

Adinekoak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horretako emakumeen baldintzak eta egoera hobetzearren.

**1A.7. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK**

<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1A.7.1.	Hirugarren eta laugarren adineko emakumeen baldintzak, egoera eta premiak aztertzea, baita gizarte-bazterketaren arrisku handiagoan eragiten duten faktoreak ere.
Jakintza	1A.7.2.	Hirugarren eta laugarren adinekoak izanik, bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomikoen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
Prestakuntza	1A.7.3.	Genero-ikuspegitik begiratuta, hirugarren eta laugarren adinean dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko programak diseinatzen eta planifikatzen dituzten gizarte-zerbitzuetako langile espezializatuak prestakuntza ematea.
Prestakuntza	1A.7.4.	Osasun-langileei eta/edo -laguntzaileei prestakuntza ematea, adineko emakumeen osasun- eta psikologia-errealitateari buruz, emakume horiek berezkoak dituzten sindromeak ikusarazita: habi hutsa, burn out, eta gogo-aldartearen gorabeherek eragindako beste hainbat sindrome; bularreko edo umetokiko minbizia, eta zaintzaile informalaren rol tradizionalak eragindako lesioak.
Prestakuntza	1A.7.5.	Adineko emakumeekiko esku-hartze programetan prestakuntza-ekintzak txertatzea, autozaintza eta norberaren ahalduntzea indartzeko, eta haien interesak eta premiak bideratzeko modutzat autoantolaketa bultzatuta.
Sentsibilizazioa	1A.7.6.	Hirugarren eta laugarren adinean dauden emakumeen arrisku-faktoreei buruzko kanpainak egitea eta ezagutaraztea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.7.7.	Ikerketa-zentro espezializatueta genero-ikuspegia txerta dadin sustatzea, adineko emakumeek izaten dituzten memoria-gorabeherekin loturiko alderdiak ere sartuta.
Jarraipena	1A.7.8.	Hirugarren eta laugarren adineko emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko baliabideen eraginkortasunaren eta eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

**BATERAGARRITASUNA ETA  
ERANTZUNKIDETASUNAREN  
ARDATZA**

<b>1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA – 1B–: AUTONOMIA FUNTZIONALIK EZ DUTENEI ARRETA EMATEKO BALIABIDE SOZIOKOMUNITARIOAK</b>		
<b>1B.1. HELBURUA:</b>		
Zaintzako lanetan aritzen direnen gizarte-arloko zama eta zama ekonomikoa eta psikologikoa murrizteko baliabideak areagotzea.		
<b>1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1B.1.1.	Dimentsio anitzeko ikerketa egitea, honako aztergai hauek barnean hartuta: zaintzako lanaren kostuak; Euskadiko eremu pribatuan zaintzaren nondik norakoaren azterketa, dagoen eskaera kalkulatzeko; "zaintzaile informalek" euskal gizarteari egindako ekarpen ikusezina kuantifikatzea; lan horretan emakumeen eta gizonen parte-hartze bereizgarria; eta autonomiarik ez duten pertsonak zaintzen dituztenek jasaten dituzten zama ekonomiko, psikologiko eta gizarte-arlokoen azterketa, baita zama horiek izan ditzaketen ondorioen eta kostuen –zuzenak eta zeharkakoak– azterketa ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.2.	Autonomiarik ez dutenak zaintzen dituzten emakumei/pertsonei arreta eta orientazioa emateko zerbitzu espezifikoak sortzea administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetan, honako zerbitzu hauek barnean hartuta: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Zaintzaren kostuari buruzko, eta generoan oinarritutako gizarte-erakuntzak "zaintzaile-rolarekin" duen lotura zuzenari buruzko hausnarketa-taldeak.</li> <li>– Emakume zaintzaileen gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea lortzeko prestakuntza-ekintzak, kolektibo gisa haien eskaerak antola eta bidera daitezten.</li> <li>– Zaintzako lanak eragin ditzakeen arrisku fisiko eta psikologikoen prebentziorako laguntza psikologikoa.</li> <li>– Gizarte-arloko baliabideen eta baliabide ekonomikoaren gaitasun orientazioa.</li> <li>– Laguntzeko eta atseden hartzeko sistemak.</li> </ul>
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.3.	Etxez etxeko laguntzarako aurrekontu-partidak handitzea.
Araudia	1B.1.4.	Diru-laguntza publikoaren dekretuetan, honako helburu eta filosofia hauei atxikitzen zaizkien programak eta gizarte-eragileak txertatzea eta/edo lehenestea: zaintza-lanak egiten dituztenek jasaten duten zama ekonomikoa, psikologikoa eta/edo gizarte-arloko murriztearren, atseden hartzeko programak edo bestelako jardunak garatzea, emakumeek zaintzearen ohiko formulaz bestelako aukera berriak bilatzearekin loturiko jardunak lehenetsita, baita gizonak zaintzako lanean tartean sar daitezten lortzeko jardunak ere.
Jakintza	1B.1.5.	Emakumeek egindako ohiko zaintzarekin loturirik ez duten formula berrien proposamenak eta aukera berriak bilatzea helburu duten ikerketak egitea, zerbitzu publikoak, gizonak tartean sartzea eta laguntza-sareak oinarri hartuta.
Prestakuntza	1B.1.6.	Oinarritzko gizarte-zerbitzuetako langileei prestakuntza ematea, generoan oinarritutako gizarte-erakuntzak "zaintzaile-rolan" eta zama ekonomiko, psikologiko eta gizarte-arlokoetan duen eragin zuzenari dagokionez, eta autonomia funtzionalik ez dutenak artatzen dituzten emakumeen sindrome berriei ("burn out" sindromea) dagokienez.
Jarraipena	1B.1.7.	Autonomia funtzionalik ez dutenak zaintzen dituzten emakumeen zama ekonomikoa, psikologikoa eta gizarte-arloko murrizteko baliabideen jarraipena eta ebaluazioa egitea, horien eragina, estaldura eta eraginkortasuna neurtuta.
Jakintza	1B.1.8.	Zaintza-lanak egiten dituzten emakumeen/lagunen zama ekonomikoa, psikologikoa eta gizarte-arloko murrizteko formulen diseinuan beste herrialdeetan izandako praktika onak sistematizatzea.
Sentsibilizazioa	1B.1.9.	Zaintzaren zeharkako kostuak ezagutarazteko programak eta programa dokumentalak sortzea, zaintzaile informalei zuzendu.

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA - 11-:		
ETXEKO INDARKERIAREN ETA SEXU ERASOEN AURREAN PREBENTZIOA ETA ARRETA HOBETZEA		
11.1. HELBURUA:		
Indarkeria-zikloa goiz atzematen diren kasuak areagotzea.		
11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	11.1.1.	Emakumeen aurkako etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen eragina eta arrazoiak aztertzea, baita gertakari horiek salatzeke edo ez salatzeke erabakian eragiten duten faktoreak ere, askotariko diskriminazioa jasaten duten emakumeek (ezintasunen bat duten emakumeak, emakume etorkinak, adineko emakumeak...) salaketarik ez jartzean eragiten duten arrazoiei arreta berezia jarrita, baita, erasoren bat jasanez gero, nora jo dezaketen ez dakiten emakumeen proportzioa handia izateko arrazoiei ere, nahiz eta baliabideak bideratzen diren horren berri emateko.
Jakintza	11.1.2.	Emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, gizartean indarrean dauden aurreiritzi, sinismen eta estereotipoei buruzko ikerketa egitea, gizarte-sarea zabaltzea eragozten baitute, indarkeriaren biktimak diren emakumei laguntzeko eragile gisa (honako kolektibo hauei arreta berezia emanda: gizarte-zerbitzuetako langileei, familia-hezitzaileei eta adingabeen hezitzaileei, osasun-langileei, ikastetxeetako irakasleei...).
Jakintza	11.1.3.	Indarkeria-zikloa goiz atzematen laguntzeko eragile informal izan daitezkeen talde berriak atzematea, eta atzemate horretan inplikatzeko lortzeko jardun espezifikoak diseinatzea.
Jakintza	11.1.4.	Emakumeen aurkako indarkeria-zikloaren prebentzio goiztiarraren inguruko praktika onak ikertzea eta sistematizatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.5.	Indarkeria-zikloaren hasierako fasetan (ahozko indarkeria eta indarkeria psikologikoa) dauden emakumei arreta eta etxeko asistentzia emateko zerbitzuak sortzea, bigarren fasean sartzeko (indarkeria fisikoa), depresioak, autoindarkeria eta abar saihestearren, baliabide eta laguntza psiko-soziala eskainita.
Araudia	11.1.6.	Gizarte-eremuko espezialitateen (gizarte-hezkuntza, gizarte-lana, psikologia, soziologia, irakasle-ikasketak, gizarteratzea, dinamizazio soziokulturala...) curriculumean honako hau txerta dadin gomendatzea: prebentzian eta goiz atzematean espezializaturiko prestakuntza, baita emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoari modu integralean aurre egitea ere.
Araudia	11.1.7.	Ertzaintzaren prestakuntza-programan honako hau txertatzera behartuko duen araudia sortzea: prebentzian eta goiz atzematean espezializaturiko prestakuntza, baita emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoari modu integralean aurre egitea ere.
Araudia	11.1.8.	HAEErekin hitzarmenak egitea, indarkeriaren prebentzioari buruzko prestakuntza-moduluak txertatzeko, eta biktimei emandako arreta hobetzeko.
Prestakuntza	11.1.9.	Gizarte Zerbitzuetako, Ertzaintzako eta hezkuntzako profesionali zuzenduta, Emakumeen aurkako Indarkerian espezializatuko prestakuntza ematea, indarkeria-zikloa goiz atzemateko, eta indarkeria fisikoaren eta autoindarkeriaren prebentziorako.



Prestakuntza	11.1.10.	Maskulinitasunak eta indarkeriari buruzko prestakuntza espezifikoak ematea hezitzaileei, gizarte-langileei eta langileei, gizonekin lan psiko-soziala egiteko eta esku hartzeko. Erreferentziako eredu berriak izan daitezten.
Prestakuntza	11.1.11.	Emakumei zuzendutako prestakuntza-ekintzak egitea ("bikote-arazoak", "gatazkak konpontzea", "negoziazioak maitasunean" ...), helburu inplizituzat honako hau izanik: emakumeek indarkeria-zikloa ezagutzea eta indarkeriaren biktima diren kasuetan, horretaz jabetzea.
Prestakuntza	11.1.12.	Gizonei zuzendutako prestakuntza-ekintzak egitea, indarkeriaren eta maskulinitasunen arteko lotura lantzea helburu izanik, betiere indarkeriaren prebentziorako eta harreman-eredu berriak sustatzeko.
Sentsibilizazioa	11.1.13.	Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak egitea, baita indarkeria-zikloaren eta indarkeria jasaten duten emakumeentzako baliabideen berri emateko eta ezagutarazteko kanpainak ere, indarkeria-zikloa goiz atzematen eta laguntza-eragile informal gisa inplika daitezten lortzeko.
Sentsibilizazioa	11.1.14.	Gidak eta/edo ikus-entzunezko materiala sortzea indarkeria-zikloa azaltzeko, emakumeek beren bizitzan izan ditzaketen indarkeria-egoerak atzeman ditzaten, eta egoera horretatik ateratzeko baliabideen berri izan dezaten. Material horiek egokitu egin behar dira ezintasun funtzional, fisiko eta intelektuala duten emakumeen premietara eta adineko emakumeek izan ditzaketen mugetara, eta Euskadiko emakume etorkinen hizkuntza nagusietara itzuli beharko dira.
Sentsibilizazioa	11.1.15.	Herritarrak sentsibilizatzea, emakumeen eta adingabeen aurkako tratu txarrak gertatzen diren kasuak agintari judizialari edo polizia jakinarazteko.
Sentsibilizazioa	11.1.16.	Gizonei zuzenduta, indarkeria-zikloa azaltzeko sentsibilizazio-kanpainak egitea, indarkeriaren hasierako etapetan sartzen diren erasoak egiten ari diren gizonak egoera hori atzemateko edo identifikatzeko gai izan daitezten.
Araudia	11.1.17.	Taxi-enprekin hitzarmenak egitea, indarkeriaren biktima diren emakumei laguntzeko eragile gisa inplika daitezten larrialdi-kasuetan.
Prestakuntza	11.1.18.	Taxi-gidariei prestakuntza ematea, indarkeriaren biktima diren emakumei laguntzeko eragile gisa inplika daitezten, emakumeek garraio-bidea behar duten larrialdi-kasuetan.
Jarraipena	11.1.19.	Etxeko indarkeriaren kasuetan arreta ematearekin lotura duten arloei txostenak eskatzea, goiz atzemateari dagokionez egindako jardueren eta programen berri eman dezaten.

<b>11.2. HELBURUA:</b>		
Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta, asistentzia eta babes emateko eskaerei koordinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen arabera erantzutea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak ezarrita, EAEko udalerrietan.		
<b>11.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	11.2.1.	EAEko udalerrietan tokiko protokoloak ezartzeko eragozpenak aztertzea, eta neurri zuzentzaileak zehaztea.
Prestakuntza	11.2.2.	Udaletako teknikariei eta, egonez gero, berdintasunerako eragileei prestakuntza ematea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak garatzeari eta indartzeari buruz.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.3.	Udalei eta mankomunitateei laguntza ekonomikoak ematea etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak osatzeko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.4.	Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko protokoloak garatzeko jarraibideen gidak osatzea.
Sentsibilizazioa	11.2.5.	Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak abiarazi nahi dituzten udalen, eta protokoloa baduten udalen arteko topaketak egitea, izandako esperientziak, praktika onak eta hobetu daitezkeen alderdiak azal ditzaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.6.	“Berdinsarea; Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko udalerrien sarea” sortu eta sendotzea, emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan jarduteko ildo homogeenak izate aldera, eta biktimei arreta hobea ematea eta koordinazioa ahalbidetuta.
Jarraipena	11.2.7.	Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak ezarri dituzten udalei jarraipena egitea, izan daitezkeen hutsuneak eta hobetu daitezkeen alderdiak edo arloak aztertuta.

### 11.3. HELBURUA:

Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei harrera emateko eskaerei kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen arabera erantzutea, "Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programan" jasotako neurriak ezarri eta etengabe hobetzen direla bermatuta.

### 11.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jarraipena	11.3.1.	"Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programan" bildutako neurrien betetze-maila aztertzea.
Sentsibilizazioa	11.3.2.	"Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programaren" betetze-mailaren jarraipenaren emaitzak ezagutaraztea tartean sarturiko eragile guztiei.
Jakintza	11.3.3.	"Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programan" jasotako neurriak ezartzeko programa operatiboa gauzatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.3.4.	Indarkeriaren biktima izanik, droga-mendetasun aktiboaren arazoak dituzten eta estaldura anbulatorio egokirik ez duten emakumeei harrera emateko baliabide espezifikoak sortzea, ohiko harrera-baliabideetan artatu ezin badira.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.3.5.	Indarkeriaren biktima izanik, patologia mentalak dituzten emakumeei harrera emateko baliabide espezifikoak sortzea, ohiko harrera-baliabideetan artatu ezin badira.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.3.6.	Indarkeriaren biktima izanik, ezintasun fisiko edo sensorialak dituzten emakumeei harrera emateko baliabide espezifikoak sortzea, ohiko harrera-baliabideetan artatu ezin badira.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.3.7.	Harrera-zerbitzurik ez duten zona edo lurraldeetan harrera-baliabide berriak sortuko dira.
Jakintza	11.3.8.	Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak etengabeko hobetzeko sistema bultzatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.3.9.	Dauden harrera-etxebizitzetan segurtasun-sistemak hobetzeko laguntza ekonomikoak handitzea, laguntzeko eta babesa emateko zerbitzuak garatzeko langileak har ditzaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.3.10.	Harrera-etxebizitzetan komunikazio- eta arkitektura-oztopoak ezabatzeko laguntza ekonomikoak handitzea.
Prestakuntza	11.3.11.	Emakumeen egoeretan aniztasunari arreta ematen, edo tratu txarren biktimekin lan egiten duten profesionalak espezializatzeke prestakuntza-programak egitea: patologia mentalak, ezintasun fisiko edo sensorialak, drogen mendekotasun aktiboaren arazoak.

## OSASUNeko EKINTZAK

### MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1M–:		
OSASUN SISTEMAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA		
1M.1. HELBURUA:		
Dauden praktika klinikoek gidak aldatzea eta genero-ikuspegia txertatuta egitea berriak –ikerketak fasetik hasi, eta osasun-sistema publikoan aplikatzeko faseraino–.		
1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1M.1.1.	Praktika klinikoek gidetan genero-eragina aztertzeko metodologia eta tresna egokienak ezartzeko azterketa egitea.
Jakintza	1M.1.2.	Lehentasunezko zatitako praktika klinikoek gidetan azterketa egin eta beharrezko gomendioak ondorioztatzea, genero-ikuspegitik begiratu, premiazkoenak direla iritzitako gidak pixkanaka aldatzeko lehentasunen inguruan.
Araudia	1M.1.3.	Etorkizunean egingo diren praktika klinikoek gidetan emakumeen eta gizonen ezaugarri biologikoak kontuan hartzeko araudia lantzea eta ezagutaraztea.
Jakintza	1M.1.4.	Osasun-sistemaren praktiken diseinuan emakumeen parte-hartzea sustatzea, askotariko ordezkariak izateko ahalegina eginda: landa-eremuan bizi diren emakumeak, ezintasun mota ezberdinak dituztenak, etorkinak, adinekoak edo egoki iritzitako beste emakume-kolektiboetako kideak.
Prestakuntza	1M.1.5.	Genero-ikuspegia integratzeko metodologiak eta araudiak ezagutaraztea osasun-eremu langileen artean eta praktika klinikoek gidak egiten dituzten artean, informazioko eta sentsibilizazioko ekintzen bitartez.
Jakintza	1M.1.6.	Ikerketa zientifikoak sustatzea proiektuak finantzatuta, betiere objektibotasunaren, lehiaren eta publikitatearen printzipioei jarraiki, eta osasunari eta generoari buruzko ikerketak egin daitezkeen bultzatuta, batik bat neke kronikoa, fibromialgiari eta antzeko gaixotasunei erreparatu.
Jakintza	1M.1.7.	Osasun-zerbitzu publikoko medikuei irizpide uniformeak eskaintzea, neke kronikoa, fibromialgia eta antzeko gaixotasunak dituzten gaixoei zerbitzu integrala eta eraginkorra eman ahal izateko.

<b>1M.2. HELBURUA:</b>		
Dauden prozedura administratiboak aldatzea eta genero-ikuspegia txertatuta egitea berriak, fase guztietan: diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan.		
<b>1M.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1M.2.1.	Lehentasunez kotzat jotako jardun administratiboaren protokoloen azterketa egitea, baita genero-ikuspegia integratzeko beharrezko prozesuena ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.2.2.	Lehentasunez kotzat jotako prozedurak pixkanaka aldatzeko gomendioak ateratzea azterketa horretatik, emakumeen eta gizonen premia bereizgarriak identifikatzeko genero-ikuspegia baliatuta.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.2.3.	Emakumeen parte-hartzea ziurtatzea prozedura administratiboen diseinuan, askotariko ordezkari izateko ahalegina eginda: landa-eremuan bizi diren emakumeak, ezintasun mota ezberdinak dituztenak, etorkinak, adinekoak edo egoki iritzitako beste emakume-kolektiboetako kideak.
Sentsibilizazioa	1M.2.4.	Osasun-langileen artean ezagutaraztea gomendio horiek.
Prestakuntza	1M.2.5.	Prozedura administratiboak diseinatu eta lantzean genero-ikuspegia aintzat hartzeko araudia sortzea.

<b>2. MAINSTREAMING PROGRAMA -2M-:</b>		
<b>EMAKUMEEI BEREZIKI ERAGITEN DIETEN GAIXOTASUNEI AURRE EGITEAN HOBETZEA</b>		
<b>2M.1. HELBURUA:</b>		
Bularreko minbiziaren prebentzio-jardueratan parte hartzen duten emakumeen adina 70 urtera arte igotzea, gaixotasuna diagnostikatzen denean jasotako tratamenduari dagokionez, gogobetetze-maila handiari eutsita.		
<b>2M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	2M.1.1.	Bularreko minbizia goiz atzemateko programan emakumeek ez parte hartzeko eragiten duten faktoreak ikertzea.
Jakintza	2M.1.2.	Bularreko minbizia goiz atzemateko programetan aintzat hartu beharrek kolektiboak berrikustea, adin-tarte bakoitzean heriotza-tasaren murrizketari buruzko datu eguneratuen arabera, betiere aldagai guztiak kontuan izanda.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2M.1.3.	Bularreko minbiziaren detekzio goiztiarreko programa (BMDGP) garatzea identifikaturiko arrisku-taldeen, eta prozesu guztian zehar, ezarritako kalitate-irizpideak betetzen direla bermatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2M.1.4.	Diagnostiko positiboa duten eta eskatzen duten emakumeei laguntza psikologikoa ematea diagnostikoaren/terapiaren fase guztietan, eta Bularreko Minbiziaren Detekzioko Goiztiarreko Programari (BMDGP) atxikitako unitate guztietan.
Prestakuntza	2M.1.5.	Minbiziaren tratamendurekin lotura duten Osakidetzaren prestakuntza-moduluetan gomendioak txertatzea, gaixoei behar bezalako tratua ematearen inguruan.
Araudia	2M.1.6.	Linfedemaren eta mastektomiaren bigarren mailako bestelako ondorioen prebentziorako eta tratamendurako arreta bermatzea.

<b>2M.2. HELBURUA:</b> Elikadura-nahasteen eragina murriztea, batik bat, neska gazteen eta neskatilen artean.		
<b>2M.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	2M.2.1.	Elikadura-nahastea eragiten duten faktoreak eta nahasteen egiazko eragina ezagutzeko ikerketa epidemiologikoa indartzea.
Jakintza	2M.2.2.	Elikadura-nahasteen prebentzio- eta tratamendu- plan integrala garatzea, alderdi fisikoak, psikikoak nahiz gizarte-arlokoak barnean hartuta.
Sentsibilizazioa	2M.2.3.	Familiei, irakasleei eta aisialdiko begiraleei informazioa ematea, elikadura-nahastearen arriskuen inguruan, goiz atzematearen inguruan, eta esku-hartze goiztiarren garrantziaren inguruan.
Sentsibilizazioa	2M.2.4.	Nutrizio-ohitura osasungarriak har ditzaten sustatzea familietan, emakumeen eta gizonen jokabide ezberdinen inguruan, eta jokabide horiek dakartzaten arriskuen inguruan sentsibilizatuta.
Prestakuntza	2M.2.5.	Haurrei eta nerabeei zuzendutako osasunerako hezkuntza-programetan elikadura-tailerrak txertatzea, nesken eta mutilen nutrizio-portaera ezberdinak aztertzea, genero-ikuspegitik begiratuta.
Prestakuntza	2M.2.6.	Haurrei eta nerabeei zuzendutako osasunerako hezkuntza-programetan kultura eta gorputzaren itxura aztertzea, emakumeengan jarrera kritikoa bultzatuta gizartean dauden edertasun-ereduekiko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2M.2.7.	Elikadura-nahasteen inguruan, ohitura osasungarrien inguruan eta antzeko gaien inguruan hitzaldian eta tailerrak egiteko aukera ematea eskatzen duten eskolei.

<b>2M.3. HELBURUA:</b> Emakumeengan garuneko gaixotasun baskularren eta gaixotasun kardiobaskularren prebentzio-portaerak areagotzea.		
<b>2M.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	2M.3.1.	Garuneko gaixotasun baskularrek eta gaixotasun kardiobaskularrek emakumeengan duten sintomatologiaren, garapenaren eta tratamenduaren alderdi bereizgarriak buruzko ikerketak sustatzea.
Prestakuntza	2M.3.2.	Tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzearen arriskuen inguruan, eskoletan egiten diren prebentzio-programetan nesken eta mutilen jokabide ezberdinen azterketa txertatzea, bizimodu osasungarriaren ohiturak bultzatuta.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2M.3.3.	Genero-ikuspegitik begiratuta, emakumeen garuneko gaixotasun baskularren eta gaixotasun kardiobaskularren diagnostikoa eta tratamendua egiteko praktika klinikoak eta jardun-ildo adostuen gidak berrikustea, asistentzia-maila guztietan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2M.3.4.	Tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa, eta botiken eta drogen behar ez bezalako erabilera murrizteko prebentzio-programak egokitzea, emakumeen eta gizonen kontsumo ezberdinen ezaugarrietara.

## AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA –1A–:		
UGALKETA OSASUNARI DAGOKIONEZ, EMAKUMEEK ERABAKI GEHIAGO HARTZEA		
1A.1. HELBURUA:		
Metodo antikontzeptiboetarako irisgarritasuna bermatzea, eta behar izanez gero, baita koitoaren ondorengo eteterako eta HBErako irisgarritasuna ere, nahi gabeko haurdunaldien tasak murriztearren, batik bat, nerabeen artean, eta sexu-transmisioko gaixotasunen prebentziorako metodo bakarra izaki, preserbatiboaren erabilera bultzatzea.		
1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.1.	Honako hau hobetzeko azterlanak egitea: antisorgailuen –eta bereziki preserbatiboaren– inguruko informazioa eta erabilera nerabeengan, dela eskaeraren aldetik (nerabeen nahia), dela eskaintzaren aldetik (farmazietan eta familia-plangintzako zerbitzuetan emandako arretaren kalitatea eta banaketa geografikoa). Azterlanaren helburua izango da oro har antisorgailuen eta, bereziki, preserbatiboaren erabilera sustatzeko ekintza-plana egitea.
Jakintza	1A.1.2.	Haurdunaldia eteteko eta koitoaren ondorengo eteterako zerbitzuetarako irisgarritasunaren banaketa-mapa egitea, zerbitzuen kopurua areagotzeko irisgarritasuna edo estaldura txikiagoa den tokietan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.3.	Haurdunaldiaren Borondatezko Etetea (HBE) egiten duten ospitale publikoen sareko zentroen kopurua handitzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.4.	Osasun-arreta emateko zentro publikoetan Haurdunaldiaren Borondatezko Etetearen inguruko informazioa eta osasun-asistentzia egokia ematen dela bermatzea, prozesu guztian isilpekotasuna ziurtatuta.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.5.	Zona geografiko guztietan familia-plangintzari arreta emango zaiola bermatzea.
Jakintza	1A.1.6.	Nerabeei begirako orientazio pertsonalizatuari eta antisorgailu-eskaintzarako irisgarritasunari eustea eta hobetzea, ordutegiak eta hitzordu motak egokituta (azkartasuna eta malgutasuna), eta pribatutasuna bermatuta.
Sentsibilizazioa	1A.1.7.	Neska-mutilen artean sexu-jokabide autonomoa eta arduratsua lortzeko informazio- eta hezkuntza-programak garatzea.
Sentsibilizazioa	1A.1.8.	“Koitoaren ondorengo eteteari” buruzko informazio egokia bermatzea.
Jarraipena	1A.1.9.	Nerabezaroan haurdunaldiaren prebentzioko ekintzen jarraipena egitea eta prebentzioko ekintzen eragina ebaluatu eta horren arabera egokitzea.

<b>1A.2. HELBURUA:</b>		
Haurdunaldian eta erditzean egindako esku-hartze mediku-kirurgikoak kasu bakoitzerako aginduen –behar-beharrezkoak soilik– arabera direla ziurtatzea, zesareen eta episiotomien kopurua murriztera joz.		
<b>1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jarraipena	1A.2.1.	Zesareen eta episiotomien tasa ebaluatzea, tasa horretan eragiten duten aldagaiak identifikatuta eta praktika klinikoan izandako bilakaera aztertuta.
Jarraipena	1A.2.2.	Haurdunaldiko, erditzealdiko eta erditze ondoko ohiko azterketa guztietan egiten diren hainbat lan aztertzea, hala nola monitorizazio fetal elektronikoa, ile-mozketa, enema, episiotomia, eta abar.
Sentsibilizazioa	1A.2.3.	Egun lanean ari diren nahiz prestakuntzan dauden osasun-langileak sentsibilizatzea, haurdunaldian eta erditzean medikalizazioa murrizteak duen garrantziaren inguruan: zesarea eta episiotomia kopurua; eta sendagileek erditzearen arazoak konpontzeko dituzten trebetasunak handitzea, medikalizazioa areagotu gabe.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.4.	Amentzako zerbitzu publiko guztietan erditzealdiko analgesiaren eskaintza (anestesia epidurala eta beste hainbat teknika) bermatzea, ordutegi guztietan eta asteko egun guztietan.
Sentsibilizazioa	1A.2.5.	Erditzealdiko analgesiari buruzko abantaileri eta arriskuei buruzko informazioa ematea emakumeei eta mina kontrolatzeko beste bide batzuk jakinaraztea, jakinaren gainean egonik aukera dezaten. Erditzea medikalizatzearen alderdi positiboen eta negatiboen berri ematea, erabakiak hartzeko garaian amak parte hartu behar duela eta amaren iritzia errespetatzea zein garrantzitsua den jakinarazita.

<b>1A.3. HELBURUA:</b>		
Emakumeen gogobetetze-maila handitzea, haurdunaldian, erditzean eta erditze ondokoan jasotako informazioaren inguruan, eta erabakiak hartzeko garaian izandako parte-hartzearen inguruan.		
<b>1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1A.3.1.	Haurdun dauden emakumeek eta bikotekideek honako gai hauen inguruan duten gogobetetze-maila aztertzea: informazioaren inguruan, jasotako zerbitzuaren inguruan, euren iritzien errespetatze-mailaren inguruan, eta haurdunaldian eta erditzean erabakiak hartzeko garaian izandako parte-hartzearen inguruan. Emakumeen gogobetetze-maila zein beste aldagaik baldintzatzen duen aztertzea, haurdunaldian eta erditzean osasun-sistema publikoak emandako zerbitzuari dagokionez.
Sentsibilizazioa	1A.3.2.	1A.3.1. ekintzaren planteamenduari erantzuteko egindako azterlanaren emaitzak zabalitzea, eta haurdun dauden emakumeei eta bikotekideei haurdunaldiaren eta erditzearen inguruko informazio guztia emateak duen garrantziaz jabe daitezen sendagileak sentsibilizatzea, baita ahal den neurrian, erabakiak hartzeko garaian emakumeen iritzia kontuan izan dezaten ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.3.	Erditzeko garaian baldintzak eta prozedurak (dilatazio- eta kanporatze-faseak) malgutzea, erabakiak hartzerakoan amaren iritzia kontuan hartuta.
Jarraipena	1A.3.4.	Haurdunaldia kontrolatzeko protokolei jarraiki, jaiotze probak egiteko ezarritako epeak betetzen direla bermatzea, baita gurasoei emaitzen berri eta dituzten aukeren berri ematen zaiela ere.
Prestakuntza	1A.3.5.	Haurdunaldian, erditzean eta erditze ondokoan, osasunerako heziketarako jarduerak, eta edoskitze-teknikei buruzko entrenamendu espezifikoak jarduerak sustatzea, baita edoskitzearekin hasteko eta horri eusteko lagungarri eta mesedegarri izango diren ospitale-ohiturak ere, OMEren eta UNICEFen gomendioei jarraiki, bularra ez ematea erabakitzen duten emakumeen erabakia uneoro errespetatuko dela bermatuta.



<b>1A.4. HELBURUA:</b>		
Emakumeen gogobetetze-maila areagotzea, ugalketa-zikloan berezkoak diren aldaketek eragindako gorabeheren eta arazozen prebentzioari eta arretari dagokienez, informazio eta erabakimen parte-hartzailea sustatuta, emakume guztientzako eskuragarri izango diren azterketa tokoginekologikoekin.		
<b>A ESTRATEGIA:</b>		
<b>1A.4. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.4.A.1.	Tokoginekologiako ohiko azterketetan itxaronzerrendak desagertzeko zerbitzu soziokomunitarioak birmoldatzea.
Jakintza	1A.4.A.2.	Ugalketa-osasunari buruzko azterlan kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea: besteak beste, emakumeen gogobetetze-maila, ugalketa-zikloarekin loturiko sintomen prebentziorako edo arretarako arloan, jasotzen duten informazioari, zerbitzuari eta beren iritziarekiko errespetuari dagokienez; emakumeei gehien eragiten dieten eta/edo emakumeak gehien kezkatzen dituen ugalketa-zikloarekin loturiko gaixotasun eta/edo gorabehera dagokienez.
Prestakuntza	1A.4.A.3.	Osasun-langileei prestakuntza ematea, honako gai hauen inguruan egindako azterketen emaitzei dagokienez: – Ugalketa-osasunaren arreta. – Menopausiaren sintomak tratatzeko beste aukerak, sortzen badira. – Laguntza psikosoziala emateko estrategiak.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.4.A.4.	Tokoginekologiako azterketetan egiten diren praktikei buruzko alde aurreko informazioa ematea, emakumeei zor zaien begirunea gordez.
Jakintza	1A.4.A.5.	Emakumeei gehien eragiten dieten ugalketa-zikloarekin loturiko gorabeheren eta gaixotasunen alderdi ezezagunen inguruko ikerketak indartzea: arrazoiak, prebentzioa, tratamendua, sintomatologia arintzea...
<b>B ESTRATEGIA:</b>		
<b>1A.4. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1A.4.B.1.	Menopausiak eragindako gorabeheren prebentzioko neurri eta neurri terapeutikoei buruzko ikerketak sustatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.4.B.2.	Hormonen bidezko Ordezko Terapiak agintzen diren kasuak murrizteko eta ordezko tratamenduak eskaintzeko programa bat egitea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.4.B.3.	Diagnostikoa eta/edo terapia egiteko teknika espezializatuak eskatzen dituzten menopausiaren alderdiak asistentzia espezializatura bideratuko direla bermatzea.
Sentsibilizazioa	1A.4.B.4.	Menopausian erabiltzen diren prebentzio-neurrien eta tratamenduen eraginkortasunaz, abantailez eta desegokitasunaz emakumeei informazioa ematea.
Sentsibilizazioa	1A.4.B.5.	Hormonen bidezko Ordezko Terapiak dituen arriskuen berri emakumeei emateko informazioko eta sentsibilizazioko jarduerak egitea.
Jakintza	1A.4.B.6.	Adineko emakumeei laguntza emateko estrategia berriak aztertzea, euren osasunean modu negatiboan eragiten duten faktore psikosozialei aurre egiteko.

**BATERAGARRITASUNA ETA  
ERANTZUNKIDETASUNAREN  
ARDATZA**

<b>1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –1B–: OSASUN ARAZOAK DITUZTENAK ZAINTEAK ETXEKO EREMUAN ERAGINDAKO LAN ZAMA MURRIZTEA</b>		
<b>1B.1. HELBURUA:</b>		
Osasun-arazoak dituzten eta zaintza behar duten lagunen –ez autonomoak– kasuan, zerbitzu soziokomunitarioetan artaturiko lagunen kopurua handitzea.		
<b>1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1B.1.1.	Autonomoak ez diren ez zuzen eragile sozio-komunitarioa hobetzeko aukerak aztertzea emakume-kolektibo guztien premia bereizgarriak aintzat hartuta, praktika onenak bilduz eta Euskadin aplikatzeko bideragarritasuna aztertuz.
Jakintza	1B.1.2.	Osasun-laguntzan erabiltzen ari diren eredu berriek (ospitalean egoteko egunen murrizketa, etxe-ko laguntza...) zaintzaileen eta gaixoen familiakoen osasunean eta bizi-kalitatean izan duten eragina ikertzea, osasun-sistemari dagokionez, emakumeek hartzen duten alderdi osagarriaren rolari arreta berezia jarrita eta, halaber, horren eragin ekonomikoari eta gizarte-arlokoari.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.3.	Zaintza behar dituzten baina ospitaleratzea behar ez duten gaixoen finantziatorako eta kudeaketarako erakunde arteko akordioa sinatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.4.	Gaixoak zaintzeko joera berriek (etxe-ko ospitaleratzea, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak eta/edo hiltzorian daudenak etxean zaintzea...) familien bizi-kalitatean eta, batez ere, emakumeen osasunean duten eragina murrizteko behar diren laguntza-mekanismoak ezartzea.

<b>1B.2. HELBURUA:</b>		
Osasun-arreta emateko ordutegia zabaltzea, osasun-arreta eta norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri izan daitezen.		
<b>1B.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1B.2.1.	Osasun-zentroetako ordutegia malguago bihurtzea bideragarri ote den aztertzea.
Sentsibilizazioa	1B.2.2.	Osasun-arloko profesionalak eta euren sindikatu-ordutegiak sentsibilizatzea ordutegiak zabaltzeko gizarte-premiaren inguruan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.2.3.	Osasun-zentroetako ordutegi berriak ezartzeko plana egitea, gizarte-premiak aintzat hartuta.

**EMAKUMEEN AURKAKO  
INDARKERIAREN ARDATZA**

<b>1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA –11–: INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA FISIKOA ETA PSIKOLOGIKOA EMATEA</b>		
<b>11.1. HELBURUA:</b>		
Indarkeriaren biktima diren emakumeen osasun fisikoari eta psikologikoari arreta egokia bermatzea, Sexu-erasoak eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko Akordioaren esparruan adostutako osasun-protokoloa ezarrita eta etengabe hobetuta.		
<b>11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	11.1.1.	Behar diren erakunde-egiturak sortzea administrazioaren maila guztietan, Etxeko tratu txarren aurrean jarduteko osasun-protokoloaren eragina eta egokitze-maila –emakumeen premien arabera– aztertzeko, betiere kolektiboen aniztasunari erreparatuta (landa-eremuko emakumeak, ezintasunak dituztenak, etorkinak, adinekoak...): izandako lorpenak, zailtasunak, egin daitezkeen hobekuntzak, eta abar.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.2.	Indarkeriaren biktimei emandako arretan hobekuntzak egitea osasun-zerbitzuetan, 11.1.1. ekintzaren ondoriozko azterketetan gomendatutakoari jarraiki.
Sentsibilizazioa	11.1.3.	Tartean sarturiko eragileen artean ezagutaraztea Etxeko tratu txarren aurrean jarduteko osasun-protokoloaren edukiak, ebaluazioen emaitzak eta etengabe hobetzeko neurriak.
Prestakuntza	11.1.4.	Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren eta desagertzearen eremuan (polizia, epaitegietako langileak...), eta biktimei laguntza eta asistentzia ematen –osasun-langileak, harrera-zerbitzuak, elkarteak...– lan egiten dutenekin prestakuntza-jarduerak egitea, Indarkeriaren aurrean jarduteko erakunde arteko Protokoloaren edukien inguruan. Prestakuntza horrekin premia espezifikoak dituzten kolektiboei arreta emateko ahalmena lortzen dela ziurtatzea.
Prestakuntza	11.1.5.	Indarkeriaren aurrean jarduteko erakunde arteko protokoloaren edukien inguruko prestakuntza ematea osasun-langileei, beste kolektiboei (polizia, langile judizialak...) ematen zaien prestakuntzarekin koordinatuta.
Araudia	11.1.6.	Osasun-eremuko espezialitateen curriculumean prestakuntza espezifikoak sartzera behartuko duen araudia sortzea, gai hauen inguruan: emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, goiz atzematea eta modu integralean aurre egitea.
Jarraipena	11.1.7.	Etxeko tratu txarren aurrean jarduteko osasun-protokoloaren, eta Sexu-erasoak eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko Akordioaren betetze-maila aztertea.

**HIRIGINTZAKO,  
GARRAIO PUBLIKOKO ETA  
INGURUMENEN EKINTZAK**

**MAINSTREAMING ARDATZA**

<b>1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1M–:</b>		
<b>GENERO IKUSPEGIA INTEGRATZEA HIRIGINTZAREKIN, GARRAIOAREKIN ETA INGURUMENAREKIN LOTURIKO POLITIKETAN ETA PROIEKTUETAN</b>		
<b>1M.1. HELBURUA:</b>		
Hirigintzako ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko tresna estandarra ezartzea.		
<b>1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1M.1.1.	Hiriaren hobekuntzan, diseinuan eta planifikazioan genero-ikuspegia txertatzeko tresna estandarra lantzea.
Sentsibilizazioa	1M.1.2.	Kargu publikoak eta teknikariak sentsibilizatzea, hiriaren hobekuntzarekin, diseinuarekin eta planifikazioarekin loturiko gaietan genero-ikuspegia txertatzearen garrantziari dagokionez.
Prestakuntza	1M.1.3.	Kargu publikoei eta teknikariei prestakuntza ematea, hiriaren hobekuntzan, diseinuan eta planifikazioan genero-ikuspegia txertatzeari buruz.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.4.	Tresna hori lantzeko behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak eskaintzea, sentsibilizazioa gauzatzea eta prestakuntza ematea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.5.	Hiriaren hobekuntzako, diseinuko eta planifikazioko proiektuetan tresna hori aplikatzea.
Araudia	1M.1.6.	Hiriaren hobekuntzan, diseinuan eta planifikazioan genero-ikuspegia txertatzeko premia araudian sartzea.
Jarraipena	1M.1.7.	Araudiaren aplikazioari jarraipena egitea.
Jarraipena	1M.1.8.	Genero-ikuspegia txertatzeari buruzko txostena egitea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearentzat.

<b>1M.2. HELBURUA:</b> Garraio sozietate publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko eta esku hartzeko tresna ezartzea.		
<b>1M.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1M.2.1.	Tresna estandar bat lantzea, garraio-sozietate publikoek emakumeen premietarako egokitze-mailaren berri izan dezaten.
Sentsibilizazioa	1M.2.2.	Garraio-sozietate publikoetako arduradunak sentsibilizatzea, emakumeen premietarako egokitze-mailari buruzko diagnostikoa egitearen garrantziari dagokionez.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.2.3.	Diagnostikoak eta sentsibilizazioa gauzatzeko behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak eskaintzea.
Jakintza	1M.2.4.	Diagnostikoa egitea, gabeziak identifikatzea eta hobetzeko proposamenak egitea.
Jarraipena	1M.2.5.	Aplikaturako hobekuntzen jarraipena egitea.

<b>1M.3. HELBURUA:</b> Ingurumenari dagozkion ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko eredia ezartzea.		
<b>1M.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1M.3.1.	Tokiko Agenda 21etan eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programetan genero-ikuspegia txertatzeko tresna estandarra diseinatzea.
Sentsibilizazioa	1M.3.2.	Kargu publikoak eta teknikariak sentsibilizatzea, ingurumenarekin loturiko gaietan, eta batez ere Tokiko Agenda 21en eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programetan genero-ikuspegia txertatzearen garrantziari dagokionez. Diseinaturiko tresnaren berri ematea.
Sentsibilizazioa	1M.3.3.	Tokiko Agenda 21 eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programak ezartzen dituzten aholkularitza-enpresak sentsibilizatzea genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez. Diseinaturiko tresnaren berri ematea.
Prestakuntza	1M.3.4.	Tokiko Agenda 21en eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programetan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko prestakuntza ematea ingurumenaren arloko aholkularitza-enpresei.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.3.5.	Aholkularitza teknikoko zerbitzua abiaraztea genero-ikuspegia txertatzeko moduari dagokionez, kargu publikoei, teknikariei eta ingurumen-arloko aholkularitza-enpresei zuzenduta.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.3.6.	Tresna diseinatu eta aplikatzeko, eta sentsibilizazioa eta prestakuntza emateko behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak bermatzea.
Jarraipena	1M.3.7.	Tokiko Agenda 21 eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programak ezartzeko garaian genero-ikuspegia txertatu dela egiaztatzea.
Jarraipena	1M.3.8.	Genero-ikuspegia txertatzeari buruzko txostena egitea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearentzat.

## AHALDUNTZEAREN ARDATZA

<b>1. AHALDUNTZE PROGRAMA - 1A-- HIRIGINTZAREN, GARRAIO PUBLIKOAREN ETA INGURUMENAREN EREMUETAN, PLANGINTZA, DISEINUA ETA HOBEKUNTZAK EGITEKO PROZESU GUZTIETAN EMAKUMEEK PARTE-HARTZEA ETA PAREKOTASUNA</b>		
<b>1A.1. HELBURUA:</b>		
Emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea eta parekotasuna bermatzea hirigintzaren eta ingurumenaren (batik bat, Tokiko Agenda 21 en eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programetan) eremuetan egiten diren parte-hartze prozesuetan. Horrelako prozesurik ez badago, parte-hartze prozesuak egiteari bultzada ematea.		
<b>1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1A.1.1.	Hiriaren planifikazio, diseinu eta hobekuntzarekin, eta ingurumenarekin loturiko parte-hartze prozesuetan emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea aztertzea (parte hartzen duten emakumeen kopuruari eta ehunekoari, onartutako alegazioei, eta abarri dagokionez).
Sentsibilizazioa	1A.1.2.	Hiriaren planifikazio, diseinu eta hobekuntzako, eta ingurumeneko arduradunak sentsibilizatzea planifikazioko eta erabakiak hartzeko prozesuetan herritarrek parte hartzeak duen garrantziaren inguruan.
Araudia	1A.1.3.	Hirigintzaren eta ingurumenaren eremuetako planifikazioko eta erabakiak hartzeko faseetan, herritarren pareko parte-hartze prozesuak txertatzea eskatzen duen araudia sortzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.4.	Hiriaren planifikazio, diseinu eta hobekuntzarekin eta ingurumenarekin loturiko prozesuetan herritarren pareko parte-hartze prozesuak gerta daitezkeen errazteko eta bermatzeko behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak eskaintzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.5.	Administrazioaren eta emakume-elkarteen arteko komunikazio-bide berriak sortzea edo daudenak indartzea, hiriaren planifikazio, diseinu eta hobekuntzarekin eta ingurumenarekin loturiko herritarren parte-hartze prozesuetan elkarte horien parte-hartzea ziurtatzeko.
Prestakuntza	1A.1.6.	Emakumeei zuzendutako prestakuntzako eta informazioko jarduerak gauzatzea, hiriaren planifikazio, diseinu eta hobekuntzarekin eta ingurumenarekin loturiko prozesuetan erabateko parte-hartzea izan dezaten gaitze aldera.
Jarraipena	1A.1.7.	Araudia betetzen dela ziurtatzeko jarraipena egitea, eta parte-hartze prozesuak ebaluatzea, emakumeen presentziari eta eraginari dagokienez (kopurua, proportzioa, emakumeei egindako eta onartutako proposamenak, etab.).

<b>1A.2. HELBURUA:</b>		
Herritarrek parte hartzeko prozesuak abiaraztea, garraio publikoaren plangintzan emakumeen eta gizonen presentzia parekoa izanik.		
<b>1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1A.2.1.	Garraio publikoaren emakumezko erabiltzaileen gogobetetze-mailari buruzko diagnostikoa egitea.
Jakintza	1A.2.2.	Mugigarritasunari buruzko azterlanetan sexuaren aldagaia sartzeta.
Sentsibilizazioa	1A.2.3.	Garraio-sozietate publikoetako arduradunak sentsibilizatzea, emakumeek planifikazioan parte hartzeak duen garrantziari dagokionez.
Sentsibilizazioa	1A.2.4.	Emakumeak sentsibilizatzea, garraio publikoaren planifikazioarekin loturiko parte-hartze prozesuetan parte har dezaten, banaka nahiz kolektibo gisa.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.5.	Garraio publikoko konpainiei giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eskaintzea parte-hartze prozesuak eta sentsibilizazio-kanpainak egin ditzaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.6.	Garraio-sozietate publikoei aholkularitza eskaintzea prozesua garatzeko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.7.	Garraio publikoaren planifikazioa egiteko herritarrek parte hartzeko prozesuak garatzea, emakumeen presentzia nagusi izanik.
Araudia	1A.2.8.	Zerbitzua emakumezko erabiltzaileen premietara gehiago egokitzeko behar diren aldaketak egitea konpainien araudian.
Jarraipena	1A.2.9.	Parte-hartze prozesuetako proposamenetatik eratorritako aldaketak egin direla egiaztatzea.

<b>1A.3. HELBURUA:</b>		
Emakumeen presentzia areagotzea hirigintzaren, garraioaren eta ingurumenaren eremuetako kargu publikoetan eta teknikari karguetan, gutxienez 40-60 proportzioa lortu arte.		
<b>1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1A.3.1.	Hirigintzaren, garraioaren eta ingurumenaren eremuetako erabakiak hartzeko eta planifikazioko prozesuetan emakumeen presentziari buruzko diagnostikoa egitea.
Sentsibilizazioa	1A.3.2.	Prozesu horietan, emakumeen parte-hartzeari buruzko azterlanen emaitzak ezagutaraztea, batik bat kargu publikoei eta teknikariei.
Araudia	1A.3.3.	Hirigintzaren, ingurumenaren eta garraio publikoaren eremuetan, erabakiak hartzeko eta planifikazioko lan-talde guztietan emakumeen presentzia parekoa izan dadin beharrezko neurriak hartzeko eskakizuna txertatzea dagokion araudian edo legedian, betiere datozen 4 urteak parekotasun horretara hurbiltzeko aldiat hartuta.
Jarraipena	1A.3.4.	Araudia betetzen dela edo erabakiak hartzeko eta planifikazioko lan-taldeen parekotasuna txertatzeko ahaleginak egiten ari direla egiaztatzea.

**2. AHALDUNTZE PROGRAMA -2A-:  
EMAKUMEEK GUNE PUBLIKOARI EGINDAKO EKARPENA -GIZARTEAREN,  
KULTURAREN ETA HISTORIAREN ARLOKOA- ONARTZEA**

**2A.1. HELBURUA:**

Besteak beste, kaleen eta plazen izenaren bitartez, monumentuak eraikita edo eraikinei izena jarrita gizonei eta emakumeei egiten zaizkien gizarte-mailako omenaldiak orekatzea.

**2A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK**

<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	2A.1.1.	Kale, plaza eta parkeen izenak aztertzea, baita udalerrietako monumentuak eta elementu sinbolikoak ere, emakumeen aintzatespen sinbolikoaren maila ebaluatzeko.
Araudia	2A.1.2.	Kale-izendegirako izenak hautatzeko eta monumentuak eraikitzeko prozesuak arautzeko araudia sortzea, kaleei, plazei, monumentuei eta abarri emakumeen izenak jartzea sustatzearen.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.3.	Kale-izendegirako izenak, monumentuak eraikitzeko proposamenak eta abarrerako iradokizunak egiteko bideak sortzea herritarrentzat.
Sentsibilizazioa	2A.1.4.	Kale-izendegiaren eta monumentuen bitartez, emakumeen presentzia sinbolikoaren azterketaren emaitzen berri ematea herritarrei, baita proposamenak egiteko bideen berri ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.5.	Azterketaren emaitzak ezagutarazteko nahiz proposamenak egiteko garaian herritarren parte-hartzea sustatzeko behar diren baliabideak bermatzea.
Jarraipena	2A.1.6.	Kaleei, plazei, monumentuei... emakume-izena jartzeko prozesua ebaluatzea.



**BATERAGARRITASUNA ETA  
ERANTZUNKIDETASUNAREN  
ARDATZA**

<b>1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA – 1B–: HIRIKO ETA GARRAIOAREN AZPIEGITURAK EGOKITZEA NORBERAREN, FAMILIAREN ETA LAN ARLOKO BIZITZA BATERAGARRI EGITEKO, ETA NORBERAREN AUTONOMIA GARATZEKO</b>		
<b>1B.1. HELBURUA:</b>		
Familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitearren, hirigintzako plangintza- eta diseinu-irizpideak identifikatzea eta aplikatzea.		
<b>1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1B.1.1.	Hiriaren planifikazioarekin eta diseinuarekin loturik, familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko eragozpenei buruzko diagnostikoa egitea, eta batez ere, familia zaintzeko eta hein batean inoren laguntza behar dutenen autonomia garatzeko egiten diren lanak oztopatzen dituztenei buruz. Halaber, lehenasunezko neurriak identifikatu behar dira diagnostikoan.
Sentsibilizazioa	1B.1.2.	Horren inguruan egindako diagnostikoen emaitzak ezagutaraztea.
Prestakuntza	1B.1.3.	Hiriaren planifikazioaren eta diseinuaren arduradunei prestakuntza ematea, diagnostikoan identifikatutako hobekuntzak ezartzea ahalbidetzeko tresna egokiak eskaintze aldera.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.4.	Diagnostikoa eta prestakuntza egiteko, eta batik bat, hobekuntza ezartzeko behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak bermatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.5.	Diagnostikoan lehenasunezko zatitza identifikatutako hobekuntzak gauzatzea.
Jarraipena	1B.1.6.	Diagnostikoaren bitartez identifikaturiko lehenasunezko hobekuntzak egin direla egiaztatzea.
Sentsibilizazioa	1B.1.7.	Praktika on gisa gauzatutako hobekuntzak ezagutaraztea.
Araudia	1B.1.8.	Gune publiko berriak sortzeko edo daudenak egokitzeko garaian, planifikazioko eta diseinuko irizpide jakin batzuk betetzera behartzen duen araudia sortzea; irizpide horiek norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko lagungarri izango dira, eta batez ere, familia eta/edo inoren laguntza behar dutenak zaintzeko eta jendearen autonomia garatzea sustatzeko lanak gauzatzeari dagokionez.

<b>1B.2. HELBURUA:</b>		
Familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak aplikatzea garraio publikoan.		
<b>1B.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK</b>		
<b>Tresna</b>	<b>ID</b>	<b>Ekintza</b>
Jakintza	1B.2.1.	Herritarrek parte hartzeko prozesuetan eta diagnostikoetan identifikaturiko hobetzeko proposamenen bideragarritasuna aztertzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.2.2.	Identifikaturiko hobekuntzak ezartzeko behar diren baliabideak eskaintzea.
Sentsibilizazioa	1B.2.3.	Egindako hobekuntzen berri ematea eta praktika on gisa zabaltzea.
Jakintza	1B.2.4.	Egindako hobekuntzen eragina aztertzea.

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA -11-: EMAKUMEEN SEGURTASUNA ETA SEGURTASUN SENTSazioA HOBETZEA		
11.1. HELBURUA:		
Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren tokiak identifikatzea herrietan, neutralizatzeko neurriak ezartzearen. Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren toki berriak sortzea saihesteko irizpideak ezartzea.		
11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	11.1.1.	Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren herriko tokiak identifikatzeko diagnostikoa egitea, garraio publikoak barnean hartuta. Horretarako, herriko emakumeek parte hartu behar dute. Lehenetsunezko esku-hartzea eskatzen duten puntuak zehaztu behar dira.
Jakintza	11.1.2.	Segurtasunik gabeko toki horiek neutralizatzeko irtenbide eraginkorrak proposatzea.
Jakintza	11.1.3.	Gune publikoetan gertatzen den emakumeen aurkako indarkeriarekin loturiko delitu-jarduerari buruzko datuak eta txostenak aztertzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.4.	Diagnostikoarekin hasi eta eraldaketekin bukatu, prozesu osoa egiteko behar diren baliabideak bermatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.5.	Eraldaketak gauzatzea.
Sentsibilizazioa	11.1.6.	Prozesuaren emaitzen berri ematea eta praktika on gisa zabaltzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.7.	Segurtasunik gabeko tokiei buruzko herritarren kexak eta iradokizunak biltzeko zerbitzua sortzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.8.	Kexak eta iradokizunak biltzeko zerbitzua sortzeko baliabideak bermatzea.
Jarraipena	11.1.9.	Segurtasunik gabeko tokiak neutralizatzearen betetze-maila aztertzea.
Sentsibilizazioa	11.1.10.	Emakumeak sentsibilizatzea, gune publikoak baliatzeko beldurra arrazionaliza dezaten.
Araudia	11.1.11.	Hobetzeko edo eraldaketako esku-hartzeetan nahiz gune berriak eraikitzeke garaian aplikatu beharreko segurtasun-irizpideak txertatzea udal-araudian, genero-ikuspegitik begiratuta.
Araudia	11.1.12.	Hiriaren diseinu, planifikazio eta hobekuntzaren arduradunen, Herrizaingo Sailaren eta udaltzaingoaren arteko lankidetzak eta komunikazio-protokoloa sortzea.
Jarraipena	11.1.13.	Segurtasun-irizpideei dagokienez, araudia betetzen dela, eta kexa eta iradokizunei jaramon egiten zaiela ziurtatzeko jarraipena egitea.
Jarraipena	11.1.14.	Gune publikoan emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren eta emakumeen segurtasun-sentsazioa areagotzearen inguruan, hartu diren neurri, programa eta baliabideen berri ematea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari.

### 11.2. HELBURUA:

Behar izanez gero, indarkeriaren biktima diren emakumeen etxebizitza-eskaeraren %100 betetzea, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzerakoan edo etxebizitzarako sarbidean lehenasuna edo bestelako abantailaren bat emanda.

### 11.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.1.	Gizarte-etxebizitzen eta babes ofizialeko etxebizitzen ehuneko bat gordetzea indarkeriaren biktima diren emakumeentzat.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.2.	Gizarte-etxebizitzen eta babes ofizialeko etxebizitzen zozketetan kupo berezi bat sartzea tratatu txarren biktima diren emakumeentzat.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.3.	Harrera-etxebizitzetako egonaldia bete eta beste bizitokirik lortzeko aukerarik ez duten emakumei etxebizitzak esleitzea zuzenean, alokairu-erregimenean.
Jarraipena	11.2.4.	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kasuan, egindako esleipenen eta eskaeren jarraipena egitea, emakume horiei etxebizitza bermatzearren.
Jarraipena	11.2.5.	Tratatu txarren biktima diren emakumei gizarte-etxebizitzak eta babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko hartutako neurrien eta eskainitako baliabideen berri ematea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari.

0101. Jaurlaritzako Sailak  
0102. Erakunde Autonomiadunak  
0103. Elkarte publikoak

---

0201. Arabako Foru Aldundia  
0202. Bizkaiko Foru Aldundia  
0203. Gipuzkoako Foru Aldundia

---

0301. Arabako Udalak  
0302. Bizkaiko Udalak  
0303. Gipuzkoako Udalak  
0304. Eudel

---

0401. Emakume elkarteak  
0402. Kultur elkarteak  
0403. Gazte elkarteak  
0404. Kirol elkarteak  
0405. Osasun Elkarteak  
0406. Lankidetzarako gobernuz kanpoko elkarteak  
0407. Gizarte bazterketari buruz lan egiten duten gizarte elkarteak  
0408. Irakaskuntza elkarteak  
0409. Famili Elkarteak.  
0410. Bizilagun Elkarteak  
0411. Partidu politikoak  
0412. Sindikatuak  
0413. Emakume enpresarien Elkarteak  
0414. Enpresari Elkarteak  
0415. Garapen ekonomikorako ajentziak  
0416. Enpresak

---

0501. Administrazio Orokorra  
0502. Arabako Foru Administrazioa  
0503. Bizkaiko Foru Administrazioa  
0504. Gipuzkoako Foru Administrazioa  
0505. Arabako Udal Administrazioa  
0506. Bizkaiko Udal Administrazioa  
0507. Gipuzkoako Udal Administrazioa  
0508. Eudel

---

0601. Lehendakaritza  
0602. Jaurlaritzaren Lehendakariordetza, Ekonomia eta Ogasuna Saila  
0603. Justizi eta Herri Administrazio, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila  
0604. Herrizaingo Saila  
0605. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila  
0606. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
0607. Osasuna eta Kontsumoa Saila  
0608. Kultura Saila  
0609. Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila  
0610. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioak Saila  
0611. Enplegua eta Gizarte Gaiak Saila  
0612. Eusko Trenbideak  
0613. Emakunde  
0614. IVAP  
0615. Eustat  
0616. Osalan  
0617. Euskal Herriko Polizi-Ikastegia  
0618. SHEE - IVEF  
0619. Osakidetza  
0620. Egailan  
0621. EITB  
0622. Arabako Foru Administrazioa  
0623. Bizkaiko Foru Administrazioa  
0624. Gipuzkoako Foru Administrazioa  
0625. Arabako Udal Administrazioa  
0626. Bizkaiko Udal Administrazioa  
0627. Gipuzkoako Udal Administrazioa  
0628. EHU/UPV  
0629. Defentsoria  
0630. Arartekoa

---

0701. Gestioan edo/eta plangintzan ari diren profesionalak  
0702. Enplegu eta formakuntza programen ari diren profesionalak  
0703. Lan merkatuari buruzko ikerketetan ari diren profesionalak  
0704. Lanerako orientazio arloko profesionalak  
0705. Lanerako prestakuntza okupazional eta etengabekoan ari diren profesionalak  
0706. Lanaren ikuskapenean ari diren profesionalak  
0707. Kanpoko merkataritzaren profesionalak

---

0801. Lan-osasun arloko profesionalak

---

0901. Judikatura  
0902. Fiskalak

0903. Abokatuak

0904. Auzitegiko Medikuntza

---

1001. Zigor-erakundeetako profesionalak

---

1101. Famili bitartekaritza zerbitzuetako profesionalak

---

1201. Polizietako profesionalak (Ertzaintza, Udaltzaingoa)

---

1301. Haur Hezkuntzako irakasleoa

1302. Lehen Hezkuntzako irakasleoa

1303. Bigarren Hezkuntzako Irakasleoa

1304. Orientatzaileak

1305. Helduen Hezkuntzako Irakasleoa

1306. Pedagogi aholkularitza zerbitzuetako irakasleoa

1307. Hezkuntza-ikuskaritza

1308. Zuzendaritza taldeak

1309. Argitaletxeetako profesionalak (ikas-materialen eta testu liburuen argitaletxeak)

1310. Unibertsitateko irakasleoa

---

1401. Zerbitzu medikoetako profesionalak

1402. Toko-Ginekologia eta Familia plangintza zerbitzuetako profesionalak

1403. Adimen osasun zerbitzuetako profesionalak

1404. Tratu txarrak edo/eta eraso sexualak jasan dituztenei laguntza psikologikoa emateko zerbitzuetako profesionalak

---

1501. Astialdiko eskoletako irakasleoa

1502. Astialdiko profesionalak

1503. Komunikabideetan eta publizitatean ari diren profesionalak

1504. Soin Hezkuntzako irakasleoa

---

1601. Gizarte zerbitzuetako profesionalak

---

1701. Aukera berdintasun arloko profesionalak

---

1801. Gizartean bazterturik geratzeko arriskuan dauden nerabeak

1802. Nerabe haurdunak

1803. Titietako minbiziko arrisku egoeran dauden emakumeak

1804. Jateko ohitura aldaketa arrisku egoeran dauden emakumeak

1805. Tratu txarrak edo/eta eraso sexualak jasan dituzten emakumeak

1806. Tratu txarrak ematen dituztenak

1807. Langabezian dauden gazteak

1808. Langabezian dauden emakumeak

1809. Pobrezia laguntzak jasotzen dituzten emakumeak
  1810. Prostituzioan diharduten emakumeak
  1811. Emakume etorkinak
  1812. Preso dauden emakumeak
  1813. Menpekotasun arazoak dituzten emakumeak
  1814. Guraso bakarreko familiaren ardura duten emakumeak
  1815. Emakume bananduak edo dibortziatuak
  1816. Emakume alargunak
  1817. Nekazal munduko emakumeak
  1818. Prestakuntza gutxidun emakumeak
  1819. Goi-mailako prestakuntza duten emakumeak (lizentziatua edo antzeko maila)
  1820. Ordaindu gabeko lana bakarrik egiten duten emakumeak
  1821. Etorkizun iluneko ogibideetan diharduten emakumeak
  1822. Etxeko zerbitzuko lana egiten duten emakumeak
  1823. Produkzio lanean diharduten emakumeak (ordaindutako lana)
  1824. Lanean jazarpen sexuala pairatzen duten emakumeak
  1825. Ardura politikoa duten emakumeak
  1826. Emakume zuzendari edo enpresariak
  1827. Etxeko adinekoez edo gaixoez arduratu beharra duten familiak
  1828. Familia desegituratuak eta/edo arriskuan daudenak
  1829. Mugimendu murriztua duten emakumeak (ezintasun fisikoa)
- 

1901. Haurtzaroa neskak eta mutilak
  1902. Nerabeak (neskak eta mutilak)
  1903. Gazteak
  1904. Emakume helduak
  1905. Gizon helduak
  1906. Familiak
- 

2001. Estatuko aukera berdintasuneko erakundeak
  2002. Europako beste herrialde batzuetako emakume elkarteak
  2003. Beste autonomia erkidego batzuetako emakume elkarteak
  2004. Beste Herrialde Komunitarioko emakume elkarteak
  2005. Hegoaldeko Herrialdeetako emakume elkarteak
  2006. Aurreko taldeetan agertzen ez diren EAE kanpoko beste elkarteak
- 

2101. Besteak

